Le sigue en importancia el parque previsto en el Área 39 *Ubiotz* con 26.900 m^2 de superficie, situado en la periferia del casco de la villa, donde existe una dotación de huertas de ocio desde el mes de abril de 2017. Entre ambos representan el 68% de la dotación de espacios libres calificados, con el inconveniente de que no toda la superficie de ambos recintos es de titularidad pública. El resto corresponde a espacios de marcado carácter urbano, plazas o bulevares destacando las plazas de *Barrendain* (Área 13) con 11.481 m^2, el parque *José Migel Barandiaran* (Área 16) y el conjunto de *Igartza* y Dolarea (Áreas 18 y 19).

Ubiotz parkearen ikuspegi orokorra. 2016ko ortoargazki gaineko gutxi gorabeherako mugaketa.

Vista general del parque de Ubiotz. Delimitación aproximada sobre ortofoto del año 2016.

Espazio libre gisa urbanizatzeke dago 5.190 m^2 dituen Gipuzkoa plaza (Urbieta 8. Eremua).

Pendiente de urbanización como espacio libre se encuentra la plaza *Gipuzkoa* (Área 8 *Urbieta*) con 5.190 m^2 de superficie.

2007ko AA.SS.ek, bizitegi-eskaintza kalkulatzeko, 2005. urtean 12.756 biztanle zeudela aipatzen dute eta 13.107 biztanle aurreikusten dituzte 2012. urterako. 2017. urte bukaeran, EUSTATen arabera,13.965 biztanle zeuden.

Las NN.SS.(2007) establecen a los efectos de estimación de la oferta residencial, una población base de 12.756 habitantes, correspondiente al año 2005 y una población horizonte de 13.107 habitantes, estimada para el año 2012. A finales de 2017 la población según EUSTAT es de 13.965 habitantes.

Azken kopuru hori erabiliz gero, hau da Beasainerako espazio libreen ratioa biztanleko:

Utilizando esta última cifra, el ratio de espacios libres por habitante para el municipio de *Beasain* se sitúa en:

$$\frac{152.644}{13.965} = 10{,}93 \frac{m2}{biztanleko}$$

Hau da, AA.SS.ak onartu zirenean indarrean zegoen hirigintzako legediak eskatzen zuen 5 m^2/biztanleko gutxieneko ratioaren bikoitza.

Es decir el doble del ratio mínimo de 5 m^2/habitante que la legislación urbanística vigente en el momento de aprobación de las NN.SS. exigía.

Alabaina, kontuan hartu behar da kalifikatutako azaleraren %54 soilik dagoela hiri-lurzoru gainean eta azalera honen zati handi bat, hala nola Ubiotz (39-E) guneak eta Gipuzkoa plazak (8-E) ez dutela finkatutako urbanizaziorik.Lehen balorazio bat eginez, esan daiteke Beasainek, bere egitura orokorrean, espazio libreen proportzio txikia izan arren, kalifikatutako eremu guztiak ez daudela gaur egun beren zeregina betetzeko moduan, lur guztiak eskuratu ez direlako eta/edo urbanizazio eskasa dutelako espazio libre gisa.

Sin embargo debe tenerse en cuenta que sólo el 54% de la superficie calificada se sitúa sobre suelo urbano y que una buena parte de esta superficie, como son la zona de *Ubiotz* (A-39) y la plaza de *Gipuzkoa* (A-8) carecen de urbanización consolidada. Es por lo que haciendo una primera valoración, el municipio de *Beasain* en su estructura general, si bien presenta una ajustada proporción de espacios libres, no todos los ámbitos calificados están a fecha de hoy aptos para cumplir con su cometido, debido a que no se dispone de la totalidad de los terre-nos y/o cuentan con una precaria urbanización como tales.

1.2.2.2. EKIPAMENDUAK

Beasaingo plangintza orokorrean ezarritako ekipamenduen sistema orokorra, halaber, hiri-lurzoruko zenbait gunetan eta lurzoru urbanizaezinean kokatutako ekipamendutan banatzen da. Hau da bere banaketa hiri-lurzoruan:

1.2.2.2. LOS EQUIPAMIENTOS

El sistema general de equipamientos establecido en el planeamiento general de *Beasain* se distribuye también en varias zonas de suelo urbano y en equipamientos situados en suelo no urbanizable. En suelo urbano su distribución es la siguiente:

EKIPAMENDUEN SISTEMA OROKORRA — SISTEMA GENERAL DE EQUIPAMIENTOS

HIRI-LURZORU EREMUAK / *ÁREAS DE SUELO URBANO*	*E-1 Deportivo*	*E-2 Cívico/ Administrativo*	*E-3 Religioso*	*E-4 Escolar*	*E-5 Socio-Cultural*	*E-6 Sanitario/ asistencial*	*E-8 Sin determinar*	*TOTAL*
1-ALDE ZAHARRA		1.306	3.673	3.668	639			9.286
2-ZALDIZURRETA							2.518	2.518
4-ZAZPITURRIETA							908	908
7-SENPERE		4.342		10.012				14.354
8-URBIETA		2.823						2.823
10-ARANGOITI				9.685		5.674		15.359
18-IGARTZA	12.601							12.601
19-LOINAZPE				6.220				6.220
20-KIROLDEGIA	31.732							31.732
27-DOLAREA					6.680			6.680
37-EZKIAGA				7.603				7.603
39-UBIOTZ							7.390	7.390
41-OSASUN ETXEA						5.308		5.308
Guztira / *Total*	**43.333**	**8.471**	**3.673**	**37.188**	**7.319**	**10.982**	**10.816**	**122.782**
	E-1. Kirol ekipamendua	E-2 Zibikoa/ Administratiboa	E-3 Erlijiosoa	E-4 Eskola-ekip.	E-5 Sozio-Kulturala	E-6 Osasun/ Laguntza-ekip.	E-8 Zehaztu gabe	GUZTIRA

Kirol-ekipamenduak logikoki eremurik handiena hartzen du. Antzizar (20-E) udal kiroldegia da, eta igerileku estalia, estali gabea, zenbait kirol-pista eta Loinatzeko futbol-zelaia ditu. Sistema orokorraren kirol-zuzkidura Igartzako (18-E) multzoarekin osatzen da, zeinak futbol-zelaia eta *skatepark*a dituen.

El equipamiento deportivo es lógicamente el que ocupa una mayor extensión. Se trata del polideportivo municipal de *Antzizar* (A-20) dotado con piscina cubierta, al aire libre, diversas pistas polideportivas y el campo de fútbol de *Loinatz*. La dotación deportiva del sistema general se completa con el complejo de *Igartza* (A-18) dotado de campo de fútbol y skatepark.

Eskola-ekipamendua lurralde-hedadurarik handiena duen bigarren ekipamendua da. Ikastetxe hauek dira: haur, lehen eta bigarren irakaskuntzako La Salle San Jose ikastetxea (1-E); bigarren irakaskuntza eta batxilergoa eskaintzen dituen eta zereginak ikasteko gela duen Txindoki Alkartasuna istitutua, zeina bi egoitzatan banatuta dagoen (7-E eta 19-E); haur eta lehen irakaskuntzako Alkartasuna Lizeoa (10-E); haur eta lehen irakaskuntzako Murumendi Ikastetxea (37-E) eta haur irakaskuntzako Seaska Haurreskola (A-19).

El equipamiento escolar es el segundo equipamiento en extensión territorial. Se trata de los centros del *Colegio de La Salle San José* (A-1) con una oferta de educación infantil, primaria y secundaria; del instituto *Txindoki Alkartasuna* dispuesto en dos sedes (A-7 y A-19) con una oferta docente de educación secundaria, bachiller y aula de aprendizaje de tareas; el *Lizeo Alkartasuna* (A-10) con una oferta de enseñanza infantil y primaria; de *Murumendi Ikastetxea* (A-37) que dispone de educación infantil y primaria y la *Haurreskola Seaska* (A-19) dedicada a educación infantil.

Sistema orokorrera adskribatutako osasun-ekipamendua Beasaingo osasun-zentroa da. Goierri-Urola Garaia osasun-erakundearen barruan dago, eta medikuntza familiarra, pediatria, eritzaintza, emagina, odontologia, ginekologia, X izpiak, errehabilitazioa, buruko osasuna, espezialitatea eta larrialdi-zerbitzua ditu.

El equipamiento sanitario adscrito al sistema general se centra en el centro de salud de *Beasain* (A-41), centro integrado en la organización sanitaria de *Goierri-Alto Urola,* dotado de medicina familiar, pediatría, enfermería, matrona, odontología, ginecología, rayos X, rehabilitación, salud mental, especialidad y servicio de urgencias.

Laguntza-ekipamendua titulartasun publikoko Arangoiti Fundazioa (10-E) da. 63 ohe ditu, eta, ondoan, eguneko zentroa eta erretiratuen zentroa ditu lokal independentetan.

El equipamiento asistencial es el centro de titularidad pública destinado a residencia de personas mayores *Fundación Arangoiti* (A-10), dotada de 63 camas y que dispone en sus proximidades de centro de día y centro de jubilados en locales independientes.

Sistema orokorraren ekipamendu zibikoa eta administratiboa Beasaingo Udaletxearen multzoak (1-E) osatzen du. Udal-liburutegiaz gain, Musika Eskola eta udaltzaingoa ditu; Ertzaintzaren polizia-etxea (7-E) eta Gizarte Segurantzako Arreta eta Informazio Gunea (8-E), eta Urbieta arte plastikoen gunea.

El equipamiento cívico y administrativo del sistema general está compuesto por el conjunto del Ayuntamiento de *Beasain* (A-1), que contiene además la Biblioteca Municipal, la Musika Eskola y la policía municipal; la comisaría de la Ertzaintza (A-7) y el Centro de Atención e Información de la Seguridad Social (A-8), que dispone además de centro de artes plásticas *Urbieta*.

Ekipamendu sozio-kulturala burdinola, errota eta galtzada dituen Dolarea (27-E) multzoak osatzen du, eta Usurbe Antzokiak (1-E).

El equipamiento socio cultural lo componen el complejo *Dolarea* (A-27) con la ferrería, molino y calzada y *Usurbe Antzokia* (A-1)

Sistema Orokorrera adskribatutako ekipamendu erlijiosoa Jasokundeko Andre Maria parrokiaren multzoak osatzen du, apaizaren etxe ondoko eraikinak barne. Azkenik, ekipamendurako proposatutako hiru gune kalifikatzen dira Zaldizurreta (2-E) Zazpiturrieta (4-E) eta Ubiotz (39-E) eremuetan, baina ez da horien erabilera espezifikoa zehazten.

El equipamiento religioso adscrito al sistema general está compuesto por el conjunto de la parroquia de *Nuestra Señora de la Asunción* con sus edificios contiguos de la casa cural. Finalmente se califican tres zonas en las áreas de *Zaldizurreta* (A-2) *Zazpiturrieta* (A-4) y *Ubiotz* (A-39) propuestas para equipamiento sin concretar su uso específico.

Lurzoru urbanizagarrian ez dago aurreikusia ekipamenduen sistema orokorrera bideratutako lurzoru-erreserbarik.Alabaina, Usurbe mendi hegalean, udal-hilerria dago. Beasaingo biztanle gehienei ematen dio zerbitzua eta 7.203 m^2 ditu. Auzoek mota honetako azpiegiturak dituzte, baina txikiagoak dira. Nabarmentzekoak dira Astigarreta (290 m^2) eta Aratz-Matxinbenta (138 m^2) auzoetako lurzoru urbanizaezinean dauden hilerriak, zeinak sistema orokorrera adskribatuta baitaude 2007ko AA.SS.en seigarren aldaketatik aurrera.

En suelo urbanizable no está prevista ninguna reserva de suelo destinado al sistema general de equipamientos. En cambio, se localiza el equipamiento del cementerio municipal situado en la ladera del monte *Usurbe* que sirve a la mayor parte de la población de *Beasain* y tiene una extensión de 7.203 m^2. Los barrios cuentan con infraestructuras de este tipo pero con una menor ocupación, destacando los cementerios situados en suelo no urbanizable de los barrios de *Astigarreta* (290 m^2) y *Aratz-Matxinbenta* (138 m^2), adscritos al sistema general a partir de la sexta modificación de las NN.SS.(2007).

Beasaingo hilerriaren ikuspegi orokorra. 2016ko ortoargazki gaineko gutxi gorabeherako mugaketa.

Vista general del cementerio de Beasain. Delimitación aproximada sobre ortofoto del año 2016.

1.2.2.3. ZERBITZUEN AZPIEGITURAK

Zerbitzuen azpiegituren sistema orokorrera bideratutako lurzoru-okupaziorik handienak lurzoru urbanizaezinean daude.

Hiri-lurzoru eta lurzoru urbanizagarri gisa sailkatutako lurzorutan, hau da zerbitzuen azpiegituren sistema orokorrera bideratutako guneen banaketa:

HIRI-LURZORU EREMUAK *AREAS DE SUELO URBANO*	**Zerbitzuen azpiegituren S.O. (m^2)S.G. *Infraestructuras de Servicios (m^2)***
1-ALDE ZAHARRA	427
Guztira hiri-lurzoruan *Total en suelo urbano*	427
LURZORU URBANIZAGARRIKO SEKTOREAK *SECTORES DE SUELO URBANIZABLE*	
7-INDAR	3.779
8-ITURRALDE-TXIKI	2.642
Guztira lurzoru urbanizagarrian *Total en suelo urbanizable*	6.421
GUZTIRA / *TOTAL*	**6.848**

Hiri-lurzoruan, zerbitzuen azpiegituren sistema orokorra "Telefónica" konpainiaren eraikina (A-1) dagoen lurzorura mugatzen da. Lurzoru urbanizagarrian, presio altuko gas naturala erregulatzeko gunea birjartzeko aurreikusitako gunea (7. Sektorea) eta hondakinak tratatzeko Sasieta Mankomunitatearen garbigune-eraikina daude (8. Sektorea).

Lurzoru urbanizaezinean, lurzoru gehien kontsumitzen duen sistema orokorraren zuzkidura Sasieta hiri-hondakinak tratatzeko gunea eta eskualdeko zabortegia da (340.436 m^2). Zabortegi hau egun ixten ari dira eta, behin itxita, Gipuzkoako hiri-hondakinak kudeatzeko interes orokorra duten azpiegituretatik kanpo geratuko litzateke, Lurraldearen Sektoreko Planaren aldaketan ezarritakoaren arabera[9]. Transferentzia-guneari dagokionez, aldatutako Lurralde-aren Sektoreko Planak 2007ko AA.SS.etan aurreikusten den gunera leku aldatzea proposatzen du.

1.2.2.3. LAS INFRAESTRUCTURAS DE SERVICIOS

Las mayores ocupaciones de suelo destinadas al sistema general de infraestructuras de servicios se sitúan sobre suelo no urbanizable.

En suelos clasificados como urbano y urbanizable la distribución de las zonas destinadas a sistema general de infraestructuras de servicios es la siguiente:

En suelo urbano el sistema general de infraestructuras de servicios se limita al suelo ocupado por un edificio de la "Compañía Telefónica" (A-1). En suelo urbanizable se sitúan una zona prevista para la reposición de la estación reguladora de gas natural en alta presión (Sector 7) y un edificio de *garbigune de la Mancomunidad de Sasieta* para tratamiento de residuos. (Sector 8).
En suelo no urbanizable, la dotación del sistema general más consumidora de suelo es el vertedero comarcal y la zona de tratamiento de residuos sólidos urbanos de *Sasiet*a (340.436 m^2). Este vertedero se encuentra actualmente en fase de sellado y, una vez finalizado, quedaría fuera de las infraestructuras de interés general de gestión de residuos urbanos de *Gipuzkoa*, a tenor de lo establecido en la modificación del PTS[9] En lo que respecta a la estación de transferencia, el PTS modificado propone su traslado al interior de la zona prevista en las NN.SS.(2007).

[9] 9/2018 Foru Dekretua, apirilaren 10ekoa, Gipuzkoako Hiri Hondakinen Azpiegituren Lurralde Plan Sektorialaren aldaketa behin betiko onartzen duena. (2018ko apirilaren 13ko 71. GAO).
Se refiere al Decreto Foral 9/2018, de 10 de abril, por el que se aprueba definitivamente la Modificación del Plan Territorial Sectorial de Infraestructuras de Residuos Urbanos de Gipuzkoa. (BOG nº 71 de 13 de abril de 2018).



1. Garbigunea 8. sektorean. 2. Hondakinak tratatzeko gunea 2007ko AA.SS.etan. 3. Energia elektrikoa transformatzeko gunea. 4. Izaera industrialeko zabortegia. 2016ko ortoargazki gaineko gutxi gorabeherako mugaketak

1. Garbigune en el sector 8. 2. Zona de tratamiento de residuos en las NN.SS.(2007). 3. Centro de transformación de energía eléctrica. 4. Vertedero de carácter industrial. Delimitaciones aproximadas sobre ortofoto del año 2016.

Aurreko grafikoan, Sasieta zabortegiaren egoera 8. sektoreko garbigunearekin batera adierazten da –biak sistema orokorraren barruan daude– eta baita izaera industrialeko zabortegi baten eta energia elektrikoa transformatzeko gune batekin batera ere –ez daude sistema orokorraren barruan, baina lurralde-okupazio handia dute–.

En el gráfico anterior la situación del vertedero de *Sasieta* se representa junto al garbigune del sector 8, ambos incluidos en el sistema general y junto a un vertedero de carácter industrial y una estación transformadora de energía eléctrica, no incluidas en el sistema general pero con importantes ocupaciones del territorio.

Eskualdea urez hornitzeko Arriarango urtegiak (160.993 m^2), halaber, azalera handia du.

Siguiendo en extensión está el embalse de *Arriaran* (160.993 m^2) para abastecimiento de agua a la comarca.

Arriarango urtegiaren ikuspegi orokorra. 2016ko ortoargazki gaineko gutxi gorabeherako mugaketa.

Vista general del embalse de Arriaran. Delimitación aproximada sobre ortofoto del año 2016.

Edateko ura tratatzeko Arriarango gunea urtegitik gertu dago, eta 11.800 m^2-ko hedadura du.

La estación para tratamiento de agua potable (ETAP) se sitúa próxima al embalse y ocupa una extensión de 11.800 m^2.

Edateko ura tratatzeko Arriarango urtegiko gunea.

Estación para tratamiento de agua potable del embalse de Arriaran

Azpiegitura honetara adskribatuta, halaber, urez hornitzeko eta ura eramateko biderakетetarako osagai linealak daude, eta baita herri-gunea urez hornitzeko Loinatz, Sagastiguti eta Ugartemendi deposituak ere. Azken hauek lurzoru gutxi hartzen dute.

Adscritos también a esta infraestructura están los elementos de carácter lineal para canalizaciones para abastecimiento de agua y trasvases, así como los depósitos de *Loinatz, Sagastiguti* y *Ugartemendi* para abastecimiento de agua al centro de la villa, estos últimos con ocupaciones de suelo poco significativas.

Telekomunikazioko antenak dituzten guneak Usurben.

Estación de antenas de telecomunicación en Usurbe.

Oinarrizko azpiegituren arloan, 2007ko AA.SS.ek hondakin-uren saneamendu eta arazketa azpiegituretara eta energia elektrikoaren, gasaren eta telekomunikazioen hornidurara adskribatutako osagai linealak eta Usurben dagoen telekomunikazioko antenen gunea aipatzen dituzte, halaber.

En materia de infraestructuras básicas, las NN.SS.(2007) mencionan además los elementos lineales adscritos a las infraestructuras de saneamiento y depuración de aguas residuales, al suministro de energía eléctrica, de gas y de telecomunicación y la zona de antenas de telecomunicación situada en *Usurbe*.

1.2.2.4. IBAI-IBILGUAK

1.2.2.4 LOS CAUCES FLUVIALES

Beasaingo udalerriko %74 (2.224 Ha inguru) Oria ibaiaren arrora isurtzen ditu urak eta gainerako %26 (770 Ha) Urola ibaiaren arrora Ibaieder bere ibaiadarraren bidez. Biak dira isurialde kantauriarrekoak.

El 74% del territorio del término municipal de *Beasain* vierte a la cuenca del *Oria* con una cuenca tributaria de unas 2.224 Ha y el 26% restante (770 Ha) a la cuenca del *Urola* a través de su afluente el *Ibaieder,* ambas pertenecientes a la vertiente cantábrica.

Urola ibaiaren arroan, Ibaieder ibaiaz gain, Egurtza, Azerizulo, Errekaundieta, Atxabal, Sustatxo eta Egurrola errekak daude adierazgarrienetakoen artean. Oria ibaiaren arroan, Sarabiltxipi, Albitzuondo, Potostegi eta Arriaran errekak daude nagusiki, horiek guztiak Arriarango urtegiaren adarrak, eta behin

En la cuenca del Urola encontramos además del *Ibaieder* y las regatas de *Egurtza, Azerizulo, Errekaundieta, Atxabal, Sustatxo* y *Egurrola* entre las más representativas. En la cuenca del *Oria* nos encontramos con las regatas de *Sarabiltxipi, Albitzuondo, Potostegi* y *Arriaran* principalmente, todas ellas tributarias del

Zabalondo errekarekin elkartuta, Eztanda errekara isurtzen dituzte urak. Oria ibaiarekin bat egin aurretik, Eztanda errekak Saltsamendi erreka hartzen du.

Oria ibaiak, berriz, ezkerretik hartzen ditu San Martin, Arkabe, Untsain eta Mariarats errekak eta eskuinetik Basazabal, Tartatzu, Arizti errekak eta Agauntza ibaia.

Ibai-ibilguen sistema orokorraren azalera 8,94 hektareakoa da guztira horrela kalifikatutako hiri-lurzorutan eta lurzoru urbanizagarritan. Hau da ibai-ibilguen sistema orokorraren banaketa espaziala:

embalse de *Arriaran* y que una vez unidas a la regata de *Zabalondo* vierten al río *Eztanda*. Antes de su confluencia con el *Oria* el *Eztanda* recibe la regata de *Saltsamendi*.

El río *Oria* por su parte, recibe por la izquierda las regatas de *San Martin, Arkabe, Untsain y Mariarats* y por la derecha las regatas de *Basazabal, Tartatzu, Arizti* y el río *Agauntza*.

La superficie total del sistema general de cauces fluviales es de 8,94 Ha en zonas calificadas como tal en suelos urbano y urbanizable. Su distribución espacial es la siguiente:

HIRI-LURZORUKO EREMUAK / *ÁREAS SUELO URBANO*	IISO (m^2) *SGFL*
2-ZALDIZURRETA	9.107
6-CAF	19.528
7-SENPERE	1.921
8-URBIETA	5.281
18-IGARTZA	3.005
19-LOINAZPE	41
20-KIROLDEGIA	12.057
21-KATEA	1.857
22-EZTANDA	5.036
24-ANTZIZAR	2.032
26-SALBATORE II	7.487
29-ONDARRE	89
31-AGAUNTZA	1.128
32-ERREKARTE I	112
33-ZUMADI	11.325
35-GARIN-ENEA	470
38-IHURRE	2.949
39-UBIOTZ	558
44-ARRIARAN	575
47-ARATZ-MATXINBENTA	1.474
Guztira hiri-lurzoruan / *Total en suelo urbano*	86.032
LURZORU URBANIZAGARRIKO SEKTOREAK *SECTORES DE SUELO URBANIZABLE*	
2-ERREKARTE II	242
3-UGARTEMENDI	3.140
Guztira lurzoru urbanizagarrian / *Total en suelo urbanizable*	3.382
HIRI LURZORUA ETA LURZORU URBANIZAGARRIA GUZTIRA *TOTAL SUELOS URBANO Y URBANIZABLE*	**89.414**

Ez da zenbatu ibai-ibilguen sistema orokorraren azalera lurzoru urbanizaezinean.

No se ha contabilizado la superficie de sistema general de cauces fluviales en suelo no urbanizable.

1.2.2.5. BIDE-SAREA

2007ko AA.SS.etan, ibilgailuen, oinezkoen eta txirrindularien bide-sarearen tratamenduak Komunikazioen Sistema Orokorrari eragiten dio, eta hiru lurzoru moten artean banatzen da.

Udalplanen arabera, bide-sarearen azalera udalerrian 37,89 hektareakoa da[10], eta horietatik %40 inguru hiri-lurzoruan edo lurzoru urbanizagarrian dago.

Hiri-lurzoruan, egungo bide-sare guztia ez da sistema orokorrera adskribatzen. Hori Gipuzkoako foru-sareko errepideen zeharbideek, horiek hiri-bilbean dituzten luzapenek eta herri-gunea Ekialdetik Mendebaldera zeharkatzen duten bi ardatz nagusiek osatzen dute.

Lehen ardatza Oria Pasealekuak eta Ezkiaga, Jose Miguel Iturriotz, Zaldizurreta, Joan Iturralde, Trenbide Igartza eta Trenbide Usategi kaleek osatzen dute. Beste ardatza Joan XXIII, Zazpiturrieta, Esteban Lasa, San Ignacio, Oriamendi, Nabarro Larreategi, Dolarea, Igartza Oleta kaleek eta GI-2632 errepidearen zeharbideak osatutakoa da.

Hirugarren ardatz bat, hori ere sistema orokorrera adskribatua, eta aurrekoen Iparraldera dagoena, Zazpiturrieta kalea Bista Alai kalearekin lotzeko eta hau Andra Mari eta Erauskin kaleetatik Oriamendi kaleraino jarraitzeko 2007ko AA.SS.etan aurreikusten den jarduketak osatutakoa da.

Hau da eremu eta sektore desberdinen arteko bide-sarearen banaketa:

1.2.2.5. LA RED VIARIA

El tratamiento de la red viaria (rodada, peatonal y carriles bici) en las NN.SS.(2007) afecta al Sistema General de Comunicaciones (S.G.K.) se distribuye entre las tres clases de suelo.

Según Udalplan la superficie de la red viaria en el término municipal es de 37,89 Ha[11], de las que un 40% aproximadamente se sitúan sobre suelos clasificados como urbano o urbanizable.

En suelo urbano no toda la red viaria existente se adscribe al sistema general. Este se compone de las travesías de las carreteras de la red foral de *Gipuzkoa*, de sus prolongaciones en la trama urbana y de dos principales ejes que atraviesan el núcleo urbano principal de Este a Oeste.

Se trata del compuesto por *Oria Pasealekua y las calles Ezkiaga, José Miguel Iturriotz, Zaldizurreta, Joan Iturralde, Trenbide Igartza y Trenbide Usategi*. El otro eje es el compuesto por las calles *Joan XXIII, Zazpiturrieta, Esteban Lasa, San Ignacio, Oriamendi, Nabarro Larreategi, Dolarea, Igartza Oleta* y la travesía de la GI-2632.

Un tercer eje también adscrito al sistema general, al Norte de los anteriores, es el compuesto por una actuación prevista en las NN.SS.(2007) para la conexión de la calle *Zazpiturrieta* con *Bista Alai* y la continuación de esta por *Andra Mari y Erauskin* hasta *Oriamendi*.

La distribución de la red viaria entre las diferentes áreas y sectores es la siguiente:

[10] Udalplan aplikazioaren neurketa, 2017, Beasaingo udalerri osoaren Bide Sarearen Siste Orokorrerako.
Medición de la aplicación Udalplan, 2017, para el Sistema General de la Red Viaria del conjunto del término municipal de Beasain.

HIRI-LURZORU EREMUAK / *ÁREAS SUELO URBANO*	BSO (m^2) SGRV
1-ALDE ZAHARRA	13.834
2-ZALDIZURRETA	27.171
3-IGARTETXE	1.505
4-ZAZPITURRIETA	6.039
5-ARANTZAZU	944
6-CAF	7.645
7-SENPERE	10.339
8-URBIETA	6.976
10-ARANGOITI	1.256
11-LARDI	985
12-NEKOLALDE	2.092
13-BARRENDAIN I	6.606
14-BARRNEDAIN II	750
16-J.M.BARANDIARAN PLAZA	1.049
17-MENDEURREN	1.480
18-IGARTZA	4.189
20-KIROLDEGIA	4.557
21-KATEA	9.850
22-EZTANDA	6.231
24-ANTZIZAR	1.583
26-SALBATORE II	1.795
27-DOLAREA	2.277
29-ONDARRE	2.366
31-AGAUNTZA	632
35-GARIN-ENEA	1.404
36-BERNEDO-ENEA	20.945
37-EZKIAGA	3.487
39-UBIOTZ	1.450
40-ZELAETA-BERRI	458
43-GUDUGARRETA I	1.280
44-ARRIARAN	146
Guztira hiri-lurzoruan / *Total en suelo urbano*	**151.321**
LURZORU URBANIZAGARRIKO SEKTOREAK *SECTORES DE SUELO URBANIZABLE*	
8-ITURRALDE-TXIKI	4.685
Guztira lurzoru urbanizagarrian / *Total en suelo urbanizable*	**4.685**
HIRI LURZORUA ETA LURZORU URBANIZAGARRIA GUZTIRA ***TOTAL SUELOS URBANO Y URBANIZABLE***	**156.006**

Sistema orokorrera adskribatuta dagoen Gipuzkoako Foru-sarearen errepide-sarea errepide hauek osatzen dute:

La red viaria rodada perteneciente a la red Foral de *Gipuzkoa* y adscrita al sistema general está compuesta por las carreteras siguientes:

- Madriletik Irunera doan N-I errepideak, lehentasunezko interesa duen sare gorrikoak, Olaberriako udalerriaren mugatik Ordiziako udalerriaren mugara doan zatian.Horrek hartzen duen eremuaren bi heren gutxi gorabehera hiru-lurzoruan daude, eta Urbieta (A-8), Zaldizurreta (A-2) eta Bernedo Enea (A-36) eremua osatzen dute.
- Carretera N-I de *Madrid* a *Irún*, de la red roja de interés preferente, en el tramo que va del límite con el término municipal de *Olaberria* al límite con el término municipal de *Ordizia*. Aproximadamente dos tercios de su ocupación se sitúan sobre suelo clasificado como urbano formando parte de las áreas de *Urbieta* (A-8), *Zaldizurreta* (A-2) y *Bernedo Enea* (A-36).

- Beasainetik Durangora Kanpazarretik doan oinarrizko sare laranjako GI-632 errepideak, N-I errepidearekin elkartzen den gunetik Ormaiztegiko udalerriaren mugaraino doan zatian.Errepide honen ibilbide gehiena lurzoru urbanizaezinetik doa, Katea 21. Eremuari eta Iturralde Txiki 8. Sektoreari dagozkion biaduktuen azpian dauden bi gune txiki izan ezik.
- Carretera GI-632 de *Beasain* a *Durango* por *Kanpazar* de la red básica naranja, en el tramo que va desde su intersección con la N-I hasta el límite con el término municipal de *Ormaiztegi*. La mayor parte de su trazado discurre por suelo no urbanizable salvo dos pequeñas zonas situadas bajo viaductos que pertenecen al Área 21 de *Katea* y al Sector 8 de *Iturralde Txiki*.

- Beasainetik (N-I) Elorriora doan eskualdeko sare berdeko GI-2632 errepideak, Olaberriako udalerriaren mugatik Ormaiztegiko udalerriaren mugaraino doan zatian.Errepide honen ibilbide gehienak hartzen duen lurzorua lurzoru urbanizaezinean dago, Katea (A-21), Eztanda (A-22) eta Ubiotz (A-39) eremuen eta Salbatore II 26. Eremua osatzen duten bi zati izan ezik.
- Carretera GI-2632 de *Beasain* (N-I) a *Elorrio*, de la red comarcal verde, en el tramo que va del límite con el término municipal de *Olaberria* al límite con el término municipal de *Ormaiztegi*. El suelo ocupado por la mayor parte de su trazado se sitúa sobre suelo clasificado como no urbanizable, salvo dos tramos que forman parte de las áreas de *Katea* (A-21), *Eztanda* (A-22) y *Ubiotz* (A-39) y del Área 26 de *Salbatore II.*

- Azpeititik Beasainera (GI-2632) Mandubiatik doan eskualdeko sare berdeko GI-2635 errepideak, zeinak bitan zeharkatzen baitu udalerria.Urbanizaezin gisa sailkatzen den lurzoruan dago, Ondarre 29. Eremua osatzen duen zati txiki bat izan ezik.
- Carretera GI-2635 de *Azpeitia* a *Beasain* (GI-2632) por *Mandubia*, de la red comarcal verde, que cruza por dos veces el término municipal. Se sitúa sobre suelo clasificado como no urbanizable, salvo un pequeño tramo que forma parte del Área 29 de *Ondarre.*

- Lizarratik Beasainera (N-I) Lizarrustitik doan eskualdeko sare berdeko GI-2120 errepideak.Hiru-lurzoruan dagoen zati txiki bat da, eta Senpere (A-7) eta Zaldizurreta (A-2) eremuek osatzen dute.
- Carretera GI-2120 de *Estella* a *Beasain* (N-I) por *Lizarrusti*, de la red comarcal verde. Se trata de un pequeño tramo situado completamente sobre suelo clasificado como urbano que forma parte de las áreas de *Senpere* (A-7) y *Zaldizurreta* (A-2).

- Erauskin (Usurbe) auzora doan tokiko sare gris nagusiko GI-3191 errepideak.Garin Enea 35. Eremutik abiatzen da, eta hortik aurrera lurzoru urbanizaezinean dago.
- Carretera GI-3191 al barrio de *Erauskin (Usurbe*), de la red local gris principal. Arranca del Área 35 de *Garin Enea* y a partir de ahí toda ella se sitúa sobre suelo clasificado como no urbanizable.

- Arriaran, Garin eta Astigarretatik Mandubiako gainara doan tokiko sare gris nagusiko GI-3192 errepideak, zeina lurzoru urbanizaezinean baitago.
- Carretera GI-3192 al alto de *Mandubia* por los barrios de *Arriaran, Garin y Astigarreta*, de la red local gris principal, toda ella situada sobre suelo clasificado como no urbanizable.

- Beasaindik Lazkaora doan tokiko bigarren mailako sare griseko GI-4491 errepideak, zeina CAF 6. Eremuaren hiri-lurzoruan baitago.

2007ko AA.SS.ek zenbait ekintza aurreikusten dituzte bide-sarearen inguruan, hala nola Alde Zaharra 1. Eremuko kale batzuk oinezkoentzat egitea, errepide batzuen arteko elkarguneak hobetzea, bide berriak irekitzea eta oinezkoen eta txirrindularien sareko kale eta ibilbideak hobetzea.

Foru Aldundiaren errepideetan aurreikusitako jarduketa gehienak gauzatu dira, 2007ko AA.SS.etan aurreikusitako trazadura, kasu batzuetan, zertxobait desberdina izan arren. Egin gabe dago oraindik GI-2632 errepidea eta Igartza Oleta kalea lotuko dituen biribilgunea. Azken jarduketa honek Eztanda 22. eremuari eta Antzizar 24. eremuari eragiten die.

Egiteke daude, halaber, 2007ko AA.SS.etan aurreikusita dauden bi lotura garrantzitsu. Lehena, Nekolalde eta Erauskin kaleen arteko lotura da, eta Arangoiti 10. Eremuaren antolamenduari eragiten dio, eta bigarrena Bista Alai eta Zazpiturreta kaleen arteko lotura da, eta Igartetxe 3. Eremuari, Zazpiturreta 4. Eremuari eta Arantzazu 5. Eremuari eragiten die. Egin gabe dago, halaber, Gudugarretatik Loinazko baselizara sartzeko bide berria, zeina Auzoetako Hiria Antolatzeko Plan Berezia onartu ondoren antolamenduan sartzen baita.

Oinezkoen eta txirrindularien sarean, egin gabe dago oraindik Senpere 7. Eremuaren eta Urbieta 8. Eremuaren arteko lotura, eta GI-2632 errepidearekiko paralelo egongo diren espaloi baten eta bizikleta-errei baten eraikuntza, zeinak Katea 21. Eremuari eragiten baitio.

Bide-sarea landa-guneetara sartzeko errepide-sareekin osatzen da, eta baita landa-eremurako irisgarritasunari lotutako oinezkoen sarearekin ere. Lehenak bat egiten du GI-3191 eta GI-3192 foru-errepideen trazadurekin. Bigarrena izaera, ezaugarri eta titulartasun ezberdineko bideek osatzen dute, eta udalerriko lekuen arteko oinezkoen loturak ahalbidetzen ditu.

- Carretera GI-4491 de *Beasain* a *Lazkao*, de la red local gris secundaria, toda ella situada sobre suelo clasificado como urbano perteneciente al Área 6 de *CAF*.

Las NN.SS.(2007) prevén una serie de acciones en relación con la red viaria, tales como la peatonalización de diversas calles en el Área 1 *Aldezaharra*, mejoras de las intersecciones entre diversas carreteras, apertura de nuevos viales y diversas mejoras de calles y trazados de la red peatonal y ciclista.

La mayor parte de las actuaciones previstas en las carreteras de titularidad foral se han ejecutado si bien en algunos casos difieren ligeramente del trazado previsto en las NN.SS.(2007). Se encuentra pendiente de ejecución una rotonda de enlace entre la carretera GI-2632 y la calle *Igartza Oleta* que afecta a las áreas 22 *Eztanda* y 24 *Antzizar*.

Quedan también pendientes de ejecución dos importantes conexiones viarias previstas en las NN.SS.(2007). Se trata del enlace de las calles *Nekolalde* y *Erauskin*, que afecta a la ordenación del Área 10 *Arangoiti* y de la conexión de las calles *Bista Alai* y *Zazpiturreta*, que afecta a las áreas A-3 *Igartetxe*, A-4 *Zazpiturreta* y A-5 *Arantzazu*. Queda también pendiente la ejecución del nuevo acceso a la ermita de *Loinaz* desde *Gudugarreta*, que se incorpora a la ordenación una vez aprobado el Plan Especial de Ordenación Urbana de los Barrios.

En la red peatonal y ciclista se encuentra pendiente de ejecución de la conexión entre las áreas A-7 *Senpere* y A-8 *Urbieta* y la construcción de una acera y carril bici paralelos a la GI-2632 que afecta al Área 21 *Katea*.

La red viaria se complementa con las redes de acceso a los núcleos rurales (rodada) y con una red peatonal vinculada con la accesibilidad al territorio rural. La primera de ellas coincide con los trazados de las carreteras GI-3191 y GI-3192 de titularidad foral. La segunda consiste en una serie de caminos de diversa naturaleza, características del firme y titularidad que constituye facilita las conexiones peatonales entre puntos del término municipal.

Azpimarratzekoa da Mandubiako gaina eta Murumendiko gailurra lotzen dituen bidea, bide honen eta Usurbeko gainaren arteko lotura eta Beasaingo herri-gune nagusia inguratzen duen gerriko berdea[11].

Se destaca el camino de conexión entre el alto de *Mandubia* y la cumbre de *Murumendi*, la conexión de este camino con la cumbre e *Usurbe* y el llamado cinturón verde[11] que rodea el núcleo principal de *Beasain*.

1.2.2.6. TRENBIDE-SAREA

Trenbide-sareko sistema orokorra ADIFek kudeatzen dituen hiri-lurzoruko trazadurak eta bide-zabalguneak eta lurzoru urbanizaezinean dauden ADIFen trazadurak eta abiadura handiko trenbide-sare berriak osatzen dute.

UDALPLAN aplikazioaren arabera, trenbide-sarearen azalera udalerrian 8,84 hektareakoa[12] da; horietatik 5,82 hektarea hiri-lurzoruan daude, eta honela banatzen dira:

1.2.2.6. LA RED FERROVIARIA

El sistema general de la red ferroviaria comprende el trazado y playa de vías de la red gestionada por ADIF situados en suelos clasificados como urbano y el trazado de la red de ADIF y la nueva red ferroviaria en alta velocidad situados en suelos clasificados como no urbanizable.

Según la aplicación UDALPLAN la superficie de la red ferroviaria en el término municipal es de 8,84 Ha[12], de las que unas 5,82 Ha se sitúan sobre suelo urbano con la siguiente distribución.

HIRI-LURZORU EREMUAK / *ÁREAS SUELO URBANO*	BSO (m^2) SGRF
2-ZALDIZURRETA	2.524
4-ZAZPITURRIETA	136
6-CAF	8.941
8-URBIETA	6.238
13-BARRENDAIN I	40.338
GUZTIRA HIRI-LURZORUAN / TOTAL SUELO URBANO	**58.177**

Lurzoru urbanizaezinean, trenbide-sareak gainerako azalera hartzen du. Hori ez da oso handia beste sistema orokor batzuekin alderatuz gero; izan ere, bi trazaduren zati bat lur azpitik igarotzen baita.

En suelo no urbanizable la red ferroviaria ocupa el resto de la superficie. Esta no resulta muy significativa en comparación con la ocupación de otros sistemas generales ya que parte de los dos trazados discurre bajo la superficie.

Abiadura handiko linearen trazadurak Mendebaldetik Ekialdera zeharkatzen du udalerria 4.672 metroko luzeran; horietatik 1.046 metro bost biaduktu-tarteren gainetik doaz eta gainerakoa tunelen azpitik. Duen luzeragatik nabarmentzekoa da Ittolako biaduktua. 469 metroko luzera du, eta Ittola II 48. Eremuarekin egiten du muga Iparraldetik.

El trazado de la línea de alta velocidad cruza de Oeste a Este el término municipal en una longitud de 4.672 metros, de los que 1.046 metros se desarrollan sobre cinco tramos de viaducto y el resto bajo túneles. Por su longitud destaca el viaducto de *Ittola* con 469 metros de longitud colindante por el Norte del Área 48 *Ittola II*.

[11] Iparraldetik eta Hegoaldetik Altamirako hegaletik Beasaingo herri-gunea inguratzen duen oinezkoen bide-sarearen izena, 2007ko AA.SS.en seigarren aldaketaren ondorioz hartutakoa. GAO, 2011/02/17.
Denominación de la red de caminos peatonales que rodean el casco de *Beasain* por el Norte y por el Sur por la ladera de *Altamira*, que se adopta a raíz de la sexta modificación de las NN.SS.(2007). B.O.G. 17/02/2011

[12] Udalplan aplikazioaren neurketa, 2017, Beasaingo udalerri osoaren Trenbide Bide Sarearen Sistema Orokorrerako.
Medición de la aplicación Udalplan, 2017, para el Sistema General de la Red Ferroviaria del conjunto del término municipal de Beasain.

Hiri-lurzoruan, 2007ko AA.SS.ek aurreikusita dute oraindik gauzatu ez den hirigintza-ekintza bat, Beasaingo eta Ordiziako geltokien arteko bide-trazadura laburtzea eta hori N-I errepidearen autobiarekiko paralelo jartzea. Jarduketaren zatirik handiena Beasaingo lurretatik kanpo egingo den arrean, aurreikusitako antolamenduak Urbieta 8. Eremuari eta CAF 6. Eremuari eragiten die.

1.2.3. LURZORU URBANIZAEZINA

Beasaingo udalerriko lurzoru urbanizaezina bat dator hiri-lurzoru edo lurzoru urbanizagarri gisa sailkatuta ez dagoen gainerako lurzoruarekin.1994an Lurraldea Antolatzeko Gidalerroak onartzean, udalerriko lurzoru urbanizaezinaren kalifikazioak 2007ko AA.SS.etan, aipatutako gidalerroetan ezarritako kategorien sistematizazioa jarraitzen du.

Plangintzak bost landa-gune hauetan banatzen du lurzoru urbanizaezina:

- Paisaia eta ekologia aldetik babes berezia duen gunea (1L).
- Nekazaritza eta abeltzaintzako eta landazabaleko gunea (2L).
- Lur gaineko urek babesa duten gunea (3L).
- Ingurumen hobekuntzako gunea (4L).
- Baso-gunea (5L).

Plangintzak, Hirigintzako Arauen 3. kapituluan (82. artikulutik 106. artikulura), landa-gunetan aplikagarri diren xedapenak eta ordenantzak zehazten ditu. Aldez aurretik, 15. artikuluak gune bakoitzari dagokion eraikuntza- eta erabilera-erregimen orokorra ezartzen du.

Babes bereziko guneek 589,19 hektareako[13] hedadura dute guztira, hau da, udalerri osoaren %20 baino zertxobait gutxiago. Babes bereziko guneak dira naturaren aldetik interesgarria den Murumendi eremua eta baso autoktonoak hartzen dituzten guneak, eta eremu handi samarretan banatuta daude udalerri osoan zehar.

En suelo urbano las NN.SS.(2007) tienen previsto una acción urbanística que no se ha ejecutado y se refiere a acortar el trazado viario entre las estaciones de *Beasain* y *Ordizia*, situándolo paralelo a la autovía de la N-I. Si bien la mayor parte de esta actuación se desenvuelve fuera de los terrenos del término municipal de *Beasain*, la ordenación prevista afecta a las áreas A-8 *Urbieta* y A-6 *CAF*.

1.2.3. EL SUELO NO URBANIZABLE

El suelo no urbanizable -SNU en adelante- del término municipal de Beasain, corresponde al resto del suelo no clasificado como suelo urbano o urbanizable. Al aprobarse las Directrices de Ordenación del Territorio (DOTs) en el año 1994, la calificación del SNU del término municipal en las NN.SS.(2007) sigue la sistematización de las categorías establecidas en las DOTs.

El planeamiento divide el suelo no urbanizable en cinco zonas rurales denominadas:

- Zona de especial protección paisajística y ecológica (L1).
- Zona de vocación agroganadera y campiña (L2).
- Zona de protección de aguas superficiales (L3).
- Zona de mejora ambiental (L4).
- Zona forestal (L5).

El planeamiento establece en el capítulo tercero de las Normas Urbanísticas (art. 82 a 106) las disposiciones y ordenanzas que son de aplicación en las zonas rurales. Previamente el art. 15 establece el régimen general de edificación y uso a cada una de las zonas.

Las zonas de especial protección tienen una extensión total de 589,19 Ha[13] que vienen a representar algo menos del 20% territorio municipal. Comprenden el área de interés naturalístico de *Murumendi* y las zonas ocupadas por el bosque autóctono repartido en ámbitos, más o menos extensos, por todo el municipio.

[13] 2007ko AA.SS.en seigarren aldaketaren *Lurzoru urbanizaezinaren zonabanatzea.* II2-abcde- planoen arabera egindako neurketa eta lur azaleko uren babesari dagokion azalera alde batera utzita.
Medición efectuada sobre los planos II2-abcde-*Zonificación del suelo no urbanizable*, de la sexta de las modificaciones a las NN.SS.(2007) y excluyendo la superficie correspondiente a la protección de aguas superficiales.

Paisaia eta ekologia aldetik babes berezia duten guneetan, debekatuta dago edozein motako eraikuntza, eta, oro har, nekazaritza- eta baso-erabilera eta abeltzaintza estentsiboa ezartzen da nagusiki. Horiek horrela, debekatuta daude gainerako erabilera guztiak, zuhaitz-espezieak babesteko edo hobetzeko egiten ez diren mozketak barne.

En las zonas de especial protección paisajística y ecológica, se prohíbe cualquier tipo de edificación, se establece un régimen general de uso donde son predominantes los agrícolas, los forestales y la ganadería extensiva prohibiendo todos los demás usos, incluyendo las talas que no tengan por objeto la protección y mejora de las especies arbóreas.

Nekazaritza eta abeltzaintzako eta landazabaleko guneek 460,36 hektareako hedadura dute, hau da, lurraldearen %15 baino zertxobait gehiago.Oso aldapatsuak ez diren leku eguzkitsuenetan daude, landa-auzoen inguruetan eta bailara-hondoetan, hiri-lurzoruekin eta lurzoru urbanizagarriekin lehian.

Las zonas de vocación agroganadera y campiña tienen una extensión de 460,36 Ha, representando algo más del 15% del territorio. Se localizan en las zonas soleadas con menos pendiente, en los alrededores de los barrios rurales y en los fondos de valle en pugna con los suelos urbano y urbanizable.

Nekazaritza eta abeltzaintzako eta landazabaleko guneetan, lehendik dauden eraikuntzak finkatzen dira, leku desegokietan daudenak izan ezik, eta baimendutako erabileren arabera, askotariko tipologia duen eraikuntza isolatua baimentzen da oro har. Oro har, nekazaritza-, abeltzaintza- eta baso-erabilera ezartzen da nagusiki, eta erabilera hauek baimentzen dira: familia bakarreko edo bi familiako etxeak *"nekazaritza eta abeltzaintzako erabileraren"* osagarri gisa, hirugarren sektorerako erabilerak baldin eta lehendik dauden eraikinetan ezartzen badira, eta ekipamendu komunitariorako edo azpiegituretarako erabilerak, horiek ezartzea "*beharrezkoa"* edo "*egokia"* denean.

En las zonas de vocación agroganadera y campiña, se consolidan las construcciones existentes, con excepción de aquellas emplazadas en zonas no adecuadas, admitiéndose en función de los usos autorizados un régimen general de edificación aislada de tipología diversa. Se establece un régimen general de uso predominando los agrícolas, pecuarios y forestales y autorizándose el de vivienda unifamiliar o bifamiliar como auxiliar del "*uso agropecuario integral*", los usos terciarios siempre que se implanten en edificios existentes y los de equipamiento comunitario e infraestructuras cuando sea "*necesaria*" u "*oportuna*" su implantación en el medio rural.

Lur gaineko urek babesa duten gunea ur-lasterrek, ibaiek, errekek eta 200 metroko zabalera duen Arriarango urtegiko babes-zerrendak osatzen dute. Urtegiko ur-mailaren azalera alde batera utzita, 137,75 hektarea ditu, hau da, udalerriaren %5 gutxi gorabehera.

La zona de protección de aguas superficiales está formada por los márgenes de los cursos de agua, ríos, regatas y una franja de protección del embalse de *Arriaran* de 200 metros de anchura. Excluyendo la superficie de la propia lámina de agua del embalse, viene a ser una superficie de 137,75 Ha o el 5% aproxima-damente del término municipal.

Lur gaineko urek babesa duten gunean guztiz debekatuta dago edozein eraikuntza, eta aplikagarri zaizkion xedapen sektorialen araberako erabilera-erregimen orokorra ezartzen da.

En la zona de protección de aguas superficiales queda totalmente excluida cualquier edificación estableciéndose un régimen general de uso que va en función de las disposiciones sectoriales que le son de aplicación.

Baso-gunea udalerriko eremurik handiena da. 1.511,52 hektarea ditu, lurraldearen %50 baino zertxobait gehiago.

La zona forestal es la zona más extensa del término municipal. Con 1.511,52 Ha de exten-sión representa algo más del 50% del territorio.

Baso-guneetan, baso- eta abeltzaintza-erabileretarako eraikuntza isolatuak soilik baimentzen dituen eraikuntza-erregimen orokorra ezartzen da. Lehendik dauden eraikuntzak finkatzen dira, eta bere jarduera Euskal Autonomia Erkidegoan aplikagarri den legediari lotuta dago ustiatzeko, erabiltzeko eta eraikitzeko aukerei dagokienez.

En las zonas forestales se establece un régimen general de edificación que permite exclusivamente construcciones aisladas para usos forestales y ganaderos, consolidándose las edificaciones existentes y vinculando la actividad en sus posibilidades de explotación, usos y edificación a la legislación aplicable en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2007ko AA.SS.etan, ingurumen hobekuntzako guneen mugaketa ez da oso zehatza.Zenbait osagai aipatzen dira, hala nola Oria ibaiaren ibilgua, Arriarango arbel-harrobia, Altamira eta Aristrain eremuko eta Salbatore industrialdeko betelan zaharrak, zeinak batzuetan bat datoz sistema orokorrekin edo hiri-lurzoru edo lurzoru urbanizagarri gisa jada sailkatutako gunetan egin beharreko hobekuntzekin. Soilik arbel-harrobiak eta Aristraingo azpi-estazioak 11,81 hektarea hartzen dituzte, eta sistema orokorrek hartzen duten azalera gehituz gero, udalerriko %3 baino zertxobait gehiago osatzen dute.

En las NN.SS.(2007), las zonas de mejora ambiental no responden a una delimitación muy precisa. Se señalan diversos elementos como el cauce del rio *Oria*, la cantera de pizarra de *Arriaran*, antiguos rellenos en la zona de *Altamira* y *Aristrain* y en la zona del polígono industrial de *Salbatore*, que en ocasiones responden a sistemas generales o a mejoras a efectuar en zonas ya clasificadas como suelo urbano o urbanizable. Únicamente los elementos correspondientes a la cantera de pizarra y la subestación de la zona de *Aristrain* vienen a representar una ocupación de 11,81 Ha que unidos a la superficie ocupada por los sistemas generales, supone poco más del 3% del término municipal.

Ingurumen hobekuntzako guneetan, debekatuta dago edozein eraikuntza mota, eta erabilerak arautuko dituzten planak idaztearen alde egiten da. Nekazaritza- eta baso-erabilerak ezartzen dira nagusiki.

En las zonas de mejora ambiental se prohíbe cualquier tipo de edificación, propugnándose por efectuar planes de restauración que regulen los usos. Predominantemente se señalan los agrícolas y forestales.

Hau da, laburbilduta, banaketa espaziala:

Un resumen de esta distribución espacial es el siguiente:

- Paisaia eta ekologia aldetik babes berezia duen gunea (1L). *Zona de especial protección paisajística y ecológica (L1).*	589,19 Ha	19,68%
- Nekazaritza eta abeltzaintzako eta landazabaleko gunea (2L). *Zona de vocación agroganadera y campiña (L2).*	460,36 Ha	15,38%
- Lur gaineko urek babesa duten gunea (3L) *Zona de protección de aguas superficiales (L3).*	137,75 Ha	4,60%
- Ingurumen hobekuntzako gunea (4L). Eta sistema orokorrak *Zona de mejora ambiental (L4) y sistemas generales*	96,24 Ha	3,21%
- Baso-gunea (5L). *Zona forestal (L5).*	1.511,52 Ha	50,49%
- **Lurzoru urbanizaezina guztira / *Total SNU***	**2.795,06 Ha**	**93,36%**

1.2.4. BIZITEGITARAKO, JARDUERA EKONOMIKOETARAKO ETA EKIPAMENDUETARAKO EREMUAK ETA SEKTOREAK

Guztira 199,65 hektareako hedadurarekin, hiri-lurzoruan eta lurzoru urbanizagarrian dauden bizitegitarako, jarduera ekonomikoetarako eta ekipamenduetarako eremuek eta sektoreek hartutako lurzoruak udalerriko gainerako %6,67 dira.

Hiri-lurzoruan, eremu hauek dira:

1.2.4. ÁREAS Y SECTORES RESIDENCIALES, DE ACTIVIDADES ECONÓMICAS Y DE EQUIPAMIENTOS.

Con una extensión total de 199,65 Ha, los suelos ocupados por las áreas y sectores residenciales, de actividades económicas y de equipamientos, situados en suelo urbano y urbanizable representan el 6,67% restante del término municipal.

En suelo clasificado como urbano, se trata de las áreas siguientes:

EREMUAREN IZENA / *DENOMINACIÓN DEL AREA*	**AZALERA (m^2) *SUPERFICIE***
1-ALDE ZAHARRA	85.375
2-ZALDIZURRETA	54.862
3-IGARTETXE	25.356
4-ZAZPITURRIETA	26.685
5-ARANTZAZU	14.603
6-CAF	165.296
7-SENPERE	45.875
8-URBIETA	37.851
9-URBIALDE	6.907
10-ARANGOITI	29.604
11-LARDI	5.997
12-NEKOLALDE	34.745
13-BARRENDAIN I	68.110
14-BARRNEDAIN II	8.658
15-FORU KALEA	14.488
16-J.M.BARANDIARAN PLAZA	21.672
17-MENDEURREN	16.112
18-IGARTZA	54.083
19-LOINAZPE	49.186
20-KIROLDEGIA	51.268
21-KATEA	33.332
22-EZTANDA	48.642
23-GUDUGARRETA II	31.844
24-ANTZIZAR	16.654
25-IRIGOIEN	46.465
26-SALBATORE II	56.377
27-DOLAREA	38.187
28-SALBATORE I	3.113
29-ONDARRE	55.008
30-ANTZIZAR II	4.451
31-AGAUNTZA	14.428
32-ERREKARTE I	8.243
33-ZUMADI	40.615
34-DR.FLEMING	13.447

EREMUAREN IZENA / *DENOMINACIÓN DEL AREA*	**AZALERA (m^2) *SUPERFICIE***
35-GARIN-ENEA	13.473
36-BERNEDO-ENEA	48.199
37-EZKIAGA	69.828
38-IHURRE	118.147
39-UBIOTZ	36.298
40-ZELAETA-BERRI	14.184
41-OSASUN ETXEA	5.308
42-MARIARATS	4.117
43-GUDUGARRETA I	18.437
44-ARRIARAN	15.998
45-GARIN	17.088
46-ASTIGARRETA	11.183
47-ARATZ-MATXINBENTA	10.532
48-ITTOLA II	27.840
Hiri-lurzoru eremuak guztira / *Total áreas de suelo urbano*	**1.638.170**

Lurzoru urbanizagarrian, sektore hauek mugatzen dira:

En suelo clasificado como suelo urbanizable se delimitan los sectores siguientes:

SEKTOREAREN IZENA / *DENOMINACIÓN DEL SECTOR*	**AZALERA (m^2) *SUPERFICIE***
1-ARIZMENDI	17.005
2-ERREKARTE II	7.671
3-UGARTEMENDI	73.541
6-ITOLA	40.998
7-INDAR	162.689
8-ITURRALDE-TXIKI	49.341
Lurzoru urbanizagarriko sektoreak guztira *Total sectores de suelo urbanizable*	**351.245**

Beraz, hiri-lurzoruek eta lurzoru urbanizagarriek 1.989.415 m^2 hartzen dituzte guztira. Hurrengo orrialdeetan, eremu horietako bakoitzaren azterketa xehatua eta lehen diagnostikoa egin dugu.

Siendo, por tanto, 1.989.415 m^2 la superficie total ocupada por los suelos urbano y urbanizable. En las páginas siguientes se efectúa un análisis más pormenorizado de cada uno de estos ámbitos, efectuándose un primer diagnóstico.

ÁREA 1 (Aldezaharra)

EREMUAREN AZALERA 85.375 m^2 **SUPERFICIE DEL ÁREA**

AZALPENA:
Beasaingo hiriguneko eremu batekin bat dator. Bertan Udaletxea, Jasokundeko Andra Mariaren eliza eta La Salle eta San José ikastetxeetako hezkuntzarako ekipamenduak daude, besteak beste.

DESCRIPCIÓN:
Corresponde a un ámbito central del núcleo urbano de Beasain donde se encuentra el Ayuntamiento de la villa, la iglesia de Nuestra Señora de la Asunción y los equipamientos docentes de La Salle y San José entre otros.

ANTOLAKUNTZA OROKORRAREN AGIRIA
2007ko AA.OO. (Behin betiko Onespena: 2007/10/16). GAO 2007/11/06

DOCUMENTO DE ORDENACIÓN GENERAL
NN.SS. de 2007. (Aprobación Definitiva: 16/10/2007). BOG 06/11/2007

HIRIGINTZA SAILKAPENA
Hiri lurzorua

CLASIFICACIÓN URBANÍSTICA
Suelo urbano

KALIFIKAZIO GLOBALA
Batez ere Alde Zaharreko bizitegi zona (1-B). Baita ere, bide-sareen, ekipamenduen eta espazio libreen sistema orokorra. (San Martin Plaza besteak beste)

CALIFICACIÓN GLOBAL
El planeamiento vigente se adapta a esta realidad física considerando además la situación de los barrios de *Aratz-Matxinbenta, Astigarreta, Garin* y *Arriaran*, situados fuera de dichos corredores.

Considera también los elementos de carácter supramunicipal como el vertedero de *Sasieta* y el embalse y ETAP de *Arriaran*, incluidos dentro del término municipal, y los ámbitos naturalísticos y patrimoniales que son de interés y actúan como vertebradores de la ordenación.

Las actuaciones de mayor calado dentro de la estructura general se centran en la red ferroviaria con la propuesta de acortamiento del trayecto entre *Beasain* y *Ordizia* y en actuaciones de ampliación y mejora de las travesías de la red viaria dentro de la trama urbana como la conexión entre *Arantzazu (A-5), Zazpiturrieta (A-4) e Igartetxe (A-3)*, de iniciativa municipal y las mejoras de las intersecciones en la red viaria de titularidad foral.

De las actuaciones previstas únicamente se han ejecutado las de iniciativa foral, a excepción de la rotonda de enlace entre la carretera GI-2632 y la calle *Igartza Oleta*, a la que ya se ha hecho mención en el apartado 2.2.2.5.

Plangintzak trenbide-sarearen eta bide-sarearen inguruan egiten dituen proposamenak bat datoz Euskal Herriko errepideen eta trenbideen plangintza sektorialaren lurralde-xedapenekin[71]. Plangintza hori 2007ko AA.SSak indarrean sartu ondoren onartu zen. Alabaina, lurralde-plangintza partzialean badira bi proposamen trenbide-sarearen eta bide-sarearen inguruan, zeinak, gauzatuz gero, 2007ko AA.SSen aurreikuspenak baldintzatuko bailituzkete plangintzaren zenbait eremutan.

Jarduketa horiek zuzenean eta erabat eragingo lukete Barrendain I (A-13), Zumadi (A-33) eta Bernedo-Enea (A-36) hirigintzako eremuen antolamenduan, eta, neurri handiago edo txikiago batean, Zaldizurreta (A-2), Osasun Etxea (A-41), Igartza (A-18) eta Antzizar II (A-30) hirigintzako eremuetarako finkatzen den antolamenduan, aurreikusitako jarduketekin muga egiten baitute. Horien guztein artean lurzoru-zuzkidura handia osatzen dute, 17 hektarea baino zertxobait gehiago, hau da, hiri-lurzoruaren %11.

Zeharka, eremu horien antolamenduak Zumadin eta Bernedo Enean dauden enpresen lekualdaketa ekarriko luke berekin, eta beharrezkoa izango litzateke jarduera ekonomiko-etarako lurzoru berriak gehitzea, eta, aitzitik, sailkatutako bizitegitarako lurzoru batzuk ez lirateke beharrezkoak izango, lurralde-plangintzan aurreikusitako hiri-leheneratzeak eragindako eremuak berrantolatuko liratekeelako.

Egoera hori indarreko plangintzan aurreikusten den hiri-egituraren birplanteamendu sakona da, lurralde-eredu desberdin bat, eta egungo autobia Oria ibaiaren ezkerraldeko ertzera desbideratu ahal izateko dirua dagoela eta egun estatuko administrazioarenak diren beharrezko lur gehienak (egungo bide-zabalgunea) kudea daitezkeela bermatu behar da.

Las propuestas del planeamiento con respecto a las redes viaria y ferroviaria están en sintonía con las disposiciones territoriales de la planificación sectorial, de carreteras y ferroviaria en el País Vasco, y del planeamiento territorial parcial[71] aprobado con posterioridad a la entrada en vigor de las NN.SS.(2007). Sin embargo, hay dos propuestas en el planeamiento territorial parcial, referidas a la red viaria y a la red ferroviaria que, en caso de llevarse a cabo, condicionarían las previsiones de las NN.SS.(2007) en varios ámbitos de planeamiento.

Estas actuaciones incidirían directa y totalmente en la ordenación de los ámbitos urbanísticos de *Barrendain I (A-13)*, *Zumadi (A-33)* y *Bernedo-Enea (A-36)* y afectarán en mayor o menor parte a la ordenación establecida para *Zaldizurreta (A-2)*, *Osasun Etxea (A-41)*, *Igartza (A-18)* y *Antzizar II (A-30)* que son colindantes con las actuaciones previstas. Entre todas ellas completan una importante dotación de suelo, de algo más de 17 Ha de superficie, que viene a representar el 11% del suelo clasificado como urbano.

De manera indirecta, la reordenación de estos ámbitos supondría el traslado de las empresas situadas en *Zumadi* y *Bernedo Enea*, siendo necesaria la incorporación de nuevos suelos para actividades económicas y, al contrario, algunos de los suelos residenciales clasificados no serían necesarios al reordenarse los ámbitos afectados por la regeneración urbana prevista en el planeamiento territorial.

Esta situación representa un importante replanteamiento de la estructura urbana prevista en el planeamiento vigente, un diferente modelo territorial que debe estar garantizado por la disponibilidad económica para afrontar el desvío de la autovía actual a la margen derecha del río *Oria* y por la gestión de la mayor parte de los terrenos necesarios que hoy en día pertenecen a la administración del estado (actual playa de vías).

[71] Beasain-Zumarraga Eremu Funtzionaleko Lurraldearen Plan Partziala. 2009ko urriaren 29ko 280. EHAA.
Se refieren al Plan Territorial Parcial del Área Funcional Beasain-Zumárraga. B.O.P.V. nº 208, de 29 de octubre de 2009.

1.3.3. LURZORUAREN SAILKAPENA.

Indarreko plangintzak hiri-lurzoru, lurzoru urbanizagarri eta lurzoru urbanizaezin gisa sailkatzen du udalerri osoa. Hiri-lurzoru sailkapenak errealitate objektibo bati erantzuten dio, hau da, lurzoruari buruzko 2/2006 Legearen 11.1 a) artikuluan aipatzen diren gutxieneko zerbitzuak edukitzeari, edo, zerbitzuetako batzuk eduki ez arren, beren antolamendua finkatuta edukitzeari, eraikuntzak, gutxienez, hirigintza-antolamenduaren arabera izendatzen zaien eremu baliagarrien bi herenak okupatzeagatik.

Bidezko izango da lursailak urbanizagarri bezala sailkatzea[72] hiri-bilbean sartuta ez dauden arren edo oraindik sartzeko modukoak ez diren arren, egoki irizten zaienean eraldatu ondoren hirigintza-erabileren bermaleku izateko. Proportzio-erlazio egoki eta zuzena eduki beharko dute udalerri horretan aurreikusitako biztanle-hazkundearekin, eramangarritasun-printzipioaren arabera. Horretarako, udalerri horrek zer harrera-ahalmen duen hartu beharko da kontuan.

Lurzoru bat hiri-lurzoru gisa sailkatzeko aurreikusten diren bi aukeretako edozein betetzen da 2007ko AA.SSetan sailkatutako lurzoru guztian, –gure ustez– Ubiotz (A-39) eremua izan ezik, non zaila izango litzatekeen Lurzoruari buruzko 2/2006 Legearen 11. artikuluak finkatzen dituen baldintzak justifikatzea, Eztanda ibaiaren eskuinaldeko ertzean dauden lurretan behintzat.

Hala ere, lur horiek espazio libreen sistema orokorrera bideratuta daude, eta Lurzoruari buruzko 2/2006 Legearen 139. artikuluan aurreikusten diren *"zuzkidura publikoak egikaritzeko jarduketen"* baliokidea izango litzatekeenaren bidez lor daitezke; beraz, ondo sailkatuta egotearen garrantziak ia ez du eraginik[73].

1.3.3. LA CLASIFICACIÓN DEL SUELO.

El planeamiento vigente clasifica la totalidad del término municipal en urbano, urbanizable sectorizado y no urbanizable. La clasificación del suelo como urbano responde a una realidad objetiva que es la de contar con los servicios mínimos que hoy en día se establecen en el artículo 11.1a) de la Ley 2/2006 del suelo, o cuando no contando con alguno de los servicios tengan su ordenación consolidada por ocupar la edificación al menos dos tercios de los espacios aptos para la misma según la ordenación urbanística que se proponga.

La clasificación de suelo como urbanizable[72] procede en los terrenos que no estando integrados en la trama urbana ni siendo aún integrables en ella, se consideren idóneos para servir de soporte, previa su transformación urbanística, a usos urbanísticos que guarden, conforme al principio de sostenibilidad, adecuada y directa proporción con las previsiones de crecimiento poblacional en el municipio, considerando su capacidad de acogida.

Cualquiera de las dos opciones previstas para clasificar un suelo como urbano se cumplen en las NN.SS.(2007) en la totalidad del suelo clasificado, a excepción –a nuestro juicio- del área de *Ubiotz* (A-39), donde resultaría difícil justificar las condiciones a que se refiere el art. 11 de la Ley 2/2006 del Suelo, al menos en los terrenos situados en la margen derecha del *Eztanda*.

No obstante, estos terrenos están destinados a sistema general de espacios libres, obtenibles mediante lo que sería el equivalente a *"actuaciones de ejecución de dotaciones públicas"* de las previstas en el art. 139 de la Ley 2/2006 del Suelo, por lo que la importancia de su correcta clasificación apenas tiene incidencia[73].

[72] Ikusi lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 14. artikulua.
Véase el art. 14 de la Ley 2/2006 del suelo y urbanismo.

[73] Nolanahi ere, finkatu gabeko hiri-lurzoru bat izango litzateke; beraz, hori baloratzeko, ekainaren 20ko 2/2008 Errege Dekretu Legegilearen 12. artikuluan deskribatutako landa-lurzoruaren oinarrizko egoeran egongo litzateke. 2008ko ekainaren 16ko 154. EAO –Lurzoruari buruzko estatuko Legea–.
Se trataría en cualquier caso de un suelo urbano no consolidado, por lo que, a los efectos de su valoración, estaría en la situación básica de suelo rural descrita en el art. 12 del RDL 2/2008, de 20 de junio. BOE nº 154 del 16 de junio de 2008 -Ley del suelo estatal-.

Zenbait lur hiri-lurzoru gisa sailkatu beharraren arrazoia izan daiteke etxebizitza babestuen estandarren eskakizunetan dauden aldeak –txikiagoak hiri-lurzoruan lurzoru urbanizagarrian baino–, baina horrek ere ez du zentzurik kasu honetan, ez delako bizitegitarako lurzorua.

El forzar la clasificación como suelo urbano de determinados terrenos puede obedecer a las diferencias en los requisitos de estándares de vivienda protegida exigibles, menores en suelo urbano que en urbanizable, que tampoco tiene sentido considerar en este caso por no ser un suelo residencial.

Indarreko plangintzan lurzoru urbanizagarri gisa sailkatuta dauden sei sektoreetatik hiru jarduera ekonomikoetarako dira, eta urbanizatuta daude izapidetu diren garapen-plangintzaren eta proiektuen arabera. Beraz, horien sailkapenaren egokitasuna nabaria da.

De los seis sectores clasificados como suelo urbanizable en el planeamiento vigente, tres de ellos son para actividades económicas y cuentan con la urbanización ejecutada de acuerdo al planeamiento de desarrollo y los proyectos que han sido tramitados. Por tanto la oportunidad de su clasificación es evidente.

Gainerako hiru sektoreak bizitegitarako lurzoruak dira, ibai-ibilguek hartzen dituzten eremu txiki batzuk izan ezik, eta 2007ko AA.SSetan aurreikusten den etxebizitza-kopuruari dagokionez, bizitegi-eskaintza berriaren %40ari erantzuten diote. Hiruek muga egiten dute hiri-lurzoruekin, eta kasuistika desberdinak dituzte.

Los otros tres sectores son suelos totalmente residenciales, salvo unas pequeñas superficies ocupadas por cauces fluviales, que vienen a cubrir el 40% de la nueva oferta residencial, referida al número de viviendas, prevista en las NN.SS.(2007). Los tres se sitúan en colindancia con suelos clasificados como urbano presentando, no obstante, diferentes casuísticas.

Arizmendi S-1 sektoreak ozta-ozta erantzuten dio bizitegi-eskaintza berriaren %2ari, eta kasu honetan lursail isolatuan dauden familia bateko edo bi familiako etxebizitzei dagokien R-5 tipologia du. Lurzoru asko kontsumitzen duen eskaintza izateaz gain, antolamendu xehatuak irisgarritasun-arazoak ditu ibilgailu motorizaturik gabe herrigunera sartzeko, eta ondoan dagoen Fleming (A-34) eremuaren garapenaren erabateko menpekotasuna du. Azken eremu hau guztiz egikaritu behar da ibilgailuak sektorera baldintza egokietan sar daitezen. Lurzoru urbanizagarria gisa sailkatzea, beraz, zalantzan jartzeko modukoa izango litzateke.

El sector *S-1 Arizmendi*, apenas cubre el 2% de la nueva oferta residencial, prevista en este caso con una tipología R-5 que corresponde a viviendas unifamiliares o bifamiliares en parcela aislada. Además de ser una oferta muy consumidora de suelo, la ordenación pormenorizada presenta problemas de accesibilidad para acceder al casco urbano sin vehículo motorizado y una total dependencia del desarrollo del área colindante de *Fleming (A-34)* que previamente debe ejecutarse totalmente para facilitar, en adecuadas condiciones, el acceso rodado al sector. Su clasificación como suelo urbanizable quedaría por tanto cuestionada.

Errekarte II *S*-2 sektoreak bizitegi-eskaintza berriaren %2a baino zertxobait gehiagori erantzuten dio. Egun (2018) egikaritzen ari diren izen bereko Errekarte I (A-32) eremuaren ondoan dago. Onartutako garapen-plangintzak batez ere R-3 –bloke linealean– tipologia antolatzen du, nahiz eta bi familiako etxebizitzen garapen txiki bat baimendu finkatuta geratzen den eraikin baten Mendebaldean. Azken hori da sektore honen antolamenduan zalantzan jartzen dena; izan ere, garapen-plangintzak zaku-hondoan amaitzen duen bide batetik sarbidea duten bi familiako bi bloke antolatzen ditu. Antolamendu hori zaila da egungo hiri-bilbearekin

El sector *S-2 Errekarte II*, cubre algo más del 2% de la nueva oferta residencial. Se sitúa en colindancia con el área homónima *Errekarte I (A-32),* que actualmente (2018) está en ejecución. El planeamiento de desarrollo aprobado ordena una tipología mayoritaria R-3 – en bloque lineal - si bien permite un pequeño desarrollo de viviendas bifamiliares al Oeste de un edificio existente que queda consolidado. Es esto último lo que se cuestiona en la ordenación de este sector, ya que el planeamiento de desarrollo ordena dos bloques bifamiliares a los que se accede a través de un vial en fondo de saco de difícil integración con la trama urbana existente y que parece destinado a dejar

integratzeko, irekita uzten ditu duen malda handia dela-eta eraikitzeko egokiak ez diren lurzorutan etorkizunean zabaltzeko aukerak eta Errekarte kaleko dentsitate txikiko egungo etxebizitzen atzean bigarren lerro baten eraikuntza ekarriko luke berekin. Finkatutako eraikinaren Ekialdean, aurreikusitako eraikigarritasun gehiena dago, bloke lineal bakar batean, eremurik lauena eta bide-trazadura baten bihurgunearen barrualdea aprobetxatuz.Horregatik, soilik sektore horretan zalantzan jartzen da bere mugaketa, batez ere finkatzen den eraikinaren Mendebaldean.

abiertas las expectativas a futuras ampliaciones sobre suelos poco aptos para la edificación por su elevada pendiente y que supondría la construcción de una segunda línea tras las actuales viviendas de baja densidad de la calle *Errekarte*. Al Este del edificio consolidado se sitúa la mayor parte de la edificabilidad prevista, en un único bloque lineal, aprovechando la zona más llana y el interior de la curva de un trazado viario. Es por lo que únicamente en este sector se pone en cuestión su delimitación, principalmente al Oeste del edificio que se consolidada.

Bizitegi-eskaintzaren %36 Ugartemendi S-3 sektorean dago. Zazpi hektareatik gora dituen eremua da, 2007ko AA.SSetan antolatutako bizitegi-lurzoru guztiaren %11 eta antolatutako bizitegitarako hirigintza-eraikigarritasun osoaren %8,8 da, 531 etxebizitza berriren baliokidea.

El 36% de la nueva oferta residencial se sitúa en el sector *S-3 Ugartemendi*. Territorialmente se trata de una superficie de más de siete hectáreas que representa el 11% de todo el suelo residencial ordenado en las NN.SS.(2007) y el 8,8% de la totalidad de la edificabilidad urbanística residencial ordenada, que equivale a 531 nuevas viviendas.

Sektoreak muga egiten du Lazkaoko udalerriarekin Hegoaldetik eta Ekialdetik.Urbanizagarri gisa sailkatzeko egokitasuna Beasain-Zumarraga Eremu Funtzionaleko Lurraldearen Plan Partzialak proposatzen duen lurralde-ereduak bermatzen du. Eredu horrek, halaber, Lazkaoko udalerriko lur mugakideei eragiten die. Lazkaoko plangintza orokorra[74] 2008. urtekoa da, Beasaingoaren ondorengoa, eta biak dira Lurraldearen Plan Partzialaren behin betiko onarpenaren aurrekoak baina garaikideak bere proposamenen ezagutzan, eztabaidan eta balorazioan.

El sector es colindante con el término municipal de *Lazkao* por el Sur y por el Este. La oportunidad de su clasificación como urbanizable está avalada por el modelo territorial que propone el *P.T.P. del Área Funcional Beasain-Zumárraga*, modelo que también afecta a los terrenos colindantes del municipio de *Lazkao.* El planeamiento general de *Lazkao*[74] data del año 2008, posterior al de *Beasain* y ambos son anteriores a la aprobación definitiva del P.T.P. pero coetáneos en el conocimiento, discusión y valoración de sus propuestas.

Paradoxikoki, Lazkaoko udalerriak bere plangintza orokorrean, industria-sailkapenarekin antolatzen du Fundiciones Beasain S-3 sektorearekin muga egiten duen Hiribarren 3 hirigintza-jarduerarako eremua, bere dokumentazio grafikoan informatzeko baino ez sartu arren Beasaingo 2007ko AA.SSetan aurreikusitako bizitegi-antolamendua.Bestalde, Beasaingo 2007ko AA.SSek itxuraz bizitegi-antolamendu bat jasotzen dute Lazkaoko eremu mugakide horretan bertan, udalerri horretarako gerora onartutakotik oso urruti. Inkoherentzia hori are gehiago nabarmentzen da S-3 sektorearen plan

Paradójicamente el municipio de *Lazkao* en su planeamiento general, ordena el área *AIU 3 Fundiciones Hiribarren* colindante con el *sector S-3* de *Beasain* con una calificación industrial, a pesar de incluir a título informativo en su documentación gráfica la ordenación residencial prevista en las NN.SS.(2007) de *Beasain*. Por su parte las NN.SS.(2007) de *Beasain* recogen una ordenación aparentemente residencial en ese mismo área colindante de *Lazkao*, muy lejos de la aprobada posteriormente para este municipio, acentuándose aún más esta incoherencia con la aprobación definitiva del

[74] Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak 2008ko abenduaren 23an behin betiko onartu zuen Lazkaoko Plangintzako Arau Subsidiarioen Testu Bategina. 2009ko otsailaren 19ko 33. GAO.
Texto Refundido de las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Lazkao, aprobado definitivamente por el Consejo de Diputados de la Diputación Foral de Gipuzkoa el 23 de diciembre de 2008. BOG nº 33 del 19/02/2009.

partzialaren behin betiko onarpenarekin.

Udal-plangintzak bateragarri egitea Lurraldea Antolatzeko Gidalerroetan[75] jasotzen da, baina ez da loteslea Beasain-Zumarraga Eremu Funtzionaleko Lurraldearen Plan Partzialerako.Alabaina, gidalerro hori Lurraldearen Plan Partzialean jasotzen da azkenean, eta beraz, bi udalerrietan aurreikusitako kokalekuen egikaritzea beren plangintzak bat egitearekin lotzen da.

S-3 sektorea ia distantzia berean dago Lazkaoko eta Beasango herriguneetatik, eta ondorioz, esan dezakegu, hartuko den edozein ekimen bi udalerrietan eragina izango duela eta, hala badagokio, bi udalerrientzat erakargarria izango dela.

Bestalde, mugatutako sektorean gune lauak, ibilguen ondoan dauden guneak eta hegalean dauden guneak daude, non lurralde-eremu hori antolatzeko aldebakarreko aukerak ez duen oso bideragarri egiten bere harrera-ahalmena kontuan hartzea.Horren adibidea da S-3 sektorerako onartutako antolamendu xehatua.

Antolamendu xehatuan, erabilera eta jabari publikoko espazio libreek eraikinen atzealdeak eta erabiltezinak egiten dituzten malda handiko lekuak hartzen dituzte.Zuzkidura publiko bat denaren kontsiderazio koherente bati baino, normalean bide-lasterren trazaduretan azaltzen diren hondar-txatalei dagokie.

Eremuen eta sektoreen egikaritzean lehentasun batzuk finkatzea dakarren plangintzan aurreikusitako jarduketen programazioa gure lurzoruaren legediaren berritasunetako bat da[76]. Zentzu honetan, ez da praktikoa herrigunetik urrutien dauden sektoreak egikaritzen hastea, aurretik herriaren erdian aurreikusita dauden jarduketa gehienak gutxienez egikaritu arte.

S-3 sektoreari buruzko hausnarketa horiek guztiak bere sailkapenaren edo, hala badagokio, dimentsioaren egokitasuna erakusten dute, behintzat, Beasaingo udalerriari dagokionez, eta baita sailkatutako lurren

plan parcial del sector S-3.

La compatibilización de los planeamientos municipales está recogida en las *Directrices de Ordenación Territorial*[75] aunque de manera no vinculante para el P.T.P. de *Beasain-Zumarraga*. Pero esa directriz es adoptada finalmente en el propio P.T.P., vinculando por tanto la ejecución de los asentamientos previstos en ambos municipios a la compatibilización de su planeamiento.

El sector S-3 se sitúa en una posición prácticamente equidistante de los centros urbanos de *Lazkao* y de *Beasain* dando pié a considerar que cualquier iniciativa que se adopte va a afectar y, en su caso, resultar atractiva a ambos municipios.

Por otra parte existen en el sector delimitado zonas llanas, zonas próximas a cauces y zonas en ladera, donde la opción unilateral de ordenar ese ámbito territorial por cualquiera de los municipios hace poco viable considerar su capacidad de acogida. Prueba de ello es la ordena-ción pormenorizada aprobada para el sector S-3.

En la ordenación pormenorizada, los espacios libres de uso y dominio público ocupan traseras de edificios y espacios con grandes pendientes que los hacen inutilizables. Son más propios de los retales residuales que aparecen habitualmente en los trazados de vías rápidas que de una coherente consideración de lo que es una dotación pública y de lo que representa.

La programación de las actuaciones previstas en el planeamiento, estableciendo en consecuencia unas prioridades en la ejecución de áreas y sectores es una de las novedades de nuestra legislación del suelo[76] En este sentido no resulta práctico comenzar con la ejecución de los sectores más alejados del centro urbano sin que previamente se hayan ejecutado al menos la mayor parte de las actuaciones previstas en el centro de la población.

Todas estas reflexiones acerca del sector S-3, vienen a indicar la oportunidad de su clasificación o, en su caso, de su dimensión al menos en lo que respecta al término municipal de *Beasain*, de reconsiderar la capacidad de acogida

75 Ikusi Lurraldea Antolatzeko Gidalerroen 19. eta 22.2. kapituluak. 1997ko irailaren 12ko 29. EHAA.
Véanse los capítulos 19 y 22.2 de las Directrices de Ordenación Territorial. B.O.P.V. nº 29 del 12 de septiembre de 1997.

76 Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen zioen azalpenaren III. atala.
Véase el apartado III de la exposición de motivos de la Ley 2/2006 del suelo y urbanismo del País Vasco.

harrera-ahalmena birpentsatzeko, babestu beharreko osagaiekiko elkarrekintza eta mugak kontuan hartzeko, mugakideak diren udalen plangintzak bateragarri egiteko eta proposatuko diren jarduketak programatzeko egokitasuna ere.
Laburbilduz, eta bizitegitarako lurzoru urbanizagarriko hiru sektoreetarako esandakoa izan ezik, 2007ko AA.SSetan finkatzen den lurzoruaren sailkapena zuzena da oro har.

1.3.4. LURZORUAREN KALIFIKAZIOA

2007ko AA.SSek bizitegitarako erabilera orokorrei, jarduera ekonomikoetarako erabilerei, sistema orokorrak hartzen dituzten guneei eta landa-guneei dagokien kalifikazioa finkatzen dute.

Bizitegitarako guneak honela banatzen dira kokalekuaren tipologiaren arabera:

- Bizitegi-guneak alde zaharrean (R-1). Non erabat finkatuta dauden egungo bizitegitarako eraikuntza-garapenak zaindu eta birgaitu nahi diren, haien morfologia espaziala eta eraikuntzakoa zorrotz errespetatuz. Erabilerak mugatuak dira, eta soilik industria-erabilera, 1. kategorian, eta hirugarren sektorerako erabilera 2. kategorian baimentzen da.
- Bizitegi-guneak blokean etxadian (R-2). Jada garatuak dauden nahiz garapen berrikoak diren guneak dira. Tipologiari dagokionez, etxadi bat osatzen duten blokeak dira, non lehendik dauden eraikinak finkatzen diren eta proiektu berezien bidez antolatzen diren. Industria-erabileraren eta hirugarren sektorerako erabileraren permisibitatea handiagoa da: 1. eta 2. kategoriak eta 2. eta 4. kategoriak baimentzen dira, hurrenez hurren.
- Bizitegi-guneak bloke linealean (R-3). Jada garatuak dauden eta garapen berrikoak diren guneak dira. Tipologiari dagokionez, altueran eraikitako bloke isolatuak dira, non lehendik dauden eraikinak finkatzen diren eta eraikin berrien bolumetria antolamendu bereziko proiektu baten bidez arautzen den. Industria-erabileraren eta hirugarren sektorerako erabileraren erregimena R-2 aurreko gunearenaren antzekoa da.
- Garapen txikiko bizitegi-guneak (R-4). Jada garatuak dauden eta garapen berrikoak diren

de los suelos clasificados, de tener en cuenta los límites y la iteración con elementos naturales a proteger, de la compatibilización de los planes de municipios colindantes y de la programación de las actuaciones que se propongan.
Resumiendo este apartado y a excepción de lo expuesto para los tres sectores de suelo urbanizable para uso residencial, la clasificación del suelo establecida en las NN.SS.(2007) se puede considerar correcta a rasgos generales.

1.3.4. LA CALIFICACIÓN DEL SUELO.

Las NN.SS.(2007) establecen una calificación que corresponde a usos globales residenciales, de actividades económicas, zonas ocupadas por sistemas generales y zonas rurales.

Las zonas residenciales se dividen a su vez en función de la tipología del asentamiento en:

- Zonas residenciales casco antiguo (R-1). Donde se persigue la preservación y rehabilitación de los desarrollos edificatorios residenciales plenamente consolidados y existentes, respetando de forma rigurosa su morfología espacial y edificatoria. Presenta una limitación de usos permitiendo el industrial, sólo en categoría 1ª, y terciario, sólo en categoría 2ª.
- Zonas residenciales en bloque en manzana (R-2). Se trata tanto de zonas ya desarrolladas como de nuevo desarrollo que responden a una tipología de bloques en altura formando una manzana, donde se consolidan los edificios existentes y se propugna su ordenación a través de proyectos específicos. Presentan una mayor permisividad de usos industrial (categorías 1ª y 2ª) y terciario (categorías 2ª y 3ª).
- Zonas residenciales en bloque lineal (R-3). Son zonas ya desarrolladas y de nuevo desarrollo que responden a una tipología de bloques en altura aislados, consolidándose los edificios existentes y regulando la volumetría de la nueva edificación a través de un proyecto de ordenación específico, con un régimen similar a la zona anterior R-2 respecto a los usos industrial y terciario.
- Zonas residenciales de bajo desarrollo (R-4). Son zonas ya desarrolladas y de nuevo

guneak dira, zeinak familia bakarreko edo bi familiako etxebizitzen tipologian oinarrituz eraiki beharko diren. Etxebizitza isolatuak, elkarri atxikiak edo bloke exentuak dira, eta berdegune pribatuak dituzte inguruan. Hirugarren sektorerako erabilerak baimentzen dira, baina industria-erabilerak debekatzen dira.

- Bizitegi-guneak lursail isolatuan (R-5). Jada garatuak dauden eta garapen berrikoak diren guneak dira, zeinak familia bakarreko edo bi familiako etxebizitzen tipologian oinarrituz eraiki beharko diren. Etxebizitza isolatuak dira, eta berdegune pribatuak dituzte inguruan. Erabilera-erregimena aurrekoarenaren antzekoa da.

Kokalekuaren tipologiaren arabera, halaber, jarduera ekonomikoko guneak honela banatzen dira:

- Jarduera ekonomiko produktiboen guneak lursail isolatuan (A.E.1). Lursail isolatuek osatutako guneak dira, enpresa bakar batenak diren tipologia desberdinetako eraikin eta instalazio industrialak jada hartzen dituztenak edo hartzea aurreikusten dituztenak. Eraikin eta instalazio horien tamaina ertaina edo handia da, eta lursailaren barruan lekua dago maniobratzeko eta aparkatzeko. Lehendik dauden eraikin eta instalazioak finkatzen dira, eta antolamendu bereziko proiektu baten bidez arautzen dira eraikuntza-aprobetxamendu berrien aukerak edo ezarpen-baldintzak garapen berrien kasuan. Industria-erabilera kategoria guztiak baimentzen dira.
- Jarduera ekonomiko produktiboen guneak mehelin artean (A.E.2). Mehelin artean eraikita dauden eraikinak dituzten industrialdeak dira, jada garatuak eta garapen berrikoak. Gune hauek eraikuntza-moduluak dituzte mehelin artean, zeinak kaleko eta atzeko fatxadako lerrokaduratan bermatzen diren eta lursail osoa hartzen duten normalean. Eraikuntza lursail-ordenantzen bidez arautzen da, eta garapen berrien kasuan, bide-bilbea, etxadi-lerrokadurak eta partzelazio-baldintzak zehaztuko dituen antolamendu-proiektu bat formulatu behar da aurretik. Industria-erabilera kategoria guztiak baimentzen dira, 5. kategoria izan ezik, produktu industrialak edo parekatuak

desarrollo que deberán edificarse en base a una tipología de viviendas unifamiliares o bifamiliares aisladas, adosadas o bloque exento, etc., con zonas verdes privadas en su entorno. Se autorizan los usos terciarios pero se prohíben los industriales.

- Zonas residenciales en parcela aislada (R-5). Se trata de zonas ya desarrolladas y de nuevo desarrollo que deberán edificarse en base a una tipología de viviendas unifamiliares o bifamiliares aisladas, con zonas verdes privadas en su entorno, con un régimen de usos similar a la anterior.

También en función de la tipología del asentamiento las zonas de actividades económicas se dividen en:

- Zonas de actividades económicas productivas en parcela aislada (A.E.1). Son zonas constituidas por parcelas aisladas, ocupadas o de ocupación prevista, por construcciones e instalaciones industriales de tipologías diversas, pertenecientes a una sola empresa, de tamaño medio o grande, con espacio de maniobra y aparcamiento en el interior de la parcela, que se consolida, regulándose las posibilidades de nuevos aprovechamientos edificatorios o las condiciones de implantación en los casos de nuevo desarrollo por medio de un proyecto ordenador específico, permitiéndose todas las categorías de uso industrial.
- Zonas de actividades económicas productivas entre medianeras (A.E.2). Se trata de zonas industriales de edificación entre medianeras, ya desarrolladas y de nuevo desarrollo constituida por módulos de edificación entre medianeras que se apoyan sobre alineaciones de calle y fachada trasera, llegando a ocupar generalmente la totalidad de parcela, regulándose la edificación a través de ordenanzas de parcela, previa formulación en los casos de nuevo desarrollo, de un proyecto de ordenación que defina la trama viaria, las alineaciones de manzana y las condiciones de parcelación. Se permiten todas las categorías de uso industrial salvo la categoría 5ª, se autorizan los almacenes

edo merkaturatzen dituzten txikizkako merkataritza-biltegiak edo saltokiak (2., 3. eta 4. kategoriak), ostalaritzako erabilerak eta bulegoak baimentzen dira.

- Zerbitzu desberdinetako jarduera ekonomikoen guneak (A.E.3). Eremu bakoitzerako zehazten diren hirugarren sektorerako erabilera orokor edo zehatzetara bideratzen diren guneak dira, eta eraikuntza-erregimen berezia dute. Nagusiki hirugarren sektorerako erabilera baimentzen da modalitate guztietan, 5. kategoriako merkataritza-erabilerak izan ezik, eta industria-erabilerak baimentzen dira (1., 2. eta 3. kategoriak).
- Saltoki handiak dituen jarduera ekonomikoen gunea (A.E.4). Merkataritza-gune handiak jartzera bideratuta daude –5. kategoriako merkataritza-erabilerak eta, horiei lotutako bestelako erabilerak–, eta industria-erabilerak (1., 2. eta 3. kategoriak, soilik zerbitzuguneak) eta hirugarren sektorerako erabilerak baimentzen dira.

Aurreko ataletan[77] jada zerrendatu dira sistema orokorren eta landa-guneen banaketak.

Bizitegi-kalifikazioari dagokionez, itxuraz nahiko azpibanatua dago, ia ez dagoelako desberdintasunik batetik R-2 eta R-3 kategorien arteko eta bestetik R-4 eta R-5 kategorien arteko erabilera-baldintzatzaileen artean. Oro har bat dator egungo errealitatearekin, eta erabilera-graduazioa egokia da R-1 blokeetan, R-2 eta R-3 multzoan eta R-4 eta R-5 multzoan.

Industria-kalifikazioan, egiten den banaketa oso egokia da; izan ere, banatu egiten dira enpresa bakar batek hartzen dituen guneak, zenbait enpresari edo ezarpen desberdinei eragiten dieten industrialdeak –ohikoagoak–, enpresa gutxiago dituzten hirugarren sektorera zuzendutako guneak eta merkataritza-gune handietarako pentsatutako guneak.

Egitura orokorraren zati denez, sistema orokor gehienak 2.3.2. atalean baloratu dira. Espazio libreen sistema orokorrerako, diagnostiko txiki bat egin dugu 2.2.2.1. atalean, eta ondorioztatu dugu eskatzen dena baino estandar handiago

comerciales o comercios al por menor que comercialicen productos industriales o asimilados (categorías 2ª, 3ª y 4ª), los usos hosteleros y oficinas.

- Zonas de actividades económicas servicios diversos (A.E.3). Son zonas que se destinan a los usos terciarios, genéricos o específicos, definidos para cada Área y responden a un régimen de edificación singularizado. Se permite un uso predominante terciario en todas sus modalidades, con excepción de los usos comerciales de 5ª categoría y se autorizan los industriales (categoría 1ª, 2ª y 3ª).
- Zonas de actividades económicas gran superficie comercial (A.E.4). Destinadas a la implantación de grandes superficies comerciales - usos comerciales de 5ª categoría - y, otros usos asociados, autorizándose los usos industriales (categoría 1ª, 2ª y 3ª únicamente estaciones de servicio) y terciarios.

En apartados anteriores[77] ya se han relacionado las divisiones de los sistemas generales y las zonas rurales.

Con respecto a la calificación de residencial, aparentemente se encuentra bastante subdividida ya que apenas se producen diferencias en los condicionantes de uso entre las categorías R-2 y R-3 por un lado y las categorías R-4 y R-5 por otro lado. En general se ajusta a la realidad existente, estableciendo una adecuada graduación de usos permitidos al menos en los bloques R-1, en el conjunto R-2 y R-3 y en el conjunto R-4 y R-5.

En la calificación industrial, la división que se efectúa es muy adecuada al segregar las zonas ocupadas por una única empresa, las zonas industriales, más al uso, que afectan a varias empresas o implantaciones diversas, las zonas de usos terciarios con menor presencia industrial y las zonas pensadas para grandes superficies.

Al formar parte de la estructura general, la mayor parte de los sistemas generales se han valorado en el apartado 2.3.2. Para el sistema general de espacios libres se ha elaborado un pequeño diagnóstico en el apartado 2.2.2.1,

[77] Ikusi sistema memoria honen 2.2.2. atala orokorren deskribapenerako eta lurzoru urbanizaezinaren inguruko 2.2.3. atala.
Véase el apartado 2.2.2 de esta memoria para la descripción de los sistemas generales y el apartado 2.2.3 acerca del suelo no urbanizable.

batera iristen dela udalerri osoan, baina gabezia batzuekin espazio horien urbanizazio-mailan eta halakotzat jotzeko garaian.

concluyendo que se llega a un estándar superior al mínimo exigible en el conjunto del término municipal, pero con algunas deficiencias en el grado de urbanización de dichos espacios y su consideración como tales.

Sistema orokorrera adskribatutako arauzko zuzkidura[78] 5 m^2-koa da biztanleko edo bizitegiak egiteko eraikitako 25 m^2-ko.

La dotación reglamentaria de espacios libres adscritos al sistema general[78] es de 5 m^2 de superficie por habitante o por cada 25 m^2 construidos de uso residencial.

Biztanleko, espazio libreen sistema orokor gisa kalifikatutako azalerak 10 m^2/bizt. ratioa gainditzen du; bizitegiak egiteko eraikitako azalera[79] kontuan hartzen badugu, berriz, ratio hori hau izango litzateke:

Por habitante la superficie calificada como sistema general de espacios libres supera el ratio de 10 m^2/hab., mientras que si tenemos en cuenta la superficie construida de uso residencial[79] dicho ratio sería de:

Lehen kalkulatutakoa baino txikiagoa izan arren, eskatzen dena baino handiagoa izaten jarraitzen du.

Que, aunque menor que el calculado anteriormente, sigue siendo superior al mínimo exigible.

Ekipamenduen sistema orokorrari dagokionez, kirol- eta irakaskuntza-ekipamendu arloan dauden premiak aseta daude, irakaskuntza-lursailetan dauden kirol-instalazioak gehiago erabiltzera zuzendutako jarduketa eta ekintza txikiak izan ezik. Gauza bera esan daiteke laguntza-, osasun- eta erlijio-ekipamenduei buruz. Gabeziarik handienak kultura- eta jolas-ekipamendu arloan atzematen dira.

Respecto al sistema general de equipamientos, se pueden considerar cubiertas las necesidades en materia de equipamiento deportivo y docente, salvo pequeñas actuaciones y acciones destinadas a incentivar y aumentar el uso de instalaciones deportivas existentes en parcelas docentes. Lo mismo puede decirse en cuanto a los equipamientos asistencial, sanitario y religioso. Las mayores deficiencias se detectan en materia de equipamiento cultural y recreativo.

Indarreko komunikabideen Sistema Orokorrak ibilgailuen, oinezkoen eta bizikleten komunikabideak aurreikusten ditu. Garraio bertikaleko igogailu publikoak gero eta beharrezkoagoak dira, eta ondorioz, komenigarria izango litzateke sistema orokorraren barruan sartzea.

El Sistema General de comunicaciones vigente contempla las comunicaciones rodadas, las peatonales y el transporte con bicicleta. Los ascensores públicos de transporte vertical, comienzan a ser cada vez más visibles y necesarios por lo que sería recomendable incluirlos dentro del sistema general.

[78] Ikusi hirigintzako estandarrei buruzko 123/2012 Dekretuaren 5.1.a artikulua.
Véase el artículo 5.1.a del Decreto 123/2012 de estándares urbanísticos.

[79] 153. orrialdeko koadroan, udalerrian dagoen eta aurreikusita dagoen bizitegi-erabilerako eraikigarritasunaren datua ematen da, guztira 614.279 m^2(t).
En el cuadro de la página 153 se aporta el dato de la edificabilidad de uso residencial existente y prevista en el término municipal, estimada en un total de 614.279 m^2(t)

1.3.5. 2007KO ARAU SUBSIDIARIOEN GARAPENA ETA BETEARAZPENA 2007-2017 ALDIAN.

2.2.4. atalean labur azaldu diren eremuen eta sektoreen garapena eta betearazpena askotarikoa izan da, eta eragin oso desberdina izan du egitura orokorrean.

Jarduera ekonomikoen atalean hau izango litzateke bildutako datuen laburpena, garapen-plangintza dela-eta eta aldi honetan plangintzari egindako aldaketak direla-eta eguneraketa egokiak egin ondoren:

1.3.5. DESARROLLO Y EJECUCIÓN DE LAS NN.SS. (2007) EN EL PERÍODO 2007-2017.

El desarrollo y ejecución de las áreas y sectores que se han expuesto de manera resumida en el apartado 2.2.4. Ha sido diverso y con una incidencia muy diferente en la estructura general.

En el apartado de actividades económicas un resumen de los datos recogidos, una vez efectuadas las convenientes actualizaciones debidas al planeamiento de desarrollo y a las modificaciones al planeamiento efectuadas en este período, sería el siguiente:

	AZALERAK (m^2) SUPERFICIES (m^2)			**GARAPENA m^2(t) DESARROLLO m^2(t)**					
HIRI-LURZORUKO EREMUAK **ÁREAS DE SUELO URBANO**	Eremua guztira Total ámbito	SS.OO eta bizitegi-tarako lurzorua SS.GG.y suelo RESID.	JJ.EE. konputa-garria guztira Total computa-ble AAEE	Egungo eraikiga-rritasuna Edifica-bilidad exist.	Aurreikuspen berriak AA.SSetan Nuevas previsiones en NN.SS.	Gauzatua 2007/2017 Ejecutado 2007/2017	Gauzatze-ke dagoen E. Fisikoa E. Física pendiente de ejecutar	Antolatu-rako E. Fisikoa guztira Total E.F. ordenada (m^2 t)	Tipo-logia Tipo-logía
2-ZALDIZURRETA	54.862	51.032	3.830	1.571	0	0	0	1.571	A.E.1
6-CAF	165.296	36.114	129.182	84.108	25.867	9.845	16.022	109.975	A.E.1
7-SENPERE	45.875	29.485	16.390	8.535	0	0	0	8.535	A.E.4
21-KATEA	33.332	11.707	21.625	18.603	2.713	0	2.713	21.316	A.E.3
22-EZTANDA	48.642	11.267	37.375	11.620	22.449	0	22.449	34.069	A.E.1
23-GUDUGARRETA II	31.844	-	31.844	14.888	4.235	985	3.250	19.123	A.E.2
25-IRIGOIEN	46.465	-	46.465	22.132	0	0	0	22.132	A.E.2
26-SALBATORE II	56.377	9.282	47.095	11.238	37.722	22.385	15.337	48.960	A.E.2
29-ONDARRE	55.008	2.455	52.553	38.366	8.174	5.873	2.301	46.540	A.E.2
30-ANTZIZAR II	4.451	-	4.451	1.567	0	0	0	1.567	A.E.1
33-ZUMADI	40.615	18.105	22.510	8.537	1.819	0	1.819	10.356	A.E.3
36-BERNEDO-ENEA	48.199	20.945	27.254	2.520	19.150	0	19.150	21.670	A.E.3
38-IHURRE	118.147	2.949	115.198	89.193	10.121	0	10.121	99.314	A.E.1
48-ITTOLA II	27.840	-	27.840	0	19.125	0	19.125	19.125	A.E.2
	776.953		583.612	312.878	151.375	39.088	112.287	464.253	
						(25,82%)	**(74,18%)**		
LURZORU URBANIZAGARRIKO SEKTOREAK **SECTORES DE SUELO URBANIZABLE**									
6-ITTOLA I	40.998	-	40.998	37.970	0	0	0	37.970	A.E.2
7-INDAR	162.689	3.779	158.910	27.300	55.919	55.919	0	83.219	A.E.1
8-ITURRALDE-TXIKI	49.341	7.327	42.014	0	42.804	1.873	40.931	42.804	A.E.2
	253.028		241.922	65.270	98.723	57.792	40.931	163.993	
						(58,54%)	**(41,46%)**		
GUZTIRA TOTALES	1.029.981		825.534	378.148	250.098	96.880	153.218	628.246	
						(38,74%)	**(61,26%)**		

2007ko AA.SSetan dauden datuekiko datu hauen desberdintasun nagusienak dira[80] Ittola II (A-48) eremu berria kontuan hartu izana, CAF (A-6) eta Ondarre (A-29) eremuetan dagoen eraikigarritasuna zehatzago zenbatu izana, Gudugarreta II 23. eremurako A.E.2 tipologia egokiagoa dela uste izana eta Iturralde Txiki S-8 sektore gehienaren eraikigarritasuna egikaritzeke gisa sartu izana, bere aurreikuspenak ia ez direlako garatu aldi horretan.

Las principales diferencias de estos datos con respecto a los incluidos en las NN.SS.(2007)[80] responden a considerar el nuevo ámbito de *Ittola II (A-48)*, a una mayor precisión al computar la edificabilidad existente en las áreas de *CAF (A-6)* y *Ondarre (A-29),* en considerar más adecuado que el área 23 *Gudugarreta II* responde a la tipología A.E.2 y en incluir a la mayor parte de la edificabilidad del sector *S-8 Iturralde Txiki* como pendiente de ejecución, pues sus previsiones apenas se han desarrollado en este período.

Hiri-lurzoruan eta lurzoru urbanizagarrian antolatutako eraikigarritasun guztitik 53.218 m^2(t) daude gauzatzeke, hau da, jarduera ekonomikoetarako guztira antolatutako hirigintza-eraikigarritasunaren %24,39 eta 2007ko AA.SSetan aurreikusitakoaren %61,26.

Del total de la edificabilidad ordenada en los suelos urbano y urbanizable restan por ejecutar 153.218 m^2(t) lo que supone el 24,39% de la edificabilidad urbanística total ordenada para actividades económicas y el 61,26% de la nueva prevista en las NN:SS.(2007).

Datu hori desberdin banatzen da hiri-lurzoruaren eta lurzoru urbanizagarriaren artean. Lurzoru urbanizagarrian zeuden aurreikuspen guztiak gauzatu dira, S-8 sektorea izan ezik: hiri-lurzoruan, ordea, aurreikuspenen laurden bat soilik gauzatu da.

Este dato se reparte de manera desigual entre los suelos urbano y urbanizable. En suelo urbanizable la totalidad de las previsiones se han ejecutado, con la excepción del sector S-8, en cambio en suelo urbano solamente una cuarta parte de las previsiones se han ejecutado.

Gauzatzea falta den eraikigarritasun osoaren erdia baino gehiago mehelin arteko industria-pabilioiak A.E.2 tipologiari dagokio, Salbatore (A-26) eremuan, Gudugarreta II (A-23) eremuan, Ittola II 48 eremu osoan eta Iturralde Txiki S-8 sektorean eraikitzeke dauden orubeak nabarmenduz, jada esan dugun moduan.

Más de la mitad de la edificabilidad total pendiente de ejecución corresponde a la tipología A.E.2, o pabellones industriales entre medianeras, destacando los solares pendientes de edificación en las áreas de *Salbatore (A-26)*, *Gudugarreta II (A-23)*, la totalidad del área *A-48 Ittola II* y el sector *S-8 Iturralde Txiki,* como ya se ha reflejado.

Oraindik gauzatu ez diren jarduketen ia herena lursail isolatuan dauden jarduera ekonomikoak A.E.1 tipologiari dagokio, eta jada finkatuak dauden CAF (A-6), Fundiciones Eztanda (A-22) edo Arcelor (A-38) bezalako enpresak handitzeko erreserbak dira. Tipologia horrek funtzionamendu eta eraginkortasun aukera erosoa eskaintzen die. Aitzitik, tipologia horrekin gauzatu den jarduketa bakarra Indar enpresak S-7 sektorean egindakoa da.

Casi un tercio de las actuaciones pendientes de ejecución obedecen a la tipología A.E.1, o actividades económicas en parcela aislada, tratándose de reservas para la ampliación de empresas ya consolidadas como *CAF (A-6)*, *Fundiciones Eztanda (A-22)* o *Arcelor (A-38)*, que les da un cómodo margen de funcionamiento y operatividad. Por el contrario, la única actuación ejecutada con esta tipología corresponde a la efectuada por la empresa *Indar* en el sector S-7.

[80] AA.SSen memoriaren 42. orrialdeko koadroarekin egiazta daiteke.
Puede comprobarse con el cuadro de la página 42 de la memoria de las NN.SS.

Gauzatzeke dauden gainerako jarduketak zerbitzu desberdinetako jarduerak A.E.3 tipologiari dagozkio, eta Katea (A-21), Zumadi (A-33) eta Bernedo Enea (A-36) eremuetan daude, non ez den aurreikuspen bat ere gauzatu.

El resto que está pendiente corresponde a una tipología A.E.3, o actividades económicas de servicios diversos, que se localizan en las áreas de *Katea* (A-21), *Zumadi (A-33)* y *Bernedo Enea (A-36),* donde no se han ejecutado ninguna de las previsiones.

2007ko AA.SSek ez dute A.E.4 –merkataritza-gune handiak– tipologiako garapenik aurreikusten, eta A-7 Senpere eremuan dagoen eraikigarritasuna finkatzera mugatzen dira.

Las NN.SS.(2007) no prevén ningún desarrollo con tipología A.E.4 –grandes superficies comerciales- limitándose a consolidar la edificabilidad existente en el área A-7 *Senpere*.

Datu horietatik abiatuta, ondoriozta dezakegu jarduera ekonomikoetarako lurzoruak ez gauzatzeak ez duela inolako disfuntzional-tasunik sortu hiri-egituran; izan ere, barnean dauden sistema orokor guztiak gauzatuta daude, S-7 sektorean aurreikusita dagoen gasa erregulatzeko gunea izan ezik.

A partir de estos datos podemos concluir que la falta de ejecución de los suelos de actividades económicas no ha supuesto ninguna disfuncio-nalidad en la estructura urbana, ya que la tota-lidad de los sistemas generales incluidos se encuentran ejecutados, a excepción de la estación de regulación de gas que está prevista en el sector S-7.

Egoera bestelakoa da bizitegitarako lurzoruetan.

La situación es diferente en los suelos residenciales.

Lurzoru horien laburpena, behin datuak garapen-plangintzatik eta epe horretan izapidetu diren indarreko plangintzaren aldaketetatik eskuratutako datuekin eguneratuta, ondorengo orrialdeetan dauden tauletako edukia izango litzateke.

Un resumen de la evolución de estos suelos, una vez actualizados los datos con los obtenidos del planeamiento de desarrollo y las modificaciones al planeamiento vigente que se han tramitado en este período, sería según el contenido de las tablas incluidas en las páginas siguientes.

Tipologiaren eta sailkapenaren aldetik dituzten desberdintasun nabarmenak direla-eta, analisia eta diagnostikoa Beasaingo erdiguneko hiri-lurzoru osorako egin dugu, lehenik. Jarraian, auzo guztietarako eta hiri-lurzoru osorako.Hirugarrenik, lurzoru urbanizagarri osorako eta, azkenik, hiri-lurzoru eta lurzoru urbanizagarri guztirako.

Debido a sus notables diferencias, tipológicas y de clasificación, el análisis y diagnóstico lo hemos efectuado para el conjunto del suelo urbano del núcleo central de *Beasain,* en primer lugar. Seguidamente para el conjunto de los barrios y para el conjunto del suelo urbano. En tercer lugar para el conjunto del suelo urbanizable y, finalmente, para el total del suelo urbano y urbanizable.

Desberdintasun horien arrazoia etxebizitzako eraikitako azalera eta tipologia dira. Hori dela-eta, egindako banaketak errealitatearen ideia zehatzagoa ematen digu.

Las diferencias a las que nos referimos se deben a la tipología y superficie construida por vivienda por lo que la segregación efectuada nos da una idea más precisa de la realidad.

	AZALERAK (m^2)			ERAIKIGARRITASUNA (m^2 t)		ETXEBIZITZAK (Unit.)								
HIRI-LURZORUKO EREMUAK BEASAINGO HERRIGUNEAN	Eremua guztira	SS.OO.ak eta Jarduera Ekonomi-koetarako lurzorua	Bizitegi-tarako konputa-garria guztira	Bizitegitara-ko guztira (E. Fisikoa)	Sestra guztira Sestra Gainean (E. Fisikoa gainean)	Lehen-dik daude-nak	Ordez-katu behar direnak	Berriak	Gauzatuak 2007/2017	Gauzatzeke	Guztira	Babes Ofizial-eko etxeb.	Etxebi-zitza tasatuak	Ratioa m2/etxeb
1-ALDE ZAHARRA	85.375	27.979	57.396	99.005	130.255	1.229	153	154	48	106	1.383	0	0	71,59
2-ZALDIZURRETA	54.862	45.150	9.712	14.904	16.583	177	0	0		0	177	0	0	84,20
3-IGARTETXE	25.356	3.731	21.625	21.713	24.927	216	44	49	49	0	265	0	0	81,94
4-ZAZPITURRIETA	26.685	12.178	14.507	25.620	31.879	368	65	7	1	6	375	0	0	68,32
5-ARANTZAZU	14.603	944	13.659	15.200	15.200	211	0	0		0	211	0	0	72,04
6-CAF	165.296	165.296	0	2.757	3.365	26	0	0		0	26	0	0	106,04
7-SENPERE	45.875	43.004	2.871	1.757	1.757	23	0	0		0	23	0	0	76,39
8-URBIETA	37.851	26.508	11.343	5.399	8.744	56	0	0		0	56	0	0	96,41
9-URBIALDE	6.907		6.907	5.228	8.971	61	0	0		0	61	0	0	85,70
10-ARANGOITI	29.604	16.615	12.989	10.859	11.757	70	0	0		0	70	0	0	155,13
11-LARDI	5.997	985	5.012	1.207	1.681	11	0	4	0	4	15	0	0	80,47
12-NEKOLALDE	34.745	2.092	32.653	54.539	67.532	651	30	59	30	29	710	0	0	76,82
13-BARRENDAIN I	68.110	58.425	9.685	10.825	12.606	121	0	0		0	121	0	0	89,46
14-BARRENDAIN II	8.658	750	7.908	15.283	19.593	172	0	0		0	172	0	0	88,85
15-FORU KALEA	14.488		14.488	6.367	6.995	98	0	0		0	98	0	0	64,97
16-J.M.BARANDIARAN PLAZA	21.672	8.245	13.427	12.336	13.686	198	0	0		0	198	0	0	62,30
17-MENDEURREN	16.112	1.480	14.632	32.792	48.866	287	39	59	0	59	346	0	0	94,77
18-IGARTZA	54.083	28.016	26.067	33.400	33.970	334	0	0		0	334	0	0	100,00
19-LOINAZPE	49.186	11.784	37.402	36.011	37.921	467	0	0		0	467	0	0	77,11
20-KIROLDEGIA	51.268	48.346	2.922	0	0	0	0	0		0	0	0	0	
21-KATEA	33.332	33.332	0	470	470	11	0	-3	0	-3	8	0	0	58,75
22-EZTANDA	48.642	48.642	0	274	274	2	0	0		0	2	0	0	137,00
24-ANTZIZAR	16.654	3.615	13.039	11.700	12.996	14	14	116	0	116	130	24	12	90,00
27-DOLAREA	38.187	8.957	29.230	23.000	27.116	212	0	0		0	212	0	0	108,49
28-SALBATORE I	3.113		3.113	876	1.079	6	0	0		0	6	0	0	146,00
31-AGAUNTZA	14.428	1.760	12.668	11.250	12.410	0	0	125	125	0	125	25	13	90,00
32-ERREKARTE I	8.243	112	8.131	11.610	11.610	3	3	126	34	92	129	26	13	90,00
34-FLEMING DOKTOREA	13.447		13.447	5.761	5.761	12	0	48	0	48	60	17	0	96,02
35-GARIN-ENEA	13.473	1.874	11.599	6.785	6.785	60	0	0		0	60	0	0	113,08
37-EZKIAGA	69.828	11.090	58.738	32.502	34.855	402	0	0		0	402	0	0	80,85
Bide publikoan dagoen aparkalekuari dagozkion eskakizunetarako eskatzen den zuzkidura aisa betetzen da Ittola I S-6 eta Iturralde Txiki S-8 sektoreetan; Indar (S-7) sektorean, ordea, plazak ez dira eskakizunaren erdira iristen. Dena den, hiru sektoreak osotasunean hartuta, betetzen jarraitzen da.

La dotación exigida para los requisitos referidos al aparcamiento situado en la vía pública se cumplen de manera muy holgada en los sectores de *Ittola I* e *Iturralde Txiki*, S-6 y S-8, en cambio en el sector de *Indar* (S-7), las plazas dispuestas no llegan a la mitad del requisito. No obstante en el conjunto de los tres sectores se sigue cumpliendo.

92 Lurzoruari buruzko 2/2006 Legearen 77.5. artikulua.
Artículo 77.5 de la Ley 2/2006 del suelo.

93 Jarduera ekonomikoetarako Lurraldearen Plan Sektorialaren 11. artikulua, lurzoru urbanizagarriko sektore berriei aplikatu beharrekoa.
Artículo 11 del PTS de actividades económicas, aplicable a los nuevos sectores de suelo urbanizable.

Eraikinen tipologiak antolamendu hau laguntzen du; izan ere, beharrezkoak direnak baino aparkaleku gehiago proposatzen dira bide publikoan, mugikortasuna handiagoa izatea eta aparkaleku eskaerak ere handiagoak izatea berekin dakartzaten mehelin arteko pabilioiak dituzten sektoreetan.Aitzitik, Indar (S-7) sektorean, enpresa bakarra izatean, aparkaleku gehienak gune pribatuaren barruan daude, bide publikoari lotutako eskaera askoz ere txikiagoa delako.

La tipología de los edificios favorece esta ordenación ya que se proponen más aparcamientos de los estrictamente necesarios en viario público en los sectores cuya tipología de pabellones entre medianeras hace que la movilidad sea mayor y las demandas de aparcamiento sean igualmente superiores. Por el contrario en el sector de *Indar* (S-7), al tratarse de una única empresa, la mayoría de los aparcamientos se disponen dentro de la zona privativa por ser de mucha menor intensidad la demanda aneja a la vía pública.

Aire zabalean ez daude eskatutako aparkaleku guztiak sektore bakar batean ere, Indar (S-7) sektorean ia betetzen den arren, aparkaleku-plaza gehienak lursail pribatuaren barruan eraiki direlako. Sektore guztietan sestra azpiko eraikuntza osagarri bat aurreikusten da; beraz, aire zabaleko plazen gabezia erraz osa daiteke sotoan.

Al aire libre no se dispone de la totalidad de los aparcamientos requeridos en ninguno de los sectores, si bien en el de *Indar* (S-7) está muy cerca de cumplirse ya que la mayor parte de las plazas de aparcamiento se han construido dentro de la parcela privada. En todos los sectores se prevé una edificación auxiliar bajo rasante por lo que la falta de plazas al aire libre puede completarse fácilmente en sótano.

Zentzu honetan, Ittola I (S-6) da sektorerik kaltetuena, guztira eskatzen denari dagokionez aire zabalean plaza gutxien dituena delako eta eraikitako eraikinen barruan zenbat plaza bideratu diren ez dakigulako.

En este sentido el sector más perjudicado es el de *Ittola I* (S-6) por ser el que menos plazas dispone al aire libre en relación con el total requerido y por desconocerse el número de plazas que se han dispuesto dentro de los edificios construidos.

Plangintza Araudiaren eranskinaren 11. atalean xedatutakoaren babesean, hiru sektoreek merkataritza-ekipamendura (zuzkidura pribatura) zuzendutako azalera bat dute, baina horietako bakar bat ere ez da egikaritu aldi honetan. Egoera berean daude kirol- eta gizarte-ekipamenduetara bideratuta dauden zuzkidura publikoetarako azalerak. Horiek ere ez dira egikaritu.

Al amparo de lo dispuesto en el apartado 11 del anexo al Reglamento de Planeamiento, los tres sectores disponen de una superficie destinada a equipamiento comercial (dotación privada), ninguna de las cuales se ha ejecutado en este período. En la misma situación se encuentran las superficies para dotaciones públicas destinadas a equipamientos deportivo y social, que tampoco se han ejecutado.

1.3.6.6.APARKALEKUA HIRI-LURZORUAN

1.3.6.6. APARCAMIENTO EN SUELO URBANO.

Hiri-lurzorura itzuliz, geratzeak merezi duen atala da egungo aparkaleku-zuzkidura eta antolatutako eraikigarritasunaren arabera honek behar teorikoekiko duen egoera.

Volviendo al suelo urbano, un apartado en el que merece detenerse es el de la dotación de aparcamiento existente y su situación con respecto a las necesidades (teóricas) en función de la edificabilidad ordenada.

Jarduera ekonomikoetarako hiri-lurzoruen kasuan kontraesankorra da zehaztea gaur egun zein den estandar aproposena bai industria-erabileretarako bai zerbitzuen sektorerako, mugikortasunaren arloan dauden joera berriak direla-eta. Ohartarazi behar da

En el caso de los suelos urbanos para actividades económicas resulta contradictorio determinar hoy en día cuál es el estándar ideal tanto para usos industriales como para el sector servicios, dadas las nuevas tendencias en materia de movilidad. Debe advertirse que

estandar horiek eraikigarritasun berriari soilik aplikatu behar zaizkiola; alabaina eta alderatzeko soilik, aparkalekurako erabili diren eskakizunak 0,35 plaza sestra gaineko sabai-azaleraren 25 m^2-ko izan dira Senpere (A-7) eremuan, nagusiki hirugarren sektorerako erabilera delako[94] (A.E.4), eta plaza bat sestra gaineko sabai-azaleraren 25 m^2-ko gainerako eremuetan[95], Ihurre (A-38) eta Ittola II (A-48) eremuak izan ezik, zeinak ez baitira zenbatu ez dutelako antolamendu xehaturik.Emaitzak koadro honetan daude:

estos estándares deben ser aplicados únicamente a la nueva edificabilidad, sin embargo y únicamente a efectos comparativos, los requisitos para aparcamiento utilizados han sido de 0,35 plazas por cada 25 m^2 de techo sobre rasante en el área de *Senpere* (A-7), por tratarse un uso predominantemente terciario[94] (A.E.4) y de una plaza por cada 100 m^2 de techo sobre rasante[95] en el resto de las áreas con excepción de *Ihurre* (A-38) e *Ittola II* (A-48) que no se han contabilizado por no disponer de ordenación pormenorizada. Los resultados son los que se exponen en el cuadro siguiente:

JARDUERA EKONOMIKOETARA BIDERATUTAKO HIRI-LURZORUA	Aparkalekua plaza-kopuruan Aparcamiento en nº de plazas			
	Xedatua	Eskatu beharrekoa guztira	Betetako %	Oharrak
ÁREAS DE SUELO URBANO PARA ACTIVIDADES ECONÓMICAS	Dispuesto	Total exigible	% de cumplimiento	Observaciones
6-CAF	682	1.292	%52,79	Zati bat A-6 eremutik kanpo (540 plaza)
7-SENPERE	153	229	%66,68	Nagusiki hirugarren sektorerako erabilera
21-KATEA	148	216	%68,44	Seguraski handiagoa da zuzkidura
22-EZTANDA	287	374	%76,79	Sotoan eta estalkian 30 m^2/plazako zenbatua
23-GUDUGARRETA II	174	318	%54,64	Aire zabalean plano gainean zenbatua
25-IRIGOIEN	124	465	%26,69	Aire zabalean plano gainean zenbatua
26-SALBATORE II	185	471	%39,28	Aire zabalean plano gainean zenbatua
29-ONDARRE	133	526	%25,31	Aire zabalean plano gainean zenbatua
30-ANTZIZAR II	0	45	%0,00	Lursail pribatuan izan daitekeen zuzkidura
33-ZUMADI	94	225	%41,76	Aire zabalean plano gainean zenbatua
36-BERNEDO-ENEA	61	273	%22,38	Egungo disuasio-parking publikoa
Guztira Totales	**2.041**	**4.433**	**%46,04**	

Lehen ondorio orokorra izan daiteke jarduera ekonomikoetarako hiru-lurzoruan dagoen aparkalekua ez dela araudiaren arabera eskatzen denaren erdira iristen; Alabaina, diagnostikoa oso berezia da; izan ere, itxuraz, eremu guztietan dago gabezia, baina kontuan hartu beharreko zirkunstantzia desberdinak gertatzen dira aldi berean:

Podría establecerse una primera conclusión general de que el aparcamiento dispuesto en el suelo urbano para actividades económicas no llega a la mitad de lo exigido reglamentariamente, sin embargo el diagnóstico es muy variopinto ya que aparentemente el déficit se da en todos los ámbitos, pero concurren circunstancias diferentes a tener en cuenta:

94 123/2012. Dekretuaren 6.2.b artikulua.
Artículo 6.2.b del Decreto 123/2012.

95 Plangintzaren Araudiko eranskina, 11.3. atala.
Anexo al Reglamento de Planeamiento, apartado 11.3.

Eztanda (A-22) da zerbitzurik hoberena eskaintzen duen eremua; izan ere, garatzeke dagoen egikaritze-unitatearen antolamendu xehatuak eremuaren premia guztien %76,79 betetzen dituen aparkaleku-zuzkidura bat aurreikusten du, ibilgailuak eraikuntza berriaren sotoan nahiz estalkian aparkatzea aurreikusten baitu. Ez da zenbatu ez barruko bide-sareari atxikitako aparkalekua ez finkatutako eraikuntzaren lursail pribatuetan dagoena; beraz, eremuaren egoera orokorra oso gertu egongo litzateke arauzko estandarrak betetzetik, baina banaketa espazial desberdinarekin finkatutako gunearen eta egikaritzeke dagoen gunearen artean.

El ámbito que mejores prestaciones ofrece es el área de *Eztanda* (A-22) debido a que la ordenación pormenorizada de la unidad de ejecución -pendiente de desarrollarse- prevé una dotación de aparcamiento que cubre el 76,79% de las necesidades totales del ámbito al prever estacionar vehículos tanto en el sótano como en la cubierta de la nueva edificación. No se ha contabilizado el aparcamiento anejo a la red viaria interior, ni el existente en parcela privada de la edificación consolidada por lo que la situación general del área estaría muy próxima a cumplir con los estándares reglamentarios pero con diferente distribución espacial entre la zona consolidada y la que se encuentra pendiente de ejecución.

Senpere (A-7) eta Katea (A-21) eremuek zerbitzu onak dituzte, aparkaleku-premien bi herenetik gora betetzen direlako aire zabalean, eta hori guztia sotoan edo lursail pribatuan egon daitezkeenak zenbatu gabe.

Las áreas de *Senpere* (A-7) y *Katea* (A-21), presentan buenas prestaciones ya que más de dos tercios de las necesidades de aparcamiento se cubren al aire libre, faltando contabilizar las que puedan existir en sótano o en parcela privada.

Gauza bera esan genezake Gudugarreta II (A-23) eremuari buruz, non beharren erdia baino gehiago aire zabalean baitaude.

Lo mismo podría decirse del área de *Gudugarreta II* (A-23), donde más de la mitad de las necesidades se han dispuesto al aire libre.

CAF A-6 eremuaren egoera berezia da, hiru udalerri desberdinen lurretan dagoen finkatutako enpresa bakar baten instalazioak direlako.Gaur egun, Beasaingo udalerrian, 132 aparkaleku-plaza daude, hau da, arauak finkatzen duena baino zazpi edo zortzi aldiz gutxiago. Egoera hau bi jarduketek arintzen dute: bata Ordiziako udalerrian dagoen 540 plazako[96] aurreikuspena da, zeina Beasaingo CAF A-6 eremuaren eraikigarritasun berriari dagokion eskakizun bikoitza betetzera zuzenduta baitago, eta bestea enplegatuak lanpostuetara joateko CAF enpresak egiten duen garraio publikoaren apustu irmoa da.

El área A-6 *CAF* presenta una situación especial por tratarse de las instalaciones de una única empresa consolidada, que ocupa suelos de tres municipios diferentes. Actualmente se disponen en el término municipal de *Beasain* de 132 plazas de aparcamiento, que viene a ser siete u ocho veces menos que lo estipulado reglamentariamente. Esta situación se ve paliada por dos actuaciones: Una referida a la previsión en el término municipal de *Ordizia* de 540 plazas[96] destinadas a cubrir el doble del requisito correspondiente a la nueva edificabilidad del área A-6 *CAF* en *Beasain* y la otra a la decidida apuesta de la empresa *CAF* por el transporte público como medio de acceso de los empleados a sus puestos de trabajo.

[96] CAF A-6 eremuaren Hiria Antolatzeko Plan Bereziaren memoriaren arabera, CAF eremuaren aparkaleku pribatuen zuzkiduratik 540, Beasaingo A-6 eremuari lotutako aprobetxamendu berrien 27.000 m^2-ei dagokion 2 plaza/m^2 ratioarekin betetzeko zuzenduko dira Agarre (Ordizia) gunerako.
Según la memoria del PEOU del área A-6 *CAF*, de la dotación de aparcamientos privados de CAF para la zona referida de *Agarre* (*Ordizia*), 540 se destinarán para cumplir con el ratio de 2 plaza/m^2 relativo a los 27.000 m^2 de nuevos aprovechamientos vinculados al A-6 de *Beasain*, siendo de carácter obligado recoger dicha dotación en el Plan Parcial de *Agarre*.

Beasaingo erdigunerako Bernedo Enea (A-36) eremuan disuasio-aparkaleku bat egoteak –zeina ez den zenbatu– gunea beteta dagoela erakusten du, non segur aski hor dagoen enpresa bakarraren aparkaleku-beharrak bere lursailean bertan konpontzen diren.

Gainerako eremuetan, aparkaleku gabezia dago, eta ondorio handiagoak ditu mehelin arteko pabilioiak dauden Irigoien (A-25), Salbatore II (A-26) eta Ondarre (A-29) eremuetan.

Beasaingo auzoetako bizitegitarako hiri-lurzoruan ez dago aparkatzeko arazorik. Hau da egoera:

La existencia de un aparcamiento disuasorio para el centro de *Beasain*, en el área de *Bernedo Enea* (A-36), que no se ha contabilizado a estos efectos, da una imagen de colmatación de la zona, donde probablemente las necesidades de aparcamiento de la única empresa instalada allí se resuelven en su propia parcela.

En el resto de las áreas, el aparcamiento dispuesto es deficitario, aunque con mayor repercusión en las áreas con tipología de pabellones entre medianeras de *Irigoien* (A-25), *Salbatore II* (A-26) y *Ondarre* (A-29).

El problema de aparcamiento no existe en el suelo urbano residencial de los barrios de *Beasain*, donde la situación viene a ser la siguiente:

APARKALEKUA LANDA-AUZOETAKO BIZITEGITARAKO HIRI-LURZORUAN **APARCAMIENTO EN SUELO URBANO RESIDENCIAL EN BARRIOS RURALES.**	Bizitegitarako E. Fisikoa (m^2 t) E. Física Residencial (m2 t)	E. Fisiko osagarria (m^2 t) E. Física auxiliar (m2 t)	Etxebizitzak guztira Total viviendas	Eskatu beharreko ratioa (plazak) Ratio exigible (plazas)	Beharrezko azalera osagarria (m^2 t) Sup. auxiliar necesaria (m2 t)	% E. Fisiko osagarriaren gainean % s/EF Auxiliar	Plazak aire zabalean Plazas al aire libre
43-GUDUGARRETA I	5.023	2.983	29	70	2.110	70,72%	33
44-ARRIARAN	5.952	14.055	48	83	2.500	17,79%	43
45-GARIN	4.217	2.826	26	59	1.771	62,67%	23
46-ASTIGARRETA	3.494	2.375	20	49	1.467	61,79%	17
47-ARATZ-MATXINBENTA	3.579	1.976	26	50	1.503	76,07%	17

Ebaluaziorako eta diagnostikorako, eremu bakoitzaren antolamendu xehatuaren planoaren gainean zenbatu da aurreikusitako aparkaleku-kopurua. Arauaren arabera beha-rrezkoa izan gabe, xedatutako plaza-kopurua eremu bakoitzean guztira antolatuta dauden etxebizitza-kopuruaren oso antzekoa da, Aratz-Matxinbenta (A-47) eremuaren kasuan izan ezik.

Eskatu beharreko ratioa[97] 0,25 plaza bizitegierabilerako sestra gaineko sabai-azaleraren 25 m^2-koa da lursail pribatuan. Kopuru nahiko handia da guztira aurreikusten den etxebizitza-kopuruarekin alderatuz gero, egungo dentsitate txikiko etxebizitzak direla-eta eta azalera eraiki asko dagoelako etxebizitzako.

Para la evaluación y diagnóstico se han contado sobre el plano de la ordenación pormenorizada de cada área el número de aparcamientos previstos. Sin ser exigible reglamentariamente, el número de plazas dispuestas es muy similar al número total de las viviendas ordenadas en cada ámbito, salvo en el caso de *Aratz-Matxinbenta* (A-47).

El ratio exigible[97] es de 0,25 plazas de aparcamiento por cada 25 m^2 de superficie de techo sobre rasante de uso residencial en parcela privada, que da un número bastante alto si lo comparamos con el número total de viviendas previsto, debido a la tipología existente de vivienda de baja densidad y mucha superficie construida por vivienda.

[97] 123/2012. Dekretuaren 6.1.c. artikulua.
Artículo 6.1.c del D123/2012.

Aparkaleku-plaza bakoitzeko sabai-azaleraren 30 m^2 kontsumitzen direla kalkulatzen badugu, ikusten dugu, eremu guztietan, antolatzen den azalera osagarria (dagoena gehi proposatzen dena) aparkalekurako behar dena baino handiagoa dela; beraz, ondoriozta dezakegu aisa bete daitekeela estandarra.

Beasaingo herrigunetik urrun dagoenez eta etxebizitza gutxi dituenez, landa-auzoen antzera aztertu eta diagnostikatu genezake Salbatore I (A-28) eremua. Hauek izango lirateke datuak:

Si estimamos un consumo de 30 m^2 de techo por cada plaza de aparcamiento, vemos que en la totalidad de los ámbitos, la superficie auxiliar que se ordena (existente mas propuesta) es superior a la necesaria para aparcamiento por lo que se puede concluir que es posible cumplir con el estándar holgadamente.

Debido a su lejanía con respecto al casco de *Beasain* y su escasa cuantía residencial, podríamos analizar y diagnosticar el caso de *Salbatore I (A-28)* de manera similar a los barrios rurales. Los datos serían los siguientes:

APARKALEKUA BIZITEGITARAKO HIRI-LURZORUAN **APARCAMIENTO EN SUELO URBANO RESIDENCIAL**	Bizitegitarako E. Fisikoa (m^2 t) E. Física Residencial (m2 t)	E. E. Fisiko osagarria (m^2 t) E. Física auxiliar (m2 t)	Etxebizitzak guztira Total viviendas	Eskatu beharreko ratioa (plazak) Ratio exigible (plazas)	Beharrezko azalera osagarria (m^2 t) Sup. auxiliar necesaria (m2 t)	% E. Fisiko osagarriaren gainean % s/EF Auxiliar	Plazak aire zabalean Plazas al aire libre
28-SALVATORE I	876	919	6	12	368	40,03%	0

Eta, landa-auzoetan gertatzen den bezala, aisa bete daiteke estandarra.

Guztiz kontrakoa gertatzen da Beasaingo erdiguneko bizitegitarako hiri-lurzoruan.

Atal hau ebaluatzeko eta diagnostiko bat egiteko, trafikoari eta aparkalekuari buruzko azterlan bat erabili dugu[98]. Azterlan hori Beasaingo Udalak egin zuen 2003an eta, 2010eko azaroan, eguneratu eta horren bilakaera aztertu zuen.

Idatzi zenetik 15 urte igaro badira ere, azterlanak udalerriko ibilgailuen banaketari, bidean zeuden plaza-kopuruari eta bertakoentzako garajeei buruzko datuak ditu, sektoreka bereizita, 12.394 biztanle eta 5.206 ibilgailu, eta familiako 1,2 ibilgailuko ratioa[99] kontuan hartuta.Guztira zegoen aparkaleku-kopurua bai bidean bai garajetan 5.509 plazakoa zen 2003an.

Y, al igual que sucede en los barrios rurales, es posible cumplir con el estándar holgadamente.

Todo lo contrario sucede en el suelo urbano residencial del centro de *Beasain*.

Para evaluar y efectuar un diagnóstico de este apartado, se ha observado un estudio de tráfico y aparcamiento[98] que dispone el Ayuntamiento de Beasain, efectuado en el año 2003 y una actualización y estudio de su evolución, efectuada en noviembre de 2010.

Si bien han pasado ya 15 años desde su primera elaboración, el estudio contiene datos acerca de la distribución de los turismos en el municipio, del número de plazas existentes en el viario y de garajes de residentes en el año 2003, por sectores diferenciados, referidos a una población de 12.394 habitantes y 5.206 turismos, con un ratio de 1,2 turismos por familia[99]. El número total de plazas de aparcamiento existentes, tanto en viario como en garajes, era de 5.509 plazas en 2003.

98 Trafikoa eta aparkalekua Beasaingo udalerrian. LEBER Planificación e Ingeniería SA. 2003. urtea.
Tráfico y aparcamiento en el municipio de *Beasain*. LEBER Planificación e ingeniería SA. Año 2003.

99 Gipuzkoako batezbestekoa 1996an 1,03 ibilgailukoa zen familiako, LEBER enpresak egindako azterlanaren arabera.
La media de *Gipuzkoa* en el año 1996 era de 1,03 vehículos por familia, según el estudio de LEBER.

2010eko azaroan egindako eguneraketan, auto-kopuruak gora egin zuen, eta 7.888 ibilgailu zeuden; banaketa eta aparkaleku-plaza kopurua, berriz, azterketaren sektore berdinetan mantentzen zen, udalerrian garaje-parkearen bilakaera ezagutzen ez zelako.

En la actualización efectuada en noviembre de 2010, el número de turismos aumentó hasta 7.888 vehículos, mientras que se mantenía la distribución y el número de plazas de aparcamiento en los mismos sectores de estudio, debido al desconocimiento de la evolución del parque de garajes en el municipio que dicho estudio reconocía.

2010ean erregistratutako ibilgailuetatik 7.143 Beasaingo erdigunekoak ziren eta gainerakoak auzoetakoak edo barreiatutako baserritakoak.

De los vehículos registrados en 2010, 7.143 pertenecían al centro de Beasain y el resto a los barrios o caseríos diseminados.

2010ean ondorioztatu zen Bernedo (A-36) eremuko aparkalekuak plaza libreak zituela egun osoan zehar, eta beraz, Beasaingo erreserba edo "zernahitarakoa" zela. Alabaina, erdigunean erosketak egiteko, urruti zegoen aparkalekua zen. Gipuzkoa Plazako (Urbieta A-8 eremuko) aparkalekua aldaketa handi bat izan zuen 2003. urtearekiko, eta egun osoan zehar plaza libreak izatetik, goizeko bederatzietatik aurrera egunero ia beteta egotera igaro zen.

En 2010 se concluía que el parking de *Bernedo* (A-36) presentaba plazas libres durante todo el día, siendo la reserva o "comodín" de *Beasain*. Sin embargo para compras en el centro se veía como un aparcamiento lejano. El parking de *Gipuzkoa Plaza* (área A-8 *Urbieta*) sufrió un profundo cambio con respecto al año 2003 pasando de disponer de plazas libres durante todo el día a encontrarse prácticamente lleno a diario a partir de las 9 de la mañana.

2010an, aparkaleku-presioa bidean, Erauskin Plaza (Alde Zaharra A-1 eremua) eta Garmendia Otaola Kale (Zelaeta Berri A-40 eta Nekolalde A-12 eremuak) inguruan kontzentratu zen, eta Gipuzkoa Plaza kanpotarren gune gisa mantendu zen Beasaingo beste puntu batzuetako bizilagunen presentzia handiagoarekin.

En 2010 la presión de aparcamiento en viario se concentraba en los entornos de la *Plaza Erauskin* (área A-1 *Alde Zaharra*) y *Garmendia Otaola Kalea* (áreas A-40 *Zelaeta Berri* y A-12 *Nekolalde*), manteniéndose *Gipuzkoa Plaza* como zona de foráneos con mayor presencia de los vecinos de otros puntos de *Beasain*.

Beasainen trafikoak eta aparkalekuak 2003. eta 2010. urteen artean izan duen bilakaera 2007ko AA.SSetan hiri-lurzorua banatzen den eremuekin alderatzeko, eta trafikoari buruzko azterlanaren datuak erabiltzeko, bost bloke hauetan bildu ditugu aztertzea falta zaizkigun eremuak:

A los efectos de poder comparar la evolución del tráfico y aparcamiento en *Beasain* entre 2003 y 2010 con las áreas en que se divide el suelo urbano en las NN.SS.(2007) y utilizar los datos del estudio de tráfico, hemos agrupado las áreas que nos quedan por analizar en cinco bloques, de la siguiente manera:

- Ekialdeko gunea; Jose Maria Iturrioz kaleko zubiaren uretatik behera, Oria ibaiaren ezkerraldeko ertzean dauden AA.SSetan zehaztutako eremuek osatutakoa.
- Herrigunea; zubi horren eta Erauskin kalearen artean, N-I autobidearen Iparraldera dauden eremuek osatutakoa.
- Hegoaldeko gunea; autobidearen Hegoaldean dauden Senpere (A-7) eta Agauntza (A-31) eremuek osatutakoa.
- Mendebaldeko gunea; Loinatz (A-19), Kiroldegia (A-20), Antzizar (A-24) eta

- La zona Este, que comprende las áreas definidas en las NN.SS.(2007) situadas aguas abajo del puente de la calle *José María Iturrioz*, en la margen izquierda del *Oria*.
- El Casco, que comprende las áreas situadas entre ese puente y la calle *Erauskin*, situadas al Norte de la autovía de la N-I.
- La zona Sur, es el ámbito de las áreas de *Senpere* (A-7) y *Agauntza* (A-31) situadas al Sur de la autovía.
- La zona Oeste, que comprende las áreas de *Loinatz* (A-19), *Kiroldegia* (A-20),

Errekarte I (A-32) eremuek osatutakoa eta, azkenik,
- Zabalgunea gainerako bizitegitarako eremuekin.

Eskura ditugun datu guztiak gurutzatuz gero, ondorengo bi koadroak lortuko genituzke:

Antzizar (A-24) y *Errekarte I* (A-32) y, finalmente,
- La zona de Ensanche con el resto de las áreas residenciales.

Cruzando la totalidad de los datos disponibles obtendríamos los dos cuadros siguientes:

GUNEAK	Baliokidetasuna eremu osoetan 2007ko AA.SSak	Plazak bidean (2003)	Bidean eta l. pribatuan guztira (2003)	**Ibilgailu-kopurua (2010)**	Igoera bidean AA.SSen gainean	Igoera l. pribatuan AA.SSen gainean	**Bidean eta l. pribatuan guztira (2018)**
Ekialdea	A4, A5, A37 eta A42	932	1.385	1.383	13	120	**1.518**
Herrigunea	A1, A2, A3, A8, A35	752	1.472	1.913	0	519	**1.991**
Zabalgunea	A9tik A18ra, A27, A34 eta A40	1.093	1.941	**2.935**	15	264	2.220
Hegoaldea	A7 eta A31	192	200	77		157	**357**
Mendebaldea	A19, A20, A24 eta A32	283	511	835	7	523	**1.041**
	Guztira	3.252	5.509	**7.143**	35	1.583	**7.127**

ZONAS	Equivalencia en áreas completas NN.SS.(2007)	Plazas viario (2003)	Total viario y p. privada (2003)	**Nº vehículos (2010)**	Aumento en viario s/NNSS	Aumento en p. privada s/NNSS	**Total viario y p. privada (2018)**
Este	A4, A5, A37 y A42	932	1.385	1.383	13	120	**1.518**
Casco	A1, A2, A3, A8, A35	752	1.472	1.913	0	519	**1.991**
Ensanche	A9 a A18, A27, A34 y A40	1.093	1.941	**2.935**	15	264	2.220
Sur	A7 y A31	192	200	77		157	**357**
Oeste	A19, A20, A24 y A32	283	511	835	7	523	**1.041**
	Totales	3.252	5.509	**7.143**	35	1.583	**7.127**

GUNEAK	Baliokidetasuna eremu osoetan 2007ko AA.SSak	Bizitegi-eraikigarritasuna	Plazak pribatuan	lursail estandarra	Arauzko	Betetako %
Ekialdea	A4, A5, A37 eta A42	76.742	573	1.074		%53,36
Herrigunea	A1, A2, A3, A8, A35	147.806	1.239	2.069		%59,89
Zabalgunea	A9tik A18ra, A27, A34 eta A40	237.630	1.112	3.327		%33,42
Hegoaldea	A7 eta A31	13.007	165	182		%90,61
Mendebaldea	A19, A20, A24 eta A32	47.621	751	667		**%112,65**
	Guztira	522.806	**3.840**	**7.319**		%52,47

ZONAS	Equivalencia en áreas completas NN.SS.(2007)	Edificabilidad residencial	Plazas en parcela privada	Estándar reglamentario	% de cumplimiento
Este	A4, A5, A37 y A42	76.742	573	1.074	53,36%
Casco	A1, A2, A3, A8, A35	147.806	1.239	2.069	59,89%
Ensanche	A9 a A18, A27, A34 y A40	237.630	1.112	3.327	33,42%
Sur	A7 y A31	13.007	165	182	90,61%
Oeste	A19, A20, A24 y A32	47.621	751	667	**112,65%**
	Totales	522.806	**3.840**	**7.319**	52,47%

Lehen koadroan, lehen 3 zutabeak osatzeko, aipatutako trafikoari eta aparkalekuari buruzko azterlanaren datuak atera eta elkartu dira. Hurrengo bietan, AA.SSen aurreikuspenak zenbatu dira, eremu guztiak egikarituta egongo liratekeela kontuan hartuta.Horretarako, plaza bat zenbatu da lursail pribatuan, eraikigarritasun osagarriaren 30 m^2 (t) bakoitzeko edo hirigintzako estandarrei buruzko 123/2012 Dekretuak eskatutako gutxienekoa jarduketa integratuen kasuan. Bidean dagoen aparkalekuaren kasuan, kalkulu bat egin dugu eremu bakoitzaren antolamendu xehatuaren planoetan dauden plazak zenbatuz.

En el primero de los cuadros las tres primeras columnas se han completado a partir de extraer y agrupar los datos del estudio de tráfico y aparcamiento al que se ha hecho mención. En las dos siguientes se han contabilizado las previsiones de las NN.SS. considerando que la totalidad de los ámbitos estuviesen ejecutados. Para ello se ha contabilizado una plaza en parcela privada por cada 30 m^2 (t) de edificabilidad auxiliar en actuaciones de dotación o el mínimo requerido por el Decreto 123/2012 de estándares urbanísticos en el caso de actuaciones integradas. En el caso del aparcamiento sobre viario se ha efectuado una estimación a partir de contar las plazas resultantes en los planos de ordenación pormenorizada de cada área.

Atentzioa ematen du Beasaingo herrigunean 2010ean erregistratuta dauden ibilgailu guztiek gainditu egiten dutela bai bide publikoan bai lursail pribatuan (garajeak) guztira dagoen plaza-kopurua, 2007ko AA.SSen aurreikuspen guztiak egikaritutzat zenbatuta ere.

Llama la atención que la totalidad de vehículos registrados en el centro de Beasain en 2010, es superior al número total de plazas disponibles tanto sobre vía pública como en parcela privada (garajes), incluso contando como ejecutadas la totalidad de las previsiones de las NN.SS.(2007).

Behar gehien duen gunea Zabalgunea da, zeinaren lehen defizita guztizko emaitza arte izaten jarraitzen den. Aztertutako gainerako eremuetan, guztira dauden plazek dauden ibilgailuak gainditzen dituzte, baina komenigarria da zehaztasun hauek egitea:

- Mendebaldeko gunean egikaritutzat jo dira –eta ez daude egikarituta– Kiroldegia (A-20) eremua, 195 plazakin, eta Antzizar (A-24) eremua, 165 plazakin.
- Zabalgunean eta herrigunean, aurreikusitako igoeraren zati handi bat egikaritu ez diren zuzkidura-jarduketen eraikigarritasun osagarriari zor zaio.

La zona más desfavorecida es el Ensanche, cuyo déficit inicial se sigue arrastrando hasta el resultado total. En el resto de las zonas observadas el total de plazas disponibles es superior al de vehículos existentes, pero conviene efectuar las siguientes precisiones:

- En la zona Oeste se han supuesto como ejecutados – que no lo están- el aparcamiento de *Kiroldegia* (A-20), con 195 plazas y el área de *Antzizar* (A-24), con 165 plazas.
- En el Ensanche y en el Casco, una buena parte del aumento previsto se debe a la edificabilidad auxiliar de las actuaciones de dotación que no se han ejecutado.

Zehaztasun hauekin, balantzea Hegoaldean eta Ekialdean izango litzateke soilik aldekoa; izan ere, bide-sareari eta Senpere (A-7) eremuaren merkataritza-gunearen aparkalekuari atxikitako plazen zuzkidura handiak mesede egiten die.

Con estas precisiones el balance únicamente resultaría favorable en las zonas Sur y Este, que se ven favorecidas por la importante dotación de plazas anejas a la red viaria y al parking de la zona comercial de *Senpere* (A-7).

Bigarren koadroan, dauden plaza-kopurutik, bideari atxikitakoak kendu dira, lursail pribatuan dagoen plaza-kopurua (garajeak) lortzeko eta eskatu beharreko estandarrekin nolabaiteko alderaketa bat egin ahal izateko[100]:

En el segundo cuadro se ha detraído del total de plazas disponibles las anejas al viario con el fin de obtener el número de plazas en parcela privada (garajes) y poder establecer algún tipo de comparación con los estándares exigibles[100]

Kasu horretan, arauzko estandarra handiagoa da 2010ean Beasaingo erdigunean erregistratutako ibilgailu-kopurua baino, baina xedatutakoa, oro har, eskatutakoaren erdia da, eraikigarritasun gehiena 2007ko AA.SSen eta ondorengo araudiaren aurrekoa delako.

En este caso el estándar reglamentario es superior al número de vehículos registrados en 2010 en el centro de *Beasain,* pero lo dispuesto es, en términos globales, la mitad de lo requerido debido a que la mayor parte de la edificabilidad es anterior a las NN.SS.(2007) y a la reglamentación posterior.

Hoberen hornitutako guneak Hegoaldea eta Mendebaldea dira. Azken hau oso hurbil egongo litzateke estandarra betetzetik, Antzizar (A-24) eremua egikaritu gabe ere, baina arauzko aparkaleku-estandarra gainditzen duen (667) ibilgailu-kopuru handia atzematen da (835).

Las zonas mejor dotadas son las Sur y Oeste. En esta última se estaría muy próximo a cumplir con el estándar incluso sin ejecutar el área de *Antzizar* (A-24), pero se detecta un alto número de vehículos registrados (835), que es superior al estándar de aparcamiento reglamentario (667).

Zabalgunea da egoerarik txarrenean dagoena, kokaleku zaharretan egikaritutako eraikigarritasun handia eta dentsitate handia duelako, lursail pribatuan aparkalekuak (garajeak) eraikitzea arraroa zenean.

La zona de ensanche es la que en peor situación se encuentra, debido tener una alta densidad con una alta edificabilidad residencial ejecutada en asentamientos antiguos, cuando era rara la práctica de construir aparcamientos en parcela privada (garajes).

Beasaingo herrigunearen egoera hobeagoa da, baina aparkaleku-gabezia handia du, halaber, zeina okerrera egingo baitu 2007ko AA.SSetan aurreikusten diren zuzkidura-jarduketei eskatu beharreko estandarrak aplikatzen ez bazaizkie.

El casco de *Beasain* sale mejor parado pero también presenta un importante déficit de aparcamiento que se verá agravado si no se aplican los estándares requeribles a las actuaciones de dotación previstas en las NN.SS.(2007).

Halaber, gabezia du, lursail pribatuan dauden aparkaleku-plazei dagokienez, Ekialdeko guneak, eta jada esan dugun moduan, bide publikoari atxikitako zuzkidurak arintzen du bere egoera.

También es deficitario en plazas de aparcamiento en parcela privada, la zona Este, que se ve paliada por la dotación aneja al viario público, como ya se ha expresado.

1.3.6.7. LANDAREDIA BIZITEGI-GUNEETAN

1.3.6.7. LA VEGETACIÓN EN LAS ZONAS RESIDENCIALES.

Bizitegi-guneetan, landaredirako eskatu beharreko gutxieneko arauzko estandarra zuhaitz bat etxebizitzako da. 2007ko AA.SSek, bere datuak eguneratu ondoren, 2007an zeuden etxebizitzen (5.730) artean guztira 7.183 etxebizitza eta plangintzan aurreikusitako guztiak (1.453) antolatzen dituzte; beraz, lehendik daudenen eta landatu berriak direnen

Con respecto a la dotación exigible para vegetación que corresponde a las zonas residenciales el estándar reglamentario es de un árbol por vivienda. Las NN.SS (2007), una vez actualizados sus datos, ordenan un total de 7.183 viviendas entre las existentes (5.730) en 2007 y la totalidad de las previstas en el planeamiento (1.453), por lo que el número de árboles entre

[100] 123/2012. Dekretuaren 6.1.c. artikulua, 0,35 plaza bizitegi-lurzoru azaleraren 25 m^2 bakoitzeko lursail pribatuan.
Artículo 6.1.c del D123/2012, 0,35 plazas por cada 25 m^2 de superficie residencial en parcela privada.

artean, 7.183 zuhaitz, halaber, egon beharko lirateke.

los existentes o de nueva plantación, debiera ser también de 7.183 unidades.

Jarduera ekonomikoetarako lurzoruen antolamenduaren kasuan egin dugun kalkulu bera egiten badugu, hau da, kontuan hartzen badugu zuhaitz bakoitzeko lurzoru-zorra 36 m^2-koa dela batetik, eta espazio libreen azalera planifikatua bestetik, hiri-kalitatearen egoera zein den jakin dezakegu, eskakizun horri dagokionez.

destinados a actividades económicas, es decir, considerar que la servidumbre de suelo por cada árbol es de 36 m^2 por un lado y la superficie de espacios libres planificada por el otro, nos podemos hacer una idea del estado de calidad urbana, con respecto a este requisito.

Alde batetik, zuhaizti-zuzkidura osoa ezartzeko beharrezko azalera (36 x 7.183) 258.588 m^2 lurzoru izango litzateke.

Por un lado, la superficie necesaria para implantar el conjunto de la dotación de arbolado puede estimarse en (36 x 7.183) 258.588 m^2 de suelo.

Beste alde batetik, lurzoru hau dago erabilgarri:

Por otro lado se dispone de:

152.644 m^2	Espazio Libreen Sistema Orokorrera adskribatutako lurzoru
63.124 m^2	Espazio Libreen Tokiko Sistemara adskribatutako lurzoru Beasaingo erdigunean
7.491 m^2	Espazio Libreen Tokiko Sistemara adskribatutako lurzoru Beasaingo auzoetan
22.722 m^2	Espazio Libreen Tokiko Sistemara adskribatutako lurzoru, lurzoru urbanizagarri guztian
152.644 m^2	De suelo adscrito al Sistema General de Espacios Libres
63.124 m^2	De suelo adscrito al Sistema Local de Espacios Libres en el centro de *Beasain*.
7.491 m^2	De suelo adscrito al Sistema Local de Espacios Libres en los barrios de *Beasain.*
22.722 m^2	De suelo adscrito al Sistema Local de Espacios Libres en la totalidad del suelo urbanizable

Plangintzan antolatuta dauden espazio libreen 245.981 m^2-ko azalera da guztira, eta nahikoa da eskatutako landarediaren %95 gutxienez aisa hartzeko. Gainerakoa, 350 unitate inguru, bide-sareari atxikitako espaloietan edo beste leku mota batzuetan landatu beharko lirateke.

Que supone una superficie total de espacios libres ordenados en el planeamiento de 245.981 m^2, superficie que es suficiente como para albergar con holgura al menos el 95% de la vegetación requerida. El resto, que vienen a ser unas 350 unidades, debieran poder disponerse en las aceras anejas a la red viaria o en otro tipo de espacios.

Nafarroa Etorbideko edo Ezkiaga kaleko espaloietan zehar dagoen zuhaiztia solik nahikoa da gainerako gutxieneko estandarra betetzeko; beraz, espaloietan zuhaitzak dituzten kale gehiago daudenez, ondoriozta daiteke plangintzak eskatu beharreko kalitatearekin betetzen duela landarediaren eskakizuna.

Únicamente el arbolado dispuesto a lo largo de las aceras de la *Avenida Nafarroa* o en las de la *Calle Ezkiaga*, es suficiente como para cumplir el resto del estándar mínimo, por lo que, al existir un mayor número de calles con arbolado en las aceras, se puede concluir que el planeamiento permite dotar del requisito de vegetación con la calidad exigible.

1.3.6.8. ETXEBIZITZA BABESTUAREN ESTANDARRAK

2007ko AA.SSetan babes publikoko etxebizitzara zuzendutako eraikigarritasuna egun aplikatu beharrekoak izango liratekeen estandarrekin eta betetzeko moduarekin alderatuko dugu.

Babes publikoko etxebizitzaren estandarrak hirigintzako estandarrei buruzko 123/2012 Dekretuak –10 eta 11. artikuluak– garatutako eta etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legeak aldatutako Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 80. artikuluan zehazten dira[101].

Laburbilduz eta Beasaingo kasurako, hirilurzoruan, etxebizitza babestuaren estandarrak aplikatu beharrekoak dira jarduketa integratuetan, non hirigintza-eraikigarritasunaren gehikuntzaren %40 finkatzen den babes publikoko araubideren bati atxikitako etxebizitzak eraikitzeko, eta bizitegitarako hirigintza-eraikigarritasun horretatik, %20 gutxienez, araubide orokorreko eta bereziko babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeko izango den.Lurzoru urbanizagarriko sektoreen kasuan, etxebizitza babestuaren gutxieneko ehunekoa %75-ekoa izatera igarotzen da, eta bizitegitarako hirigintza-eraikigarritasun horretatik, %55 gutxienez, araubide orokorreko eta bereziko babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeko izango da eta, %75 arteko gainerakoa, araubide tasatuko babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeko.

Plangintza orokorraren tramitazioan aplikatu beharreko 2/2006 Legearen xedapen iragankor baten arabera[102], babes publikoko araubide bati atxikitako etxebizitzei buruz ezarritako gutxieneko estandarrak betetzeko baldintzak finkatzen ziren bai 2007ko AA.SSetarako bai ondorengo garapen-planetarako, eta estandar horiek aplikatzeko epe batzuk zehazten ziren.

1.3.6.8. LOS ESTÁNDARES DE VIVIENDA PROTEGIDA.

Compararemos la edificabilidad destinada en las NN.SS.(2007) a vivienda de protección pública con los estándares y modo de cumplimiento que hoy en día serían de aplicación.

Los estándares de vivienda de protección pública se fijan en el artículo 80 de la Ley 2/2006 del suelo y urbanismo del País Vasco, desarrollada por el Decreto 123/2012 de estándares urbanísticos – artículos 10 y 11- y modificada por la Ley 3/2015, de 18 de junio, de de vivienda[101].

De manera resumida y para el caso de *Beasain*, en suelo urbano los estándares de vivienda protegida son de aplicación a las actuaciones integradas, donde se fija un mínimo del 40% del incremento de la edificabilidad residencial para viviendas sometidas a algún régimen de protección pública, desglosado en un mínimo del 20% de la edificabilidad urbanística residencial con destino a viviendas de VPO de régimen general y especial y el resto a viviendas de VPO de régimen tasado. En el caso de sectores de suelo urbanizable el porcentaje mínimo de vivienda protegida pasa a ser del 75%, desglosado en un mínimo del 55% y resto hasta completar, para viviendas de VPO en régimen general/especial y tasado respectivamente.

La Ley 2/2006 establecía una disposición transitoria[102] de aplicación al planeamiento general en trámite, como era el caso de las NN.SS.(2007) de *Beasain,* donde se establecían las condiciones de cumplimiento de los estándares de vivienda sometida a algún régimen de protección pública tanto para las propias NN.SS.(2007) como para los posteriores planes de desarrollo, para los que se fijaban unos plazos en la aplicación de los estándares.

[101] 2015eko ekainaren 26ko 119. EHAA.
BOPV nº119 del 26 de junio de 2015

[102] Ikusi Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen laugarren xedapen iragankorra.
Véase la disposición transitoria cuarta de la Ley 2/2006 del suelo y urbanismo.

Xedapen iragankor hori aplikatuz, babes publikoko araubide bati atxikitako etxebizitzei buruz ezarritako estandarrak –2007ko AA.SSak eta xedapenean finkatutako epeetan onartutako ondorengo garapen-plangintza estandar horietara egokituta daude– 2/2006 Legearen aurreko legedian[103] ezarrita daude, non babes publikoari atxikitako etxebizitza-ehunekoak %20-koak ziren hiri-lurzoruan eta %65-ekoak lurzoru urbanizagarrian, bizitegi-lurzoru guztiari zegokionez.

AA.SSen memorian, eskainitako etxebizitza-kopuruari zegokionez, hori bai hiri-lurzoruan bai lurzoru urbanizagarrian betetzen dela justifikatzen da[104].

Hiri-lurzoruaren kasuan eta indarreko xedapenen arabera, etxebizitzen igoera 50 unitatera edo sabai eraikiaren 5.000 m^2-ra iristen ziren eremuei aplikatzen zitzaizkien estandarrak. Horiek horrela, Antzizar (A-24), Agauntza (A-31), Errekarte I (A-32), Fleming Doktorea (A-34) eta Mariarats (A-42) eremuetako hiri-lurzoruko guneei eta, lurzoru urbanizagarriaren kasuan, hiru bizitegi-sektoreei aplikatu zitzaizkien.

Justifikazioak ondorioztatzen zuen aplikatu beharreko estandarrak eremu guztietan betetzen zirela, Arizmendi S-1 sektorean izan ezik, eta adierazten zen horren kopurua ondoan zegoen Fleming A-34 eremura eramaten zela, antolamenduko bi eremu horiek bakartzat hartuz.

Hurrengo orrialdeko konparaziozko taulan, 2007ko AA.SSen etxebizitza babestuaren es-kaintza alderatzen da 2018ko eskatu beharreko estandarren aplikazioarekin. Lardi (A-11) eremua eta Beasaingo auzoetako eremuak gehitu dira, ulertzen dugulako, lurzoruari buruzko 2/2006 Legearen terminologiaren arabera, *"jarduketa integratuen"* irizpideari erantzuten diotela eta, beraz, babes publikoko araubideren bati atxikitako etxebizitzen estandarrak aplikatu beharko liratekeelako.

En aplicación de dicha disposición transitoria, los estándares de vivienda sometida a protección pública a los que están adaptados tanto las NN.SS.(2007) como el posterior planeamiento de desarrollo aprobado en los plazos fijados en la disposición, están establecidos en la legislación anterior a la Ley 2/2006[103], donde los porcentajes de vivienda sujetas a protección pública eran del 20% en suelo urbano y del 65% en suelo urbanizable, referidas al total residencial.

En la memoria de las NN.SS.(2007) se justifica dicho cumplimiento[104] tanto en suelo urbano como en suelo urbanizable, referido al número de viviendas ofertadas.

En el caso del suelo urbano y de acuerdo a las disposiciones en vigor, las áreas a las que se aplicaban los estándares eran aquellas unidades en las que el incremento de viviendas alcanza la cifra de 50 unidades o los 5.000 m^2 de techo edificado, aplicándose a las áreas de suelo urbano de *Antzizar* (A-24), *Agauntza* (A-31), *Errekarte I* (A-32), *Dr. Fleming* (A-34) y *Mariarats* (A-42) y en el caso del suelo urbanizable a los tres sectores residenciales.

La justificación efectuada concluía que los estándares aplicables se cumplían en todos los ámbitos salvo en el sector S-1 *Arizmendi*, indicando que su cuantía se trasladaba al ámbito colindante área A-34 *Fleming*, considerando ambos ámbitos de ordenación como uno único a estos efectos.

En la tabla comparativa de la página siguiente, se compara la oferta de vivienda protegida de las NN.SS.(2007) con lo la aplicación de los estándares exigibles en el año 2018. Se han añadido las áreas de *Lardi* (A-11) y las de los barrios de *Beasain* por entender que responden al criterio de "*actuaciones integradas*" de acuerdo a la terminología de la Ley 2/2006 del suelo y por tanto donde serían de aplicación los estándares de vivienda sometida a algún régimen de protección pública.

[103] 17/1994 Legea, ekainaren 30ekoa, etxebizitzaren arloko presako neurriak eta hirigintza plangintzako zein kudeaketako tresnak izapidetzeko neurriak zehazteari buruzkoa eta hori garatzen duen 142/1997 Dekretua.
Se refiere a la Ley 17/1994, de 30 de junio, de medidas urgentes en materia de vivienda y tramitación de instrumentos de planeamiento y gestión urbanística y al Decreto 142/1997 que la desarrolla.

[104] Ikusi indarreko AA.SSen memoriaren 41. eta 42. orrialdeak.
Véase la memoria de las NN.SS. vigentes páginas 41 y 42.

Beraz, ariketa teoriko bat da, lurzoruari buruzko 2/2006 Legearen aurreko legediarekiko, babestutako etxebizitzaren estandarrak ia-ia bikoizten direlako hiri-lurzoruan eta nabarmen handitzen direlako lurzoru urbanizagarrian.

Nolanahi ere eta informatzeko baino ez, 2007ko AA.SSetan aurreikusitako jarduketen babes publikoko araubideren bati atxikitako etxebizitzen estandarren betetze-maila, konparaziozko koadro honetan azalduko litzateke:

Se trata por tanto de un ejercicio teórico, dado que con respecto a la legislación anterior a la Ley 2/2006 del suelo los estándares de vivienda protegida en suelo urbano se duplican prácticamente y aumentan considerablemente en suelo urbanizable.
En cualquier caso y a título informativo el grado de cumplimiento de los estándares de vivienda sometida a algún régimen de protección pública de las actuaciones previstas en las NN.SS.(2007) quedaría reflejado en el siguiente cuadro comparativo:

	2007ko AA.SSetan finkatutako eraikigarritasuna (m^2 t) **Edificabilidad dispuesta en las NN.SS.(2007) (m^2 t)**				**Finkatutako ehunekoa** **Porcentaje dispuesto**		**2018an aplikatu beharreko estandarra** **Estándar aplicable en 2018**		**Defizita m^2 (t)-tan** **Déficit en m^2 (t)**	
HIRI-LURZORU EREMUAK **ÁREAS DE SUELO URBANO**	Guztira Total	BOE VPO	Tasatua Tasada	Librea Libre	Babestua guztira Total protegida	BOE VPO	Babestua guztira Total protegida	BOE VPO	Babestua guztira Total protegida	BOE VPO
11-LARDI	360	0	0	360	%0,00	%0,00	%40	%20	-144	-72
24-ANTZIZAR	11.700	2.160	1.080	8.460	%27,69	%18,46	%40	%20	-1.440	-180
31-AGAUNTZA	11.250	1.900	990	8.360	%25,69	%16,89	%40	%20	-1.610	-350
32-ERREKARTE I	11.610	2.340	1.170	8.100	%30,23	**%20,16**	%40	%20	-1.134	**18**
34-DR.FLEMING	4.608	1.530	0	3.078	%33,20	**%33,20**	%40	%20	-313	**608**
42-MARIARATS	3.420	3.420	0	0	**%100,00**	**%100,00**	%40	%20	**2.052**	**2.736**
43-GUDUGARRETA I	4.390	0	0	4.390	%0,00	%0,00	%40	%20	-1.756	-878
44-ARRIARAN	2.916	0	0	2.916	%0,00	%0,00	%40	%20	-1.166	-583
45-GARIN	2.900	0	0	2.900	%0,00	%0,00	%40	%20	-1.160	-580
46-ASTIGARRETA	2.570	0	0	2.570	%0,00	%0,00	%40	%20	-1.028	-514
47-ARATZ-MATXINBENTA	2.040	0	0	2.040	%0,00	%0,00	%40	%20	-816	-408
Guztira hiri-lurzoruan **Total suelo urbano**	57.764	11.350	3.240	43.174	**%25,26**	**%19,65**	**%40**	**%20**	-8.516	-203

LURZORU URBANIZAGARRIKO SEKTOREAK	Guztira Total	BOE VPO	Tasatua Tasada	Librea Libre	Babestua guztira Total protegida	BOE VPO	Babestua guztira Total protegida	BOE VPO	Babestua guztira Total protegida	BOE VPO
1-ARIZMENDI	5.963	0	0	5.963	%0,00	%0,00	%75	%55	-4.472	-3.280
2-ERREKARTE II	3.340	1.980	0	1.360	%59,28	**%59,28**	%75	%55	-525	**143**
3-UGARTEMENDI	53.672	31.306	0	22.366	%58,33	**%58,33**	%75	%55	-8.948	**1.786**
Guztira lurzoru urbaniza garrian **Total suelo urbanizable**	62.975	33.286	0	29.689	**%52,86**	**%52,86**	**%75**	**%55**	-13.945	-1.350

Espero zitekeen moduan, aldeak handiak dira egungo eskakizunak handiagoak direlako. Alabaina, araubide orokorreko eta bereziko babes ofizialeko etxebizitzan, oro har, estandarra ia betetzen da bai hiri-lurzoruan –eraikigarritasunaren %19,65 aurreikusten da eskatzen den %20aren aurrean– bai lurzoru urbanizagarrian, %52,86 aurreikusten da eskatzen den %55aren aurrean, Arizmendi (S-1) sektoreak duen defizita dela-eta. 1.553 m^2 bizitegi-sabai gehiago antolatu izan balira –203 m^2 hiri-lurzoruan eta 1.350 m^2 lurzoru urbanizagarrian–, gaur egun eskatzen den estandarra beteko litzateke. Aurreikusitakoa baino %3,5-eko bizitegi-eraikigarritasuna edo 20 etxebizitza inguru gehiago, gutxi gorabehera).

Como era de esperar las diferencias son grandes debido a que son mayores las exigencias actuales. Sin embargo, en vivienda de VPO en régimen general y especial, se está próximo a cumplir con el estándar en términos globales, tanto en suelo urbano -se prevé el 19,65% de la edificabilidad frente al 20% requerido- como en suelo urbanizable, donde se prevé el 52,86% frente al 55% requerido, debido al déficit que arrastra el sector de Arizmendi (S-1). Hubiese faltado ordenar 1.553 m^2 más de techo residencial, 203 m^2 en suelo urbano y 1.350 m^2 en suelo urbanizable para cumplir con el estándar requerido hoy en día. (Un 3,5% de edificabilidad residencial más que la dispuesta o unas 20 viviendas más, aproximadamente).

Aldeak handiagoak dira etxebizitza tasatuaren estandarrarekiko, batez ere modalitate hori ez delako 2007ko AA.SSetan aurreikusi lurzoru urbanizagarrian. Oro har, etxebizitza tasatuaren sabai-azalera zazpiz biderkatu beharko litzateke egungo eskakizunarekin betetzeko.

Las diferencias son de mayor cuantía con respecto al estándar de vivienda tasada, debido principalmente a que esta modalidad no se ha previsto en las NN.SS.(2007) en el suelo urbanizable. En términos generales, hubiera sido necesario multiplicar por siete la superficie de techo de vivienda tasada prevista en las NN.SS.(2007) para cumplir con el requisito actual.

Hiri-lurzoruan, bizitegi-eraikigarritasun berriaren %60 etxebizitza tasatura zuzendu izan balira nahikoa izango litzateke, oro har, egungo estandarrarekin betetzeko[105]. Ikusirik ondorengo urteetan higiezinen setoreak eragindako krisia, ez litzateke zentzugabea izango etxebizitza tasatu gehiago aurreikusi izan balira, batez ere lurzoru urbanizagarrian.

En suelo urbano hubiese sido suficiente destinar para vivienda tasada un 60% de la nueva edificabilidad residencial prevista en los barrios para cumplir en términos generales con el estándar actual[105] A la vista de la crisis del sector inmobiliario provocada en los años posteriores, no hubiese sido descabellada una mayor previsión de vivienda tasada, sobre todo en suelo urbanizable.

[105] Baliteke gutxiago izatea; izan ere, 2007ko AA.SSek hauxe aipatzen dute antolamendu-memorian: *"...hiri-lurzoruan garapen berriak kudeatzeko orduan, horien ehuneko hamar prezio mugatuko araubidera zuzentzeko beharra jasotzen dute Arauek (horien salmenta-prezioa eta babes ofizialekoen eskakizun berdinekin une bakoitzean indarrean dagoen modulua halako 1,5-eko balioan finkatuz)"...*, ez dakigu baieztapen hori benetan aplikatu ote den.

Babes-eremu horren barruan, erabilera eta eraikuntza jakin batzuetarako, beharrezkoa da errepidearen edo bidearen titularra den administrazioaren aldez aurretiko baimena (78. art.); baimen hori emango da, baldin eta dagokion erabilera motarako eta bide motarako taulan adierazten den baino distantzia handiagora kokatzen bada.

balizamiento e iluminación de las mismas; las instalaciones destinadas al control de aforos; las instalaciones destinadas al pesaje y control de cargas; las zonas de aparcamiento o descanso de titularidad pública al servicio de la carretera; las áreas de servicio de titularidad pública; los edificios y construcciones destinados al servicio de las carreteras, tales como centros de control, almacenes y parques de maquinaria; y los demás terrenos, construcciones e instalaciones destinados a la correcta conservación y explotación de las carreteras.

- Dominio público viario en los caminos

Se extiende a toda su explanación, incluidas sus estructuras, muros, obras de fábrica y demás elementos funcionales.

- Régimen de uso y aprovechamiento (art. 41)

En los bienes de dominio público viario sólo será posible la realización de usos o aprovechamientos distintos de la circulación sólo será posible cuando dichos usos y aprovechamientos resulten por su naturaleza de necesaria ubicación en el mismo, sean compatibles con la circulación o tránsito y no limiten su seguridad y comodidad. Exigirán, además la autorización de la administración titular del vial.

2.4.1.2. ZONA DE PROTECCIÓN DE LAS CARRETERAS Y CAMINOS.

Según establece el Artº 53 de la Norma Foral de Carreteras a cada lado de las carreteras y caminos se establece una zona de protección del ancho que se indica en la tabla que se recoge en esta página.

Dentro de esta zona de protección determinados usos y construcciones exige la previa autorización de la administración titular de la carretera o camino (Artº 78), que sólo se concederá si se sitúa a una distancia mayor que la que se indica en la tabla para el tipo de uso y de la clase de vial de que se trate.

		Distancia que se fija para cada tipo de vía, medida perpendicularmente al eje de la vía					Borde o línea exterior desde la que se mide
		Autopistas y autovías	Red Roja y Naranja	Red verde	Red Amarilla y Gris	Caminos	
Ancho zona protección	Art. 53	100	50	30	30	10	explanación
Línea edificación (1)	Art. 57	50	25	18	18	12	calzada o camino
Posibilidad estaciones de servicio	Art. 58	15	12	12	8	—	calzada o camino
Cierre de fincas	Art. 60	8	3	3	2	1	calzada o camino
Ligeros		8	3	3	2	1	calzada o camino
Con obra de fábrica (2)		8	8	3	3	3	calzada o camino
Conducciones subterráneas (3)	Artº 61	8	8	8	3	1	calzada o camino
Invernaderos y construcciones no fijas (4)	Artº 64	8	8	8	3	1	calzada o camino

1- Taulan adierazten den distantzia-baldintzak bete behar ditu eraikuntzak, eta errepidearen zabalgunearen kanpoaldeko ertzetik edo marratik gutxienez 8 metrora egon behar da, eta 3 metrora bideen kasuan. Hiri-lurzoruan, baina, distantzia txikiagoa baimen daiteke, baldin eta plan orokorrak ezartzen duen lerrokadura betetzen badu, edo lurzoru urbanizagarrian, arrazoi geografikoek edo sozioekonomikoek aholkatzen dutenean, beti ere bide-segurtasuna eta behin betiko onespena duen zatiko plana edo plan berezia bermatzen badira. Eskualde-sarearen edo sare lokalaren titularra den administrazioak orokorrean ezarritakoa baino distantzia txikiagoa ezar dezake, arrazoi geografikoak edo sozioekonomikoak tarteko eta errepide jakin batzuetarako.

2- Itxiturak. Itxitura arintzat jotzen dira piketeen edo oin zuzenen gainean doazen itxitura gardenak –horien artean hari edo sareak dituztenak; zokalo edo zimendu txiki bat izan dezakete, aurrefabrikatutako hormigoizko blokeez edo antzerako elementu zeramikoz osatutakoak, 40 zentimetroko gehienezko altueradunak, errepideko ura husteko matxinalak dituztenak, zimendu edo zokalo korritua badute. Baldintza horiek betetzen ez dituztenak fabrika-obrako itxituratzat jotzen dira. Fabrika-obrako itxiturek taulan adierazten den distantzia errespetatu behar dute eta, gainera, itxituratik laugunearen kanpoaldeko ertzerainoko distantzia gutxienez itxituraren garaiera halako bat eta erdi izango da, eta garaiera hori ezingo da inoiz lau metrotik gorakoa izan.

1- La edificación debe cumplir la distancia que se indica en la tabla y quedar, al menos, a 8 m del borde o la línea exterior de la explanación de la carretera y 3 m de la de los caminos. No obstante en el suelo urbano en el podrá autorizarse una distancia menor si cumple la alineación que establezca el plan general, o en el suelo urbanizable, cuando razones geográficas o socioeconómicas lo aconsejen, y garantizada la seguridad vial, el plan parcial o especial aprobado definitivamente. La administración titular de la red comarcal o local podrá establecer, por razones geográficas o socioeconómicas y para determinadas carreteras, o tramos, una distancia menor que la establecida con carácter general.

2- Cierres. Se consideran ligeros los diáfanos sobre piquetes o pies derechos, entre los que se tienen hilos o mallas, pudiendo disponer de un pequeño zócalo o cimiento conformado a base de bloques de hormigón prefabricado o elemento de cerámica similar, de una altura máxima de 40 centímetros, dotado de mechinales para permitir evacuar las aguas de la carretera, en el supuesto de que el cimiento o zócalo sea corrido. Los que no cumplen estas condiciones se consideran cierres con obras de fábrica. Los cierres con obra de fábrica, deben respetar la distancia que se indica en la tabla y, además, su distancia del cierre a la arista exterior de la explanación no podrá ser inferior a vez y media de la altura de aquel y en ningún caso ésta será superior a cuatro metros.

Hiri-lurzoruko edo lurzoru urbanizagarriko eremuetan, hirigintzako plan eta agirietan ezarritako distantzia gordeko da, betiere plan edo agiriok onartu baino lehenago foru errepideen sarearen titularitatea duen departamentuak aldeko irizpena eman badie, baina inoiz ez da izango galtzadaren kanpoko ertz edo marratik hiru metrokoa baino txikiagoa.

3- Taulan adierazten den distantzi betetzeaz gain, lurpeko eroanbideek errepidearen edo bidearen zabalgunearen kanpoaldeko ertzetik edo marratik gutxienez metro bateko distantziara egon behar dira. Hala ere, errepideen eta bideen babes-eremuak eraikuntza eta instalazioetarako orokorrean aurreikusitakoa baino distantzia txikiagora ezarri ahal izango dira, hori aholkatzen duten arrazoiak daudenean, eta bermatuta geratzen badira bide-segurtasuna eta errepidearen beraren eta eroanbideen eta elementu osagarrien mantenua.

4- Berotegiak eta eraikuntza ez finkoak jartzeko baimena emango da, baldin eta ondorengo baldintzak betetzen badituzte: a) taulan adierazten den distantzia; b) Errepidearen edo bidearen zabalgunearen kanpoaldeko ertzetik edo marratik gutxienez 3 metrora egotea; c) bide-jabari publikotik kanpo egotea; d) errepidearen ikusgaitasuna ez murriztea.

Aireko hariteria eta instalazioak (68. art.) beren zutoinek duten altuera eta erdira gutxienez egon beharko dira; Tentsio altuko hariteria elektrikoen kasuan, gutxieneko distantzia izango da, gainera, eraikuntzetarako oro har eskatutakoaren berdina.

Landaketetarako (66. art.) eta zuhaitzen moz-keta eta inausketetarako (67. art.) berariazko baldintzak ezartzen ditu Foru Arauak.

Hiri barruko errepide-tarteen eta zeharbideen kasuan, araubide berezia ezartzen du Foru Arauak eraikuntzekin zerikusia duenari dagokionez; honela laburbil genezake:

Hiri-lurzoruko eremuetan, oro har ezarritakoa baino distantzia txikiagoetara baimen daitezke eraikuntzak, han dauden eraikinak direnean lerrokadura markatzen dutenak. Antolamendu Planik baldin badago, plan horretan eskatzen dena izango da errespetatu beharreko distantzia.

En las zonas de suelo urbano o urbanizable la distancia será la establecida por los planes e instrumentos urbanísticos siempre que antes de su aprobación los mismos hayan sido objeto de informe favorable por el Departamento titular de la Red Foral, sin que en ningún caso pueda ser inferior a tres metros medidos desde el borde o línea exterior de la calzada.

3- Las conducciones subterráneas, además de cumplir la distancia que se indica en la tabla, deben separase, al menos, 1 m del borde o la línea exterior de la explanación de la carretera o del camino. No obstante podrán colocarse en las zonas de protección de las carreteras y caminos a una distancia inferior a la prevista con carácter general para las construcciones e instalaciones cuando existan razones que así lo aconsejen y siempre que quede garantizada la seguridad viaria y el mantenimiento de la propia carretera y de las propias conducciones y elementos complementarios.

4- Los invernaderos y construcciones no fijas, sólo serán autorizables cuando cumplan las siguientes condiciones: a) la distancia que se indica en la tabla; b) disten al menos 3 m del borde o la línea exterior de la explanación de la carretera o del camino; c) queden fuera del dominio público viario; d) no disminuyan la visibilidad de la carretera.

Tendidos e instalaciones aéreas (Artº 68) deberán situarse a una distancia igual a vez y media la altura de sus postes; si se trata de conducciones eléctricas de alta tensión la distancia debe ser igual que la requerida con carácter general para las construcciones.

La Norma Foral establece condiciones específicas para plantaciones (Artº 66) y para la tala o podas de árboles (Artº 67).

En cuanto a los tramos urbanos y travesías, la Norma Foral establece un régimen peculiar en lo concerniente a las construcciones que podríamos resumir de la siguiente manera:

En las zonas de suelo urbano podrán autori-zarse construcciones a distancias inferiores a las fijadas con carácter general, cuando la existencia de varios edificios marquen alineaciones de hecho que así lo aconsejen. En caso de existencia de Plan de Ordenación, la distancia será la exigida en el mismo.

Lurzoru urbanizagarriko edo urbanizatzeko gai direnetan, eta arrazoi geografikoek edo sozioekonomikoek hala eskatzen dutenean, Arloko Planek eta Plan Bereziek ere ezarri ahal izango dituzte distantzia txikiagoak, baldin eta behar bezala bermatuta geratzen bada bidesegurtasuna, errepidearen ertzak behar bezala antolatuta eta sarbideak egoki erabakita.

Eraikuntzak distantzia txikiagoetara egiteko, beharrezkoa izango da horretarako baimena ematen duten Arloko Planak edo Plan Bereziak behin betiko onetsita eta indarrean egotea (Errepideei buruzko Foru Arauaren Testu Bateginaren 57.2 artikulua).

2.4.1.3. PUBLIZITATE-DEBEKUA DUTEN EREMUAK

Publizitate-debekua (74. art.) Errepiderako distantzia gorabehera, debekatuta dago errepidetik ikus daitekeen publizitate oro; debeku horrek ez du ematen kalte-ordainetarako eskubiderik. Debeku hori herrietako zeharbideetarako ere aplikatuko da; salbuetsita geratzen dira, baina, duten tamainagatik, hizki motagatik edo kokapenagatik, oinezkoek bakarrik irakurtzeko diseinatuta dauden kartel, idazkun edo errotuluak, trafiko-egoera arruntetan gidarien arreta ezin dutela oztopatu kontsideratzen bada. Salbuetsita geratzen dira, halaber, turismorako eduki informatiboa duten seinaleak.

2.4.1.4. PLANGINTZA ERREPIDE-SAREAREKIN KOORDINATZEA

Gipuzkoako Errepideen Foru Arauak hiriplangintza errepide-sarearekin koordinatuko dela ziurtatzeko jarraitu beharreko prozedura ezartzen du.

Aurretiazko txostena (Errepideen Foru Arauaren 93. art.)

Edozein motatako hirigintza-planak eta, hala badagokio, Urbanizazio-proiektuak edo plangintzako, egikaritzeko edo kudeaketako bestelako hirigintza-tresnak egin behar dituzten Udalek, erakundeek eta partikularrek errepideen eta bideen alorreko beharrezko informazioa eskatu beharko diote dagokion errepidearen edo bidearen titularrari, hirigintza-lanak eta -ekintza Errepide- eta Bide-planen eta onetsitako edo idazten ari diren Proiektuen aurreikuspenekin koordinatzeko helburuz.

En las zonas de suelo urbanizable o apto para urbanizar, y cuando razones geográficas o socioeconómicas así lo aconsejen, podrán también los Planes Parciales y Especiales establecer distancias inferiores siempre que quede debidamente garantizada la seguridad viaria mediante la correcta ordenación de los márgenes de la carretera y la adecuada solución de los accesos.

Para la realización de construcciones a distancias inferiores se requerirá siempre que el Plan Parcial o Especial que los autorice se encuentren definitivamente aprobados y vigentes (art.57.2 del Texto Refundido de la Norma Foral de Carreteras)

2.4.1.3. ZONA DE PROHIBICIÓN DE PUBLICIDAD.

Prohibición de publicidad (artº 74). Con independencia de la distancia a la carretera, queda prohibida toda publicidad que resulte visible desde la misma sin que esta prohibición dé derecho a indemnización, esta prohibición se aplica también en las travesías de poblaciones; se exceptúan, no obstante, aquellos otros carteles, letreros o rótulos que por su tamaño, tipo de letra o situación están diseñados para ser leídos únicamente por los peatones y se considere que en circunstancias normales de tráfico no pueden provocar la distracción de los conductores. También se exceptúa la señalización publicitaria con contenido informativo turístico.

2.4.1.4. COORDINACION DEL PLANEAMIENTO CON LA RED DE CARRETERAS.

La Norma Foral de Carreteras de Gipuzkoa establece el procedimiento que debe seguirse para asegurar la coordinación del planeamiento urbano con la red de carreteras.

Informe previo (Artº 93 de la Norma Foral de Carreteras).

Los Ayuntamientos, entidades y particulares que vayan a redactar Planes urbanísticos, cualquiera que sea su clase, y, en su caso, Proyectos de Urbanización u otros instrumentos urbanísticos de planificación, ejecución o gestión, deberán solicitar de la al titular de la carretera o camino afectado la información precisa en materia de carreteras y caminos con el fin de coordinar las tareas y la acción urbanística con las previsiones de los Planes de Carreteras y Caminos y los Proyectos aprobados o en

Hirigintzako tresna horiek idazten dituztenek eskudun administrazioaren irizpenerako aurkeztu ahal izango dituzte errepideekin eta bideekin zerikusia duten alorretan hartutako irizpideak eta soluzioak, Administrazio horiek idatziz eman dezaten irizpide eta soluzio horien gaineko beraien irizpena, hiru hilabeteko epearen barruan.

redacción.
Quienes redacten los citados instrumentos urbanísticos podrán también someter a informe de la administración competente los criterios y soluciones que en materias relacionadas con las carreteras y caminos pretendan adoptar con el fin de que dichas Administraciones se pronuncien por escrito y en el plazo de tres meses sobre dichos criterios y soluciones.

Nolanahi ere, formulatzen diren hirigintzako tresnak bat etorri beharko dira Errepideen eta Bideen Planen eta plan horiek garatzen dituzten Proiektuen zehaztapenekin.

En todo caso los instrumentos urbanísticos que se formulen deberán resultar conformes con las determinaciones de los Planes de Carreteras y Caminos y con las de los Proyectos que las desarrollen.

Hasierako onespenaren ondorengo txostena (94. art.)

Informe tras aprobación inicial (Artº 94)

Edozein Antolamendu Plan, Arau, Ordenantza, Hiri-lurzorua Mugarriztatzeko Proiektu, Xehetasun-azterlan edo, hala badagokio, horiei dagokion Aurrerakin, Urbanizazioko Proiektu edo hirigintzako beste edozein tresna onesteko, beti ere errepide baten trazadura edo ezaugarriak aldatzea edo sarbide berriak irekitzea badakarte, edo babes-eremuen mugei eragiten badiete, titularra den administrazioaren nahitaezko irizpena eskatu beharko da.

Para la aprobación de cualesquiera Planes de Ordenación, Normas, Ordenanzas, Proyectos de Delimitación de Suelo Urbano, Estudios de Detalle o, en su caso, sus respectivos Avances, así como de Proyectos de Urbanización y cualesquiera otros instrumentos urbanísticos, siempre que supongan modificación del trazado o características de una carretera, impliquen la apertura de nuevos accesos o afecten a las limitaciones de las zonas de protección, deberá solicitarse informe preceptivo de la administración titular de aquélla.

Hasierako onespenerako eskumena duen Administrazioak eskatuko du irizpen hori onespena eman eta berehala eta, nolanahi ere, behin-behineko onespena eman aurretik; onespen hori ezingo da eman irizpena eskatzen denetik bi hilabeteko epea igaro arte Plan Orokorren eta Arau Subsidiarioen kasuan, eta hilabete bat igaro arte gainerako kasuetan. Onespen-prozeduran behin-behineko onespenik aurreikusten ez denean, behin betiko onespena eman aurretik eskatu beharko da txostena edo irizpena; onespen hori ezin izango da eman irizpena eskatzen denetik hilabeteko epea igaro arte.

El informe se solicitará por la Administración competente para la aprobación inicial inmediatamente de otorgarse la misma y, en todo caso, antes de la aprobación provisional, aprobación que no procederá se otorgue hasta transcurridos dos meses para Planes Generales y Normas Subsidiarias y un mes en los restantes casos, desde la fecha de solicitud del informe. Cuando en el procedimiento de aprobación no se prevea aprobación provisional, el informe deberá solicitarse antes de la aprobación definitiva, aprobación que no procederá se otorgue hasta transcurrido un mes desde la fecha de solicitud del informe.

Errepideekin, errepideetako segurtasunarekin eta trafiko-beharrekin zerikusia duten alderdiei buruzkoa bakarrik izango da administrazioaren txostena, eta loteslea izango da Foru Arauaren eta aplikaziokoak diren arau teknikoen zehaztapenak betetzeko horrela ezarrita dagoen guztian.

El informe de la administración versará exclusivamente sobre aspectos relacionados con las carreteras, su seguridad y las necesidades del tráfico, será vinculante en todo lo que así se determine en cumplimiento de las determinaciones de esta Norma Foral y de las normas técnicas de aplicación.

2.4.2. TRENBIDE-SAREA.

TRENBIDE-SAREAK ere badu bere Lurraldearen Arloko Plana (41/2001 Dekretua, otsailaren 27koa, EHAA, 69. zenbakia, apirilaren 9koa), hirigintza-plangintzarako loteslea dena eta, gainera, mugakide dituen jabegoen gaineko legezko mugak eta zortasunak jasotzen dituena. Horri dagokionez, lurraldearen arloko plan horren ondorengo zehaztapenak nabarmendu ditzakegu:

21. artikulua.- Trenbideen aldameneko eremuen definizioa.

Babes-araubidea eta lurzoruaren erabilera- eta eraikuntza-baldintzak zehazteko, hiru gune mugatuko dira, trenbidearen ondo-ondoan dauden hauek, zabalgunearen kanpoaldeko ertzetik zenbatzen hasita: jabari publikoak barne hartzen duen lurralde esparrua; zortasun-lurrak eta eragindakoak.

22. artikulua.- Babes-araubidea, trenbidearen jabari publikoaren mugakide diren eremuetan.

1. Trenbideko jabari publikoaren mugakide diren eremuak, handik hurbil daudenez, bi eremutan banatzen dira: zortasun-eremua eta eragindakoa, eta haien jabego eskubidearen estatutu berezia finkatzen dute.

2. Ondorengo bi artikuluetan zortasun-eremua eta eragindakoak definitzeko aurreikusitako distantziak aldatu ahal izango dira kasu jakin batzuetan, arloko legerian aurreikusitako kasuetan.

23. artikulua.- Zortasun-eremuaren definizioa

1. Zortasun-eremua trenbidearen bi aldeetan dauden lur-zerrendak dira; barrutik jabari publikoko eremuak eta kanpotik zabalgunearen kanpoaldeko ertzen paraleloak diren bi lerrok mugatzen dute: hogei (20) metrora lurzoru urbanizagarrian eta urbanizaezinean, eta zortzi (8) metrora hiri-lurzoruan. Neurketa horizontalean eta trenbidearen kanpo-bidearekiko perpendikularrean eta zabalgunearen kanpoko ertzetatik hasita egingo da.

2.4.2. RED FERROVIARIA.

La RED FERROVIARIA por su parte, dispone también de su propio Plan Territorial Sectorial (Decreto 41/2001 de 27 de febrero (B.O.P.V. número 69 de 9 de abril) de eficacia vinculante para el planeamiento urbanístico, contemplando además las limitaciones y servidumbres legales sobre las propiedades colindantes. A este respecto podemos destacar las siguientes determinaciones de este plan territorial sectorial:

"Artículo 21.- Definición de las zonas inmediatas a la línea férrea.

A los efectos de determinación del régimen de protección, así como de las condiciones de uso y edificación del suelo, se delimitan inmediatamente a la línea férrea, y contadas a partir de la arista exterior de la explanación tres franjas: la banda de terreno incluida en la zona de dominio público; la de servidumbre y la de afección.

Artículo 22.- Régimen de protección en las zonas colindantes al dominio público ferroviario.

1. Los terrenos colindantes al dominio público ferroviario, por razón de su proximidad al mismo, se dividen en dos franjas denominadas zona de servidumbre y zona de afección, las cuales determinan un estatuto específico del derecho de propiedad de los mismos.

2. Las distancias previstas en los dos artículos siguientes para definir las zonas de servidumbre y de afección podrán ser modificadas para casos concretos en los supuestos previstos en la legislación sectorial.

Artículo 23.- Definición de la zona de servidumbre

1. La zona de servidumbre consiste en sendas franjas de terreno a ambos lados de la línea férrea, delimitadas interiormente por la zona de dominio público y exteriormente por dos líneas paralelas a las aristas exteriores de la explanación, a una distancia de veinte (20) metros en suelo urbanizable y no urbanizable, y de ocho (8) metros en suelo urbano, medidos en horizontal y perpendicularmente al carril exterior de la vía férrea desde las aristas exteriores de la explanación.

2. Tunelen kasuan, zortasun-eremua da barrutik jabari publikoko guneak eta kanpotik egituraren kanpoko ertzen paraleloak diren bi lerrok eta trenbidea zeharkatzen duen beste batek mugatzen duten lur-eremua; distantzia hogei (20) metrokoa izango da lurzoru urbanizagarrian eta urbanizaezinean, eta zortzikoa (8) hiri-lurzoruan, horizontalean eta lehenengoarekiko perpendikularrean neurtuta.

24. artikulua.- Eragindako eremuaren definizioa

1. Trenbideak eragindako gunea haren bi aldeetan dauden lur-zerrendak dira; barrutik zortasun-eremuen kanpoko mugek eta kanpotik zabalgunearen kanpoko ertzaren paralelo diren bi lerroek mugaturik daudenak, eta berrogeita hamar (50) metrora daudenak lurzoru urbanizagarrian eta urbanizaezinean, eta hogeita bost (25) metrora hiri-lurzoruan; neurketa horizontalean eta trenbidearen kanpoko bidearekiko perpendikularrean egingo da, eta zabalgunearen kanpoko ertzetatik hasita.

2. Tunelen kasuan, ez dago eragindako eremurik".

2.4.3. IBAIAK ETA ERREKAK.

IBAIAK ETA ERREKAK EAEko Kantauriko eta Mediterraneoko isurialdeko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana behin betikoz onesten duen azaroaren 19ko 449/2013 Dekretuak arautzen ditu (EHAA, 2013ko abenduaren 12koa). Akatsen zuzenketa (EHAA, 2014ko urtarrilaren 27koa).

Azken horretatik, ondorengo zehaztapenak nabarmen ditzakegu:

"B.1.- Ertzen zonakatzea eta/edo tarteak bereiztea.

I.- Lurraldearen Arloko Plan honetan, honela bereiziko dira zonatan edota tarteetan ibaien eta erreken ertzak:

1.- Ertzen zonakatzea, **Ingurumen-osagaiaren arabera**.
2.- Ur-ibilguen tarteak, **Arro Hidraulikoen arabera**.
3.- Ertzen zonakatzea, **Hirigintza-osagaiaren arabera**.

2. En el caso de túneles, la zona de servidumbre consiste en una franja de terreno delimitada interiormente por la zona de dominio público y exteriormente por dos líneas paralelas a la arista exterior de la estructura, y otra transversal a la línea férrea a una distancia de veinte (20) metros en suelo urbanizable y no urbanizable, y de ocho (8) metros en suelo urbano, medidos en horizontal y perpendicularmente a la primera.

Artículo 24.- Definición de la zona de afección

1. La zona de afección de la línea férrea consiste en sendas franjas de terreno a ambos lados de la misma, delimitadas interiormente por los límites externos de las zonas de servidumbre, y exteriormente por dos líneas paralelas a las aristas exteriores de la explanación, a una distancia de cincuenta (50) metros en suelo urbanizable y no urbanizable, y de veinticinco (25) metros en suelo urbano, medidos en horizontal y perpendicularmente al carril exterior de la vía férrea desde las aristas exteriores de la explanación.

2. En el caso de túneles, se excluye la existencia de la zona de afección."

2.4.3. RIOS Y ARROYOS.

Los **RÍOS Y ARROYOS** por su parte, fueron objeto de regulación por parte del Decreto 449/2013, de 19 de noviembre, por el que se aprueba definitivamente la Modificación del PTS (Vertientes Cantábrica y Mediterránea). (BOPV de 12 de diciembre de 2013). Corrección de errores (BOPV de 27 de enero de 2013).

De este último podemos destacar las siguientes determinaciones:

"B.1.- Zonificación y/o tramificación de las márgenes.

I.- Las márgenes de los ríos y arroyos se zonifican y/o tramifican a través del presente P.T.S. de la siguiente forma:

1.- Zonificación de las márgenes **según su Componente Medioambiental**.
2.- Tramificación de los cursos de agua **según sus Cuencas Hidráulicas**.
3.- Zonificación de las márgenes **según su Componente Urbanística**.

Osagai bakoitzari dagokion araudia batera aplikatzearen ondoriozkoa izango da Lurraldearen Arloko Plan honen esparruko puntu bakoitzean aplikatu beharreko araudia. Arau batzuk beste batzuei gainjartzen zaizkien kasuetan, ingurumen-balioen babes-maila handiena dakarren araudia aplikatuko da.

La normativa a aplicar a cada punto del ámbito del presente P.T.S. será la resultante de la aplicación conjunta de la normativa que le corresponde en virtud de cada componente. En el caso de superposición de determinaciones normativas será de aplicación la que conlleve un mayor grado de protección de los valores medioambientales.

II. -Udal-plangintzak «lur azaleko urak babesteko lurzoru urbanizaezin» kategoria ezarriko du lurzoru urbanizaezineko ibilguen ertzetan –Lurraldearen Arloko Plan honen ondoriozko zonekin–. Lur azaleko urak babesteko lurzoru urbanizaezin horrek, bestalde, Plan honen Araudiaren F.1. paragrafoko 1. puntuan definitzen diren zabalerak izango ditu ibilguaren bi ertzetan.

II. -El planeamiento municipal establecerá en las márgenes de los cauces en suelo no urbanizable la categoría de «Suelo No Urbanizable de Protección de Aguas Superficiales» con las zonas derivadas de este P.T.S. Este Suelo No Urbanizable de Protección de Aguas Superficiales tendrá en cada margen las anchuras definidas en el punto 1 del apartado F.1. de la Normativa del Plan.

III.- Aurreko puntuan adierazitakoaz gain, udal-plangintzak Lurraldearen Arloko Plan honetan definitutako irizpideak bete beharko ditu ibilguaren alde bakoitzean finkatzen den 100 metroko zabalerako zerrendan.

III.- Además de lo señalado en el punto anterior el planeamiento municipal deberá recoger sobre la banda de 100 metros de anchura a cada lado de los cauces los criterios definidos en este Plan Territorial Sectorial.

…/…

…/…

B.4.- **Ertzen zonakatzea, Hirigintza-osagaiaren arabera**.

B.4.- **Zonificación de las márgenes según su componente urbanística**.

Ertzen zonakatze xehatua ezartzen da Lurraldearen Arloko Planean jasotako ibilgu guztietarako, duten hirigintza-garapen orokorraren arabera:

Se establece para el conjunto de los cauces contemplados en el P.T.S. una zonificación pormenorizada de sus márgenes en función de su nivel de desarrollo urbanístico general:

A.- Landa-esparruko ertzak.
B.- Hiri-arteko Komunikazio-azpiegiturek okupatutako ertzak.
C.- Esparru Garatuetako ertzak.
D.- Hirigintza-garapen Berriak hartzeko gaitasuna duten ertzak.

A.- Márgenes en Ámbito Rural.
B.- Márgenes ocupadas por Infraestructuras de Comunicaciones Interurbanas.
C.- Márgenes en Ámbitos Desarrollados.
D.- Márgenes con Potencial de Nuevos Desarrollos Urbanísticos.

Uholde-arriskugarritasuna da, zalantzarik gabe, kezkarik handiena eragiten duten gaietako bat, 2007ko urriaren 23ko 2007/60/EB Zuzentarauak analisirako esparru komun baten ikuspuntutik tratatzen duen uraren kudeaketari dagokionez; horren helburua da horrek gizakiaren osasunean, ingurumenean, kultura-ondarean eta jarduera ekonomikoan duen eragina pixkanaka murriztea. Uholde-arriskuak ebaluatzeari eta kudeatzeari buruzko uztailaren 9ko 903/2010 Errege Dekretuaren bitartez egiten da Estatuko ordenamendu juridikorako horren transposizioa, eta hor adierazten da arroko plan hidrologikoen berrikuspenekin koordinatuta egingo direla uholde-arriskuak

La **inundabilidad** constituye, naturalmente, una de las mayores preocupaciones en cuanto a la gestión del agua que la Directiva 2007/60/CE de 23 de octubre de 2007 trata desde la perspectiva de un marco común de análisis con el objeto de reducir progresivamente los riesgos asociados sobre la salud humana, el medio ambiente, el patrimonio cultural y la actividad económica. En su transposición al ordenamiento jurídico estatal, a través del Real Decreto 903/2010, de 9 de julio, de evaluación y gestión de riesgos de inundación, se indica que la elaboración de los primeros planes de gestión del riesgo de inundación y sus revisiones posteriores se

kudeatzeko lehenengo planak eta plan horien ondorengo berrikuspenak.

2.4.4. HEZEGUNEAK

HEZEGUNEAK, bestalde, Eusko Jaurlaritzaren uztailaren 27ko 160/2004 Dekretu bidez (EHAA, 222. zenbakia, azaroaren 19koa) onetsitako Hezeguneen Lurraldearen Arloko Planaren bitartez katalogatzen eta antolatzen dira, eta urriaren 30eko 231/2012 Dekretuaren bidez (EHAA, 220. zenbakia, 2012ko azaroaren 14koa) egindako aldaketaren bitartez. Ondorengo alderdiak azpimarra ditzakegu araubide horri dagokionez:

"5. artikulua.- Hezeguneen sailkapena.

Antolamendu-proposamenaren garapen-maila eta kasu bakoitzean aplikatuko zaion araudia zehazteko asmoz, multzo hauetan sailkatzen dira Lurraldearen Arloko Plan honen xede diren hezeguneak:

• I. Multzoa:
Multzo horretan sartzen dira gaur egun Natura-espazio Babestutzat jotzen diren hezeguneak, nahiz Parke Naturalak nahiz Biotopo Babestuak izan, eta Urdaibaiko Biosfera Erreserba. Eremu horien antolamendua ez da izango Lurraldearen Arloko Plan honen xedea, eta espazio horietako bakoitzaren berariazko araudiaren arabera egingo da.

• II. Multzoa:
Bi hezegune mota sartzen dira multzo honetan:

- Lurzoruaren Araubideari eta Hiri-antolamenduari buruzko legeriari jarraiki hirigintza-plangintza bereziak babesten dituenak.
- Lurraldearen Arloko Plan honek xehetasunez antolatutako eremuak (itsasaldeko 8, eta barrualdeko 11).

• III. Multzoa:
Inbentarioan jasotako eta aurreko multzoetan sartzen diren gainerako hezeguneak sartzen dira hirugarren multzo honetan.

realizarán en coordinación con las revisiones de los planes hidrológicos de cuenca.

2.4.4. ZONAS HUMEDAS.

En cuanto a las ZONAS HÚMEDAS, las mismas se hallan catalogadas y ordenadas a través del Plan Territorial Sectorial de Zonas Húmedas, aprobado por Decreto 160/2004 de 27 de julio del Gobierno Vasco (B.O.P.V. 222 de 19 de noviembre) y su modificación operada por el Decreto 231/2012 de 30 de octubre (B.O.P.V. 220 de 14 de noviembre de 2012). De esta regulación podemos reseñar los siguientes aspectos:

"Artículo 5.- Clasificación de las zonas húmedas.
A efectos de precisar el grado de desarrollo de la propuesta de ordenación así como la regulación aplicable en cada caso, las Zonas Húmedas objeto de este Plan Territorial Sectorial quedan clasificadas en los siguientes grupos:

• Grupo I:
Se incluyen en este grupo las zonas húmedas actualmente afectadas por la declaración como Espacios Naturales Protegidos ya sean Parques Naturales o Biotopos Protegidos y Reserva de la Biosfera de Urdaibai. La ordenación de estas zonas no es objeto del presente Plan Territorial Sectorial y se realizará de acuerdo con la normativa específica de cada uno de estos espacios.

• Grupo II:
En este grupo se incluyen dos tipos de zonas húmedas:

- Las protegidas por planeamiento especial urbanístico de conformidad con la legislación sobre el Régimen del Suelo y Ordenación Urbana.
- Las zonas ordenadas pormenorizadamente por este PTS (8 costeras y 11 interiores).

• Grupo III:
Comprende el resto de humedales inventariados y no incluidos en los anteriores grupos.

SEKTORIZAZIOA ETA ERABILEREN ERREGULAZIOA.

7. artikulua.- Antolamenduaren eta sektorizazioaren esparrua.

Lurraldearen Arloko Planaren antolamendu-esparrua II. multzoko hezeguneei dagokie. Horien mugatzea ez da irizpide berdinei jarraiki egingo, bereizi egingo baitira itsasaldekoak eta barrualdekoak.

2. – Barrualdeko hezeguneak.

Antolamendu-esparrua 100 metroko lur-zerrendak mugatzen duena da, ur-laminatik edo hezegunearen kubetatik neurtzen hasita, eta honako sektorizazio hau ezartzen da hezegune horrekiko zentrokideak diren eraztunen modura antolatua:

– Ur-laminaren eremua eta urertzak (kubeta): Hezegunean eta urertzetan pilatutako uraren gehienezko maila da. Bere egituraren, neurrien eta tipologiaren arabera, lamina ur libreek osatzen dute, inolako oztoporik gabe, edo azaleratutako landaretzak modu iraunkorrean edo urtaro jakin batean estalitako guneak izaten ditu. Egoera hori bera ager daiteke kubetaren urertzean ere. Eremu batzuk azpi-eremutan banatzen dira, erabilera eta jarduerak behar bezala erregulatzeko.

– Hurbileko zerrendaren eremua: Horren barruan sartzen da kubetaren inguruan dagoen koroa zirkular bat, 50 bat metroko zabalera duena. Aztergai den lurraldeak eskainitako baldintza topografikoetara egoki daiteke bere zabalera, bai eta gorabehera artifizialetara ere (errepideak, pistak, erretenak, lurzoruaren zatitutako sektoreak, etab.). Azpi-eremuetan banatzen da zerrenda hori, erabileren eta jardueren erregulazioan zehaztasun handiagoa lortze aldera.

– Inguruneko eremua: Aurreko eremu horren mugaren eta kubetarekiko zentrokide den zirkuluaren arteko koroak osatzen du, ertzetik 100 metrora. Hurbileko zerrendan bezala, erabileren eta jardueren erregulazioa zehazteko azpi-kategoriak ezartzen dira".

SECTORIZACIÓN Y REGULACIÓN DE USOS

Artículo 7.- Ámbito de ordenación y sectorización.

El ámbito de ordenación del Plan Territorial Sectorial se refiere a las zonas húmedas del Grupo II, y su delimitación responde a criterios diferentes según se trate de humedales costeros o interiores.

2. – Zonas húmedas interiores.

El ámbito de ordenación es el delimitado por la banda de 100 m, medidos a partir de la lámina de agua o cubeta del humedal, estableciéndose la siguiente sectorización en anillos concéntricos al humedal:

– Zona de la lámina de agua y orillas (cubeta): comprende el nivel máximo de agua embalsada en el humedal y las riberas del mismo. Dependiendo de su estructura, dimensiones y tipología, la lámina está constituida por aguas libres sin ningún tipo de accidente, o presenta áreas permanente o estacionalmente ocupadas por vegetación emergida. Situación repetible en las orillas de la cubeta. Se realiza en algunas zonas una división en subzonas para una adecuada regulación de los usos y actividades.

– Zona de la banda próxima: Comprende una corona circular en torno a la cubeta de un ancho aproximado de 50 m. Su amplitud es susceptible de adaptarse a las condiciones topográficas ofrecidas por el territorio en cuestión, así como a accidentes artificiales (carreteras, pistas, acequias, sectores parcelados del suelo, etc.). Se realiza una división en subzonas de esta banda, con el fin de lograr una mayor concreción en la regulación de usos y actividades.

– Zona del entorno: La forma la corona comprendida entre la delimitación de la zona anterior y el círculo concéntrico a la cubeta, a una distancia de 100 m del borde de la misma. Al igual que en la banda próxima, se establecen subcategorías para determinar la regulación de usos y actividades."

2.4.5. GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO MENDIEI BURUZKO FORU ARAUA.

GIPUZKOAKO Lurralde Historikoko Mendiei buruzko urriaren 20ko 7/2006 Foru Arauak (GAO, 204. zenbakia, 2006ko urriaren 26koa), GIPUZKOAREN foru ondare juridikoaren barruan tradizio eta garrantzi handieneko eskumen esklusiboetako bat arautzeko eman zenak, "Gipuzkoako mendiak hobetzea eta artatzea du helburu, mendion dibertsitatea eta ekoizpena bermatuz". Honako hauek dira, hain zuzen ere, foru araudi horrek aipatzen dituen helburu zehatzak (1. artikulua):

1. Erabilerak antolatzea, mendiaren aprobetxamendu jasangarria sustatuz, eta ingurumenari dagozkion alderdiak jarduera ekonomiko, sozial eta kulturalekin bateratuz.
2. Duen eginkizun ekonomikoaren eta natura-ondarea, klima, ur-baliabideak, airearen garbitasuna, lurzoruaren egonkortasuna eta emankortasuna, paisaia, nekazaritza-egitura eta gainerako azpiegiturak zaintzeko duen eginkizunaren arteko oreka ahalbideratzea, bai eta herritarren aisialdirako gune izateko duen eginkizunarekikoa ere.
3. Basogintzako ekonomikoa, enplegua eta landa-ingurunearen garapena sustatzea, eta baso-jabeei Foru Arau honetan zehaztutako eginbeharrak betetzen laguntzea, interes orokorren eta partikularren arteko oreka bultzatuz.
4. Baso-jabetza publikoa sustatzea, sendotzea eta areagotzea.
5. Mendiei buruzko ohiturazko eta tradiziozko arauak antolamendu juridikora egokitzea, haien erakundeak, erabilerak eta ohiturak eguneratu daitezen.
6. Beste herri administrazio eta eragile sozial batzuekin koordinatuta, mendia errespetu handiagoz erabiltzearen eta aprobetxatzearen inguruko sentsibilizazioa eta informazioa sustatzea, mendiak sortzen dituen ondasun eta zerbitzuen erabiltzaile eta kontsumitzaileen zein, beren jarduera garatzerakoan, menditik askotariko natura-baliabideak eskuratzen dituzten komunitate, enpresa eta profesionalen jarrerak aldatzen lagunduz.

2.4.5. NORMA FORAL DE MONTES DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA.

La Norma Foral de Montes 7/2006 de 20 de octubre, del Territorio Histórico de GIPUZKOA (B.O.T.H.G. 204 de 26 de octubre de 2006), dictada en la regulación de una de las competencias exclusivas con mayor tradición e importancia en el acervo jurídico foral de GIPUZKOA, tiene por objeto "la mejora y conservación de los montes de Gipuzkoa, garantizando su diversidad y producción". Las referidas finalidades que enuncia esta normativa foral se concentran (artículo 1) en:

1. Ordenar los usos, fomentando el aprovechamiento sostenible del monte, integrando los aspectos ambientales con las actividades económicas, sociales y culturales.
2. Posibilitar el equilibrio entre su función económica y la función pública inherente a la conservación del patrimonio natural, del clima, del balance hídrico, la limpieza del aire, la estabilidad y fertilidad del suelo, el mantenimiento del paisaje, de la estructura agraria e infraestructuras, así como de la función de esparcimiento de los ciudadanos.
3. Fomentar la economía forestal, el empleo y el desarrollo del medio rural y apoyar a quien sea propietario forestal en el cumplimiento de los deberes especificados en esta Norma Foral, propiciando el equilibrio armónico entre los intereses generales y particulares.
4. Fomentar, consolidar y aumentar la propiedad pública forestal.
5. Armonizar el régimen consuetudinario de los montes con el ordenamiento jurídico, de forma que puedan actualizarse sus instituciones, usos y costumbres.
6. Fomentar la sensibilización e información, en coordinación con otras administraciones públicas y agentes sociales, hacia un uso y aprovechamiento más respetuoso del monte, contribuyendo al cambio de actitudes necesario, tanto de usuarios y consumidores de los bienes y servicios que genera, como de las comunidades, empresas y profesionales que desarrollando su actividad, obtienen de él los variados recursos naturales.

Bestela esanda, “mendiaren eginkizun soziala” (5. Artikulua) aldarrikatzen da; era horretan, natura-baliabideen iturritzat jotzeaz gain, eginkizun soziala eta ekologikoa ere betetzen dute mendiek, besteak beste: natura-ondarea, klima, ur-baliabideak, airearen garbitasuna, lurzoruaren egonkortasuna eta emankortasuna, paisaia, nekazaritza-egitura eta gainerako azpiegiturak zaintzea, eta herritarren aisialdirako gune izateko duen eginkizuna.

En otros términos, se proclama la “función social del monte” (artículo 5), de ese modo, además de la consideración como fuente de recursos naturales, se hallan afectados a la función social y ecológica de atender, entre otras: La conservación del patrimonio natural, el clima, el balance hídrico, la limpieza del aire, la fijación del carbono, la estabilidad y fertilidad del suelo, el mantenimiento del paisaje, la estructura agraria e infraestructuras, así como la función de esparcimiento de la ciudadanía.

2.4.6. ONURA PUBLIKOKO MENDIAK (OPM).

Titularitatearen arabera, publiko eta pribatutan sailkatzen dira mendiak (8. artikulua). Mendi publikoak dira erakunde publikoen mendiak; era berean, jabari publikoko mendiak eta ondare-mendiak sailkatzen dira. Publikoak zein pribatuak deklara daitezke mendi babesgarri, baldin eta interes orokorraren ikuspuntutik ezaugarri nabarmen batzuk betetzen badituzte (higaduraren aurrean lurzorua babestea, ibai-arroen sorburuetan egotea...). Halaber, ONURA PUBLIKOKO mendiak dira eta horrela deklara daitezke, interes orokorrari dagokionez baldintza edo ezaugarri nabarmenak betetzen dituzten titularitate publiko mendiak.

2.4.6. MONTES DE UTILIDAD PÚBLICA (MUP).

Los montes se clasifican (artículo 8) en razón de su pertenencia, en públicos y privados. Los públicos son los que pertenecen, obviamente, a las entidades públicas clasificándose a su vez, en montes de dominio público y montes patrimoniales. Tanto los públicos como los privados, podrán ser declarados como montes protectores cuando reúnan características destacadas desde el punto de vista del interés general (protección del suelo contra la erosión; ubicación en cabeceras de cuentas hidrográficas...). Asimismo, son y pueden ser declarados de UTILIDAD PÚBLICA los montes de titularidad pública que reúnan las condiciones o características destacadas en cuanto al interés general.

Hirigintzako plangintza orokorraren ikuspuntuari dagokionez, mendien foru araudia arloaren araudia da, araudiaren beraren aurreikuspenei gainjarritako moduan eragiten duena. Erabilera eta erregulazio ugarik dute, gainera, mendiengan eragina, bai naturaren babesaren ikuspuntutik (parke naturalak, hegaztiak eta bestelakoak babesteko eremuak), bai natura-fruituen, su-egurraren, uraren, ehizaren, aisialdiaren eta kontuan hartu beharreko eta abar luze baten aprobetxamenduen ikuspuntutik.

Desde el punto de vista del planeamiento general urbanístico, la normativa foral de montes constituye una regulación sectorial que incide de manera superpuesta a las previsiones del mismo. Sobre los montes, además, inciden infinidad de usos y regulaciones tanto desde el punto de vista de la protección de la naturaleza (como los parques naturales, las zonas de protección de aves y otras) como desde la perspectiva de los aprovechamientos de frutos naturales, leñas, agua, caza, ocio y un largo etcétera que merece la pena considerar.

2.4.7. 3/1998 LEGE OROKORRA, EUSKAL HERRIKO INGURUMENA BABESTEKO DENA.

EAEko ingurumenaren babesaren arau-esparrua Euskal Herriko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean dago ezarrita (EHAA, 59. zenbakia, martxoaren 27koa). Hauexek dira legezko arau horretan planteatzen diren helburuak:

a) "Gaur egungo beharrak aseko dituen garapen jasangarria bermatzea, etorkizuneko belaunaldiek beren beharrak asetzeko izango duten gaitasuna arriskuan jarri gabe.
b) Biodibertsitatea zaintzea, haren osagaiak modu jasangarrian erabiltzen direla zainduz, ingurumen-baliabideen erabilera-ren ondoriozko etekinetan partaidetza bidezkoa eta ekitatiboa lortzeko helburuz.
c) Herritarren bizi-kalitatea hobetzea, edozein dela ere bizi-ingurunea.
d) Ingurumena babestea, haren narriadura prebenitzea eta, kaltetu bada, lehengoratzea.
e) Ingurumen-inpaktuak minimizatzea, aldez aurretik jardueren ondorioak ebaluatuz eta neurri zuzentzaileak ezarriz.
f) Ikerkuntza sustatzea, ingurumen-ezagutzaren alor guztietan.
g) Hezkuntza-maila guztietan ingurumen-heziketa sustatzea, eta herritarrak ingurumena babesteko kontzientziatzea.
h) Hiri-ingurumenaren jasangarritasuna bermatzea, hiri-plangintzan eta ondare historikoaren babesean ingurumenari dagozkion kontsiderazioak modu eraginkorrean sartuta.
i) Landa-ingurunearen jasangarritasuna bermatzea, nekazaritza-jardueraren eta ingurumenaren arteko oreka zainduz eta bultzatuz."

2.4.7. LEY 3/1998 GENERAL DE PROTECCIÓN DEL MEDIO AMBIENTE DEL PAÍS VASCO.

El marco normativo en la protección del medio ambiente del País Vasco, se contiene o establece en la Ley 3/1998 de 27 de febrero (B.O.P.V. número 59 de 27 de marzo) General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco. Los fines que se plantean desde esta norma legal son los siguientes:

a) Garantizar un desarrollo sostenible que satisfaga las necesidades del presente sin poner en peligro la capacidad de las generaciones futuras para satisfacer sus propias necesidades.
b) Conservar la biodiversidad, velando por la utilización sostenible de sus componentes, a fin de obtener una participación justa y equitativa en los beneficios derivados de la utilización de los recursos ambientales.
c) Mejorar la calidad de vida de la ciudadanía, cualquiera que sea el medio ambiente en el que habite.
d) Proteger el medio ambiente, prevenir su deterioro y restaurarlo donde haya sido dañado.
e) Minimizar los impactos ambientales, evaluando previamente las consecuencias del ejercicio de las actividades, estableciendo las medidas correctoras.
f) Fomentar la investigación en todos los campos del conocimiento ambiental.
g) Promocionar la educación ambiental en todos los niveles educativos, así como la concienciación ciudadana en la protección del medio ambiente.
h) Garantizar la sostenibilidad del medio ambiente urbano a través de la integración efectiva de las consideraciones medioambientales en la planificación urbana y la protección del patrimonio histórico.
i) Garantizar la sostenibilidad del medio rural, preservando e impulsando el equilibrio entre la actividad agraria y el medio ambiente."

Europar Batasuneko erakundeek emandako arauketarekin bat etorriz, nabarmentzekoa da administrazioek ingurumenaren inguruan duten informazioa eskuratzeko edozein pertsona fisiko edo juridikori ematen dion eskubidea, nahiz eta aipatutako pertsonak edo erakundeak interes jakinik ez izan (legitimazio publikoa) (16. art.), eta ingurumen-baliabide ezberdinak babesteko berariazko arauak jasotzen ditu (Biodibertsitatea, Urak –dagokion baimen-araubidearekin–, Hezeguneak, Lurzoruaren babesa, airearena, eta zaraten eta dardaren aurrekoa).

Ingurumenean eragina duten jardueren antolamenduan (38. artikulua eta ondorengoak) "kutsaduraren kontrol integratua" azpimarratzen da, baita ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa ere; azken horren barruan, Estatu mailako arauketari ere aurre hartuta, planen eta programen baterako ebaluazioa jaso zuen, beranduago garatuko zena 2003ko Dekretu batean, eta gaur egun indarrean dagoen Eusko Jaurlaritzaren urriaren 16ko 212/2012 Dekretuan (Eusko Legebiltzarraren Legea, 2012, 412). Egia esan, 1998an lege hori onartu zenetik, oso azkar garatu da ingurumenaren alorreko araudia, bai Europako Zuzentarauei dagokienez, bai Estatu mailako xedapenei dagokienez; hala eta guztiz ere, ezin zaio garrantzirik kendu erregulazio autonomikoko esparrutzat kalifikatu dugun legezko arau honi.

Bestalde, eta guri dagokigun udalerri esparruan, nabarmendu behar dugu, halaber, SAILKATUTAKO JARDUEREN arauketa (3/1998 Lege horren 55. artikulua eta ondorengoak), 1961eko RAMINP zaharra ordezten duena; guri dagokigunez, "jarduera-lizentzia" ezagunetan du eragina. Lizentzia horiek beharrezkoak dira legezko testuaren beraren arabera sailkatutako guztietan. HONDAKINEK ere atal garrantzitsuenetako bat hartzen dute (67. artikulua eta ondorengoak), hondakin erradiaktiboak, baliabide mineraletatik eratorritakoak, lehergaiak eta gasak kanpo. Horien barruan, hiri-hondakin solidoei ematen die garrantzi berezia (72. Artikulua), Autonomia Erkidegoko lurralde osorako gaikako bilketa-sistemak sustatuz. Halaber, eta bestelako zehaztapenen artean, ingurumen-auditoriak lantzen ditu (96. artikulua), eta ingurumena zaintzeko eta kudeatzeko tresnak, eko etiketak eta ingurumen-hezkuntza.

En correspondencia con la regulación emanada desde las instituciones de la Unión Europa, destaca el derecho de acceso a la información (artículo 16) disponible por las administraciones públicas en materia de medio ambiente, por parte de cualquier persona física o jurídica aun sin un interés determinado por la citada persona o entidad (legitimación pública), y contiene normas específicas para la protección de los distintos recursos ambientales (Biodiversidad, Aguas con su pertinente régimen de autorizaciones, Zonas Húmedas, protección del Suelo, así como del aire, ruidos y vibraciones).

La ordenación de las actividades con incidencia en el medio ambiente (artículos 38 y siguientes) inciden en el "control integrado de la contaminación" y en la evaluación del impacto ambiental dentro de cuya tipología, adelantándose incluso a la regulación estatal, incorporó la de la evaluación conjunta de los planes y programas posteriormente desarrollada en un Decreto de 2003 y el actual Decreto núm. 212/2012 de 16 de octubre (LPV 2012\412) del Gobierno Vasco. Verdaderamente, desde 1998 en que se dictó esta norma legal, el desarrollo de la normativa medioambiental tanto a nivel de Directivas europeas, como de disposiciones estatales ha resultado vertiginoso, a pesar de lo cual, no cabe restar importancia a esta norma legal que hemos calificado de marco de regulación autonómica.

Por otra parte, y en el ámbito municipal en el que nos encontramos, hemos de destacar, así mismo, la regulación de las ACTIVIDADES CLASIFICADAS (artículos 55 y siguientes de la Ley 3/1998) sustitutiva del antiguo RAMINP de 1961 en lo que a nosotros respecta incidiendo en las conocidas "licencias de actividad", necesaria en todas las clasificadas conforme al propio texto legal. Los RESIDUOS constituyen otro de sus apartados relevantes (artículos 67 y siguientes) ya sea con exclusión de los radiactivos, de los derivados de los recursos minerales explosivos y gaseosos. Dentro de los mismos, incide en los residuos sólidos urbanos (artículo 72) promoviendo sistemas de recogida selectiva en todo el territorio de la Comunidad. Se ocupa igualmente y entre otras determinaciones, de las auditorías ambientales (artículo 96) y los instrumentos de tutela y gestión ambiental, las eco etiquetas y la educación ambiental.

INGURUMEN-DIZIPLINAREN atalean, legezko arauak haustea dakarten ekintzengatik administrazio-erantzukizuna ezartzen da, eta dagozkion bide penaleko edo zibileko erantzukizunen osagarria izango da; bestalde, nabarmentzekoa da honako aurreikuspena: "ezartzen diren zigorren kalterik gabe, araua hausten dutenak behartuta daude eragindako kalteak ordaintzera, aldatutako ondasunak konpondu eta lehengo egoerara ekartzeko helburuz" (102. artikulua). Udal Administrazioari dagokio zehapenak ezartzea, hari dagozkion eskumenen kasuan (115. artikulua).

2.4.8. EUSKADIKO NATURA KONTSERBATZEKO LEGEAREN TESTU BATEGINA, APIRILAREN 15EKO 1/2014 LEGEGINTZAKO DEKRETU BIDEZ ONETSI ZENA (EHAA, 92. ZENBAKIA, 2014KO MAIATZAREN 19KOA).

EAEko Natura Kontserbatzeko Legearen xedea da honako alderdi hauek ziurtatzea

a) Herritarrek natura-baliabideak modu egokian erabiltzea: hots, espezieen eta ekosistemen aprobetxamendua jasangarria izatea, eta haiek lehengoratzen eta hobetzen direla bermatzea.
b) Natura-ekosistemen eta paisaiaren aniztasuna eta apartekotasuna zaintzea, eta interes geologikoa duten inguruak babestea.
c) Funtsezko prozesu ekologikoak eta basa-fauna eta basa-florako espezieen habitatak mantentzea, dibertsitate genetikoa bermatu ahal izateko.
d) Natura-ondareak berez ekoizteko duen ahalmena bere horretan mantentzea.

Helburu horiek lortzeko, euskal herri administrazioek, dituzten eskumenen barruan, dauden natura-baliabideak –horien titularitatea eta araubide juridikoa gorabehera– ondorengo printzipio orokorren arabera kudeatzen direla zainduko dute:

En el apartado de la DISCIPLINA AMBIENTAL se establece la responsabilidad administrativa por las acciones que supongan el incumplimiento de la norma legal, y que resultará complementaria de las responsabilidades de orden penal o civil que concurran, destacando la previsión de que "sin perjuicio de las sanciones que se impongan, los infractores estarán obligados a reparar los daños causados con objeto de restaurar y reponer los bienes alterados a su estado anterior" (artículo 102). La imposición de las sanciones corresponderá a la Administración Municipal cuando se deben a materias de su competencia (artículo 115).

2.4.8. TEXTO REFUNDIDO DE LA LEY DE CONSERVACIÓN DE LA NATURALEZA DEL PAÍS VASCO APROBADO POR DECRETO LEGISLATIVO 1/2014 DE 15 DE ABRIL (B.O.P.V. NÚMERO 92 DE 19 DE MAYO DE 2014).

La Ley de Conservación de la Naturaleza del País Vasco tiene por objeto asegurar

a) La utilización ordenada de los recursos naturales por la población, garantizando el aprovechamiento sostenido de las especies y de los ecosistemas, así como su restauración y mejora.
b) La preservación de la variedad y singularidad de los ecosistemas naturales y del paisaje, así como la protección de las áreas de interés geológico.
c) El mantenimiento de los procesos ecológicos esenciales y de los hábitats de las especies de fauna y flora que viven en estado silvestre, garantizando su diversidad genética.
d) El mantenimiento de la capacidad productiva del patrimonio natural.

Para la consecución de los citados objetivos, las Administraciones públicas vascas, en el ámbito de sus competencias, velarán por que la gestión de los recursos naturales existentes, con independencia de su titularidad y régimen jurídico, se realice de conformidad con los siguientes principios generales:

a) Natura-baliabideak modu egokian kudeatzea, gaur egungo belaunaldientzat ekonomian, gizartean eta ingurumenean ahalik eta etekinik handienak ekoizteko. Betiere, hurrengo belaunaldien beharrak eta asmoak bete ahal izateko adina egoteko moduan.
b) Lurra kontserbatu eta babestuz erabiltzea, emankortasuna gutxitu eta kaltetu gabe.

c) Lurren nekazaritzako erabilera bermatzea, horretarako egokiak diren lurretan. Ahalmen biologikoa eta ekoizteko ahalmena mantentzeko moduko nekazaritza-teknikak erabiliko dira (nekazaritzakoak, abeltzaintzakoak eta basogintzakoak), inguruko ekosistemekiko begirunez eta jabetzaren funtzio soziala aintzat hartuz.
d) Ur-baliabideak isurketetatik babestu egin beharko dira, berez arazteko duten ahalmena kontserbatu eta hobetu behar da, eta fauna eta flora babestu.

e) Landaredia kontserbatu egin behar da: basoak, landare-multzoak, palaxuak eta ibaiertzetako flora, batez ere. Mendiko baso-aprobetxamendua modu antolatuan egin beharko da, beharrizan sozioekonomikoen arabera, eta ekologian gutxieneko inpaktua sor dezakeen eremuetan bultzatu.

f) Eraiki gabeko azalerak, hango landaredia kendu bada, berriz landatu beharko dira, lehenbailehen eta eremu horren ezaugarrien arabera.

g) Basa-fauna eta basa-flora arretaz zainduko dira, natura-ondarearen parte gisa. Ahalegin berezia egin beharko da espezie mehatxatuak kontserbatzeko eta berreskuratzeko.

h) Itsasoko baliabideak denon aberastasuna dira, eta Euskal Autonomia Erkidegoaren zerbitzura egon behar dira. Horregatik erabili behar dira baliabide horiek, ekonomia-ustiaketa zentzuzko eta eraginkorraz, etekinik handiena lortzera bideratuta. Ustiaketa hori bateragarria izan beharko da espezieak kontserbatzearekin

a) Gestionar los recursos naturales de manera ordenada, de modo que produzcan los mayores beneficios económicos, sociales y ambientales para las generaciones actuales, sin merma de su potencialidad para satisfacer necesidades y aspiraciones de las generaciones futuras.
b) Utilizar el suelo conservándolo y protegiéndolo de tal manera que su fertilidad no se vea disminuida o afectada.
c) Garantizar el uso agrario de aquellos suelos aptos para esta finalidad aplicando técnicas agrarias (agrícolas, ganaderas y forestales) que garanticen el mantenimiento del potencial biológico y capacidad productiva del mismo, con respeto a los ecosistemas del entorno y en congruencia con la función social de la propiedad.
d) Los recursos hídricos habrán de ser protegidos frente a vertidos, conservando y mejorando su capacidad de autodepuración, al tiempo que se protege su fauna y su flora.
e) La vegetación ha de ser conservada, especialmente los bosques, los conjuntos vegetales, los setos y la vegetación ribereña; el aprovechamiento forestal del monte se realizará de forma ordenada, en función de las necesidades socioeconómicas y fomentándolo en aquellas zonas donde se produzca un menor impacto ecológico.
f) Las superficies no edificadas, cuya vegetación haya sido eliminada, han de ser revegetadas lo más rápidamente posible y de forma adecuada a las características de la zona.
g) La fauna y la flora silvestres han de ser respetadas como parte integrante del patrimonio natural, dedicando esfuerzos especialmente a la conservación y recuperación de las especies amenazadas.
h) Los recursos marinos constituyen una riqueza colectiva y deben estar al servicio de la Comunidad. De ahí que la utilización de dichos recursos se ha de realizar de forma que se obtenga el máximo rendimiento a través de una explotación económica racional y eficaz, que sea compatible con la conservación de las especies y

eta herriaren ongizatearen hazkundearekin.

i) Azpiegitura- eta eraikuntza-lanak –horien inpaktua onartzeko modukoa baldin bada– naturari eta paisaiari egokitu behar zaizkie.

j) Natura aztertzea bultzatuko da eskola-umeengan, baita hezkuntza- eta zientzia-proiektuak gauzatzea ere, natura bera hobeto ezagutu eta kontserbatzeko.

k) Natura-inguruneaz kultura eta aisialdirako gune bezala baliatzea eta gozatzea bermatuko da.

l) Lege hau ezartzean gertatutako irabazi-murrizketen kalte-ordainak bermatuko dira.

el incremento del bienestar comunitario.

i) Las obras de infraestructura y las construcciones en general, en caso de que su impacto sea asumible, han de adaptarse a la naturaleza y al paisaje.

j) Se promoverá el estudio de la naturaleza por la población escolar y la realización de proyectos educativos y científicos dirigidos a su conocimiento y conservación.

k) Se garantizará el uso y disfrute del medio natural como espacio cultural y de ocio.

l) Se garantizarán compensaciones por mermas de renta producidas en la aplicación de esta ley.

Hirugarren artikuluan aurreikusten dira aipatutako printzipioak eta helburuak lortzeko berariazko tresnak:

a) Natura-baliabideak Antolatzeko Plana.

b) Natura-espazio babestuen deklarazioa.

c) Galzorian dauden espezieen Katalogoa.

Los instrumentos específicos para la consecución de los principios y finalidades citados son los previstos en su artículo 3:

a) El Plan de Ordenación de los Recursos Naturales.

b) La declaración de espacios naturales protegidos.

c) El Catálogo de especies Amenazadas.

Aipatutako tresnen artean, NATURA-BALIABIDEAK ANTOLATZEKO PLANA nabarmentzen da; ondorengo zehaztapenak jasoko ditu plan horrek:

a) Antolatu behar den lurralde-eremuaren mugaketa eta eremu horren ezaugarri fisiko eta biologikoen deskribapena eta interpretazioa.

b) Lurralde-eremu horretako natura-baliabide, ekosistema eta paisaien kontserbazio-egoera zehaztea eta egoera horren diagnostikoa egin eta etorkizunerako aurreikusitakoa zehaztea.

c) Babestu beharrekoak diren gune eta espezieen kontserbazioaren arabera, eta lurraldeko zatiketaren arabera, erabilera eta jardueretarako ezarri beharreko muga orokor eta berariazkoak zehaztea.

d) Lege honetan ezarritako babes-araubideetakoren bat aplikatzea, hala badagokio, kasuan kasuko lurralde-mugak zein diren adierazita.

e) Politika sektorialak bideratu eta jarduera ekonomiko eta sozial publiko nahiz pribatuak antolatzeko erreferentziazko irizpideak ezartzea.

Dentro de los citados instrumentos, destaca el PLAN DE ORDENACIÓN DE RECURSOS NATURALES, que contendrá las siguientes determinaciones:

a) Delimitación del ámbito territorial objeto de ordenación y descripción e interpretación de sus características físicas y biológicas.

b) Determinación del estado de conservación de los recursos naturales, los ecosistemas y los paisajes que integran el ámbito territorial en cuestión, formulando un diagnóstico del mismo y una previsión de su evolución futura.

c) Determinación de las limitaciones generales y específicas que respecto de los usos y actividades hayan de establecerse en función de la conservación de los espacios y especies a proteger y en función de la zonificación del territorio.

d) Aplicación, si procede, de alguno de los regímenes de protección establecidos en esta ley, con expresión de los límites territoriales en cada caso.

e) Establecimiento de los criterios de referencia orientadores de las políticas sectoriales y ordenadoras de las actividades económicas y sociales,

f) Ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaren araubideari lotuta dauden jarduera, obra eta instalazio publiko nahiz pribatuak zehaztea.
g) Antolamendu-plana ezartzeak eman duen emaitzaren jarraipena egiteko plana.

Testu Bateginaren 6. artikuluaren arabera, Natura-baliabideak Antolatzeko Planak derrigorrezkoak eta bete beharrekoak izango dira EAEko Natura Kontserbatzeko Legean araututa dauden gaietan, eta hor jasotzen diren xedapenek mugatu egiten dute lurralde-antolamendurako edo antolamendu fisikorako beste edozein tresna. Natura-baliabideak Antolatzeko Planekin bat ez datozen lehendik dauden lurralde-antolamenduko edo antolamendu fisikoko tresnak plan horietara egokitu beharko dira, horiek onesten direnetik urtebeteko gehienezko epean.

Egokitzapen hori egiten ez den bitartean, Plan horien zehaztapenak aplikatuko dira eta, betiere, dauden lurralde-antolamendurako edota antolamendu fisikorako tresnen gainetik egongo dira.

Bestalde, kategoria hauetakoren batean sailkatzen dira espazio babestuak:

a) Parke naturala.
b) Biotopo babestua.
c) Zuhaitz apartekoa.
d) Europako Natura 2000 Sarean sartutako eremu edo lekua (Batasunaren garrantzizko lekuak BGL, kontserbazio bereziko eremuak KBE eta hegaztientzako babes bereziko eremuak HBBE), a), b) eta c) aurreko kategoriekin eremuz, osoki edo partzialki, batera suertatzen bada ere.

Natura-parkea izendatzeko, beharrezkoa da eremu horretako Natura-baliabideak Antolatzeko Plana aldez aurretik egitea eta onestea (20. artikulua).

Legezko arau horrek, Patronatuen eta Zuzendari Kontserbatzaileen bitartez (34. artikulua) parke naturalen antolamendu-egitura ezartzeaz gain, jarduera tradizionalak hobetzeko, bertako biztanleak integratzeko, landa-inguruneko etxebizitzak birgaitzeko,

públicas y privadas.
f) Concreción de las actividades, obras o instalaciones públicas o privadas sujetas al régimen de evaluación de impacto ambiental.
g) Plan de Seguimiento del resultado de su aplicación.

Conforme al artículo 6 del Texto Refundido, los Planes de Ordenación de los Recursos Naturales serán obligatorios y ejecutivos en las materias que vienen reguladas en la Ley de Conservación de la Naturaleza del País Vasco, constituyendo sus disposiciones un límite para cualesquiera otros instrumentos de ordenación territorial o física, cuyas determinaciones no podrán alterar o modificar dichas disposiciones. Los instrumentos de ordenación territorial o física existentes que resulten contradictorios con los Planes de Ordenación de los Recursos Naturales deberán adaptarse a éstos en el plazo máximo de un año a partir de la aprobación definitiva de los mismos.

Entretanto dicha adaptación no tenga lugar, las determinaciones de dichos Planes se aplicarán, en todo caso, prevaleciendo sobre los instrumentos de ordenación territorial o física existentes.

Por otra parte, los espacios protegidos se clasifican en alguna de las siguientes categorías:

a) Parque natural.
b) Biotopo protegido.
c) Árbol singular.
d) Zona o lugar incluido en la Red Europea Natura 2000 (lugares de importancia comunitaria –LIC–, zonas especiales de conservación –ZEC– y zonas de especial protección para las aves –ZEPA–), sin perjuicio de coincidir espacialmente, de forma total o parcial, con las categorías anteriores a), b) y c).

La declaración de los parques naturales exigirá siempre la previa elaboración y aprobación del correspondiente Plan de Ordenación de los Recursos Naturales (artículo 20).

Esta norma legal, además de la estructura organizativa de los parques naturales a través de sus Patronatos y Directores Conservadores o Directoras Conservadoras (artículo 34) instituyen igualmente los programas de financiación y desarrollo socioeconómico

kultura-ekimenak sustatzeko eta beste hainbat helburutarako finantzazioko eta garapen sozioekonomikoko programak ezartzen ditu (35. artikulua).

Bestalde, ondorengo tituluetan, fauna eta flora, espezie mehatxatuak, basa-fauna eta -flora eta ur kontinentaletako arrantza babesteko arauak ezartzen dira eta, amaitzeko, arau-hausteen eta zehapenen dagokion araubidea jasotzen da.

2.4.9. URAREN LEGEA, UZTAILAREN 20KO 1/2001 LEGEGINTZAKO ERREGE DEKRETU BIDEZ ONETSI ZENA (EAO, 2001EKO UZTAILAREN 24KOA, 176. ZENBAKIA [26791. ORR.]; ZUZENKETA, EAO, 2001EKO AZAROAREN 30EKOA, 287. ZENBAKIA). URAREN EAE-KO 1/2006 LEGEA, EKAINAREN 23KOA (EHAA, 2006KO UZTAILAREN 19KOA, 137. ZENBAKIA).

1/2001 Estatuko Legegintzako Errege Dekretuak –nabarmen aldatu zuen dekretu hori, besteak beste, abenduaren 30eko 62/2003 Legeak (EAO, 313. zenbakia, abenduaren 31koa) eta, halaber, Konstituzio Auzitegiaren epai ugarik izan zuen eragina legean (149/2011; 149/2012; 19/2013; 36/2013, 104/2013 eta 196/2015), eta horrek erakusten du zer nolako garrantzia duen–, jabari publiko hidraulikoa osatzen duten ondasunak definitzen ditu (ur kontinentalak –lur azalekoak nahiz lurpekoak–, korronte naturalen ibilguak, laku, urmael eta urtegietako ohatzeak, akuiferoak eta gatzgabetzetik datozen urak); uraren herri administrazioari dagozkion printzipioak ezartzen ditu (14. artikulua), Autonomia Erkidegoei ere hedatzen dizkielarik (18. artikulua) erkidegoek beren lurraldearen barruan osorik sartuta dauden arro hidrografikoetako jabari publiko hidraulikoaren gainean beren gain hartutako eskumenei dagokienez; arroko organismoen osaera eta eginkizunak eta plangintza hidrologikoa finkatzen ditu (40. artikulua). Era berean, eta "jabari publiko hidraulikoaren erabilerari" dagokion araubide juridikoari dagokionez, legezko zortasunak ezartzen ditu (akueduktu-zortasunak barne); erabilera komunak eta pribatiboak bereizten eta arautzen ditu, oro har jabari publikoari dagozkien xedapen guztiek egin ohi duten bezala eta, halaber, jabari hori erabiltzeko edo okupatzeko eska eta eman

(artículo 35) para la mejora de las actividades tradicionales, la integración de los habitantes locales, la rehabilitación de la vivienda rural, el estímulo de las iniciativas culturales…, etc.

Por otra parte, en los títulos siguientes se establecen normas de protección de la fauna y la flora; las especies amenazadas, la fauna y flora silvestres, y la pesca en aguas continentales, cerrando con el pertinente régimen de infracciones y sanciones.

2.4.9. LEY DE AGUAS APROBADA POR REAL DECRETO LEGISLATIVO 1/2001 DE 20 DE JULIO (BOE 24 JULIO 2001, NÚM. 176, [PÁG. 26791]; RECT. BOE 30 NOVIEMBRE 2001, NÚM. 287). LEY DE AGUAS DEL PAÍS VASCO 1/2006 DE 23 DE JUNIO (BO. PAÍS VASCO 19 JULIO 2006, NÚM. 137.

El Real Decreto Legislativo 1/2011 del Estado, sustancialmente modificado, entre otras, por la Ley 62/2003 de 30 de diciembre (B.O.E. número 313 de 31 de diciembre) y afectado igualmente por un elevado número de sentencias del Tribunal Constitucional (149/2011; 149/2012; 19/2013; 36/2013, 104/2013 y 196/2015) que ofrecen la idea de su importancia, define los bienes que integran el dominio público hidráulico (aguas continentales, ya sean superficiales o subterráneas, cauces de corrientes naturales, lechos de lagos, lagunas y embalses, acuíferos y aguas procedentes de la desalación); establece los principios atinentes a la administración pública del agua (artículo 14) extensibles además a las Comunidades Autónomas (artículo 18) en lo que corresponde a las competencias asumidas por las mismas sobre el dominio público hidráulico en cuentas hidrográficas comprendidas íntegramente dentro de su territorio; fija la configuración y funciones de los organismos de cuenca así como la planificación hidrológica (artículo 40). Del mismo modo, y en lo que respecta al régimen jurídico correspondiente a la "utilización del dominio público hidráulico" establece las servidumbres legales (incluyendo las conocidas como servidumbres de acueducto); la diferenciación y regulación entre usos comunes y privativos, propia, en general, de todas las disposiciones atinentes del dominio público, previendo igualmente la regulación de las autorizaciones

daitezkeen baimen eta emakiden arauketa aurreikusten du (59. artikulua eta ondorengoak). Horri guztiari, jabari publiko hidraulikoa babesteko helburuak gehitu behar zaizkio (92. artikulua eta ondorengoak), ingurumen-helburuei arreta berezia jarriz, lur azaleko masen egoeraren narriadura prebenitzeko eta kutsadura murrizteko, legezko testu honetan espresuki ezartzen diren gainerako helburuez gain. Xehetasunez jasotzen du isurien gaia ere (100. artikulua eta ondorengoak) Uraren Legearen Testu Bategin honek; gainera, hezeguneei dagozkien beste xedapen batzuk ere jasotzen ditu (111. artikulua), bai eta honako hauek ere: jabari publiko hidraulikoaren erabileraren araubide ekonomiko eta finantzarioa, bere erabilera-kanonarekin; arau-hausteak eta zehapenak, eta obra hidraulikoak.

Eusko Legebiltzarrak, bestalde, EUSKAL Autonomia Erkidegoko Uraren 1/2006 Legea onetsi eta aldarrikatu zuen (EHAA, 137. zenbakia, uztailaren 29koa); lege horren bitartez sortu zen URA Uraren Euskal Agentzia, zuzenbide pribatuko erakunde publiko gisa. Legezko araudiak esleitzen dizkion eginkizunen kudeaketaren arduraduna da agentzia hori. Bestalde, beste xedapen askoren artean, jarduketa administratiboaren printzipio orokorrak ezarri ziren: uraren tratamendu eta plangintza integrala; uraren kudeaketa bateragarria izatea lurralde-antolamenduarekin eta ingurumena kontserbatu, babestu eta lehengoratzearekin; solidaritatea, erantzukizuna eta erabiltzaileak aipatutako kudeaketan sortutako kostuak ordaintzea… (3. artikulua). Legezko arau honetan, halaber, EUSKADIKO arro hidrografikoak mugarriztatu ziren (4. Artikulua), eta ondoren adierazten den bezala banandu ziren:

a) Barnealdeko arro hidrografikoak; hauexek dira: Asua, Barbadun, Butron, Estepona, Galindo, Gobelas, Oka, Lea, Artibai, Deba, Oiartzun eta Urola.
b) **Erkidego arteko arro hidrografikoak**: Karrantza, Aguera, Ibaizabal, Oria, Urumea, Bidasoa, Ebro, Purón, Omezillo, Baia, Zadorra, Arakil, Inglares eta Ega.

y concesiones que pueden instarse y otorgarse para la utilización u ocupación del mismo (artículos 59 y siguientes). A todo ello se le suman los objetivos de protección del dominio público hidráulico (artículos 92 y siguientes) con el énfasis puesto en los objetivos medioambientales para la prevención del deterioro del estado de las masas superficiales y la reducción de la contaminación amén de cuantos otros se establecen expresamente en este texto legal. Los vertidos (artículos 100 y siguientes) se contemplan también de manera detallada en este Texto Refundido de la Ley de Aguas, que se extiende, además, a otras disposiciones referentes a las zonas húmedas (artículo 111), al régimen económico financiero en la utilización del dominio público hidráulico con su canon de utilización; las infracciones y sanciones y las obras hidráulicas.

Por su parte, el Parlamento Vasco aprobó y promulgó la Ley 1/2006 de 23 de junio de Aguas de la Comunidad Autónoma de EUSKADI (B.O.P.V. número 137 de 19 de julio) por la que se creó la AGENCIA VASCA DEL AGUA (UR AGENTZIA) como ente público de derecho privado responsable de la gestión de las funciones que le atribuye la norma legal en la materia, y se establecieron, entre otras muchas disposiciones, los principios generales de la actuación administrativa en el tratamiento y planificación integral del agua, la compatibilidad de su gestión con la ordenación del territorio y la conservación, protección y restauración del medio ambiente, la solidaridad, responsabilidad y pago de los costes producidos en la citada gestión… (artículo 3). En esta norma legal se delimitaron igualmente las cuentas hidrográficas de EUSKADI (artículo 4), dividiéndose del modo siguiente:

a) Cuencas hidrográficas internas, que son: Asua, Barbadun, Butron, Estepona, Galindo, Gobelas, Oka, Lea, Artibai, Deba, Oiartzun y Urola.
b) **Cuencas hidrográficas intercomunitarias**, integradas por: Karrantza, Agüera, Ibaizabal, Oria, Urumea, Bidasoa, Ebro, Purón, Omecillo, Baia, Zadorra, Arakil, Inglares y Ega.

URAREN EUSKAL AGENTZIAREN eginkizunen artean, honako hauek ezartzen ditu 7. artikuluak:

"k) **Hasierako onarpenaren ondoren, plan orokor**, arau subsidiario, plan partzial eta plan bereziei buruzko **txosten loteslea egitea**. Udal plangintzaren eta jabari publiko hidraulikoaren babesaren eta erabileraren arteko harremana izango du gai bakartzat txosten horrek, arloari zein ingurumenari dagozkion arrazoiengatik aplikatzekoak diren beste legeek xedatzen dutena gorabehera. Bi hilabeteko epean eman eta jakinarazten ez bada, dagokion plan edo araua ontzat ematen dela joko da.

l) **Hasierako onarpena baino lehen**, plan orokor, arau subsidiario, plan partzial eta plan bereziei buruzko **txosten loteslea egitea.** Euskal Autonomia Erkidegoko interes orokorreko obren eta udal plangintzaren arteko harremana izango du gai bakartzat txosten horrek, arloari zein ingurumenari dagozkion arrazoiengatik aplikatzekoak diren beste legeek xedatzen dutena gorabehera. Bi hilabeteko epean eman eta jakinarazten ez bada, dagokion plan edo araua ontzat ematen dela joko da".

Honako hauek dira 16. eta 17. artikuluetan planteatzen dituen ingurumenari dagozkion helburuak:

"Lur azaleko urentzako ingurumen-helburuak

Lur azaleko urak babesterakoan, hauek izango dira jarduera publikoaren helburuak:

a) Lur azaleko ur-masa guztien egoeraren narriadura prebenitzea.
b) Egoera onean dagoen uraren behar besteko horniketa bermatzea, ur hori modu jasangarrian erabilita; horretarako, baliabide hidrikoak epe luzerako babestea hartuko da oinarritzat.
c) Lur azaleko ur-masa guztiak babestu, hobetu eta beren onera ekartzea, ur artifizial eta asko eraldatutako uren kasuan aplikatu beharrekoa aplikatuta betiere, horrela, 2015eko abenduaren 31 baino lehen egoera ekologiko ona lortzeko helburuz.
d) Ur-masa artifizial eta asko eraldatutako ur guztiak babestu eta hobetzea, lur azaleko ur horiek 2015eko abenduaren 31 baino lehen gaitasun ekologiko ona eta egoera kimiko ona izan dezaten.

Entre las funciones de la mencionada AGENCIA VASCA DEL AGUA, su artículo 7 estableció las siguientes:

"k) **Informar con carácter vinculante los planes generales**, normas subsidiarias, planes parciales y planes especiales **después de su aprobación inicial**. Este informe versará en exclusiva sobre la relación entre el planeamiento municipal y la protección y utilización del dominio público hidráulico, y sin perjuicio de lo que dispongan otras leyes aplicables por razones sectoriales o medioambientales. Se entenderá positivo si no se emite y notifica en el plazo de dos meses.

l) **Informar con carácter vinculante los planes generales**, normas subsidiarias, planes parciales y planes especiales **antes de su aprobación inicial.** Este informe versará en exclusiva sobre la relación entre las obras de interés general de la Comunidad Autónoma del País Vasco y el planeamiento municipal, y sin perjuicio de lo que dispongan otras leyes aplicables por razones sectoriales o medioambientales. Se entenderá positivo si no se emite y notifica en el plazo dos meses."

Los objetivos medioambientales que plantea en sus artículos 16 y 17, son los siguientes:

"Objetivos medioambientales para las aguas superficiales

Los objetivos de la actuación pública para la protección de las aguas superficiales serán los siguientes:

a) Prevenir el deterioro del estado de todas las masas de agua superficial.
b) Garantizar el suministro suficiente de agua en buen estado mediante su uso sostenible, basado en la protección a largo plazo de los recursos hídricos.
c) Proteger, mejorar y regenerar todas las masas de agua superficial, sin perjuicio de lo aplicable a las masas de aguas artificiales y muy modificadas, con objeto de alcanzar un buen estado ecológico antes del 31 de diciembre de 2015.
d) Proteger y mejorar todas las masas de aguas artificiales y muy modificadas, con objeto de lograr un buen potencial ecológico y un buen estado químico de las aguas superficiales antes del 31 de diciembre de 2015.

e) Lehentasunezko gaiek eragindako kutsadura progresiboki murriztea, eta lehentasunezko gai arriskutsuen isurketa, emisio edo galerak etetea edo mailaz maila desagerraraztea.
f) Ur-masekiko eta uretako ekosistemekiko lurzoruaren eta natura-baliabideen errespetuzko erabilera sustatzea.
g) Uholdeen eta lehorteen eragin negatiboak arintzea.
h) EAEko ingurumena babesteko araudian ezarritako helburuak betetzea.

e) Reducir progresivamente la contaminación procedente de sustancias prioritarias e interrumpir o suprimir gradualmente los vertidos, las emisiones y las pérdidas de sustancias peligrosas prioritarias.
f) Promover un uso del suelo y de los recursos naturales respetuoso con las masas de agua y con los ecosistemas acuáticos.
g) Paliar los efectos negativos de las inundaciones y sequías.
h) Cumplir los objetivos establecidos en la normativa de protección del medio ambiente del País Vasco.

"Lur azpiko urentzako ingurumen-helburuak

Lur azpiko urak babesterakoan, hauek izango dira jarduera publikoaren helburuak:

a) Lur azpiko uretara gai kutsatzaileak iristea saihestea edo kopurua murriztea, eta lur azpiko ur-masa guztien egoeraren narriadura saihestea.
b) Lur azpiko ur-masa guztiak babestea, hobetzea eta beren onera ekartzea, eta lur azpitik ateratzen den uraren eta sartzen denaren arteko orekari eustea, 2015eko abenduaren 31rako lur azpiko uren egoera ona izan dadin lortzeko.
c) Ur-masekiko eta uretako ekosistemekiko lurzoruaren eta natura-baliabideen errespetuzko erabilera sustatzea.
d) Edozein gai kutsatzaileren kontzentrazioak gizakiaren jardunaren eraginez gora egiteko joera nabarmen eta etengabea duela ikusten baldin bada, joera hori alderantzikatzea, lur azpiko uren kutsadura progresiboki gutxiagotzeko".

Objetivos medioambientales para las aguas subterráneas

Los objetivos de la actuación pública en la protección de las aguas subterráneas serán los siguientes:

a) Evitar o limitar la entrada de contaminantes en las aguas subterráneas y evitar el deterioro del estado de todas las masas de agua subterránea.
b) Proteger, mejorar y regenerar todas las masas de agua subterránea y garantizar un equilibrio entre la extracción y la recarga a fin de conseguir el buen estado de las aguas subterráneas antes del 31 de diciembre de 2015.
c) Promover un uso del suelo y de los recursos naturales respetuoso con las masas de agua y con los ecosistemas acuáticos.
d) Invertir toda tendencia significativa y sostenida al aumento de la concentración de cualquier contaminante debida a las repercusiones de la actividad humana, con el fin de reducir progresivamente la contaminación de las aguas subterráneas."

Plangintza Hidrologikoa ere aurreikusten da 1/2006 Lege honetan (22. artikulua), EUSKADIKO Demarkazio Hidrografikoko Plan Hidrologikoaren bitartez gauzatuko dena eta, halaber, Obra Hidraulikoen definizioa, Araubide Ekonomiko eta Finantzarioa –"uraren ka"ona" ezarrita (42. artikulua)–, Eusko Jaurlaritzaren azaroaren 4ko 181/2008 Dekretuak garatzen duena, eta diziplina hidraulikoari dagozkion arauak eta arau-hausteei eta zehapenei dagozkien aurreikuspenak jasotzen dituena.

La Planificación Hidrológica (artículo 22) también se contempla en esta Ley 1/2006, a partir del Plan Hidrológico de la Demarcación Hidrográfica de EUSKADI, incorporando igualmente la definición de las Obras Hidráulicas, el Régimen Económico-Financiero, con el establecimiento del "canon del agua" (artículo 42) desarrollado por el Decreto 181/2008 de 4 de noviembre del Gobierno Vasco (B.O.P.V. 221 de 18 de noviembre de 2008), y las normas propias de la disciplina hidráulica con la previsión de las infracciones y sanciones.

2.4.10. 17/2008 LEGEA, ABENDUAREN 23KOA, EAEKO NEKAZARITZA ETA ELIKAGAIGINTZA POLITIKARI BURUZKOA (EHAA, 250. ZENBAKIA, ABENDUAREN 31KOA) ETA 9/2012, 2/2015 ETA 8/2015 (EMAKUME NEKAZARIEN ESTATUTUEI BURUZKOA) LEGEEN BITARTEZ EGINDAKO ALDAKETAK.

EAEko Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikari buruzko Eusko Legebiltzarraren abenduaren 23ko 17/2008 Legearen helburua da "Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza- eta elikagaigintza-politika definitzeko balioko duten printzipio bide-erakusleak ezartzea, eta, bestetik, erreferentziazko erakunde-esparrua argitzea eragile sektorialentzat eta herritarrentzat oro har" (1. artikulua), eta arreta berezia jartzen dio honi: "nekazaritza- eta elikagaigintza-sektoreen antolaketa orokorra (ekoizpen-, eraldaketa-, ontziratze- eta merkaturatze-faseak barne), bai eta, oro har, nekazaritza-ingurunearen funtzio-aniztasunari lotutako jardueren antolaketa ere" (barne hartzen du basogintza-sektoreko bigarren eraldaketa eta merkaturatzea ere, baldin eta nekazaritza-ustiategian edo -industrian bertan egiten bada).

Bosgarren eta seigarren artikuluetan jasota daude legezko arau honen helburuak:

"5. artikulua. Xedeak

Jarraian zerrendatzen diren helburuak lortzera bideratuta egongo da EAEko nekazaritza- eta elikagaigintza-politika:

a) Nekazaritza-egiturak hobetzea, nekazariek diru-sarrera duinak eskura ditzaten eta kontsumitzaileek bidezko prezioak izan ditzaten.
b) Nekazaritza-jardueraren eta bere funtzio-aniztasunaren aitorpen soziala lortzea; izan ere, ez da elikagai-ekoizle bakarrik, gizartearentzako beste onura batzuk ere badakartza-eta: esaterako, ingurumena babestu eta birsortzea, paisaia eta biodibertsitatea babestea, lurraldea modu orekatuan kudeatzea, eta Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza-ingurunea eta kultur ondarea gordetzea.
c) Nekazaritzako eta elikagaigintzako ustiategi edo enpresa bideragarriak eta iraunkorrak sortzea eta sustatzea, non proiektuak eta produktuak teknikoki gauzagarri, ekonomikoki errentagarri, ingurumenaren

2.4.10. LEY 17/2008 DE 23 DE DICIEMBRE DE POLÍTICA AGRARIA Y ALIMENTARIA DEL PAÍS VASCO (B.O.P.V. NÚMERO 250 DE 31 DE DICIEMBRE) Y SUS MODIFICACIONES OPERADAS POR LAS LEYES 9/2012, 2/2015 Y 8/2015 (ESTATUTO DE LAS MUJERES AGRICULTORAS).

La Ley 17/2008 de 23 de diciembre del Parlamento Vasco, de Política Agraria y Alimentaria del PAIS VASCO, tiene por objeto "establecer los principios inspiradores que han de servir para definir la política agraria y alimentaria vasca, así como clarificar el marco institucional de referencia para los agentes sectoriales y la ciudadanía en general" (artículo 1) incidiendo en la "ordenación general de los sectores agrario y alimentario en sus vertientes de producción, transformación, envasado y comercialización, así como en general, de las actividades ligadas a la multifuncionalidad del medio agrario" (incluye también la segunda transformación y su comercialización en el sector forestal siempre que se realice en la propia explotación o industria agraria).

Los fines y objetivos de esta norma legal se contienen en sus artículos 5 y 6, a cuyo tenor

"Artículo 5. Fines

La política agraria y alimentaria vasca se orientará a la consecución de los fines que se relacionan a continuación:

a) La mejora de las estructuras agrarias, orientada a obtener rentas agrarias dignas para las personas que ejerzan la agricultura y precios justos para las personas consumidoras.
b) El reconocimiento social de la actividad agraria y su carácter multifuncional, como productora no sólo de alimentos, sino de otras externalidades inherentes a ella, como son su papel de protección y regeneración medioambiental, de preservación del paisaje y la biodiversidad, de gestión equilibrada del territorio, de conservación del medio rural y del patrimonio cultural de la Comunidad Autónoma de Euskadi.
c) La creación y fomento de explotaciones o empresas agrarias y alimentarias viables y sostenibles, donde el desarrollo de los proyectos y los productos se realice cumpliendo los postulados técnicamente posibles,

aldetik onargarri eta sozialki onesgarriak diren postulatuen arabera garatuko diren.

d) Nekazaritza- eta elikagaigintza-produktu seguru eta kalitatezkoak dibertsifikatu, sustatu eta merkaturatzea.

e) Nekazaritza-lurra babestea, ez duen nekazaritza-balioagatik bakarrik, baizik eta baita biodibertsitatearen eta paisaiaren euskarri eta berme delako eta basamortutze- eta higadura-arriskua murrizten edo eragozten duelako ere.

f) Nekazaritza- eta elikagaigintza-sektorean informazioaren teknologia berriak, ikerketa, garapena, berrikuntza eta nekazaritzako eta elikagaigintzako prestakuntza teknologikoa bultzatzea eta ezartzea.

g) Nekazaritza-jardueraren gizarte- eta prebentzio-eginkizuna defendatzea (enplegu-sortzaile den aldetik), eta, batez ere, bere giza kapital ahulena: emakumeak, nekazari gazteak, soldatapeko langileak eta sasoikako langileak.

h) Nekazaritza eta elikagaigintza-arloko prestakuntza, asoziazionismoa eta profesionaltasuna hobetzea, eta, oro har, nekazaritza- eta elikagaigintza-sektoreak egituratzen laguntzen duten jardunbideak hobetzea; hartara, areagotu egingo da elkarteek solaskide izateko, negoziatzeko eta parte hartzeko duten gaitasuna, bai eta beren interesak ordezkatzeko gaitasuna ere.

económicamente rentables, ambientalmente permisibles y socialmente aceptables.

d) La diversificación, promoción y comercialización de productos agrarios y alimentarios seguros y de calidad.

e) La defensa del suelo agrario no sólo por su valor agronómico, sino como soporte y garante de la biodiversidad y el paisaje, así como por su capacidad para frenar o evitar procesos de desertización y erosión.

f) El impulso y la aplicación, en el sector agrario y alimentario, de las nuevas tecnologías de la información, la investigación, el desarrollo, la innovación y la formación tecnológica agraria y alimentaria.

g) La defensa de la función social y preventiva de la actividad agraria como generadora de empleo, y en especial de su capital humano más sensible: mujeres, personas jóvenes dedicadas a la agricultura, personas asalariadas y personas trabajadoras de temporada.

h) La mejora de los ámbitos de formación, asociacionismo y profesionalidad agraria y alimentaria, y, en general, de aquellas prácticas que fomentan la vertebración de los sectores agrarios y alimentarios permitiendo una mejora de su capacidad de interlocución, negociación y participación, así como de la representación de sus intereses.

6. artikulua. Helburuak

Honako hauek dira Lege honen helburuak:

a) Nekazaritza-ustiategien jarraipena ziurtatzea, landa-ingurunearen garapen ekonomikorako oinarrizko bitarteko baitira, bai eta familia-nekazaritzatik ahalik eta jende gehien bizitzeko bitarteko ere.

b) Gazteak nekazaritza- eta elikagaigintza-sektorean eta elkarte zein taldeetan sar daitezen bultzatzea.

c) Emakumeek nekazaritzan eta elikagaigintzan egiten duten lan profesionala aintzatestearen alde egitea, sektorean jarrai dezaten, eta beren bidea baldintza berdinetan gara dezaten laguntzea; halaber, elkarte eta taldeetan sar daitezen bidea erraztea.

d) Nekazariek errenta duina jaso dezaten laguntzea, ekoizpen- eta prestatze-gastuak berdintzeko modukoa, subsidioen edo

Artículo 6. Objetivos

Los objetivos de esta Ley son los siguientes:

a) Asegurar la continuidad de las explotaciones agrarias como instrumento básico del desarrollo económico en el medio rural y como instrumento para la pervivencia del máximo número de personas en la agricultura familiar.

b) Promover la incorporación de los jóvenes y las jóvenes al sector agrario y alimentario y a las iniciativas de asociación o agrupación.

c) Promover el reconocimiento profesional, la permanencia y evolución en igualdad de condiciones de las mujeres del sector agrario y alimentario, así como su incorporación a las iniciativas de asociación y agrupación.

d) Propiciar que el agricultor o la agricultora reciba una renta agraria digna que cubra los gastos de producción y elaboración sin

kanpoko laguntzen mende egon gabe.

e) Ustiategien dimentsionamendu estrukturala sustatzea eta, kasuaren arabera, babestea, bideragarritasun ekonomikoari laguntzeko.

f) Nekazaritza-lurrak babestea, batez ere gunerik kaltetuenetan eta hirigintza-presioaren mende dauden lurrak.

g) Laborantza-, abeltzaintza- eta basogintza-ekoizpena hobetzea, ekoizpen-bideak kontrolatuz eta optimizatuz, eta lortutako ekoizpenen balio erantsia sustatuz.

h) Merkatuak saritzen ez dituen arren, nekazaritzaren funtzio-aniztasunaren barruan dauden jarduerak babestea; hain zuzen, lurraldea eta paisaia kudeatzea, ingurumena babestea, animalia-arraza autoktonoak kontserbatzea eta nekazaritza-gizarte eta -kulturari eustea.

i) Nekazaritza eta elikagaigintza-industria garatzea eta hari prestigioa ematea, ekoizpen-sektorea balio-katean txertatzeko oinarrizko urratsa delako, eta nekazaritza-ingurunearen garapen ekonomikoaren oinarrizko bitarteko delako.

j) Merkatuetan kalitate-erreferentzia izango diren eta kontsumitzaileen osasun eta ongizaterako berme osoa emango duten produktuak ekoizten direla bermatzea, eta euskal elikagaiei balio erantsia emango dieten merkatuetan sartzeko bide ematea.

k) Nekazaritzan eta elikagaigintzan ikerkuntza eta berrikuntza teknologikoa areagotzea, eta aurrerapen zientifikoak azkar eta modu eraginkorrean zabal daitezen laguntzea, bai eta teknologia berrien erabilera sustatzea eta nekazaritza-sektorea informazio-gizartean txerta dadin bultzatzea ere.

l) Nekazaritza eta elikagaigintza-politika egin eta ezarri aurretik eragile sozial eta ekonomikoei kontsultatuko zaiela bermatzea, eta jardun-proposamenak nekazaritza- eta elikagaigintza-sektorearen beharretara egokitzen lagunduko duten solaskide izateko eta adostasunera heltzeko bitartekoak indartzea.

m) Ezagutzera ematea nekazaritzaren funtzio-aniztasuna, eta nekazaritza- eta elikagaigintza-politikaren garapenean izandako jarduera nagusiak eta lortutako helburu nagusiak.”

depender de subsidios o ayudas externas.

e) Potenciar y preservar, en su caso, un dimensionamiento estructural de las explotaciones que coadyuve a su viabilidad económica.

f) Proteger el suelo agrario especialmente en las zonas más desfavorecidas y las que están bajo influencia de presión urbanística.

g) Mejorar la producción agrícola, ganadera y forestal, controlando y optimizando los medios de producción y potenciando la generación de valor añadido de las producciones obtenidas.

h) Proteger las actividades no recompensadas por el mercado englobadas en el carácter multifuncional de la agricultura, tales como la gestión territorial y paisajística, la protección medioambiental, y la conservación de razas de animales autóctonas y de la sociedad y cultura rural.

i) Desarrollar y prestigiar la industria agraria y alimentaria como eslabón fundamental para la integración del sector productivo en la cadena de valor y como instrumento básico del desarrollo económico en el medio rural.

j) Garantizar la elaboración de alimentos que sean un referente de calidad en los mercados y ofrezcan plenas garantías para la salud y el bienestar de los consumidores, así como posibilitar el acceso de los productos alimentarios vascos a los mercados generadores de mayor valor añadido.

k) Incrementar la investigación y la innovación tecnológica en materia agraria y alimentaria y facilitar la transferencia rápida y eficaz de los adelantos científicos, así como el uso de las nuevas tecnologías y la incorporación del sector agrario a la sociedad de la información.

l) Garantizar la previa consulta de los agentes sociales y económicos en el diseño y la aplicación de la política agraria y alimentaria y potenciar los instrumentos de interlocución y concertación que permitan adecuar las propuestas de actuación a las necesidades del sector agrario y alimentario.

m) Dar a conocer a la sociedad el papel multifuncional de la agricultura y las principales actuaciones y logros alcanzados en el desarrollo de la política agraria y alimentaria.”

Asko dira 17/2008 Lege honek Herri Administrazio ezberdinei ematen dizkien aginduak; eta hor dago, besteak beste, BEASAINGO Udala ere, jakina, bere eskumenekin. Besteak beste, zortzigarren artikuluan ezartzen da herri administrazio horiek baliabideak bideratu behar dituztela lehentasunezko programa edo jarduketetara; hala nola ustiategietako titularrak profesionalak eta nagusiki nekazaritzan dihardutenak izatera, emakumeei eta gazteei babes berezia eskainita; merkatuaren eskariei erantzutera bideratutako ekoizpenak garatzera; nekazaritza-jardueran alternatiba ekonomikoak eta dibertsifikazioa sustatzera… "Udalaren jardueralizentziarik" gabe diharduten jardueretarako (10. artikulua), prozedura malguagoa aurreikusten da, ustiategiak aldi baterako iraun dezan baimentzea kasu, berariaz aurreikusitako kasuetan. Herri Administrazioen nekazaritza-lurrean ere jardungo dute, euskal landa-espazioa antolatzeko aurreikusitako tresnak sustatuz (nekazaritza-lurraren funtsa sortzea; borondatezko lagapenak sustatzea; nekazaritza-lurren trukea sustatzea; lursail-kontzentrazioa sustatzea…) eta, are, bere titularitatekoak diren lurren legezko arauaren beraren aurreikuspenen araberako nekazaritza-lurren erabilera egin dadin zainduko du (18. artikulua).

Era berean, 17/2008 Lege honek (112 artikulu gehi xedapen gehigarriak, azken xedapenak eta iragankorrak) "nekazaritza-ekoizpenaren" arauketari ere heltzen dio; ekoizpen-metodoak, jardunbide egokiak, identifikazioa, elikadura-segurtasuna eta trazabilitatea, eta energia berriztagarriak. Gainera, "informazio-gizartearen" aipamena egiten du, eta testuinguru horretan sartzen du nekazaritzaren alorra (27. Artikulua). Nekazaritza-ekoizpena eta abeltzaintza-ekoizpenak beren espazio propioa dute; azken horren kasuan, ekoizpenaren identifikazioa, mugimendua eta animalien ongizaterako betekizunak ere jasotzen ditu. Animalien elikadura eta osasuna landu ondoren, animalia-arrazei dagokien aurreikuspena jasotzen du. Basogintzako ekoizpenaren gaian, beharrezko arau-parametroak ere aurreikusten dira; hor sartzen da, besteak beste, aldundiek egin beharreko baso-pisten inbentarioak mantentzeko eginkizuna.

Son muchos los mandatos que se realizan desde esta Ley 17/2008 a las diferentes Administraciones Públicas, entre las que ha de situarse, obviamente, el Ayuntamiento de BEASAIN en el margen de sus propias competencias. Entre otros, en el artículo 8 se establece que por parte de las mismas se destinen recursos a programas o actuaciones prioritarias, como el establecimiento de titulares de explotación profesional y a título principal con especial apoyo a las mujeres y a los jóvenes; el desarrollo de orientaciones productivas que respondan a las demandas del mercado; el fomento de alternativas económicas y la diversificación en la actividad agraria… En el caso de actividades que se desarrollen sin la pertinente "licencia municipal de actividad" (artículo 10) se contempla un procedimiento más flexible como la pervivencia provisional de las mismas en los supuestos expresamente previstos. Las Administraciones Públicas incidirán igualmente en el suelo agrario con el fomento de los instrumentos previstos para la ordenación del espacio rural vasco (creación de un fondo de suelo agrario; promoción de cesiones voluntarias; promoción de permuta de suelos agrarios, promoción de la concentración parcelaria…) e incluso velarán para que en los terrenos que sean de su titularidad se dé un uso de suelo agrario conforme a las previsiones de la propia norma legal (art. 18).

Del mismo modo, esta Ley 17/2008 (de 112 artículos de extensión a los que han de sumarse las disposiciones adicionales, finales y transitorias) aborda la regulación de la "producción agraria" con los métodos de producción, buenas prácticas, identificación, seguridad alimentaria y trazabilidad, las energías renovables y hasta la referencia y contextualización dentro de la "sociedad de la información"·(artículo 27). Producción agrícola y producción ganadera tienen igualmente su propio espacio, que en el último caso alcanza a la identificación, movimiento y requisitos para el bienestar de los animales. La alimentación y la sanidad animal son seguidas de la previsión referente a las razas animales. Se prevén también los parámetros normativos precisos en materia de producción forestal que incluyen el mantenimiento de inventarios de pistas forestales por parte de las diputaciones.

Jarraian, IV. Tituluak “nekazaritzako eta elikagaigintzako eraldaketa eta merkatu-ratzeari” dagokion araudi guztia jasotzen du, honako alderdi hauek nabarmenduz: elikagaien kalitatearen eta segurtasunaren kontrola; produktuen eraldaketari, promozioari eta merkaturatzeari buruzko arauak, eta abar luze bat, tokian tokiko azoka tradizionalen aurreikuspenera iritsiz. Halaber, “nekazaritzaren eta elikagaigintzaren alorreko ikerkuntza, garapen teknologikoa, berrikuntza eta trebakuntz" azpimarratzen dira (V. Titulua), bai eta alor horiek dituzten eginkizun soziala eta prebentziozkoa ere (VI. Titulua). Hor, nabarmentzekoa da nekazari gazteen eta emakume nekazarien alde egiten den apustua, nekazaritzako aseguruak eta berme-funtsa, eremu katastrofiko deklarazioak... eta "ordezkaritza eta elkarte-antolaketa" (VII. eta VIII. Tituluak). IX. Tituluan, administrazioak nekazaritzaren eta elikagaigintzaren sektoreetan duen esku-hartzea lantzen da, eta sustapen-neurriak, laguntzarako politikak, eta lizentzien eta baimenen araubidea aurreikusten ditu; osatzeko, “ikuskapena eta arau-hauste eta zehapenen araubidea" jasotzen ditu (X. Titulua).

Eremu horietan, urpean geratzeko arriskupean dauden bizitegi-eraikinak beste erabilera batzuetara bideratuta dauden beheko solairuen gainean daude; beraz, bizitegi-erabilerak, oro har, 500 urtean behin uholdeak izateko arriskua duen guneari dagokion kotatik gora daude kokatuta.

CAF (A-6) eremua da urpean geratzeko arrisku handiena duena; izan ere, industria-eraikin asko lehentasunezko fluxu-eremuan edo 100 urtean behin uholdeak izateko arriskua duen gunean daude.

En el área de *Zazpiturrieta* (A-4) los problemas de inundabilidad se presentan en la urbanización y edificios que dan a la calle *José Migel Iturrioz*. Partes del viario se encuentran en zona de flujo preferente y los edificios residenciales de esta calle sobre zonas de avenidas de 100 y 500 años de período de retorno.

Idéntica situación se da en el área de *Ezkiaga* (A-37), con el vial de la calle del mismo nombre ocasionalmente en zona de flujo preferente y los edificios de esta calle dentro de la zona que corresponde a una avenida de 100 años.

En *Mariarats* (A-42), la totalidad del ámbito está dentro de la zona que corresponde a una avenida de 500 años.

En estos ámbitos, los edificios residenciales afectados se disponen sobre plantas bajas destinadas a otros usos por lo que los usos residenciales están, por lo general, situados por encima de la cota de inundación correspondiente a una avenida de 500 años.

El área de CAF (A-6) es la más afectada por el riesgo de inundación ya que una buena parte de los edificios industriales se disponen sobre la zona de flujo preferente o están dentro de la zona que corresponde a una avenida de 100 años.

100 urtean behin uholdeak izateko arriskua duen gunean daude, halaber, Lazkaibar eremuko bizitegi-eraikinak.

Agauntza ibaiaren arroan, Ugartemendi (S-3) sektorearen ezkerraldeko ibaiertzaren zati bat 500 urtean behin uholdeak izateko arriskua duen gunean dago, plan partzialaren antolamendua kanpoan aurreikusi arren.

Agauntza (A-31) eremuak 100 urtean behin uholdeak izateko arriskua duen gunean ditu bizitegi-eraikin asko, eta Senpere (A-7) eremuak 500 urtean behin uholdeak izateko arriskua duen gunean du hirugarren sektorerako gune osoa.

LPSak ibilguak leheneratzeko beharra atzematen du Arriaran (A-44) eremuaren uretan gora eta Oria ibaiaren ezkerraldeko ertzean, Zumadi (A-33) eremuaren hegoaldean.

Ondarre (A-29) eremuan ibilgua estalita duten guneak daudela aipatzen du. Eremu hau erabat urbanizatuta dago, eta Arriaran ibaia aire zabalean bideratu ahal izateko zailtasunak ditu.

Naturaren aldetik lehentasunezko interesa duten ertzak udalerriaren Iparraldean daude, Beizamako udalerriarekin muga egiten duen Egurrola ibaian.

Azkenik, kontsumorako ura hartzeko guneen eta akuiferoen babesa da bai LPSaren bai Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren lehentasunetako bat.

También están dentro de la zona afectada por esta avenida los edificios residenciales de *Lazkaibar*.

En la cuenca del *Agauntza*, la ribera izquierda del sector de *Ugartemendi* (S-3) está parcialmente incluida dentro de la zona que corresponde a una avenida de 500 años, si bien la ordenación del plan parcial se prevé fuera.

El área de *Agauntza* (A-31) dispone de una buena parte de la edificación residencial sobre la zona que corresponde a una avenida de 100 años y la totalidad de la zona de uso terciario del área de *Senpere* (A-7) dentro de la zona que corresponde a una avenida de 500 años

El PTS detecta necesidades de recuperación de cauces aguas arriba del área de *Arriaran* (A-44) y en la margen izquierda del Oria, al sur del área de *Zumadi* (A-33).

Señala la presencia de zonas con cauce cubierto en el área de *Ondarre* (A-29) que se encuentra totalmente urbanizada y con dificultades para poder canalizar la regata de *Arriaran* al aire libre.

Los márgenes de interés naturalístico preferente se sitúan al Norte del término municipal en la regata de *Egurrola* que hace de límite con el término municipal de *Beizama*.

Finalmente, la protección de acuíferos y zonas de captación de agua para consumo son otras de las prioridades tanto del PTS como de la planificación hidráulica del Cantábrico Oriental.

2.5.4. NEKAZARITZA ETA BASOZAINTZA ETA INGURUNE NATURALA ANTOLATZEKO LURRALDE PLAN SEKTORIALA.

Nekazaritza eta basozaintza eta ingurune naturala antolatzeko Lurralde Plan Sektorialak[165] Ingurune Fisikoaren Antolamenduaren kapituluko "*5.2. Ingurune Fisikoaren Osagaiei eta Prozesuei buruzko Gidalerro Orokorrak*" eta "*6.8. Ingurune Fisikoaren Antolamendu Kategoriak*" atalei dagozkien LAGen irizpideak garatzen eta zehazten ditu, epigrafe batzuk ingurune naturalaren alderdi zehatzei buruzko beste LPS batzuek espezifikoki garatu dituztela kontuan hartu gabe.

2.5.4. PLAN TERRITORIAL SECTORIAL AGROFORESTAL Y DEL MEDIO NATURAL.

El PTS Agroforestal y del medio Natural[165] desarrolla y pormenoriza los criterios de las DOT correspondientes a los apartados "*5.2. Directrices Generales relativas a los Elementos y Procesos del Medio Físico*" y "*6.8. Categorías de Ordenación del Medio Físico*" del capítulo de Ordenación del Medio Físico, con independencia de que algunos de los epígrafes sean objeto de desarrollo específico en otros PST relativos a aspectos concretos del medio natural.

[165] 177/2014 DEKRETUA, 2014ko irailaren 16koa, zeinak behin betiko onartzen baitu Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala. (2014ko urriaren 17ko 198. EHAA).
DECRETO 177/2014, de 16 de septiembre, por el que se aprueba definitivamente el Plan Territorial Sectorial Agroforestal de la Comunidad Autónoma del País Vasco. (BOPV nº 198 de 17 de octubre de 2014)

Sektorialki, nekazaritza- eta basozaintza-erabileren lurzoru urbanizaezinaren antolamenduan jartzen du arreta batez ere, eta mugak ezartzen ditu horiek garatzeko balio gehien duten lurren biziraupena arriskuan jartzen dituzten beste erabilera mota batzuetarako.

LPSaren antolamendu-eremua Euskal Autonomia Erkidego (EAE) osoa hartzen du, hori behin betiko onartu zenean udal plangintzak hiri-lurzoru, lurzoru urbanizagarri edo urbanizatzeko lurzoru egoki gisa sailkatuta zeuden hiri-eremuak izan ezik.

Antolamendu-eremutik kanpo daude, halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Babesten duen 16/94 Legearen arabera, izendatu diren edo izendatzeko bidean dauden Parke Naturalak eta Biotopo Babestuak, Urdaibaiko Biosferaren Erreserba eremua –eremu hau Urdaibaiko Biosfera Babesteari eta Antolatzeari buruzko 5/1989 Legeak eta hori Erabiltzeko eta Kudeatzeko Plan Nagusiak antolatzen du– eta Natura 2000 Europako Sare Ekologikoko eremuak.

Beste plan sektorial batzuekin koordinatzen da, modu honetan:

- LPS guztiak Nekazaritza eta Basozaintzako LPSarekin koordinatuko dira 17/2008 Legearen 16. artikuluan adierazitako moduan; balio agrologiko handiko lurraren babesaren gaineko artikulua da. Horretaz gain,
  LPSetan kontuan hartu beharko dira Nekazaritza eta Basozaintzako LPSak zedarritutako Balio Estrategiko Handiko Eremuak eta Onura Publikoko Mendiak nahiz Mendi Babesleak.
- Ibaien eta erreken ertzak antolatzeko LPSak ezarritako antolamendua –Kantauri eta Mediterraneoko isurialdeak– eta Nekazaritza eta Basozaintzako LPSak ezarritakoa gainjartzen badira, eta kontrakoa badiote, lehenengoaren irizpideak bigarrenaren irizpideei gailenduko zaizkie.
- Gune Hezeen LPSak antolatutako esparruak (II. taldea) Nekazaritza eta Basozaintzako LPSaren antolamendu-esparrutik kanpo geratzen dira. III. multzoko hezeguneetan Gune Hezeak Antolatzeko LPSaren gomendioak aplikatuko dira.
- EAEko Itsasertza Babestu eta Antolatzeko LPSaren arabera itsasertzeko babes

Sectorialmente se centra en la ordenación en el suelo no urbanizable (SNU) de los usos agrarios y forestales, fundamentalmente y establece restricciones para otro tipo de usos que pongan en peligro la supervivencia de las tierras de mayor valor para el desarrollo de aquellos.

El ámbito de ordenación del PTS abarca la totalidad de la Comunidad Autónoma del País Vasco (CAPV), excluidas las áreas urbanas que a fecha de su aprobación definitiva estaban clasificadas por el planeamiento general municipal como suelo urbano, urbanizable o apto para urbanizar.

Se excluyen asimismo del ámbito de ordenación los Parques Naturales y Biotopos Protegidos declarados y en proceso de declaración conforme a la Ley 16/94 de Conservación de la Naturaleza, el ámbito de la Reserva de la Biosfera de *Urdaibai*, cuya ordenación se remite a la Ley 5/1989 de Protección y Ordenación de la Reserva de la Biosfera de *Urdaibai* y a su Plan Rector de Uso y Gestión, así como los espacios de la Red Ecológica Europea Natura 2000.

Se coordina con otros planes sectoriales en los términos siguientes:

- Todos los PTS se coordinarán con el PTS Agroforestal en los términos señalados en el artículo 16 de la Ley 17/2008 de Política Agraria y Alimentaria sobre la protección del suelo de alto valor agrológico,
  y deberán considerar las áreas de Alto Valor Estratégico y Montes de Utilidad Pública y Montes Protectores delimitadas por el PTS Agroforestal.
- En el ámbito de solapamiento entre la ordenación del PTS de Ordenación de los Márgenes de Ríos y Arroyos, vertientes mediterránea y cantábrica, y el PTS Agroforestal, en caso de contradicción, prevalecerán los criterios del primero sobre los del segundo.
- Los ámbitos ordenados por el PTS de Zonas Húmedas en su Grupo II quedan excluídos del ámbito de ordenación del PTS Agroforestal. En los humedales del Grupo III, serán de aplicación las recomen-daciones del PTS de Zonas Húmedas.
- Las zonas de Especial Protección Litoral,

berezikoak, ingurumen-hobekuntzakoak edo hiri-hondartzak diren guneak Nekazaritza eta Basozaintzako LPSaren antolaketa-esparrutik kanpo geratzen dira.

- Beste lurralde-plan sektorialek (nagusiki, azpiegiturak garatzekoa, trenbide-sare berriarena, errepideena, hondakin solidoena, energia eolikoarena, bizikleta-bideena, eta abar) eragina duten esparruetan, haietako gidalerroak koordinatu egingo dira Nekazaritza eta Basozaintzako LPSko gidalerroekin.
- Nekazaritza eta Basozaintzako LPSa indarrean jartzean hasierako onespena eman ez zaien LPPak eta LPSak lantzeko prozeduretan, Nekazaritza eta Basozaintzako LPSan jasotako zehaztapenetara egokitu beharko dira planak, Nekazaritza eta Basozaintzako LPSko Balio Estrategiko Handiko Eremuei, Onura Publikoko Mendiei eta Mendi Babesleei dagokienez.

Nekazaritza eta Basozaintzako LPSak xedatzen du, halaber, indarrean dagoen udal-esparruko hirigintza-antolamendu orokorra plan honetan ezarritakoaren arabera egokitu beharko dela, hura indarrean jarri eta bi urteko epean.

Bere araudian agintzen du udal-plangintzak erabilitako lurzoru urbanizaezina kategorizatu behar duela LPSan (46. art.) dauden antolamendu-kategoriak erabiliz, LAGek zehazten duten Babes Bereziko kategoriaz gain, eta espresuki adierazi behar duela nekazaritza eta abeltzaintzako eta landazabaleko lurzoru urbanizaezinaren guneei lotutako mugaketa eta araudia. Beasainen kasuan, lur horiek Arriaranen ibaiertzetan Ondarre (A-29) eremuaren Iparraldean, Eztandaren ibarrean Iturralde baserriaren ondoan, A-19 Loinatz eremuaren ondoan dagoen Loinatzazpikoa baserriaren Hegoaldean eta Altamira Auzoko mendi-bizkarretan S-7 Indar sektorearen Ekialdean daude batez ere.

Agintzen du, halaber, HAPOk onura publikoko mendien eta mendi babesleen arau-izaera eta mugaketa gainjarritako baldintza moduan jaso beharko dituela. Kategoria bakoitzean sartu beharreko erabileren araubidea bat etorriko da LPSarekin.

Mejora Ambiental o Playas Urbanas definidas en el PTS del Litoral de la CAPV, quedan fuera del ámbito de ordenación del PTS Agroforestal.

- En los ámbitos afectados por otros PTS, fundamentalmente los de desarrollo de infraestructuras, PTS de la Nueva Red Ferroviaria, de Carreteras, Residuos Sólidos, Energía Eólica, Vías Ciclistas, etc., se coordinarán las directrices de éstos con las del PTS Agroforestal.
- En los procedimientos de formulación de los PTP y PTS que no hayan sido aprobados inicialmente en el momento de la entrada en vigor del PTS Agroforestal, deberán adaptarse a las determinaciones contenidas en lo relativo a las Áreas de Alto Valor Estratégico y los Montes de Utilidad Pública y Montes Protectores del PTS Agroforestal.

El PTS Agroforestal señala también que el planeamiento urbanístico general municipal vigente deberá de adaptarse en el plazo de dos años a contar desde la entrada en vigor del PTS.

En su normativa, ordena que el planeamiento municipal debe categorizar el SNU utilizando las categorías de ordenación contenidas en el PTS (art. 46), además de la categoría de Especial Protección definida por las DOT y recoger expresamente la delimitación y la normativa asociadas a las zonas de SNU Agroganadera y Campiña de Alto Valor Estratégico. En el caso de *Beasain* estos suelos se sitúan principalmente junto a las riberas del *Arriaran* al Norte de *Ondarre* (A-29), en la vega del *Eztanda* junto al caserío *Iturralde*, al Sur del caserío *Loinatzazpikoa* situado junto al área A-19 de *Loinatz* y en las lomas de *Altamira Auzoa*, al Este del sector S-7 de *Indar*.

Ordena también que el PGOU deba recoger el carácter normativo y la delimitación de los Montes de Utilidad Pública y montes protectores como condicionantes superpuestos. El régimen de usos a introducir por el PGOU en cada categoría debe ser acorde con el PTS.

Lurzoru urbanizaezina kategoriak Nekazaritza eta Basozaintzako LPSan aurreikusitakoak hartuko ditu oinarri gisa, eta, hala egokituz gero, mugaketa udal-errealitate eta -eskalara egokituko du. Balio Estrategiko Handia azpikategoriaren mugaketa loteslea izango da. Gainerako mugaketak orientagarriak dira, eta HAPOk ongi arrazoituta aldatu ahal izango ditu.

Xedapen orokorrak eta gidalerro orokorrak egin ondoren, Nekazaritza eta Basozaintzako LPSak EAEko lurzoru urbanizaezina antolatzeko oinarria finkatzen du osagai hauek definituz eta egiaztatuz:

- o Erabilerak eta Jarduerak
- o Ordenazio-kategoriak.
- o Gainjarritako baldintzak.

LPSk bere araudiaren III. kapituluan (23. artikulutik 45. artikulura) zehazten ditu erabilerak eta jarduerak, IV. kapituluan (46 artikulutik 53. artikulura) ordenazio-kategoriak eta V. kapituluan (54 artikulutik 60. artikulura) gainjarritako baldintzak.
Hauek dira gainjarritako baldintzak:

- Akuiferoen kutsadurarekiko eremu kalteberak.
- Eremu higagarriak.
- Onura publikoko mendiak eta mendi babesleak.
- Natura-intereseko eremuak.
- Korridore ekologikoak.
- Gutxi aldatu diren paisaiak dituzten eremuak.

Antolamendu-kategorietan aplikatu beharreko arauak VI. kapituluan ezartzen dira eta gainjarritako baldintzen aplikatu beharreko arauak VII. kapituluan, hau da, azken kapituluan. Beasainen kasuan, hauek dira gainjarritako baldintzak:

La división del SNU en categorías tomará como base las previstas en el PTS Agroforestal ajustando en su caso la delimitación a la realidad y escala municipal. Es vinculante la delimitación de la subcategoría de Alto Valor Estratégico. El resto de delimitaciones son orientativas y podrán ser alteradas justificadamente por el PGOU.

Una vez efectuadas las disposiciones generales y directrices generales, el PTS Agroforestal establece la base para la ordenación del suelo no urbanizable de la CAPV como la definición y contraste de los siguientes elementos:

- o Usos y Actividades.
- o Categorías de Ordenación.
- o Condicionantes Superpuestos.

Los usos y actividades los establece el PTS en el capítulo III de su normativa (artículos 23 a 45), las categorías de ordenación en el capítulo IV (artículos 46 a 53) y dedica el capítulo V (artículos 54 a 60) a los condicionantes superpuestos.
Los condicionantes superpuestos son los siguientes:

- Áreas Vulnerables a la Contaminación de Acuíferos.
- Áreas Erosionables.
- Montes de Utilidad Pública y Montes protectores.
- Áreas de Interés Naturalístico.
- Corredores Ecológicos.
- Zonas con Paisaje poco alterado.

Las normas de aplicación en las categorías de ordenación se establecen en el capítulo VI y las normas de aplicación de los condicionantes superpuestos en el capítulo VII que es el último de los capítulos. En el caso de *Beasain* los condicionantes superpuestos son los siguientes:

- Eremu higagarriak. Maramendi, Atxabal, Urkumendi gailurren inguruak eta Ittolak, Astik, Biurinek eta Zormendik osatutako mendikatea.
- Natura-intereseko eremuak. Bat dator udalerriko ipar eta ipar-ekialdeko ertzarekin, eta muga egiten du Beizama, Bidegoian eta Itsasondoko udalerriekin. Lurraldea antolatzeko beste tresna batzuetan jada atzemandako Murumendi natura-intereseko eremua da. Eraginpean geratzen da, halaber, Agauntza ibaiaren ezkerraldeko ertza, zeinaren ibaiertzak Natura 2000 Europako Sare Ekologikoaren proposamenean dauden.

- Korridore ekologikoak. Bat dator, halaber, udalerriko ipar-ekialdeko ertzarekin natura-interesekoa baino zabalagoa den gune batean, Aralar eta Ernio-Gazume artean faunaren joan-etorria errazteko.

- Gutxi aldatu diren paisaiak dituzten eremuak. Mugaketa zehatz bat egon gabe, gutxi aldatu diren paisaiak dituzten eremuak dira: *..."natura-osagaia osagai artifizialak, hiri-osagaiak edo azpiegitura-osagaiak baino pisu espezifiko askoz ere handiagoa duten eremuak"...* "eremu hutsak" dira, inpakturik gabeko paisaia duten eremuak, nekazaritza- eta -natura-paisaia nagusi dituzten eremuak. Beasainen kasuan, Murumendiko eremua eta mendien gailurrak dira.

- Áreas Erosionables. Se detectan en los entornos de las cumbres de *Maramendi, Atxabal, Urkumendi* y en el cordal formado por *Ittola, Asti, Biurin* y *Zormendi*.
- Áreas de Interés Naturalístico. Coincide con el borde septentrional y Noreste del término municipal, colindante con los términos de *Beizama, Bidegoian* e *Itsasondo*. Se trata del área de interés naturalístico de *Murumendi* ya detectada en otros instrumentos de ordenación territorial. También queda afectada la ribera izquierda del *Agauntza,* cuyos márgenes se encuentran incluidos en la propuesta de Red Natura 2000 (año 2003).
- Corredores Ecológicos. Que corresponde también con el borde Noreste del término municipal en una zona más amplia que la de interés naturalístico, para facilitar el tránsito de la fauna entre *Aralar* y *Ernio-Gazume*.
- Zonas con Paisaje poco alterado. Sin que exista una delimitación precisa se definen como zonas donde: *..." la componente natural adquiere un peso específico muchísimo más notable que la componente artificial, urbana o infraestructural"...* Son "*zonas vacías"*, donde el paisaje está ausente de impactos o áreas en las que el paisaje agrario y natural son preponderantes. En el caso de *Beasain*, nuevamente se trata del ámbito de Murumendi y las cimas de los montes.

Ez da atzeman ez akuiferoak kutsatzeko arriskua dagoen eremurik ez onura publikoko mendirik udalerrian.

No se detecta la presencia de Áreas Vulnerables a la Contaminación de Acuíferos ni Montes de Utilidad Pública en el término municipal.

Hauek dira Nekazaritza eta Basozaintzako LPSaren erabilerak eta jarduerak arautzeko matrizea eta antolamendu-kategorien mapa:

La matriz de regulación de usos y actividades del P.T.S. Agroforestal y el mapa de categorías de ordenación son los siguientes:

ERABILERAK	ANTOLAMENDU-KATEGORIAK							
	NEKAZARITZAKOA NAHIZ ABELTZAINTZAKOA ETA LANDAZABALEKOA		MENDIA				INGURU-MENAREN HOBEKUN-TZA	GAINAZALEKO UREN BABESA
	Estrategi-koa	Trantsizio-ko Paisaia	Basoa - Mendi Urria	Basoa	Mendi Larreak	Mendi Larreak - Harkaitzak		
INGURUMENAREN BABESA								
Ingurumenaren hobekuntza	2	2	1	2	2	2	1*	1
AISIA								
Aisia estentsiboa	2	2	2	2	2	2	2	--
Aisia intentsiboko eremuen egokitzapena eta erabilera	2a	2a	2a	2a	2a	3	2a	--
Aisia intentsiboari lotutako eraikinak eta instalazio handiak	2a** / 3a**	2a	2a	2a	3a	3	3a	--
Ehiza- eta arrantza-jarduerak	2	2	2	2	2	2	2	2
LEHEN MAILAKO BALIABIDEEN APROBETXAMENDUA								
Nekazaritzako praktikak	1	1*	2*	2a*	3	3	3	2*
Nekazaritzako ustiape narekin zerikusia duten eraikinak	2a	2a*	3a*	3a*	3	3	3	3
Abeltzaintzako praktikak	2	2	2*	2*	1*	2*	2*	2*
Abeltzaintza-ustiapenarekin zerikusia duten eraikinak	2a*	2a*	3a*	3a*	3a*	3	3	3
Basozaintzako praktikak	2a*	2*	1*	1*	2*	2*	1*	2*
Basozaintzako ustiapenarekin zerikusia duten eraikinak	3a	2a	2a	2a	3	3	3	3
Nekazaritzako industriak	2a** / 3a**	2a	3a	3a	3	3	3	3
Erauzteko jarduerak	--	--	--	--	--	--	--	--
AZPIEGITURAK								
Garraiobideak (1)	--	--	--	--	--	--	--	--
Landa-bideak eta pistak	2a	2a	2a	2a	2a*	3	2a	--
Aireko lineak	2a	2a	2a	2a	3a	3	2a	--
Lurpeko lineak	2a	2a	2a	2a	3a	3a	2a	--
A motako zerbitzuetako instalazio teknikoak	2a** / 3a**	2a	2a	2a	3a	3	3	--
B motako zerbitzuetako instalazio teknikoak	2a	2a	2a	2a	2a	3a	2a	--
Obra-hondakindegiak eta hondakin solidoen zabortegiak	3a	2a	2a	2a	3	3	2a	--
ERAIKUNTZA-ERABILERAK								
Aurretik zeuden guneetan oinarritutako hazkundeak	2b	2b	2b	2b	3	3	2b	--
Aurretik zeuden guneetan oinarritu gabeko hazkundeak	3	3	3	3	3	3	3	--
Onura publikoko edo gizarte intereseko eraikinak	2a** / 3a**	2a	2a	2a	3a	3a	3	2a	--
Ustiaguneari lotutako egoitza isolatua	2a*	2a*	3a	3a	3a	3	3	3
Ustiaguneari lotuta ez dagoen egoitza isolatua	3	3	3	3	3	3	3	--
Instalazio arriskutsuak	2a** / 3a**	2a	2a	2a	3	3	2a	--

ERABILERAK:

1= Erabilera egokia. Zona baten erabilera egokia zona horretan nagusitzen den erabilera da. Erabilera hori, gainera, aipatu zonaren ezaugarria da, ikuspegi funtzionaletik eta fisikotik.

2= Erabilera onargarria. Nekazaritza- eta basozaintza-jardueran izandako eraginaren azterketa egingo da, eta neurri zuzentzaileak jasoko dira sektore-eragina ebaluatzeko protokoloan adierazitako moduan (I. eranskineko D dokumentua; Nekazaritza eta Basozaintzako LPSko «Jardun-tresnak»)

2= Erabilera onargarria.

3= Erabilera debekatua.

2b= Udal-plangintzak planteatzen badu lehenagotik badauden gune batzuk oinarri hartuta Nekazaritza eta Basozaintzako LPSaren arabera Nekazaritza eta Abeltzaintza nahiz Landazabala kategoriako Balio Estrategiko Handia azpikategoriakoa den eremu batean haztea, hura LPPko lehentasunezko interes-guneetan egon gabe, nekazaritza-inguruneko inpaktuaren balioztatze espezifikoa jasoko du plangintzak aukeren azterketan

3a= Erabilera ez da egokia antolamendu-kategoria horretan. Salbuespen gisa, onargarria izango da, nekazaritza-arloan eskumena duen organoaren txosten batek bermatzen badu. Txosten horrek berariaz hartu behar du aintzat nekazaritza-eta basozaintza-jardueraren gaineko eragina, eta neurri zuzentzaileak biltzea sektore-eragina ebaluatzeko protokoloan adierazitako moduan (I. eranskineko D dokumentua; Nekazaritza eta Basozaintzako LPSko «Jardun-tresnak»).

*** =** LPS honetan zehaztasunak dituzten edo foru-antolamenduak zehaztu beharreko nekazaritzako eta abeltzaintzako erabilerak.

*** * =** Balio Estrategiko Handia kategorian, Arabako Erdialdeko eta Guardiako eremu funtzionaletan (2a) EAEko gainerako lekuetan (3a) dutena ez bezalako araubidea dute nekazaritza eta basozaintzako erabilerek.

- - = Plangintzako beste agiri batzuetan arautu beharreko erabilerak.

(1) AEko Errepideen Plan Orokorrak xedatutakora egokitzearen zain.

USOS	CATEGORÍAS DE ORDENACIÓN							
	AGROGANADERO Y CAMPIÑA		MONTE				MEJORA AMBIENTAL	PROTECCIÓN DE AGUAS SUPERFICIALES
	Estratégico	Paisaje Transición	Forestal Monte Ralo	Forestal	Pastos Montano	Pastos montanos-Roquedos		
PROTECCIÓN AMBIENTAL								
Mejora Ambiental	2	2	1	2	2	2	1*	1
OCIO Y ESPARCIMIENTO								
Recreo Extensivo	2	2	2	2	2	2	2	--
Adaptación y uso de áreas de recreo Intensivo	2a	2a	2a	2a	2a	3	2a	--
Construcciones y grandes instalaciones ligadas al recreo intensivo.	2a** / 3a**	2a	2a	2a	3a	3	3a	--
Actividades cinegéticas y piscícolas	2	2	2	2	2	2	2	2
APROV. DE RECURSOS PRIMARIOS								
Prácticas agrarias	1	1*	2*	2a*	3	3	3	2*
Construcciones relacionadas con explotación agraria.	2a	2a*	3a*	3a*	3	3	3	3
Prácticas ganaderas	2	2	2*	2*	1*	2*	2*	2*
Construcciones relacionadas con explotación ganadera.	2a*	2a*	3a*	3a*	3a*	3	3	3
Prácticas forestales	2a*	2*	1*	1*	2*	2*	1*	2*
Construcciones relacionadas con explotación forestal.	3a	2a	2a	2a	3	3	3	3
Industrias Agrarias	2a** / 3a**	2a	3a	3a	3	3	3	3
Actividades extractivas	--	--	--	--	--	--	--	--
INFRAESTRUCTURAS								
Vías de Transporte (1)	--	--	--	--	--	--	--	--
Caminos rurales y pistas	2a	2a	2a	2a	2a*	3	2a	--
Líneas de tendido aéreo	2a	2a	2a	2a	3a	3	2a	--
Líneas subterráneas	2a	2a	2a	2a	3a	3a	2a	--
Inst. Técnicas de servicios Tipo A	2a** / 3a**	2a	2a	3a	3	3	3	--
Inst. Técnicas de servicios Tipo B	2a	2a	2a	2a	2a	3a	2a	--
Escombreras y vertederos de residuos sólidos	3a	2a	2a	2a	3	3	2a	--
USOS EDIFICATORIOS								
Crecim. apoyados en núcleos preexistentes	2b	2b	2b	2b	3	3	2b	--
Crecim. no apoyados en núcleos preexistentes	3	3	3	3	3	3	3	--
Edificios de Utilidad Pública e Interés Social	2a** / 3a**	2a	2a	3a	3a	3	2a	--
Residencial aislado vinculado a explotación	2a*	2a*	3a	3a	3a	3	3	3
Residencial aislado no vinculado a explotación	3	3	3	3	3	3	3	--
Instalaciones peligrosas.	2a** / 3a**	2a	2a	2a	3	3	2a	--

USOS:

1= Uso propiciado. Uso que predomina en una zona y la caracteriza desde un punto de vista funcional y físico.

2= Uso Admisible.

3= Uso Prohibido.

2a= Uso admisible. Se procederá a realizar un análisis de la afección generada sobre la actividad agroforestal y la incorporación de medidas correctoras en los términos recogidos en el PEAS (Documento D anexo I, «Instrumentos de actuación» del PTS Agroforestal)

2b= En caso de plantear el planeamiento municipal un crecimiento apoyado en núcleos preexistentes sobre un área calificada por el PTS Agroforestal como Agroganadera y Campiña – Alto Valor Estratégico no recayente en áreas de interés preferente del PTP, el planeamiento contendrá dentro de su análisis de alternativas una valoración específica del impacto en el medio agrario.

3a= Uso no deseable en dicha categoría de ordenación. Excepcionalmente será admisible en el caso de que sea avalado por un informe del órgano competente en materia agraria que considere de manera específica la afección sobre la actividad agroforestal y la incorporación de medidas correctoras en los términos recogidos en el PEAS (Documento D anexo I, «Instrumentos de actuación» del PTS Agroforestal).

*** =** Usos agroforestales con matizaciones en el PTS Agroforestal o a concretar por el ordenamiento foral.

*** * =** Usos agroforestales con diferente regulación en la categoría de alto valor estratégico para las áreas funcionales de *Álava Central* y *Laguardia* (2a) que para el resto de la CAPV (3a)

- - = Usos a regular desde otros documentos de planeamiento.

(1) Pendiente de adaptación a lo que disponga el Plan General de Carreteras del País Vasco.



Nekazaritza eta basozaintza antolatzeko Lurralde Plan Sektorialaren lurzoru urbanizaezinaren kategorien eta gainjarritako baldintzen antolamendu-mapa, Beasaingo udalerrirako.

Mapa de ordenación de las categorías del SNU y condicionantes superpuestos del PTS Agroforestal, para el término municipal de *Beasain.*



Nekazaritza eta basozaintza antolatzeko Lurralde Plan Sektorialaren lurzoru urbanizaezinaren kategorien eta gainjarritako baldintzen antolamendu-maparen legenda.

Leyenda del Mapa de ordenación de las categorías del SNU y condicionantes superpuestos del PTS Agroforestal.

2.5.5. EAEKO HEZEGUNEEN LURRALDE PLAN SEKTORIALA

EAEko hezeguneen lurralde plan sektorialak hiru taldetan (I, II, III) sailkatzen ditu hezeguneak –3.4.4. atalean deskribatu ditugu–.

Beasainen ez dago I. eta II. taldeko hezegunerik.

III. taldearen barruan, inbentariatuta dauden eta aurrekoetan ez dauden gainerako hezeguneak daude. Beasainen, III. taldean daude Ibaiederreko urtegia (Nuarbeko urtegia) Arriarango urtegia.

III. taldeko hezeguneei dagokienez, udal-plangintzak zehaztuko du talde horretako ze hezeguneek dituzten ingurumen-, natura- eta/edo paisaia-balioak, eta azterlan xehatuen bidez, gune horien babesa ezarri eta horien ingurunearen erabilera-erregimena finkatu ahal izango du; horretarako, LPSan zehaztutako antolamendu-kategoriak esleituko ditu 1. eranskinean dauden tipologien arabera.

Eranskinak bi tipologia bereizten ditu: hezegune naturalak (kostaldekoak eta barrualdekoak) eta hezegune artifizialak. Azken hauen barruan, honakoak bereziten dira:

E.– Urtegiak. (EG6. Ibaiederreko urtegia eta EG14 Arriarango urtegia).

Erabilerak eta jarduerak LAGek horietaz egiten duen definiziotik eta sistematizaziotik abiatuta arautzen dira, kasu batzuetan, horiek xehatuz. Beasainek II. taldeko hezegunerik ez duenez, LPSaren antolamendu-eremutik kanpo geratzen da, eta beraz, ez da inolako xedapen loteslerik ezartzen.

Inbentariatuta dauden eta xehetasunez antolatuta ez dauden hezeguneen kontserbazioa bermatzeko, Hezeguneen LPSa onartzen duen Dekretuaren bigarren xedapen gehigarriak gomendatzen du definitutako tipologien eta antolamendu-kategorien arteko erlazio bat. Erlazio hori tipologia bakoitzaren ezaugarrien (egungo egoeraren eta izan ditzakeen inpaktu posibleen) arabera zehazten da. HAPOk antolamendu-kategoria horiek

2.5.5. PLAN TERRITORIAL SECTORIAL DE ZONAS HÚMEDAS DE LA CAPV.

El PTS de zonas húmedas de la CAPV clasifica las zonas húmedas en los tres grupos (I, II, III) que se han descrito en el apartado 3.4.4.

En el término municipal de *Beasain* no se encuentra ninguna zona húmeda incluida en los grupos I y II

El grupo III comprende el resto de humedales inventariados y no incluidos en los anteriores. En el término municipal de Beasain se encuentran incluidos en el grupo III el embalse de *Ibaieder* (*Nuarbeko urtegia*) y el embalse de *Arriaran*.

A los humedales del grupo III el planeamiento municipal determinará qué zonas húmedas de este grupo poseen valores ambientales, naturalísticos y/o paisajísticos y mediante estudios pormenorizados podrá establecer la protección para dichas zonas y establecer el régimen de usos de su entorno, asignando para ello las categorías de ordenación definidas en el PTS según las tipologías que se recogen en su anexo 1.

El anexo distingue dos tipologías, las zonas húmedas naturales (costeras e interiores) y las zonas húmedas artificiales. Dentro de estas últimas se distinguen:

E.– Embalses. (EG6. Embalse de *Ibaieder* y EG14 Embalse de *Arriaran*).

La regulación de los usos y actividades se realiza a partir de la definición y sistematización que de los mismos realizan las DOT, procediendo en algunos casos a una pormenorización. Al no disponer el término municipal de *Beasain* de ninguna zona húmeda incluida en el grupo II, queda fuera del ámbito de ordenación del PTS, no estableciéndose por tanto ninguna disposición vinculante.

Con el fin de garantizar la conservación de las zonas húmedas inventariadas y no ordenadas pormenorizadamente, la disposición adicional segunda del Decreto de aprobación del PTS de Zonas Húmedas establece, a modo de recomendación, una relación entre las tipologías definidas y las categorías de ordenación. Esta relación se determina en función de las características de cada tipología (de su estado actual y de los posibles impactos). El PGOU

aplikatu ahal izango ditu. Urtegien kasuan, gainazaleko urak (S) babestea gomendatzen da, non irizpide nagusia uren kalitatea kontserbatzea baita, ibilguak eta ibaiertzak ez okupatzea edo aldatzea eta natura-arriskuek eragindako kalteak minimizatzea.

Ibaiederreko eta Arriarango urtegietarako, beraz, kategoria horretan sartzea gomendatzen da.

2.5.6. GIPUZKOAKO BIZIKLETA-BIDEEN LURRALDE PLAN SEKTORIALA

Bizikleta-bideen lurralde plan sektorialaren[166] aplikazio-eremua Gipuzkoako Bizikleta Bideen Oinarrizko Sarearena da bere osotasunean, administrazio desberdinek egiten duten sare horren zatien kudeaketa koordinatua alde batera utzita. Gogoratu behar da Gipuzkoako Lurralde Historikoko Bizikleta Bideei buruzko 1/2007 Foru Arauaren aplikazio-eremua Gipuzkoako Bizikleta Bideen Foru Sarearen Katalogoan halakotzat izendatzen eta sartzen diren aldundiaren bizikleta-bideena dela. Hau da, LPSaren bidez, zehaztuta geratu beharko dute Foru Sarea osatuko duten hiriartea lotzera bideratutako zatiek.

LPSaren helburu nagusia da Gipuzkoako Bizikleta Bideen Sarea behin betiko sartzea lurraldearen antolaketaren barruan. Sare hori aldez aurretik definituta dago Gipuzkoako Bizikleta Bideen Sarearen Planean. 1/2007 Foru Arauak honela definitzen du bizikleta-bidea:

> *"bizikleta-bidea herri-jabariko bidea izango da, bizikletak ibiltzeko proiektatu eta eraiki dena edo berariaz horretarako egokitu dena, dagozkion seinale horizontalak eta bertikalak dituena, eta ibilgailu horiek segurtasunez ibiltzeko adinako zabalera duena".*

podrá aplicar dichas categorías de ordenación recomendándose para el caso de los embalses la de Protección de Aguas Superficiales (S), donde el criterio general es favorecer la conservación de la calidad de las aguas, evitar la ocupación o alteración de los cauces y riberas y minimizar los daños derivados de riesgos naturales.
Las recomendaciones para la zona de los embalses de *Ibaieder* y *Arriaran* son, por tanto, su consideración en esta categoría.

2.5.6. PLAN TERRITORIAL SECTORIAL VÍAS CICLISTAS DE GIPUZKOA.

El ámbito de aplicación del PTS de Vías Ciclistas[166] es el de la Red Básica de Vías Ciclistas de *Gipuzkoa* (RBVCG) en su conjunto, independientemente de la gestión coordinada de sus tramos por diferentes administraciones. Debe recordarse que el ámbito de aplicación de la Norma Foral 1/2007, de Vías Ciclistas del THG, es el de las vías ciclistas de titularidad foral que se designen e incluyan como tales en el Catálogo de la Red de Vías Ciclistas Forales de *Gipuzkoa*. Es decir, a través del PTS han de quedar determinados los tramos con vocación de conexión interurbana, con vocación de formar parte de la Red Foral.

El objeto general del PTS es dar encaje definitivo en el marco de ordenación del territorio a la Red de Vías Ciclistas de Gipuzkoa, previamente definida en el Plan de la Red de Vías Ciclistas de *Gipuzkoa*. En consonancia con la Norma Foral 1/2007, se entiende por vía ciclista:

> *"aquella vía de dominio público proyectada y construida o específicamente acondicionada para la circulación de bicicletas, con la señalización horizontal y vertical correspondiente, y cuyo ancho permita el paso seguro de estos vehículos".*

[166] 2/2013 FORU ARAUA, ekainaren 10ekoa, Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurralde Plan Sektoriala behin betiko onartzekoa. (2013ko urriaren 10eko 194. EHAA).
NORMA FORAL 2/2013, de 10 de junio, por la que se aprueba definitivamente el plan territorial sectorial de vías ciclistas de *Gipuzkoa*. (BOPV nº 194 de10 de octubre de 2013).

Gipuzkoako Bizikleta Bideen Oinarrizko Sarea Lurralde Historikoko Bizikleta Bideen Sare Osoaren bizkarrezurra da. Sare honek 439 km ditu gutxi gorabehera, eta Gipuzkoako hiri-eremu nagusiak lotzen ditu beraien artean. Hiri eta hiriarteko bizikleta-azpiegitura batzuek osatzen dute, zeinak bederatzi ardatz edo ibilbide nagusitan egituratuta baitaude.

Beasaingo udalerriari dagokionez, nabarmentzeko modukoak dira I-3 (Donostia-Beasain), I-5 (Urola bailara) eta I-6 (Bergara-Beasain) ibilbideak eta horien adarrak.

Gipuzkoako Bizikleta Bideen Oinarrizko Sarea Beasain-Zumarraga eremu funtzionalean, Oria bailaratik igarotzen den ardatz nagusi batek (I-3 ibilbidearen zati batek, Legorreta eta Zegama artean) eta Estanda ibaiaren bailara zeharkatzen duen zeharkako ardatzak (I-6 ibilbidearen zati batek, Zumarraga eta Beasain artean) egituratzen dute. Ardatz nagusiak Tolosako eremu funtzionalarekiko lotura ahalbidetzen du, eta zeharkako ardatzak, berriz, Deba Garaiko eskualdean jarraitzen du eta Urola ibaiaren ardatzarekin elkartzen da (I-5 ibilbidea).

Gipuzkoako Bizikleta Bideen Oinarrizko Sareak 66,3 km-ko hedadura du Beasain-Zumarraga eremu funtzionalean, guztira duen luzeeraren %15,1. Trazadura hau kategoria hauetan banatzen da:

- Egikaritzeke dauden hiriarteko zatiak (Planifikatutako Oinarrizko Foru Sarea): 26,9 km
- Egikaritutako hiriarteko zatiak (Egungo Oinarrizko Foru Sarea): 19,1 km.
- Egikaritzeke dauden hiriko zatiak (Planifikatutako Oinarrizko Tokiko Sarea): 8,5 km.
- Egikaritutako hiriko zatiak (Egungo Oinarrizko Tokiko Sarea): 11,8 km

Bizikleta Bideen LPSak Gipuzkoako Bizikleta Bideen Oinarrizko Sarean sartzen eta zehazten ditu Beasain-Zumarraga eremu funtzionalaren LPPan bide sare ez motorizatuan finkatutako ardatzak. Hauek dira LPPak proposatu dituen eta Gipuzkoako Bizikleta Bideen Oinarrizko Sarean sartu diren ardatzak:

- Oria bailarako ardatza, Legorreta eta Idiazabal artean.

La Red Básica de Vías Ciclistas de Gipuzkoa es la espina dorsal de la Red Total de Vías Ciclistas del Territorio Histórico. Esta red alcanza una longitud de aproximadamente 439 km y conecta entre sí las principales áreas urbanas de Gipuzkoa. Está constituida por un conjunto de infraestructuras ciclistas de carácter urbano e interurbano, estructuradas en nueve ejes principales o itinerarios.

En lo que respecta al término municipal de *Beasain* destacamos los itinerarios I-3 (*Donostia-Beasain*), I-5 (*Valle del Urola*) e I-6 (*Bergara-Beasain*), así como sus ramales correspondientes.

La RBVCG en el área funcional *Beasain-Zumárraga* está vertebrada por un eje principal que discurre por el valle del *Oria* (parte del itinerario I-3, entre *Legorreta* y *Zegama*) y el eje transversal que atraviesa el valle del *Estanda* (parte del itinerario I-6, entre *Zumarraga* y *Beasain*). El eje principal permite la conexión con el área funcional de *Tolosa*, mientras que el eje transversal se continúa en la comarca del *Alto Deba* y confluye con el eje del *Urola* (itinerario I-5).

La RBVCG alcanza una extensión de 66,3 km en el área funcional *Beasain-Zumárraga*, un 15,1% de su longitud total. Este trazado se reparte entre las siguientes categorías:

- Tramos interurbanos pendientes de ejecución (Red Básica Foral Planificada): 26,9 km.
- Tramos interurbanos ejecutados (Red Básica Foral Existente): 19,1 km.
- Tramos urbanos pendientes de ejecución (Red Básica Local Planificada): 8,5 km.
- Tramos urbanos ejecutados (Red Básica Local Existente): 11,8 km

El PTS de Vías Ciclistas incorpora y concreta en la Red Básica de Vías Ciclistas de Gipuzkoa los ejes establecidos en el PTP del área funcional *Beasain-Zumárraga* en la red viaria no motorizada. Los ejes propuestos por el PTP y que han sido incorporados a la RBVCG son los siguientes:

- Eje del valle del Oria, entre Legorreta e Idiazabal.

- Ormaiztegi bailarako ardatza, Beasain eta Zumarraga artean.
- Urola bailarako ardatza, Urretxu-Zumarraga eta Legazpi artean.
- Ordizia-Zaldibia eta Beasain-Lazkao arteko adarrak.

LPPak eta LPSak ardatz hauetarako proposatzen dituzten trazadurak bat datoz oro har lurralde-plan bakoitzak bizikleta-bideei buruz egiten duen kontsiderazioaren ondoriozko zehaztasunekin; LPPan trazadura horiek batez ere aisialdira zuzenduta daude eta LPSan garraiora eta mugikortasunera.

Horiek horrela, LPSak ez du aurreikusten LPPak proposatzen duen hiriarteko artikulazio-ardatzetako bat oinarrizko sarean sartzea Ordizia eta Lazkao artean Oianguko eremutik. Zati hori aisialdira edo kirol-erabilerara zuzenduta egongo litzateke. Senpereko (Beasain) elkargunea berriro antolatzea proposatzen du, ordea.

Bestalde, LPPan aurreikusitako sarea zabaltzen du Urola bailarako ardatzaren jarraipenarekin Legazpi erdigunearen eta Legazpi-Brinkolaren artean, Ataueraino (San Martin) doan Ordizia-Lazkao adarrarekin eta Idiazabal-Zegama eta Segura-Mutiloa adarrekin.

LPSak bi kategoria finkatzen ditu oinarrizko sarea osatzen duten zatien titulartasunari eta etorkizuneko kudeaketari dagokienez, eta zentzu horretan, hiriko tarteak (Oinarrizko Tokiko Sarea) eta hiriarteko tarteak (Oinarrizko Foru Sarea) bereizten ditu. Goierriko eta Urola Garaiko eskualdeen kasuan, hiri-tarte batzuk esleitzen dizkie Itsasondo, Ordizia, Beasain, Lazkao, Segura, Ormaiztegi, Zumarraga, Urretxu eta Legazpi udalerriei.

Bizikleta Bideen LPSaren araudia zazpi titulutan egituratzen da. Horien artean, planekin eta beste udal hirigintzako-tresna batzuekin izan beharreko koordinazioari (III. titulua), bizikleta-komunikazio sistema orokorrari (VI. titulua) eta bizikleta-bideen ondoan dauden guneak babesteko, erabiltzeko eta eraikitzeko erregimenari (VII. titulua) buruzkoak nabarmendu ditugu.
Alde batetik, eskumena duen foru-organoaren nahitaezko txostenaren beharra arautzen da HAPO bezalako hirigintzako planak eta tresnak onartzeko (13. artikulua).

- Eje del valle de Ormaiztegi, entre Beasain y Zumárraga.
- Eje del valle del Urola, entre Urretxu-Zumarraga y Legazpi.
- Ramales entre Ordizia-Zaldibia y Beasain-Lazkao.

Los trazados propuestos por el PTP y el PTS para estos ejes coinciden en líneas generales, con las precisiones derivadas de la consideración de las vías ciclistas en cada uno de los planes territoriales, más orientados al ocio en el PTP y al transporte y a la movilidad en el PTS.

Así por ejemplo el PTS no contempla incluir en la red básica uno de los ejes de articulación interurbana propuesto por el PTP, entre *Ordizia* y *Lazkao* por el ámbito de *Oiangu*, tramo que estaría orientado hacia el ocio, esparcimiento o uso deportivo, en cambio propone la reordenación de la intersección de *Senpere* (*Beasain*).

Por otro lado, amplia la red prevista en el PTP con la continuación del eje del valle del *Urola* entre *Legazpi* núcleo y *Legazpi-Brinkola*, el ramal de *Ordizia-Lazkao* que se continúa hasta *Ataun (San Martin*), y los ramales de *Idiazabal-Zegama* y *Segura-Mutiloa*.

El PTS establece dos categorías en cuanto a la titularidad y futura gestión de los tramos que forman parte de la red básica, diferenciando entre tramos urbanos (Red Básica Local) y tramos interurbanos (Red Básica Foral). En el caso de las comarcas del *Goierri* y *Alto Urola* asigna varios tramos de carácter urbano a los municipios de *Itsasondo, Ordizia, Beasain, Lazkao, Segura, Ormaiztegi, Zumarraga, Urretxu y Legazpi*.

La normativa del PTS de Vías Ciclistas se estructura en siete títulos de los cuales destacamos los referidos a la coordinación con los planes y otros instrumentos urbanísticos de carácter municipal (Título III), al sistema general de comunicación ciclista (Título VI) y el régimen de protección, condiciones de uso y edificación en las zonas inmediatas a la vía ciclista (Título VII).
Por un lado se ordena la necesidad de informe preceptivo del órgano foral competente para la aprobación de planes e instrumentos urbanísticos como el PGOU (artículo 13).

25. artikuluaren arabera, bizikleta-komunikazioaren sistema orokorra bizikleta-bideak hartzen duen plataformak, bideari atxikitako osagai funtzionalek eta Gipuzkoako bizikleta-bideen 1/2007 Foru Arauan arautzen den jabari publikoko guneak osatzen dute. Planifikatutako Oinarrizko Foru Sarearen azpiegitura burutzen denean, honakoek osatuko dute Bizikleta Komunikazio Sistema Orokorra: bizikleta-bidearen lur-berdinketak hartutako lurrek, osagai funtzionalek, metro bateko zabalera duen zerrenda batek lurzoru urbanizagarrian eta urbanizaezinean eta metro bateko zabalera duen zerrenda batek hiri-lurzoruan, zubien, tunelen, antzeko obren eta egituren kasuan adierazitakoa salbu.

Se considera que el sistema general de comunicación ciclista (artículo 25) está compuesto por la plataforma ocupada por la vía ciclista, aquellos elementos funcionales afectos a la propia vía y la zona de dominio público regulada en la Norma Foral 1/2007 de vías ciclistas de *Gipuzkoa*. Cuando la infraestructura relativa a la Red Básica Foral Planificada haya sido ejecutada, integrarán el Sistema General de Comunicación Ciclista, aquellos terrenos ocupa-dos por la explanación de la vía ciclista, los ele-mentos funcionales, y una franja de 1 metro de anchura en suelo clasificado como urbanizable y no urbanizable, y de 1 metro en suelo urbano, con la salvedad de lo señalado en el supuesto de puentes, túneles, análogas obras y estructuras.

Jabari publikoko gunea honakoek osatzen dute: foru bizikleta-bideek eta horien osagai funtzionalek, bizikleta-azpiegiturarekin muga egiten duen titulartasun publikoko lur-zerrendak, metro bateko zabaleran horren bi aldetara dauden lur-berdinketaren kanpoko ertzetatik abiatuta.

La zona de dominio público está constituida por las vías ciclistas forales y sus elementos funcionales y además la franja de terreno colindante de titularidad pública a la infraestructura ciclista, en la extensión de un metro de anchura a partir de las aristas exteriores de explanación a ambos lados de la misma.

Foru bizikleta-bideek zorgune bat izango dute, bi alboetan lur-zerrenda banak osatuko dutena; zerrendek, barrualdean, beren jabari publikoko gunea izango dute mugakide, eta kanpoaldean bi lerro paralelo, lur-zerrendatik bi metro eta erdira kokatuta.

La zona de servidumbre es la fijada por sendas franjas de terrenos a ambos lados, delimitadas internamente por su zona de dominio público y externamente por dos líneas paralelas, situadas a dos metros y medio de ésta.

Debekatuta dago edozein obra, erabilera edo instalazio mota egitea jabari publikoko gunearen barruan, herri-erabilera edo jabariko helburua duten jabari-lagapenak edo jatorrizko profilaren aldaketak izan ezik. Zerbitzurako sareek ezin izango dute jabari publikoko gunea zeharkatu, ez gurutzatu, berariazko baimena duten egoeretan izan ezik.

Dentro de la zona de dominio público de las vías ciclistas se prohíbe con carácter general cualquier tipo de obra, uso o instalación, salvo aquellas cesiones demaniales o modificaciones del perfil original que tengan igualmente una finalidad de uso o dominio público. Las redes de servicios no podrán discurrir ni cruzar por la zona de dominio público salvo en supuestos expresamente autorizados.

Zor-gunearen barruan ezin izango da ez eraikuntza berririk ez berreraikuntzarik egin. Salbuespen gisa, eraiki ahal izango da, baldintza jakin batzuk elkartzen direnean eta foru bizikleta-bideari kalterik ez zaiola egingo justifikatzen denean. Lurpeko zerbitzuak instalatzea, bakar bakarrik, baimentzen da; instalazio horiek mantentzeko, artatzeko eta ustiatzeko era, oro har, foru bizikleta-bidearen kanpotik burutu beharko da. Oro har, nekazaritza eta abeltzaintzako erabilerak baimenduko dira, betiere erabilera horrek foru bizikleta-bidearen funtzionaltasunean eragozpenik sortzen ez

En los terrenos comprendidos en la zona de servidumbre no podrán realizarse nuevas edificaciones ni reedificaciones, a excepción de circunstancias concurrentes y justificación de no perjudicar la vía ciclista foral. Únicamente se permite la instalación de servicios enterrados cuyo mantenimiento, conservación y explotación deberá realizarse, en términos generales, de forma externa a la vía ciclista foral. Con carácter general, se permitirá el uso agropecuario en la zona de servidumbre, siempre y cuando no interfiera en la funcionalidad de la vía ciclista, y para aquellas

badu, eta zor-guneak kokatuta dauden eraikin edo instalazioetan sendotzeko, apaintzeko edo hobetzeko obrak baimendu ahal izango dira.

edificaciones o instalaciones situadas en la zona de servidumbre, podrán autorizarse obras de consolidación, ornato o mejora.



"Goierri" Eremu Funtzionaleko mugak /
Límite del Área Funcional "Goierri"

Gipuzkoako Bizikleta Bideen Oinarrizko Foru Sarea: GBBOFS /
Red Básica Foral de Vías Ciclistas de Gipuzkoa: RBFVCG
Burututako tarteak. *Burututako Oinarrizko Foru Sarea (BOFS)*
Tramos ejecutados. *Red Básica Foral Existente (RBFE)*
Burutugabeko tarteak. *Planifikatutako Oinarrizko Foru Sarea (POFS)*
Tramos no ejecutados. *Red Básica Foral Planificada (RBFP)*

Gipuzkoako Bizikleta Bideen Oinarrizko Udal Sarea: GBBOUS /
Red Básica Local de Vías Ciclistas de Gipuzkoa: RBLVCG
Burututako tarteak. *Burututako Oinarrizko Udal Sarea (BOUS) /*
Tramos ejecutados. *Red Básica Local Existente (RBLE)*
Burutugabeko tarteak. *Planifikatutako Oinarrizko Udal Sarea (POUS) /*
Tramos no ejecutados. *Red Básica Local Planificada (RBLP)*

Bizikleta erabilerako gainontzeko azpiegiturak /
Otras infrestructuras para uso ciclista

Eskualdeen arteko ibilbide loturak / *Conexiones intercomarcales*

Lurraldeen arteko ibilbide loturak / *Conexiones interterritoriales*

Centros de generación y atracción de desplazamientos
Egoitza eremuak / *Áreas residenciales*

Jarduera ekonomiko eremuak /
Áreas de actividades económicas

Eskualde mailako hezkuntza ekipamenduak /
Equipamientos educativos de ámbito comarcal

Eskualdeko kultur eta kirol ekipamenduak /
Equipamientos culturales y deportivos comarcales

Batasunaren Intereseko Lekuak (BIL) /
Lugares de Interés Comunitario (LIC)

Interes naturalistikoa duten eremuak (LAA) /
Áreas de interés naturalístico (DOT)

Aisiarako eremuak / *Áreas de esparcimiento*

Tren geltokiak / *Estaciones de tren*

ADIF: Egun dagoena / *Existente* Planifikatua / *Planificada*

ETS: Egun dagoena / *Existente* Planifikatua / *Planificada*

Trenbide Sare Berria / *Nueva Red Ferroviaria:* Planifikatua / *Planificada*

Gipuzkoako bizikleta-bideen LPSak Beasainengan dituen lurralde-eraginen mapa.

Mapa de afecciones territoriales a *Beasain* del PTS de vías ciclistas de Gipuzkoa.

2.5.7. EAEKO JARDUERA EKONOMIKOETARAKO ETA MERKATARITZA-EKIPAMENDUETARAKO LURZORUA SORTZEKO LURRALDE PLAN SEKTORIALA

EAEko jarduera ekonomikoetarako eta merkataritza-ekipamenduetarako lurzorua sortzeko lurralde plan sektoriala 2004koa da, jada azaldu dugun moduan. Lau helburu nagusi ditu:

- LAGen lurraldea antolatzeko ereduaren arloko identifikazioa, jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren hirigintza-arloko arautzeari dagokionez.
- Lurraldearen plan partzialak lantzeko prozesurako koordinazio-tresna bat ezartzea.
- Jarduera ekonomikoetarako lurzoru publikoa sortzeko eragiketak programatzeko irizpide orokorrak adieraztea.
- Merkataritzako azalera handiak lurralde-mailan sistematizatzea.

Igarotako denborak, 2/2006 Legea indarrean sartu izanak, horren arauen garapenak, lurraldearen plan partzialak onartu izanak eta LPSaren[167] xedapen batzuk partzialki indargabetzen dituen epaiak[168] jada egiten ari den berrikuspena gomendatzen dute; beraz, baliteke

2.5.7. PLAN TERRITORIAL SECTORIAL DE CREACIÓN PÚBLICA DE SUELO PARA ACTIVIDADES ECONÓMICAS Y DE EQUIPAMIENTOS COMERCIALES DE LA C.A.P.V.

El PTS de creación pública de suelo para actividades económicas y equipamientos comerciales de la CAPV data como ya hemos explicado del año 2004. Se plantea cuatro grandes objetivos:

- La identificación sectorial del modelo de ordenación de las DOT en relación con la regulación urbanística del suelo para actividades económicas.
- El establecimiento de un instrumento de coordinación para el proceso de elaboración de los planes territoriales parciales.
- El enunciado de unos criterios generales para la programación de las operaciones de creación pública de suelo para actividades económicas.
- La sistematización de la ordenación territorial de las grandes superficies comerciales.

El tiempo transcurrido, la entrada en vigor de la Ley 2/2006 del Suelo, su desarrollo reglamentario, la aprobación de los planes territoriales parciales y la sentencia judicial[168] que deroga parcialmente algunas de las disposiciones del PTS[167], aconsejan la revisión que ya se está

[167] Ikusi 2016ko martxoaren 18ko ebazpena, Lurralde Plangintzako eta Hirigintzako Zuzendariarena, jarduera ekonomikoetarako eta merkataritza-ekipamenduetarako lurzorua sortzeko LPSaren xedapenak zehazteari buruzkoa. Xedapen horiek 2015eko irailaren 3an Auzitegi Gorenak emandako epaiak baliogabetu zituen. (2016ko martxoaren 31ko 60. EHAA).
Véase la Resolución de 18 de marzo de 2016, del Director de Planificación Territorial y Urbanismo, relativa a la concreción de las disposiciones del PTS de Creación Pública de Suelo para Actividades Económicas y Equipamientos Comerciales anuladas por la sentencia del Tribunal Supremo de 3 de septiembre de 2015. (BOPV nº 60 de 31 de marzo de 2016).

[168] Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Epaimahaiaren bosgarren atalak, 3408/2014. kasazio-errekurtsoari buruz 2015eko irailaren 3an eman zuen epaian, erabat deuseztatu zituen Eusko Jaurlaritzako Batzordearen abenduaren 21eko 262/2004 Dekretuaren bidez onartutako jarduera ekonomikoetarako eta merkataritza-ekipamenduetarako lurzorua sortzeko LPSaren zehaztapenak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren abenduaren 21eko 2006/123/CE Direktibaren eta azaroaren 23ko 17/2009 Legearen kontrakoak zirelako.
Epaia ikusita eta baliorik gabe geratu ziren LPSaren xedapenen zehaztasun falta kontuan hartuta, Lurralde Antolamendu Batzordeak, martxoaren 16an egindako osoko bilkuran, besteak beste, aho batez hartu zituen erabaki hauek:
"Epaiak erabat deuseztatzen dituen merkataritza-ekipamenduetarako gehienezko azalerari mugak ezartzen dizkioten Antolamendu Arauen zehaztapenak dira merkataritza-ekipamendu handien lurraldea arautzeari buruzko 14. artikuluaren 2. atalaren c) eta d) letrak".
La Sección Quinta de la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Supremo en su sentencia de 3 de septiembre de 2015 correspondiente al recurso de casación número 3408/2014, declaró nulas de pleno derecho, por ser contrarias a la Directiva 2006/123/CE, del Parlamento Europeo y del Consejo, de 12 de diciembre de 2006, y a la Ley 17/2009, de 23 de noviembre, las determinaciones del Plan Territorial Sectorial de Creación Pública de Suelo para Actividades Económicas y Equipamientos Comerciales, aprobado por Decreto 262/2004, de 21 de diciembre, del Consejo de Gobierno de la Comunidad Autónoma del País Vasco, que imponen limitaciones a la superficie máxima para equipamientos comerciales.
A la vista del referido fallo y dada la falta de concreción de las disposiciones del PTS que resultan anuladas, la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco en su sesión plenaria 1/2016 celebrada el día 16 de marzo, adoptó por unanimidad, entre otros acuerdos, que:
«Las determinaciones de las Normas de Ordenación que imponen limitaciones a la superficie máxima para equipamientos comerciales que la sentencia declara nulas de pleno derecho se corresponden con las letras c) y d) del apartado 2 del artículo 14 relativo a la regulación territorial de los grandes equipamientos comerciales»

xedapen asko eta bereziki Beasaingo eremu funtzionalari eta udalerriari buruzko informazioa erabilgarria ez izatea edo zaharkituta egotea.

Hori gertatzen da Beasaingo eskualdeko hiri- eta -ekoizpen egiturari buruzko datuekin, 2003ko abenduaren 31koak dira eta. Datu horiek 2017ra eguneratu ditugu gizarte-, ekonomia- eta hirigintza-diagnostikoaren ekonomiako atalean.

LPSak Urola Garaia eta Oria Garaia eskualdeak finkatzen ditu Beasain-Zumarraga eremu funtzionalean. Beasainek azken hau osatzen du.

Duela hamalau urte, eskualdeko lanpostuen %3 lehen sektorekoak ziren, %54 bigarren sektorekoak eta %43 hirugarren sektorekoak. Eskualdeko jarduera ekonomikoa industria-sektorean kontzentratzen zen, eta 800 enpleguko superabitata zegoen.

Azterlan honetarako egin dugun gizarte-, ekonomia- eta hirigintza-diagnostikoan ematen ditugun 2017ko datuen arabera, Beasainen egoera ez da bere eskualdekoak 2004an zuenaren oso desberdina. Horiek horrela, lanpostuen %0,3 lehen sektorekoak ziren, %53,5 bigarren sektorekoak, %42,2 hirugarren sektorekoak eta %4,0 eraikuntzakoak, eta 743 enpleguko superabitata zegoen.

LPSak egiaztatu zuen kalifikatutako eta okupatu gabeko jarduera ekonomikoetarako lurzoru-erreserba nagusiak Oria Garaiko eskualdean[169] 22 Ha zirela Beasainen (%27,5), 20 Ha Ordizian, 20 Ha Olaberrian, 6 Ha Idiazabalen, 9 Ha Lazkaon eta 5 hektareatik behera gainerako udalerrietan, eta azpimarratu zuen horietako lurzoru askok kudeaketa eta bideragarritasun arazoak zituztela. 2.3.5 atalean jada azaldu dugunaren arabera, esan daiteke Beasainen lurzoru-erreserbak 2004an 22 hektarea izatetik 2018an 19 hektarea izatera igaro direla.

produciendo, por lo que una buena parte de sus disposiciones y en particular la información referente al área funcional y al municipio de *Beasain* pueden resultar poco útiles u obsoletas.

Tal es el caso de los datos referidos a la estructura urbana y productiva de la comarca de *Beasain* que datan del 31/12/2003 en el PTS y que para este diagnóstico se ofrecen actualizados a 2017 en el apartado de economía del diagnóstico socio-económico y urbanístico.

El PTS establece en el área funcional *Beasain-Zumárraga* las comarcas del *Alto Urola* y *Alto Oria*, perteneciendo *Beasain* a esta última.

Hace catorce años, los puestos de trabajo en la comarca se distribuían en un 3% al sector primario, en un 54% al sector secundario y en un 43% al sector terciario, constatándose que la actividad económica de la comarca se concentraba en el sector industrial, presentando un superávit de 800 empleos.

De acuerdo a los datos actualizados a 2017, ofrecidos en el diagnóstico socio-económico y urbanístico elaborado para ese estudio, la situación de *Beasain* no difiere mucho de la de su comarca en 2004, siendo la distribución de los puestos de trabajo de un 0,3% en el sector primario, un 53,5% en el sector secundario, un 42,2% en el sector terciario y de un 4,0% en la construcción, presentando un superávit de 743 empleos.

El PTS constataba que las principales reservas de suelo para actividades económicas calificadas y desocupadas en la comarca[169] del *Alto Oria* eran de 22 Ha en *Beasain (27,5%)*, 20 Ha en *Ordizia*, 20 Ha en *Olaberria*, 6 Ha en *Idiazabal*, 9 Ha en *Lazkao* y reservas inferiores a las 5 Ha en los restantes municipios, remarcando que muchos de estos suelos presentaban problemas de gestión y viabilidad urbanística. De acuerdo a lo ya explicado en el apartado 2.3.5, se puede estimar que las reservas de suelo en *Beasain* han pasado de las 22 Ha en

[169] LPSaren arabera, Oria Garaiko eskualdea Altzaga, Arama, Ataun, Beasain, Gabiria (Alegiako Sta. Lutziko ibarra izan ezik), Gainza, Idiazabal, Itsasondo, Lazkao, Legorreta, Mutiloa, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi, Segura, Zaldibia, Zegama eta Zerain udalerriek osatzen dute.
Según el PTS la comarca del *Alto Oria* está compuesta por los municipios de *Altzaga, Arama, Ataun, Beasain, Gab*iria (excepto la Vega del Sta. Lutzi en Alegia), *Gainza, Idiazabal, Itsasondo, Lazkao, Legorreta, Mutiloa, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi, Segura, Zaldibia, Zegama y Zerain*.

	2004 a las 19 Ha en 2018.
Jarduera ekonomikoetarako lurzoruen lehentasunezko kokapen-jarraibideak finkatzeko orduan, Arama, Beasain, Ezkio-Itsaso, Idiazabal, Itsasondo, Lazkao, Legazpi, Legorreta, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi, Urretxu, Zaldibia eta Zumarraga lehentasunezko intereseko udalerriak direla aipatzen du.	Al establecer pautas de localización prioritaria de suelos para actividades económicas, señala como municipios de interés preferente a *Arama, Beasain, Ezkio-Itsaso, Idiazabal, Itsasondo, Lazkao, Legazpi, Legorreta, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi, Urretxu, Zaldibia y Zumárraga.*
LPSak proposamen espezifikoak egiten ditu Beasain-Zumarraga eremu funtzionalarentzat, eta Beasain-Zumarraga korridorean eskualde mailako industrialde berri bat (25/50 hektareakoa) eta eskualdeko industrialde berri bat Oria Bailaran (10/25 hektareakoa) proposatzen ditu.	El PTS efectúa propuestas específicas para el área funcional de *Beasain-Zumárraga* que se concretan en un nuevo Polígono de Escala Comarcal en el Corredor Beasain-Zumárraga (de 25/50 Ha) y una nueva Industrialdea Comarcal en el Valle del Oria (de 10/25 Ha).
Horien dimentsioa eta kokapena zehazteko, alternatiben bideragarritasun- eta kokapen-azterlanak egiteko beharra adierazten da.	Para su dimensión y colocación más precisa se señala la necesidad de efectuar estudios de localización y viabilidad de alternativas.
Araudiak interes publiko eta sozialeko zerbitzuen, aparkalekuen eta espazio libreen gutxieneko zuzkidurei eta eraikigarritasunari buruzko parametro batzuk finkatzen ditu. Horietako batzuk gure lurzoruari buruzko legediaren arauen garapenak aldatu ditu, eta soilik aparkalekuarena mantendu da.	La normativa fija una serie de parámetros referidos a la edificabilidad y a las dotaciones mínimas de servicios de interés público y social, aparcamientos y espacios libres, algunos modificados por el desarrollo normativo de nuestra legislación del suelo, prevaleciendo sólo el de aparcamiento.
Era berean, Oria Garaiko (enplegu industrialaren superabita) eta Urola Garaiko (enplegu industrialaren defizita) eskualdeen egoera desberdinaren berri ematen du, eta, besteak bete, jarduera ekonomikoetarako lurzorua antolatzeko jarraibide hauek finkatzen ditu:	Constata además la situación diferenciada de las comarcas del *Alto Oria* (superávit de empleo industrial) y el *Alto Urola* (déficit de empleo industrial) y establece, entre otras, las siguientes pautas para la ordenación del suelo de AA.EE.:
- Jarduera ekonomikoak hartzeko lurzoru egokia urria denez gero, gaur egun dauden industria-lurzoru guztien kalifikazioa bere horretan utziko da eta, horrenbestez, bizitegitarako birkalifikazio sistematikorik ez da egingo. Honela, eskualdeko jarduera ekonomikoen oinarrizko euskarria suntsi dadin saihestea lortu nahi da.	- Conservar, ante la escasez de suelo idóneo, la calificación de los suelos industriales existentes, evitando recalificaciones a residencial y la destrucción del soporte básico de la actividad económica de la comarca.
- Finkatu beharreko jarduera ekonomikoak pixkanaka hautatuko dira, balio erantsi handienekoak mantenduz, hots, teknologia berriei dagozkienak eta enpresentzako hirugarren sektoreko zerbitzuetakoak, eta espazio handia behar duten jarduerak pixkanaka kanporantz bideratuz.	- Tender a la progresiva selección de las actividades económicas a consolidar, manteniendo las de mayor valor añadido, las correspondientes a nuevas tecnologías y las de servicios terciarios a las empresas, canalizando, sin embargo, progresivamente hacia el exterior las actividades que requieran gran consumo espacial.
- Era berean, Oriako haranean, erabilgarri dauden erreserben garapenaren osagarri gisa, haranaren hondoaz kanpoko puntuetan N-1 errepideari zuzenean lotutako udalaz	- En el *Valle del Oria* deberá estudiarse, de forma complementaria al desarrollo de las reservas disponibles, las posibilidades de promoción en puntos exteriores al fondo del

gaindiko poligonoak sustatzeko aukerak aztertu beharko dira. Baliabide alternatibo gisa, haranaren goi-tartean, Segurako hirigunearen inguruan erabilgarri dauden espazio-erreserben garapenen bat egitea kontuan har liteke.

- Garraiorako zerbitzu-plataforma logistikoren bat ere sortuko da.

Lurzorua kuantifikatzeko, LPSak lau osagai erabiltzen ditu. Lehena 2004an Oria Garaian okupatutako lurzoruaren azalera da, 269 hektareakoa izanik. Bigarren osagaia 2004an kalifikatutako eta eskaintza bideragarritzat hartutako lurzoru libreen azalerari dagokio, 50 hektareakoa[170] izanik Oria Garaian. Hirugarrena LPSan aurreikusitako sustapen publikoko eragiketa berrien harrera xurgatzeko beharrezkoak diren lurzoruei dagokien azalera da, (lurzoru horiek ez ziren 2004ko hirigintza-plangintzan aintzat hartzen), 25/40 Ha izanik Oria Garaian. Eta laugarrena, LPSaren horizontean aurreikus daitekeen eskariari erantzuteko beharrezko lurzoru berrien azalera da, hau da, 30/60 Ha gehiago, Oria Garairako guztira 375/415 Ha izanik.

Beasaini aplikatuta, esan dezakegu 103 eta 114 Ha bitartean beharko liratekeela, hau da, 2018an dagoen 82,6 Ha-ko lurzoru kalifikatua baino pixka bat gehiago.

valle de polígonos de carácter supramunicipal directamente conectados con la N-1. Como recurso alternativo podría considerarse algún desarrollo de las reservas espaciales disponibles en el tramo alto del valle en torno al núcleo de *Segura*.

- Disponer también la creación de alguna plataforma logística de servicio al transporte.

Para cuantificar el suelo el PTS utiliza cuatro componentes. El primero es el suelo ocupado en 2004, estimando 269 Ha en el *Alto Oria*. El segundo componente es el relativo a los suelos libres calificados en 2004 y considerados como oferta viable, siendo de 50 Ha[170] en el *Alto Oria*. El tercero es la superficie de suelos necesarios para absorber la acogida de las nuevas operaciones de promoción pública previstas en el PTS, no contemplados en el planeamiento urbanístico de 2004, estimando para el *Alto Oria* 25/40 Ha. Y el cuarto, la superficie correspondiente a los nuevos suelos necesarios para absorber la demanda previsible en el horizonte del PTS, es decir 30/60 Ha más que para el *Alto Oria* supone un total de 375/415 Ha.

Aplicado a *Beasain*, la superficie necesaria podría estimarse entre las 103 y las 114 Ha, superficie que es ligeramente superior a las 82,6 Ha de suelo calificado existente en 2018.

[170] 0,50eko minorazio-koefizientea aplikatu da inbentariatutako lurzoru libre kalifikatuaren gainean, eskaintza bideragarria ebaluatzeko.
Se ha aplicado un coeficiente de minoración del 0,50 sobre el suelo libre calificado inventariado para evaluar la oferta viable.



Beasain-Zumarraga eremu funtzionalerako Jarduera ekonomikoen LPSaren laburpen-mapak

Mapas resumen del PTS de AA.EE. para el área funcional *Beasain-Zumárraga*

OPERACIONES DE CREACION PUBLICA DE SUELO PARA ACTIVIDADES ECONOMICAS
PROPUESTAS EN EL MARCO DEL PLAN

ALAVA

A.F. DE ALAVA CENTRAL

LLANADA ALAVESA
- SALVATIERRA
- ASPARRENA/SAN MILLAN

ESTRIBACIONES DEL GORBEA
- LEGUTIANO

AREA DE VITORIA-GASTEIZ
- P.T. DE MIÑANO
- AEROPUERTO–ARANGUIZ
- AEROPUERTO–ESTARRONA
- JUNDIZ. INTERMODAL
- JUNDIZ. CTV.
- JUNDIZ
- NANCLARES. SUBILLABIDE

VALLES ALAVESES
- CENTRO LOGISTICO ALAVA SUR
- CENTRO LOGISTICO ALAVA SUR
- CENTRO LOGISTICO ALAVA SUR
- LANTARON
- TUESTA–ESPEJO
- SUBIJANA–ANUCITA

MONTAÑA ALAVESA
- CAMPEZO
- MAEZTU

A.F. DE LLODIO
- AMURRIO/AYALA
- LLODIO

A.F. DE LA RIOJA ALAVESA
- OYON O MALPICA–LAGUARDIA
- LAGUARDIA

BIZKAIA

A.F. DE ARRATIA
- ARTEA

A.F. DEL BILBAO METROPOLITANO

PUERTO EXTERIOR
- PUERTO EXTERIOR
- PUERTO EXTERIOR
- PUERTO EXTERIOR

RIA Y MARGEN IZQUIERDA
- URBAN. BARAKALDO
- LUTXANA–BURCEÑA
- ERANDIO
- CENTRO LOGISTICO SERANTES
- APARCAVISA
- ABANTO
- ORTUELLA
- TRAPAGARAN–PORTUGALETE
- SESTAO
- BARAKALDO
- MUSKIZ

BILBAO
- ZORROZA

CORREDOR PLENTZIA-LEIOA
- GETXO–BERANGO
- SOPELANA–URDULIZ

TXORIERRI
- P.T. DE ZAMUDIO
- CORREDOR TXORIERRI

BAJO NERVION
- INDUSTRIALDEA

A.F. DEL DURANGUESADO
- DURANGO–IURRETA
- ABADIÑO
- AMOREBIETA
- BORDA

A.F. DE LAS ENCARTACIONES
- SODUPE–GÜEÑES

A.F. DE GERNIKA-MARKINA

URDAIBAI
- AJANGIZ–MUJIKA
- BERMEO–MUNDAKA

LEA-ARTIBAI
- MARKINA

A.F. DE MUNGIA
- MUNGIA

GIPUZKOA

A.F. DEL ALTO DEBA
- GARAIA
- ZALDUNBIDE
- DEBA MEDIO. BERGARA
- ALTO DEBA–ARRASATE

A.F. DEL BAJO DEBA
- ELGOIBAR. ALBITXURI
- MUTRIKU
- ITZIAR
- MALLABIA

A.F. DE DONOSTIALDEA-BAJO BIDASOA

BAJO BIDASOA
- IRUN
- ZAISA
- ZUBIETA–HONDARRIBIA
- ARASO/ARRETXE–UGALDE

OARSOALDEA
- PUERTO DE PASAJES/GAINTXURIZKETA
- PUERTO DE PASAJES/GAINTXURIZKETA
- MUELLE DE HERRERA
- RENTERIA–LANDARRO

DONOSTIA-SAN SEBASTIAN
- P.T. DE MIRAMON
- ZUATSU

OESTE DE DONOSTIALDEA
- CORREDOR DEL URUMEA
- BAJO ORIA
- ZUBIETA–ORIA

A.F. DEL GOIERRI
- CORREDOR BEASAIN–ZUMARRAGA
- GOIERRI

ALTO ORIA
- VALLE DEL ORIA

ALTO UROLA
- INDUSTRIALDEA

A.F. DE TOLOSALDEA
- APATTA
- VEGA DE ADUNA
- TOLOSALDEA

A.F. DE UROLA COSTA
- ARROA BEKOA
- ZARAUTZ
- AZPEITIA–AZKOITIA
- UROLA

2.5.8. TRENBIDE-SAREAREN LURRALDE PLAN SEKTORIALA.

Nazioarteko zabalera izango duen trenbide-sarearen trazadura berria egin ondoren, Beasaingo HAPO berrian kontuan hartu beharko dira trenbide-sarearen Lurralde Plan Sektorialaren xedapen teknikoak.

RENFEren aldiriko sareari dagokionez, LPSak inolako jarduketa berezian zehazten ez diren proposamen generikoak egiten ditu. Zentzu honetan, ez da Beasaingo bide-zabalgunea aldatzeko eta Beasain eta Ordizia arteko trazadura laburtzeko Lurralde Plan Partzialak egiten dituen proposamenen inolako aipamenik egiten.

LPSaren 6.1. atalean hau aipatzen da:

> *"Madrid-Irun lineak, Iberiar Penintsularen eta Europako Iparraldearen arteko funtsezko trenbide komunikabideak, Euskal Herritik pasatzean, duela mende bat baino gehiago eraiki zenetik, 35 kilometro inguru eta 300 metroko erradioa duten bihurguneak dituen ibilbide oso malkartsua du Otzaurteko mendatea igarotzeko, Beasainera jaitsi arte. Beasainetik, Oria ibaiaren bailaratik zehar, eta Irunera arte (60 km inguru), trazadura are bihurgunetsuagoa da, eta linea bikoitzarekin muga egiten duten eraikuntzen artetik doa etengabe. Hori dela-eta, ibilbide honek Aldirietako Zerbitzurako egokiak diren baldintzak ditu beharbada, baina ez da egokia nazioarteko bide luzeko trenbide-ibilbide bat osatzeko.*

Aurrerago, 6.1.2. atalean honakoa dio:

> *"Beasain-Irun tartean, soilik trazadura berri baten bidez hobe daiteke Tolosako geltokira sartzeko tarte bat, Alegiatik abiatuta, eta beste tarte bat Villabona eta Andoain artean"...*

Ez du aipatzen, beraz, azaldu ditugun proposamenetako bat bera ere.

2.5.8. PLAN TERRITORIAL SECTORIAL DE LA RED FERROVIARIA.

Una vez ejecutado el nuevo trazado de la red ferroviaria con ancho internacional, las disposiciones del PTS resultan de un marcado contenido técnico a tener en cuenta en el nuevo PGOU de *Beasain*.

Con respecto a la red de cercanías de RENFE, el PTS efectúa propuestas genéricas que no se concretan en ninguna actuación singular. En este sentido no se encuentra ninguna mención a las propuestas de transformación de la playa de vías de *Beasain* y del acortamiento del trazado entre *Beasain* y *Ordizia* del plan territorial parcial.

En el apartado 6.1 de la memoria del PTS se hace mención a que:

> *"La línea Madrid-Irún, comunicación ferroviaria fundamental entre la Península Ibérica y el Norte de Europa, a su paso por el País Vasco mantiene desde su construcción, hace más de un siglo, un trayecto muy accidentado para salvar el puerto de Otzaurte, hasta descender a Beasain a lo largo de unos 35 km, con algunas curvas de 300 m de radio. Desde Beasain, discurriendo por el valle del río Oria, y hasta Irun (unos 60 km), el trazado es todavía más sinuoso y discurre casi continuamente entre edificaciones lindantes con la doble vía, haciendo que este trayecto reúna quizás condiciones de idoneidad para el Servicio de Cercanías, que realiza de forma aceptable, pero no apto para formar parte de un trayecto ferroviario de largo recorrido internacional."*

Más adelante, en el apartado 6.1.2 señala que:

> *"En el tramo Beasain-Irún, solamente encuentra con posibilidades de mejora mediante nuevo trazado, un tramo en el acceso a la estación de Tolosa, llegando desde Alegia, y otro tramo entre Villabona y Andoain"...*

No menciona por tanto ninguna de las propuestas a las que hemos hecho referencia.

LPSak Trenbide Sare Berriari ematen dio estaldura, halakotzat hartuz "*sare europarrera lotzeko nazioarteko trenbide-zabalera (UIC), hiru hiriburuak elkarren artean lotzeko eta Bilboko eta Pasaiako portuetara sartzeko proposamenak, mesetara sartzeko bideen (Burgos – Gasteiz linearen) normalizazioa eta Ebroko loturak barne hartzen dituen azpiegitura berria".*

El PTS da cobertura a la Nueva Red Ferroviaria entendiendo por tal la "*integrada por la nueva infraestructura que incorpora el ancho de vía internacional (UIC), de conexión a la red europea; así como las propuestas de interconexión de las tres capitales y el acceso a los Puertos de Bilbao y Pasaia; así como la normalización de los accesos a la Meseta: línea Burgos – Vitoria-Gasteiz; y la conexión del Ebro*".

Lotura horretarako alternatibak aztertzen ari dira oraindik. Zentzu horretan, LPSak Aralar mendia zeharkatzeko zailtasunak aipatzen ditu, eta Ebrorekin lotura Beasain eta Tolosa arteko gunean egin litekeela esaten du[171].

Esta conexión se encuentra aún en fase de estudio de alternativas, indicando el PTS las dificultades de atravesar la sierra de *Aralar* y que la conexión con el *Ebro* se podría realizar en la zona entre Beasain y Tolosa[171].

Egungo Trenbide Sarerako jarduketa materialak honela ulertzen dira: *"irizpide zabal eta malgu batekin, Egungo Sarearen gaineko ekintzen moduan; kontzeptu horren barruan daudelarik bideak luzatzekoak edo zabaltzekoak, horren zabalgunea handitzekoak, edo geltoki eta geralekuei eta trenbide-garraioaren moldaerari funtzionalki lotutako gainerako instalazio edo eraikuntzei dagozkien edozein ekintza, eta, oro har, egungo trenbide-azpiegituraren funtzinaltasunean funtsezko aldaketarik ez dakarten jarduketak".*

Para la Red Ferroviaria Existente las actuaciones materiales se conciben "*con un criterio amplio y flexible, se configuran como acciones sobre la Red Existente; incluyéndose en tal concepto las de prolongación o desdoblamiento de vías, ampliación de su explanación, o cualesquiera acciones relativas a las estaciones y apeaderos, y demás instalaciones o edificios vinculados funcionalmente al desenvolvimiento del transporte ferroviario y, en general, todas aquellas actuaciones que no supongan una modificación sustancial en la funcionalidad de la infraestructura ferroviaria existente".*

Azkenik, memoriaren 7.3. atalean aipatzen da Egungo Sarerako eta jarduketa-eskema orokor bat planteatzen denean, xedapen horiek orientagarriak direla.

Finalmente, en el apartado 7.3 de la memoria se menciona que para la Red Existente y toda vez que se plantea un esquema global de actuaciones, tales disposiciones tienen un carácter orientativo.

3.4.2. atalean jada aipatu dira trenbide-trazaduren polizia-guneak. Bestalde, bideen jabari publikoko guneak, trazaduraren ezaugarrien arabera, bi grafiko hauetan labur daitezke:

En el apartado 3.4.2 ya se ha hecho referencia a las zonas de policía de los trazados ferroviarios. Por su parte las zonas del dominio público viario, en función de las características del trazado pueden resumirse en los dos gráficos que se presentan a continuación.

[171] Ikusi trenbide-sarearen LPSaren memoriaren dokumentuko 8. atala.
Véase el apartado 8 del documento de la memoria del PTS de la red ferroviaria.

PARÁMETROS GEOMÉTRICOS

NUEVAS LÍNEAS Y DESDOBLAMIENTO DE ACTUALES CON MODIFICACIÓN DE TRAZADO

Figura Nº 9



SECCIÓN TIPO VÍA DOBLE II

VELOCIDAD	L	E	D
250	13,300	4,300	3,100
200	12,900	4,000	3,000
160	12,820	3,920	3,000

PARÁMETROS GEOMÉTRICOS

NUEVA RED FERROVIARIA EN EL PAÍS VASCO

Figura Nº 11



SECCIONES TIPO VÍA CUADRUPLE

2.5.9. GIPUZKOAKO HIRI-HONDAKINEN AZPIEGITURETAKO LURRALDE PLAN SEKTORIALA

Indarrean dagoen Gipuzkoako Hiri Hondakinen Azpegituren Lurralde Plan Sektorialak[172] 2009. urteko aurreko egoera aldatzen du[173] eta Beasaingo udalerrian eta eskualdean dituen lurralde-eraginak jasotzen ditu.

LPSa aldatu aurretik, honela geratzen zen Beasaingo udalerriari eta eskualderi eragiten zioten Gipuzkoako azpiegituren kokapena:

- Transferentzia-guneak:
  Sasietako Mankomunitatea: Sasietako zabortegira atxikitako gunea.
- Konposta egiteko instalazioa:
  Bat ere ez Beasainen ez bere eskualdean. Urola Erdian: Lapatxeko zabortegia (Azpeitia)
- Eraikuntza- eta eraispen-hondakinak kudeatzeko azpiegiturak:
  Bat ere ez Beasainen ez bere eskualdean. (Aizmendiko zabortegia Donostian).
- Hondakinak kudeatzeko gunea:
  Bat ere ez Beasainen ez bere eskualdean. (Zubieta goialdean dago).
- Zabortegiak: Sasietako Mankomunitatea: Sasietako zabortegia (Beasain).
- Ontziak bereizteko instalazioak: Sasietako Mankomunitatea: Legazpiko instalazioa.

Aldaketak Gipuzkoako hondakinak kudeatzeko azpiegitura hauetan eragiten du soil-soilik; Beasaini eta bere eskualdeari dagokienez hauek dira:

- Transferentzia-guneak:
  Sasietako Mankomunitatea: Sasietako zabortegiari atxikitako guneari eragiten dio (Beasain).
- Eraikuntza- eta eraispen-hondakinen instalazioak:

2.5.10. PTS DE INFRAESTRUCTURAS DE RESIDUOS URBANOS DE GIPUZKOA.

El Plan Territorial Sectorial de Infraestructuras de Residuos Urbanos de Gipuzkoa[172] vigente modifica la situación anterior del año 2009[173] y establece una serie de afecciones territoriales que inciden en el término municipal de Beasain y su comarca.

Con anterioridad a la modificación del PTS la localización de las infraestructuras de Gipuzkoa que afectaban a *Beasain* y a su comarca quedaban de la siguiente forma:

- Estaciones de transferencia:
  Mancomunidad de *Sasieta:* Zona anexa al vertedero de *Sasieta.*
- Plantas de compostaje:
  Ninguna en Beasain ni en su comarca. En *Urola Erdia*: Vertedero de *Lapatx (Azpeitia)*
- Infraestructuras para la gestión de residuos de construcción y demolición:
  Ninguno en Beasain ni en su comarca. (Vertedero de *Aizmendi* en *Donostia*).
- Centro de Gestión de Residuos:
  Ninguno en Beasain ni en su comarca. (Se ubica en los Altos de Zubieta).
- Vertederos: Mancomunidad de *Sasieta*: Vertedero de *Sasieta* (*Beasain*).
- Plantas de separación de envases: Mancomunidad de *Sasieta*: Planta de *Legazpi.*

El alcance de la modificación se centra, única y exclusivamente, en las siguientes infraestructuras de gestión de residuos de Gipuzkoa, que en lo que respecta a *Beasain* y su comarca son:

- Estaciones de transferencia:
  Mancomunidad de Sasieta: Afecta a la zona anexa al Vertedero de Sasieta (Beasain)
- Plantas de residuos de construcción y demolición:
  Ninguno en Beasain ni en su comarca.

[172] 9/2018 Foru Dekretua, apirilaren 10ekoa, Gipuzkoako Hiri Hondakinen Azpegituren Lurralde Plan Sektorialaren aldaketa behin betiko onartzen duena. (2018ko apirilaren 13ko 71. GAO).
Decreto Foral 9/2018, de 10 de abril, por el que se aprueba definitivamente la Modificación del Plan Territorial Sectorial de Infraestructuras de Residuos Urbanos de Gipuzkoa. (BOG nº 71 de 13 de abril de 2018).

[173] 24/2009 Foru Dekretua, uztailaren 21ekoa, Gipuzkoako Hiri Hondakinen Azpegituren Lurralde Plan Sektoriala behin betiko onartzen duena.
Decreto Foral 24/2009, de 21 de julio, de aprobación definitiva del Plan Territorial Sectorial de Infraestructuras de Residuos Urbanos de Gipuzkoa.

Bat ere ez Beasainen ez bere eskualdean. Donostiako Aizmendiko zabortegiari eragiten dio.

- Zabortegiak: Sasietako Manko-munitatea: Sasietako zabortegiari eragiten dio (Beasain).

Beasaingo hirigintza-plangintzan dituen eraginei dagokienez, LPSak 2007ko AA.SSen inguruan aipatzen du udalerri honetan hau proposatzen dela:

..."Sasietako mankomunitatearen transferentzia-gunearen kokalekua aldatzea, eta zabortegiaren barruan kokatzea. Beasaingo AA.SSen arabera, zabortegiko lurrek oinarrizko azpiegituren sistema orokorra-Sasietako eskualdeko zabortegia kalifikazioa dute; beraz, hirigintza-bateragarritasuna dago, eta ez da AA.SSen egokitzapenik behar".

LPSaren esparru materialetik kentzen diren azpiegiturak, Beasaingo udalerriari eta eskualdeari dagokienez, hauek dira:

- Sasietako zabortegiari atxikitako gunean dagoen transferentzia-gunea (Beasain), lekuz aldatzen baita.
- Sasietako zabortegia (Beasain), transferentzia-guneari dagokion azalera izan ezik.

Laburbilduz, hiri-hondakinen azpiegituren LPSak Sasietako zabortegia ixtea eta Sasietako Mankomunitateko transferentzia-gunea bere eremuko gune batera eramatea aurreikusten du.

Afecta al Vertedero de Aizmendi en Donostia).

- Vertederos: Mancomunidad de Sasieta: Afecta al vertedero de Sasieta (Beasain).

En lo que respecta a las afecciones al planeamiento urbanístico de *Beasain* el PTS menciona, con relación a las NN.SS.(2007), que en este municipio se propone:

..."modificar la ubicación de la estación de transferencia de la mancomunidad de Sasieta, ubicándola dentro del propio vertedero. Según las Normas Subsidiarias de Beasain los terrenos del vertedero tienen la calificación de sistema general de infraestructuras básicas-vertedero comarcal de Sasieta, por lo que existe compatibilidad urbanística y no es necesaria una adaptación de las NNSS".

Las infraestructuras que se eliminan del ámbito material del PTS, en lo que respecta al término municipal de Beasain y su comarca, son:

- La estación de transferencia en la zona anexa al Vertedero de Sasieta (Beasain) al cambiarse de lugar.
- El vertedero de Sasieta (Beasain), excepto la superficie que corresponde a la estación de transferencia.

De manera resumida, el PTS de Infraestructuras de residuos urbanos tiene previsto el sellado del vertedero de *Sasieta* y el traslado a una zona de su ámbito de la estación de transferencia de la Mancomunidad de *Sasieta*.

Aurreko LPSan aurreikusitako transferentzia-gunea (2009)

Estación de transferencia prevista en el anterior PTS (2009).

Hori alternatiba aztertu ondoren (Olaberria, Ormaiztegi edo zabortegia bera), transferentzia-gunearen kokalekua Sasietako zabortegiaren eremuan (2018).

Tras considerar tres alternativas (*Olaberria, Ormaiztegi* o el propio vertedero), posición de la estación de transferencia en el ámbito del vertedero de *Sasieta* (2018).

3. ONDORIOAK.

3.1. GIZARTE, EKONOMIA, HIRIGINTZA ETA INGURUMEN INFORMAZIO-AREN ETA DIAGNOSTIKOAREN ALDERDIRIK GARRANTZITSUENAK.

- Beasaingo populazioa herrigunean kokatzen da batez ere, non 13.608 biztanle baitaude (%97,4); auzoetan eta gune barreiatuetan, berriz, 357 biztanle daude (%2,6).
- Adinen piramidea berreskuratzen ari da 2001. urteaz geroztik, 0 eta 14 urteen artean dagoen oinarria pixka bat zabaltzen ari baita, baina oro har zahartze-joera txiki bat atzematen da. 2018-2028 aldirako, gorabeherak eta azken saldo positibo bat izango dituen hazkundea aurreikusten da, eta Beasainek 2028an 14.527 eta 15.238 biztanle bitartean izango dituela kalkulatzen da.
- 13.965 biztanletik, soilik 213 (%1,53) bizi dira lurzoru urbanizaezinean. Gainerakoak 2007ko AA.SS.etan zehaztutako garapen-eremuetan bizi dira. Horietatik %98,95 Beasaingo herrigunean bizi dira, eta gainerako %1,05 –144 persona– *Gudugarreta, Arriaran, Garin, Astigarreta eta Aratz-Matxinbenta* auzoetan.
- Ehuneko horiek ez dira mantentzen 2007ko AA.SS.etan antolatutako etxebizitza-kopurua[174] alderatzen bada; izan ere, hiri lurzoruetan eta lurzoru urbanizagarrietan antolatuta dauden 7.183 etxebizitzatatik, 149 unitate edo %2,07 udalerriko bost auzo horietan daude.

3. CONCLUSIONES.

3.1. ASPECTOS MAS RELEVANTES DE LA INFORMACIÓN Y DIAGNOSTICO SOCIO ECONÓMICO, URBANÍSTICO Y AMBIENTAL.

- La población de Beasain se asienta sobre todo en su casco urbano 13.608 habitantes, (97,4%) mientras que los barrios y diseminados representan 357 habitantes (2,6%).
- La pirámide de edades tiene síntomas de recuperación desde 2001, debido a un ligero ensanchamiento de la base comprendida entre los 0 y 14 años, pero observándose una leve tendencia de envejecimiento general. Para el período 2018-2028 se apunta un crecimiento poblacional con vaivenes y con un saldo final positivo, estimando que la población de Beasain en 2028 esté entre los 14.527 y 15.238 habitantes.
- De una población de 13.965 habitantes, apenas 213 (1,53%) habitan en suelo no urbanizable. El resto se distribuye a lo largo de los ámbitos de desarrollo definidos en las NN.SS.(2007). De este último conjunto, el 98,95% habita en las áreas correspondientes al centro de Beasain y el 1,05% restante -144 personas- en los barrios de *Gudugarreta, Arriaran, Garin, Astigarreta y Aratz-Matxinbenta.*
- Estos porcentajes no se mantienen al comparar el número de viviendas ordenadas[174] en las NN.SS.(2007) ya que del total de 7.183 viviendas ordenadas en suelos urbano y urbanizable, 149 unidades ó el 2,07% se sitúan en estos cinco barrios del municipio.

[174] Lehendik zeudenak eta 2007ko AA.SS.etan aurreikusitakoak.
Se refiere a lo largo de este apartado al conjunto de las existentes con anterioridad y a las previstas en las NN.SS.(2007)

- Diferentzia txiki bat dago Beasaingo erroldako etxebizitzen eta Eustaten estatistika ofizialaren artean; lehenaren arabera, 6.417 zeuden 2018an, eta bigarrenaren arabera, 6.374 2016an, hau da, 43 etxebizitza gutxiago. 2016ko datuak kontuan hartuz, 5.419 (%85) etxebizitza beteta daude; gainerako 955 etxebizitzetatik (%15) %2 gutxi gorabehera bigarren bizitokiak dira eta gainerakoak hutsik daude. Batez besteko tamaina familiarra 2,6 persona/etxebizitza da. Ratio hau eskualdekoaren gainetik dago.
- Beasainen 6.633 pertsona ari dira lanean (Eustat 2016). Enplegu-tasa %87,6koa da eta langabezia-tasa %12,4koa (852 pertsona). Dena den, 2001-2016 aldian, enplegu-tasak behera egin du eta langabezia-tasak gora; hori, oro har, eskualde osoan gertatu da 2008ko krisiaren ondorioz batez ere.
- Emakumeen jarduera-tasa handitu egin da 2001-2016 aldian. Dena den, sexuen arteko jarduera-arraila ia 10 puntukoa da gizonen alde.
- Beasainek ingurumen-balorazio ertaina du, bai natura-balioengatik bai kultura eta paisaia balioengatik eta baita horiek sortzen dituzten zerbitzuengatik ere, ekosistema eta leku interesgarriak dituelako.
- Nabarmendu beharra dago naturaren aldetik interesgarria den Murumendi eremua, txikia izan arren oso interesgarria den flora baitu. Isurialde kantauriarrean ezagutzen den "*Saxifraga losae*" espeziearen populazio bakarra du, "*Narcissus varduliensis*" endemismoa, etab.
- Agauntzaren zati baten ibaiertzari partzialki eragiten dion arren, nabarmentzekoa da ere Oria Garaiaren Kontserbazio Bereziko Eremua, Natura 2000 Sarean dagoen Eremu Naturala izanik. Leku honetako natura-baliorik nagusienetakoa bat da bisoi europarraren (Mustela lutreola) populazio bideragarri baten presentzia.

- Hay una ligera diferencia entre las viviendas del padrón de Beasain, 6.417 en 2018, y la estadística oficial del Eustat referida a 2016 que sitúa esta cifra en 6.374, es decir 43 viviendas menos. De acuerdo a los datos de 2016, el número de viviendas ocupadas es de 5.419 (85%), siendo el resto 955 viviendas (15%) de las que aproximadamente un 2% son de segunda residencia y el resto están desocupadas. El tamaño medio familiar es de 2,6 personas/vivienda, ratio situado por encima del de la comarca.
- Beasain es un municipio con una tasa de población activa de 6.633 personas (Eustat 2016). La tasa de ocupación supone un 87,6% y la de paro el 12,4% (852 personas). No obstante en el período 2001-2016 la tasa de ocupación ha descendido y aumentado la de paro, dato generalizado en toda la comarca, motivado fundamentalmente por la crisis de 2008.
- La tasa de actividad de las mujeres se ha incrementado en el período 2001-2016, Sin embargo, la brecha de actividad entre sexos es de casi 10 puntos a favor de los hombres.
- El municipio de Beasain, presenta una valoración ambiental media, debida a la presencia de ecosistemas y enclaves de interés, tanto por sus valores naturales como culturales y paisajísticos, así como por los servicios que generan.
- Cabe destacar el Área de Interés Naturalístico de Murumendi, poseyendo a pesar de su escasa extensión una flora de interés notable. Acoge, la única población conocida en la vertiente cantábrica de "*Saxifraga losae*", el endemismo "*Narcissus varduliensis*", etc.
- Aunque afecta parcialmente a la ribera de un tramo del Agauntza en el término municipal, destaca también la Zona de Especial Conservación del Alto Oria, Espacio Natural protegido incluido en la Red Natura 2000. Uno de los principales valores naturalísticos de este espacio es la presencia de una población viable de visón europeo (Mustela lutreola).

- Arriaran eta Ibaieder urtegiak toki interesgarritzat jo daitezke Gune Hezeen Lurraldearen Arloko Planaren EAEko hezeguneen Inbentarioan daudelako (III. taldea). Biak ala biak oso interesgarriak dira naturaren eta paisaiaren ikuspegitik, dituzten ekosistemak eta ekosistema horiek ematen dituzten zerbitzuak direla eta.
- Lurraldeari balio kultural eta etnologiko oso interesgarria ematen dioten ondare eta arkeologia osagai garrantzitsuak daude Beasainen. Horien artean, nabarmentzekoak dira Santiago Bidea, hori osatzen duten osagai arkitektonikoak barne, Murumendi Gune Megalitikoa, Moru herrixka, euskal kultura tradizionalari oso lotuta dagoen Mariren kobazuloa eta Igartzako monumentuak.
- Beasainen, duten kokapenarengatik, benetako begiratokiak diren ikus-arro handiak dituzten eremuak daude. Begiratoki horiek dira Usurbe, Ugartemendi, eta baita Atxabal eta Pagorriagagaina Iparreko harkaitzak ere, besteak beste.
- Arrisku geofisikoei dagokienez, nabarmendu behar da malda handiak daudela udalerriko eremu handi batean.Orografia aldapatsu honek lurraldearen harrera-ahalmena zehazten du, oso garrantzitsua izanik substratuaren egonkortasuna bermatzeko eta isurketak eta luiziak ekiditeko.Baso-masak mantentzeak hegalak egonkortzen ditu, eta ondorioz, sor daitezkeen arriskuak saihesten dira.
- Masa horietatik nabarmentzen dira serie *klimatofiloak eta geopermaserieak* izeneko baso autoktonoak (baso mistoak, hariztiak, pagadiak, haltzadiak, landaredi kasmofitikoa) udalerriko paisaia naturala eta urtaroko diferentzia kromatikoak adierazten dituelako, eta baita duten biodibertsitateagatik ere.
- Bizitegi-lurzoruari dagokionez, hau izan liteke Beasaingo hirigintza-plangintzaren informazioaren eta diagnostikoaren laburpen bat:

- Los embalses de Arriaran e Ibaieder pueden considerarse como enclaves de interés al estar incluidos dentro del Inventario de humedales de la CAPV del PTS de Zonas Húmedas (Grupo III). Ambos poseen un gran interés paisajístico y natural por los ecosistemas que alberga y los servicios que estos ecosistemas ofrecen.
- En el municipio de Beasain existen importantes elementos patrimoniales y arqueológicos que confieren al territorio un valor cultural y etnológico de gran interés. Entre ellos destacan el Camino de Santiago con los elementos arquitectónicos que lo componen, los elementos arqueológicos de la estación megalítica de Murumendi, el poblado de Moru, la cueva de Mari, muy asociada a la cultura tradicio-nal vasca y el conjunto monumental de Igartza.
- Sobresalen en Beasain zonas que por su ubicación poseen grandes cuencas visuales, convirtiéndose en verdaderos miradores territoriales. Estos miradores son los montes Usurbe, Ugartemendi, así como los roquedos del Norte Atxabal, Pagorriagagaina, etc.
- Atendiendo a los riesgos geofísicos, cabe destacar la presencia de elevadas pendientes en gran parte de la superficie municipal. Esta orografía abrupta determina la capacidad de acogida del territorio, siendo muy importante para asegurar la estabilidad del sustrato y evitar problemas de escorrentías y desprendimientos de laderas. El mantenimiento de las masas forestales estabilizan las laderas evitando posibles riesgos derivados.
- De estas masas destacan los bosques autóctonos descritos como series *climatófilas y geopermaseries* (bosques mixtos, robledales, hayedos, alisedas, vegetación casmofítica) por su representatividad del paisaje natural del municipio y las diferencias cromáticas estacionales, así como por la biodiversidad que albergan.
- En lo que respecta al suelo residencial, un resumen de la información y diagnóstico del planeamiento urbanístico de Beasain podría ser el siguiente:

- Hiri-lurzoruko eremuen batez besteko dentsitatea 133,18 etxeb/ha-koa da Beasaingo erdigunean eta 63,37 etxeb/ha-koa lurzoru urbanizagarrian dauden sektoreetan. Batez besteko horren gainetik daude Alde Zaharra (A-1), Zaldizurreta (A-2), Zazpiturreta (A-4) –258 etxeb/ha-rekin–, Arantzazu (A-5), Nekolalde (A-12), Barrendain II (A-14), J.M. Barandiaran (A-16), Mendeurren (A-17) eta Errekarte I (A-32) hiri-lurzoruko eremuak y Ugartemendi (S-3) lurzoru urbanizagarriko sektorea 76,28 etxeb/ha-rekin.
- Batez besteko eraikigarritasuna sestra gainean 1,30 m^2(t)/m^2(s)-koa da Beasaingo erdigunean dauden hiri-lurzoruko eremuetan eta 0,71 m^2(t)/m^2(s)-koa lurzoru urbanizagarriko sektoreetan.Soilik Barrendain II (A-14) –2,48 m^2(t)/m^2(s)– eta Mendeurren (A-17) –3,34 m^2(t)/m^2(s)– eremuek dituzte Lurzoruari buruzko 2/2006 Legeak finkatzen duen muga baino eraikigarritasun-indize handiagoak[175].
- Oro har, aparkalekuen falta dago Beasain erdiguneko lurzoruko eremuetan –askoz ere larriagoa zabalgunean– eta baita kuantifikatzen zaila den toki-zuzkidura publikoen gabezia ere.
- Espazio libreen edo berdeguneen zuzkidura Beasain erdiguneko lurzoruko eremuetan onargarria da oro har. Eremu batzuetan, espazio libre publikoen gabezia nabariagoa da, esaterako, Igartetxe (A-3), Arantzazu (A-5), Arangoiti (A-10), Lardi (A-11) edo Foru Kalea (A-15) kokaleku zaharretan eta baita Salbatore I (A-28) eremuan ere, espazio libre pribatu asko daudelako.

- La densidad media de las áreas de suelo urbano situadas en el centro de *Beasain* es de 133,18 viv/ha y de 63,37 viv/ha en los sectores situados en suelo urbanizable. Por encima de esa media se sitúan las áreas de suelo urbano de *Alde Zaharra* (A-1), *Zaldizurreta* (A-2), *Zazpiturreta* (A-4) –con 258 viv/ha-, *Arantzazu* (A-5), *Nekolalde* (A-12), *Barrendain II* (A-14), *J.M. Barandiaran* (A-16), *Mendeurren* (A-17) y *Errekarte I* (A-32) y el sector de suelo urbanizable de *Ugartemendi* (S-3) con 76,28 viv/ha.
- La edificabilidad media sobre rasante es de 1,30 m^2(t)/m^2(s) en las áreas de suelo urbano del centro de Beasain y de 0,71 m^2(t)/m^2(s) en los sectores de suelo urbanizable. Únicamente las áreas de Barrendain II (A-14) –con 2,48 m^2(t)/m^2(s)- y Mendeurren (A-17) –con 3,34 m^2(t)/m^2(s)- presentan índices de edificabilidad superiores al límite máximo establecido en la Ley 2/2006 del Suelo175.
- Existe un déficit generalizado de aparca-miento en las áreas de suelo urbano del centro de *Beasain* mucho más agravado en la zona del ensanche y también un posible déficit de dotaciones públicas locales, que es difícil cuantificar.
- La dotación de espacios libres o zonas verdes en las áreas de suelo urbano del centro de Beasain es aceptable en general. En determinadas áreas, la carencia de espacios libres públicos es más evidente, por la importante presencia de espacios libres privados, en asentamientos antiguos como Igartetxe (A-3), Arantzazu (A-5), Arangoiti (A-10), Lardi (A-11) o Foru Kalea (A-15) y también en el caso de Salbatore I (A-28).

[175] 77. artikulua, gehienez 2,3 m^2(t)/m2(s) hiri-lurzorurako eta 1,3 m^2(t)/m2(s) lurzoru urbanizagarrirako, eremuaren azaleran, sistema orokorretarako lurzorua zenbatu gabe, sestra gaineko gehienezko eraikigarritasun fisikoa zuzkidura publikoez bestelako erabileretarako.

Artículo 77, fijado en un máximo de 2,3 m^2(t)/m2(s) para el suelo urbano y en 1,3 m^2(t)/m2(s) para el suelo urbanizable, referido en ambos casos a la edificabilidad sobre rasante para usos distintos de las dotaciones públicas y la superficie del área sin computar la destinada a sistemas generales.

- Garapen-planen bidez xeheki antolatuta dauden hiri-lurzoruko eremuak antolamendu orekatua dute zuzkidurei dagokienez.Gainerakoetatik, eremurik orekatuena Dolarea (A-27) da, baina gabeziarik handiena aparkalekua da.

- Beasaingo auzoetan aurreikusten den antolamendua antolamendu orekatua da, Gudugarreta I eta Astigarretarako aurreikusten diren aurreikuspenak izan ezik, gehiegizko bizitegi-eskaintzaren ondorioz dituzten zuzkidura-gabeziengatik.
- Lurzoru urbanizagarriaren antolamendua eztabaidagarria da hiru sektoreetan, kuantitatiboki orekatuak diren zuzkidura publikoak izan arren. Nabariagoa da Arizmendi (S-1) eta Ugartemendi (S-3) sektoreetan, lehena beste eremu batzuen antolamenduaren menpe dagoelako, eta bigarrenak antolamendu kalitate baxua duelako, duen udalaz gaindiko garrantziari dagokionez.

- Bizitegi-aurreikuspenen %77tik gora bete gabe dago, eta ez da inolako jarduketarik egin lurzoru urbanizagarrian eta Beasaingo auzoetan.

- Los ámbitos de suelo urbano donde el planeamiento remite su ordenación pormenorizada a planes de desarrollo presentan una ordenación equilibrada en cuanto a dotaciones. De los restantes, el ámbito más equilibrado es Dolarea (A-27), siendo su mayor déficit el de aparcamiento.
- La ordenación prevista en los barrios de Beasain presenta una ordenación equilibrada a excepción de las previsiones para Gudugarreta I y Astigarreta por las carencias dotacionales debidas a su excesiva oferta residencial.
- La ordenación del suelo urbanizable es cuestionable en los tres sectores aunque presenten dotaciones públicas cuantitativamente equilibradas. Es más evidente en los casos de Arizmendi (S-1) y Ugartemendi (S-3) debido a su dependencia de la ordenación de otras áreas en el primero de los casos y la baja calidad de su ordenación, en relación con la importancia supramunicipal que tiene, en el segundo.
- Queda pendiente la ejecución de más del 77% de las previsiones residenciales, siendo nula la ejecución de las actuaciones en suelo urbanizable y en los barrios de Beasain.

- Beasaingo plangintzan jarduera ekonomikoetarako kalifikatuta dagoen lurzoruari dagokionez, ondorio hauek atera ditzakegu:
  - Oso egokia da 2007ko AA.SS.etan egiten den bereizketa enpresa bakar bat dagoen industrialdeen (A.E.1), enpresa batzuei edo askotariko ezarpenei eragiten dieten guneen –ohikoagoak– (A.E.2) eta askotariko zerbitzuetako edo, oro har, hirugarren erabilerako guneen (A.E.3) artean.

- Con relación al suelo calificado para actividades económicas en el planeamiento de Beasain podríamos extraer las siguientes conclusiones:
  - Es muy adecuada la distinción que se hace en las NN.SS.(2007) entre las zonas industriales ocupadas por una única empresa (A.E.1), las zonas -más al uso- que afectan a varias empresas o implantaciones diversas (A.E.2) y las de servicios diversos o uso generalizado terciario (A.E.3).

LURZORU MOTA	Eremuaren tipologia	Aurreikusitako eraikigarritasuna m^2(t)-tan	Egin gabe dagoen eraikigarritasuna m^2(t)-tan	Berria kontuan hartuta egin gabe dagoen eraikigarritasunaren %
CLASE DE SUELO	**Tipología del ámbito**	**Nueva edificabilidad prevista en m^2(t)**	**Edificabilidad pendiente de ejecución en m^2(t)**	**% de edificabilidad pendiente s/Nueva**
Hiri-lurzorua /	AE1 (CAF)	25.867	16.022	61,94%
Hiri-lurzorua /	AE1 (F. Eztanda)	22.449	22.449	100,00%
Hiri-lurzorua /	AE1 (Arcelor)	10.121	10.121	100,00%
	Guztira AE1 hiri-lurzoruan Total AE1 en suelo urbano	58.437	48.592	83,15%
	Egin gabe dagoen % % pendiente S/Edif. total	23,37%	31,71%	
Hiri-lurzorua /	AE2 (A-23)	4.235	3.250	76,74%
Hiri-lurzorua /	AE2 (A-26)	37.722	15.337	40,66%
Hiri-lurzorua /	AE2 (A-29)	8.174	2.301	28,15%
Hiri-lurzorua /	AE2 (A-48)	19.125	19.125	100,00%
	Guztira AE2 hiri-lurzoruan Total AE2 en suelo urbano	69.256	40.013	57,78%
	Egin gabe dagoen % % pendiente S/Edif. total	27,69%	26,12%	
Hiri-lurzorua /	AE3 (A-33)	1.819	1.819	100,00%
Hiri-lurzorua /	AE3 (A-36)	19.150	19.150	100,00%
Hiri-lurzorua /	AE3 (A-21)	2.713	2.713	100,00%
	Guztira AE3 hiri-lurzoruan Total AE3 en suelo urbano	23.682	23.682	100,00%
	Egin gabe dagoen % % pendiente S/Edif. total	9,47%	15,46%	
Urbanizagarria Urbanizable	AE1 (Indar)	55.919	0	0,00%
	Egin gabe dagoen % % pendiente S/Edif. total	22,36%	0,00%	
Urbanizagarria Urbanizable	AE2 (S-8)	42.804	40.931	95,62%
	Egin gabe dagoen % % pendiente S/Edif. total	17,11%	26,71%	
	Eraikigarritasuna Guztira Edificabilidad Total	**250.098**	**153.218**	**61,26%**

- Guztira kalifikatutako lurzorutik 2007ko AA.SS.en aurreikuspenen %60tik gora egin gabe dago, banaketa desberdin batekin hiri-lurzoruaren eta lurzoru urbanizagarriaren artean eta ezarpen-tipologia desberdinen artean.

- Del suelo total calificado queda pendiente la ejecución de más del 60% de las previsiones de las NN.SS.(2007), con un diferente reparto entre el suelo urbano y el urbanizable y entre las diferentes tipologías de implantación.

- Urbanizagarri gisa sailkatutako lurzorutik, soilik Iturralde Txiki (S-8) dago egin gabe, mehelin arteko pabilioi-tipologia batekin (A.E.2). Hiri-lurzorutik, ordea, ez da gauzatu Fundiciones Eztanda eta Arcelor enpresentzat aurreikusitako inolako zabalkuntzarik, 48 Ittola II eremuaren antolamendurik eta hirugarren erabilerako aurreikuspen bat bera ere (A.E.3 tipologia).
- Zuzkidura publikoen aurreikuspena orekatua da jarduera ekonomikoetara zuzendutako guneetan, aparkaleku-zuzkidura izan ezik, zeina larriagoa baita hiri-lurzoruan lurzoru urbanizagarrian baino.
- Zuzkidura-azaleraren barruan, egin ez diren toki-ekipamenduetarako lurzoruak daude. Egoera horrek gehi urbanizazioaren eta espazio libreen mantenimendu faltak oso erakargarria ez den itxura ematen diote industrialdeei, hiri-bilbetik bereiziz, eta berdintasun ikuspegitik arriskutsuak diren guneak bihurtuz.

- Del suelo clasificado como urbanizable únicamente resta por ejecutar el sector de Iturralde Txiki (S-8), con una tipología de pabellones entre medianeras (A.E.2). En cambio, del suelo urbano no se han ejecutado ninguna de las ampliaciones previstas para las empresas Fundiciones Eztanda y Arcelor, la ordenación del área 48 Ittola II y la totalidad de las previsiones de uso terciario (tipología A.E.3).
- Es equilibrada la previsión de dotaciones públicas en las zonas destinadas a actividades económicas a excepción de la dotación de aparcamiento, mas agravado en suelo urbano que en suelo urbanizable.
- Dentro de la superficie dotacional existen suelos calificados para equipamientos locales que no se han ejecutado. Esta circunstancia unida a la falta de mantenimiento de la urbanización y de los espacios libres, da una imagen poco atractiva de las zonas industriales, segregándolas de la trama urbana global y que redunda en la opción de considerarlas como zonas inseguras o peligrosas desde una perspectiva igualitaria.

- Sistema orokorrei dagokienez, ondorio hauek atera daitezke:

  - 2007ko AA.SS.etan aurreikusten den espazio libreen sistema orokorrak 8,80 m^2 biztanleko ratioa suposatzen du, eta gure iritziz, egokia da eta ondo banatuta dago. Azalera gehiena Sagastiguti parkeari dagokio –kalitate onekoa da baina gutxi erabiltzen da–, Ubiotz (A-39) guneari, zeina erdigunetik pixka bat urruti dagoen, non duela gutxi aisialdiko baratzeen gune publiko bat jarri den.

- Con respecto a los sistemas generales se pueden establecer las siguientes conclusiones:

  - El sistema general de espacios libres previsto en las NN.SS.(2007) supone un ratio de 8,80 m^2/habitante que podemos considerarlo como bueno y bien distribuido. La mayor parte de esa superficie corresponde al parque de Sagastiguti, de buena calidad aunque poco utilizado, y a la zona de Ubiotz (A-39), un poco desarraigada del centro urbano, donde recientemente se ha instalado una zona pública de huertas de ocio.

- Beasainek ekipamendu kolektiboen zuzkidura egokia du, eta ondo kalifikatuta dago indarreko plangintzan.Ekipamenduen arloan dauden premiak asetzeko, Beasaingo erdiguneko hiri-lurzoruko eremuetan toki-mailan atzeman diren zuzkidura-azaleraren gabeziak osatu behar dira, hiri-lurzorua zatitzen den eremu desberdinen arteko elkarreragina ahalbidetuz.

- Zerbitzuen azpiegiturei dagokienez, Beasainek udalaz gaindiko ekipamenduak ditu, hala nola bete-betean ari diren Arriarango urtegia eta edateko ura tratatzeko estazioa. Halaber, jada amortizatuta dauden instalazioak ditu, esaterako, Sasietako zabortegia, zeina beste erabilera bateragarrietarako lehenegeratu beharko duen.

- Ibilguak 2007ko AA.SS.etan jasota daude eta plangintza sektorialaren arabera jorratuta. Hiri-lurzorua zeharkatzen dituzten ibilgu gehienak hiri-bilbean gutxi integratuta dauden ertzekin daude bideratuta, bereziki Oria eta Eztanda ibaien kasuan.

- Bide-sareari dagokion komunikabideen sistema orokorrak hiri-lurzorutik igarotzen diren Gipuzkoako foru-sareko errepideak eta interkonexioak ditu barnean. Oraindik ez dira jarduketa garrantzitsu batzuk gauzatu, hala nola erdiguneko trafikoa arindu dezaketen Bista Alai eta Zazpiturreta kaleen arteko lotura, zeinak A-3 Igartetxe, A-4 Zazpiturreta eta A-5 Arantzazu eremuei eragiten dien, eta Nekolalde eta Erauskin kaleen arteko lotura, zeinak Arangoiti 10 eremuaren antolamenduari eragiten dion, eta GI-2632 errepidea eta Igartza Oleta kalea lotzeko biribilgunea, zeinak 22 Eztanda eta 24 Antzizar eremuei eragiten dien.

- Beasain dispone de una buena dotación de equipamientos colectivos, correctamente calificada en el planeamiento vigente. Las necesidades en materia de equipamientos deben dirigirse a completar los déficits de superficie dotacional detectadas a escala local en las áreas de suelo urbano situadas en el centro de Beasain, contribuyendo a la inter-acción entre las diferentes áreas en las que se divide el suelo urbano.

- En materia de infraestructuras de servicios, Beasain cuenta con la presencia de equipamientos supramunicipales en plena actividad como son el embalse y la ETAP de Arriaran. Cuenta también con instalaciones ya amortizadas como el vertedero de Sasieta que deberá recuperar para otros usos compatibles.

- Los cauces fluviales están recogidos en las NN.SS.(2007) y tratados de acuerdo al planeamiento sectorial. La mayor parte de los que atraviesan el suelo urbano se encuentran canalízados con márgenes poco integrados en la trama urbana, en particular en los casos del Oria y del Eztanda.

- El sistema general de comunicaciones que corresponde a la red viaria, comprende las carreteras de la red foral de Gipuzkoa y las interconexiones que discurren por suelo urbano. Quedan pendientes actuaciones de importancia como la conexión de las calles Bista Alai y Zazpiturreta, que afecta a las áreas A-3 Igartetxe, A-4 Zazpiturreta y A-5 Arantzazu y otra de enlace de las calles Nekolalde y Erauskin, que afecta a la ordenación del Área 10 Arangoiti, que pueden contribuir a aligerar el tráfico por el centro, y la glorieta de enlace entre la carretera GI-2632 y la calle Igartza Oleta que afecta a las áreas 22 Eztanda y 24 Antzizar.

- Trenbide-sareak ohiko eta abiadura handiko trazadurak ditu. 2007ko AA.SS.ek egin ez den ekintza bat aurreikusten dute: Beasain eta Ordiziako geltokien arteko trazadura laburtu nahi dute. Trazadura Beasainetik kanpo doa batez ere, baina herri barruko A-8 Urbieta eta A-6 CAF eremuei eragiten die.
- Indarreko plangintzaren zehaztapenak bat datoz plangintza sektorialarekin bide eta trenbide sareei dagokienez, egitura orokorrari eragiten dioten Lurraldearen Plan Partzialaren bi proposamen izan ezik. Horietako bat da Beasaingo bide-zabalgunearen eraldaketa garraioa eta hirugarren sektoreko zerbitzu osagarriak antolatzeko eta trukatzeko gune bat sortzeko, eta bestea N-1 errepidearen trazadura berri bat, Oria ibaiaren hegoaldeko ertzarekiko paralelo.Jarduketa horiek, gainera, lurralde-ereduan eta zenbait hirigintzako eremutan dute eragina.17 ha inguru ditu, eta Zumadi (A-33) eta Bernedo Enea (A-36) eremuetan dauden enpresetatik baten bat lekuz aldatzea ekar dezake berekin.

- Plan Orokorraren erronketako bat izango da lurraldearen plangintzako proposamenei erantzutea egungo bide-zabalguneari eta N-I errepidearen desbideratzeari dagokienez, bideragarriak diren alternatiba desberdinak kontuan hartuta.

- Lurzoru urbanizaezinari dagokionez, hau ondorioztatu daiteke:
  - Udal-barrutiaren %93,36 da lurzoru urbanizaezina. Ingurunearen eta interesgarriak diren osagai naturalen babesak Plan Orokor berriaren lurzoru urbanizaezinaren antolamendua finkatzeko abiapuntua eta politika izan behar du.

- La red ferroviaria recoge los trazados convencional y de alta velocidad. Las NN.SS.(2007) prevén una acción no ejecutada referida a acortar el trazado entre las estaciones de Beasain y Ordizia que discurre principalmente fuera del término municipal de Beasain, pero que afecta en su interior a las áreas A-8 Urbieta y A-6 CAF.
- Las determinaciones del planeamiento vigente con respecto a las redes viaria y ferroviaria sintonizan con la planificación sectorial, salvo en dos propuestas del PTP que afectan a la estructura general. Se trata de la transformación de la playa de vías de Beasain para generar un centro de organización e intercambio del transporte y servicios terciarios complementarios y de un nuevo trazado de la carretera N-1, paralelo al actual por la margen sur del río Oria. Son actuaciones que inciden además en el modelo territorial y en la ordenación de diversos ámbitos urbanísticos. Tiene una extensión de unas 17 Ha de superficie y puede suponer el traslado de alguna de las empresas situadas en Zumadi (A-33) y Bernedo Enea (A-36).

- Uno de los retos importantes del nuevo Plan General será dar respuesta a las propuestas del planeamiento territorial respecto a la actual playa de vías y al desvío de la N-I, de acuerdo a las diferentes alternativas que resulten viables.

- Con respecto al suelo no urbanizable (SNU) puede concluirse lo siguiente:
  - Supone el 93,36% del término municipal. Se considera que la protección del medio y de los elementos naturales de interés deben ser el punto de partida y la política a establecer en la ordenación del suelo no urbanizable del nuevo Plan General.

- 2007ko AA.SS.ek lurzoru urbanizaezinerako ezartzen dituen kategorizazioak Lurraldea Antolatzeko Gidalerroetan finkatutako motei erantzuten die. Kategoria horien barruan, baso-lurzoruaren azalera udalbarrutiaren erdia baino gehiago da.
- Babes bereziko lurzorua naturaren aldetik interesgarria den Murumendi eremuari eta baso autoktonoak hartzen dituen gunei dagokio, eta eremu handi samarretan banatuta dago udalerri osoan zehar.
- Lurzoru urbanizaezinaren antolamenduak ez du kontuan hartzen Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialak zehazten dituen balio estrategiko handiko lurzoruak daudela, 2007ko AA.SS.en behin betiko onarpenaren ondorengoa delako. Aintzat hartu beharko dira Beasaingo HAPO berrian lurzoru horien gainean garapen berriak egitekotan izan daitezkeen eraginak.

- Udalaz gaindiko plangintzak –Lurraldea Antolatzeko Gidalerroek osatzen dute–, Beasain-Zumarraga eremu funtzionalaren Lurraldearen Plan Partzialak eta plangintza sektorialak muga hauek jartzen dizkio Beasaingo HAPOri:
  - Lurraldea Antolatzeko Gidalerroen aldaketaren ondorioz, 960 eta 1.200 etxebizitza bitartean eskaini daitezke, eta benetan 480 eta 640 etxebizitza bitartean behar dira.
  - Beasain-Zumarragako Lurraldearen Plan Partzialaren arabera, lehentasunez antolatu behar da erabilera mistoetara, bizitegi-erabilerak barne, bideratutako lurzorua antolatzeko proposamena, Beasaingo geltokiaren hegoaldea eraldatzeko eta leheneratzeko jarduketaren barruan.

- La categorización que las NN.SS.(2007) establecen para el SNU responde a los tipos establecidos en las Directrices de Ordenación Territorial. Dentro de estas categorías, la superficie de suelo forestal supone más de la mitad del término municipal.
- El suelo de especial protección corresponde al área de interés naturalístico de Murumendi y las zonas ocupadas por el bosque autóctono repartido en ámbitos, más o menos extensos, por todo el municipio.
- La ordenación del suelo no urbanizable no tiene en consideración la existencia de suelos agroganaderos de alto valor estratégico que define el PTS Agroforestal, al ser este posterior a la aprobación definitiva de las NN.SS.(2007). Habrá de tenerse en cuenta las posibles afecciones en el caso de establecerse nuevos desarrollos sobre estos suelos en el nuevo PGOU de Beasain.

- El planeamiento supramunicipal, compuesto por las DOT, el Plan Territorial Parcial del área funcional Beasain-Zumárraga y el planeamiento sectorial, establece al PGOU de Beasain las siguientes limitaciones:
  - La modificación de las DOT sitúa la capacidad residencial a ofertar entre las 960 y 1.200 viviendas, siendo las necesidades reales entre 480 y 640 viviendas.
  - El Plan Territorial Parcial de Beasain-Zumárraga considera referente obligado de ordenación con carácter preferencial, la propuesta de ordenación de suelo destinado a actividades mixtas, incluidas las residenciales, en la operación de transformación y regeneración urbana en el lado sur de la estación de Beasain.

- Era berean, antolatu beharrekoak dira Lurraldearen Plan Partzialaren arabera, tren-geltokiaren inguruan bus geltoki bat egiteko aurreikuspena, bide-zabalgunea eraldatzeko jarduketari lotuta egon edo ez, eta Oria ibaiaren hegoaldeko ertzarekiko paralelo, bide-zabalgunearen aurrean, egungo trazaduraren alternatiba gisa, N-I errepidea-ren trazadura berri baten aurreikuspena.
- 2007ko AA.SS.en aurreikuspenekin bat etorriz, Renferen trazadura aldatzea proposatzen du Ordiziako Bustuntza auzoaren eta Beasaingo azokaren artean.
- Aipatutako eremuez gain, Lurraldearen Plan Partzialaren proposamenak Beasaingo kokaleku berrientzat Beasain-Ordizia-Lazkao ardatzaren eraldaketan kokatzen ditu eta 2007ko AA.SS.etan aurreikusitakoekin bat etorriz, eraldaketak eragindako udalerrien bateragarritasun-planak proposatzen dituen arren.
- Beasain sustapen publikoko etxebizitzetarako lurzoruaren antolamenduan, sustapenean eta kudeaketan lehentasunezko interesa duen udalerrietako bat da.
- Lurraldearen Plan Partzialak ekipamendu judizial berri bat proposatzen du, justiziaren egungo antolaketa Beasain-Zumarraga eremu funtzionalera egokituz.
- Plangintza hidraulikoak urpean geratzeko arazoak atzematen ditu Oria, Eztanda eta Agauntza ibaien arroetan.
- Oria ibaiaren arroan, batez ere CAF (A-6) eremuari, Ezkiaga eta Jose Migel Iturrioz kaleei, Urbieta (A-8) eremuari, bereziki Gipuzkoa Plazako aparkalekuari, Kale Nagusiaren Hegoaldean, Zubiondotik uretan behera dauden eraikinei eta Zumadi (A-33) eta Bernedo Enea (A-36) eremuen urbanizazioaren bideari eragiten diote.

- La previsión de una estación de autobuses en el entorno de la estación de ferrocarril, ligada o no a la operación de transformación de la playa de vías y la previsión de un nuevo trazado de la carretera N-I, paralelo a la margen sur del Oria como alternativa al actual trazado, son también referentes obligados de ordenación en el PTP.
- En coincidencia con las previsiones de las NN.SS.(2007) propone la modificación del trazado de Renfe entre el barrio de Bustuntza de Ordizia y el del Ferial de Beasain.
- Además de los ámbitos señalados, las propuestas del PTP para nuevos asentamientos en Beasain los sitúa en la transformación del vértice Beasain-Ordizia-Lazkao y en coincidencia con los previstos en las NN.SS.(2007), aunque proponiendo planes de compatibilización de los municipios afectados.
- Beasain es uno de los municipios de interés preferente en la ordenación, promoción y gestión urbanística del suelo para viviendas de promoción pública.
- El PTP propone un nuevo equipamiento judicial adecuando la organización actual de la justicia a la del área funcional de Beasain-Zumárraga.
- La planificación hidráulica detecta problemas de inundabilidad en las cuencas del Oria, Eztanda y Agauntza.
- En la cuenca del Oria afectan sobre todo al área de CAF (A-6), calles Ezkiaga y José Migel Iturrioz, área de Urbieta (A-8), en particular al aparcamiento de la Pza. Gipuzkoa, a los edificios situados al Sur de Nagusia Kalea aguas abajo de la zona de Zubiondo y al vial de la urbanización de las áreas de Zumadi (A-33) y Bernedo Enea (A-36).

- Eztanda ibaiaren arroan, Iturralde Txiki (S-8) sektoreari, Salbatore I (A-28) eta Salbatore II (A-26) eremuei, Irigoien (A-25) eremuko sarbideei, Eztanda (A-22) eremuko zati bati eta Antzizar I (A-24) eremuari. Ez dago daturik Arriaran ibaiak urpean geratzeko duen arriskuaren inguruan. Ibai hau estalita dago Ondarre (A-29) erremuan.

- En la cuenca del Eztanda al sector de Iturralde Txiki (S-8), a las áreas de Salbatore I (A-28) y Salbatore II (A-26), a los accesos al área de Irigoien (A-25), a una parte del área de Eztanda (A-22) y al área de Antzizar I (A-24). No hay datos de la inundabilidad en la regata de Arriaran que transcurre cubierta por el área de Ondarre (A-29).

- Agauntza ibaiaren arroan, izen bereko A-31 eremuari eta pixka bat Senpere (A-7) eremuari.

- En la cuenca del Agauntza, al área A-31 del mismo nombre y ligeramente al área de Senpere (A-7).

- Ibaiertzen Lurraldearen Plan Sektorialak ibilguak leheneratzeko beharrak atzematen ditu Arriaran (A-44) eremutik uretan gora eta Oriaren ezkerreko ibaiertzean, Zumadi (A-33) eremuaren hegoaldean, eta naturaren ikuspuntutik interesgarria den ibaiertzatzat jotzen du Beizamarekin muga egiten duen Egurrola erreka.

- El PTS de los márgenes de ríos detecta necesidades de recuperación de cauces aguas arriba del área de Arriaran (A-44) y en la margen izquierda del Oria, al sur del área de Zumadi (A-33) y considera márgenes de interés naturalístico a la regata de Egurrola que hace de límite con el término municipal de Beizama.

- Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialak agintzen du HAPOk espresuki jaso behar dituela Balio Estrategiko Altua duten Nekazaritza eta Abeltzaintzako eta Landazabaleko lurzoru urbanizaezineko guneei dagokien mugaketa eta araudia. Beasainen kasuan, lur horiek Arriaranen ibaiertzetan Ondarre (A-29) eremuaren Iparraldean, Eztandaren ibarrean Iturralde baserriaren ondoan, A-19 Loinatz eremuaren ondoan dagoen Loinatzazpikoa baserriaren Hegoaldean eta Altamira Auzoko mendibizkarretan S-7 Indar sektorearen Ekialdean daude batez ere.

- El PTS Agroforestal ordena que el PGOU debe recoger expresamente la delimitación y la normativa asociadas a las zonas de SNU Agroganadera y Campiña de Alto Valor Estratégico. En el caso de Beasain estos suelos se sitúan principalmente junto a las riberas del Arriaran al Norte de Ondarre (A-29), en la vega del Eztanda junto al caserío Iturralde, al Sur del caserío Loinatzazpikoa situado junto al área A-19 de Loinatz y en las lomas de Altamira Auzoa, al Este del sector S-7 de Indar.

- Halaber, Maramendi, Atxabal, Urkumendi gailurren inguruak eta Ittolak, Astik, Biurinek eta Zormendik osatutako mendikatea higa daitezkeen eremuak direla aipatzen du.

- Señala asimismo como Áreas Erosionables los entornos de las cumbres de Maramendi, Atxabal, Urkumendi y el cordal formado por Ittola, Asti, Biurin y Zormendi.

- Bizikleta-bideen Lurralde Plan Sektorialak hiri-zatiak (oinarrizko toki-sarea) eta hiriarteko zatiak (oinarrizko foru-sarea) bereizten ditu. Lurraldearen Plan Partzialak proposatzen dituen ardatzetatik, bizikleta-bideen oinarrizko sarean sartu dira Oriako bailarakoak, Legorreta eta Idiazabal artean, Ormaiztegiko bailarakoa, Beasain eta Zumarraga artean eta Ordizia-Zaldibia eta Beasain-Lazkao arteko adarrak.

- El PTS de vías ciclistas diferencia los tramos urbanos (red básica local) y tramos interurbanos (red básica foral). Los ejes propuestos por el PTP incorporados a la red básica de vías ciclistas son los del valle del Oria, entre Legorreta e Idiazabal, el del valle de Ormaiztegi, entre Beasain y Zumárraga y los ramales entre Ordizia-Zaldibia y Beasain-Lazkao.

- Beasaingo HAPOn jarduera ekonomikoko lurzoru-eskaintza kalkulatzeko jarduera ekonomikoen Lurraldearen Plan Partzialean erabiltzen diren irizpideetatik, ondorioztatu dezakegu 103 eta 114 Ha bitartean beharko liratekeela, hau da, 2018an dagoen 82,6 ha-ko lurzoru kalifikatua baino pixka bat gehiago.

- De los criterios utilizados en el PTS de actividades económicas para calcular la oferta de suelo de AA.EE. en el PGOU de Beasain, podemos estimar que la superficie necesaria podría situarse entre las 103 y las 114 Ha, superficie que es ligeramente superior a las 82,6 Ha de suelo calificado existente en 2018.

- Nazioarteko zabalera izango duen trenbide-sarearen trazadura berria egin ondoren, Beasaingo HAPO berrian kontuan hartu beharko dira trenbide-sarearen Lurraldearen Plan Sektorialaren xedapen teknikoak; izan ere, aldiriko-sarerako proposamenak zaharkituta daude, ez baita inolako aipamenik egiten Beasaingo bide-zabalgunea eraldatzeko eta Beasain eta Ordizia arteko trazadura laburtzeko lurraldearen plan partzialean dauden proposamenei buruz.

- Una vez ejecutado el nuevo trazado de la red ferroviaria con ancho internacional, las disposiciones del PTS de la red ferroviaria resultan de un marcado contenido técnico a tener en cuenta en el nuevo PGOU de Beasain, con propuestas obsoletas para la red de cercanías al no detectarse ninguna mención a las propuestas de transformación de la playa de vías de Beasain y del acortamiento del trazado entre Beasain y Ordizia incluidas en el plan territorial parcial.

- Gipuzkoako azpiegituren eta hondakinen Lurraldearen Plan Sektorialak Sasietako zabortegia ixtea eta hori Sasietako Mankomunitateko transferentzia-gune batera eramatea aurreikusten du.

- El PTS de Infraestructuras de residuos urbanos de Gipuzkoa tiene previsto el sellado del vertedero de Sasieta y el traslado a una zona de su ámbito de la estación de transferencia de la Mancomunidad de Sasieta.

3.2. GARAPEN-EREMU POTENTZIALAK.

Arazorik nagusiena da, batetik, laburtuz joan garen egoeretatik datorrena. Bestea da arreta nora zuzendu HAPO berrian.

Lurraldearen Plan Partzialaren lurralde-ereduak, 2007ko AA.SS.en antolamenduak eta diagnostiko honek oro har bat egiten dute ingurune fisikoaren antolaketan. Orokorrean, osagai berak eta ondarerik garrantzitsuena babestu nahi dira, eta uholde-arriskuak, higadura, eta ur masekiko eta lasterrekiko eraginak saihestu.Ez dago diferentzia handirik ere beharrezkoak diren zuzkiduren eta ekipamenduen aurreikuspenean.

Aldeak daude, ordea, antolatu beharreko jarduketen kokapenean eta egokitasunean.Harrigarrienetakoa, a priori, da Lurraldearen Plan Partzialak aipatzen duen baina indarreko plangintzak aurreikusten ez duen N-I autobiaren desbideratzea. Diagnostiko honetatik uste dugu merezi duela saiatzeak, gutxienez aztertu eta baloratu beharreko alternatibetako batean, Beasaingo sarbideak berrantolatzearren, eta N-I errepidearen eta Beasain-Durango korridorearen bide lasterrak barruko zirkulazioaren alternatiba gisa ez erabiltzeko.

Erronka oso zaila da, zenbait udalerri eta Gipuzkoako Foru administrazioa nahasten dituelako.Korridore, herri eta jarduera eremu desberdinen arteko loturak anizkunak dira, eta ez dago behar adina lekurik.N-I errepidearen autobia desbideratzeko proposamenaren alde positiboa da tunel baten azpitik gara daitekeela ia ibilbide osoan, espazioa sortuko duela, ibaiertzak leheneratuko dituela eta korridore desberdinen arteko loturak konponduko dituela herrigune barruko zirkulazioaren alternatiba gisa. Alabaina, trazaduren eta, bereziki, loturen diseinu zehatza egitea falta da.

Jada aipatu dugun moduan, lurren kudeaketari, ingurune fisikoaren hauskortasunari eta, bereziki, erabilgarritasun ekonomikoari lotutako ahuleziak ditu.

3.2. POTENCIALES AMBITOS DE DESARROLLO.

La problemática más relevante es por una parte la derivada de todas las situaciones que hemos ido resumiendo. La otra es adonde dirigir la atención en el nuevo PGOU.

Un punto de coincidencia general entre el modelo territorial del PTP, la ordenación de las NN.SS.(2007) y este diagnóstico, está en la ordenación del medio físico. A nivel general se parte de la protección de los mismos elementos, del patrimonio más relevante y de evitar los riesgos de inundación, erosión y afecciones a las masas y cursos de agua. Tampoco existen grandes diferencias en la previsión de dotaciones y equipamientos necesarios.

En cambio, si van a existir en la localización y en la oportunidad de las actuaciones a ordenar. Una de las más chocantes, a priori, es el desvío de la autovía de la N-I que señala el PTP, circunstancia que no está prevista en el planeamiento vigente. Desde este diagnóstico consideramos que merece la pena intentarlo, al menos en alguna de las alternativas a estudiar y valorar, en el sentido de reordenar los accesos viarios a *Beasain*, sin que las vías rápidas de la N-I y del corredor *Beasain-Durango* se utilicen como variantes de la circulación interna.

Es un reto muy difícil puesto que implica a varios municipios y a la administración Foral de Gipuzkoa. Las conexiones entre los diferentes corredores, localidades y ámbitos de actividad son múltiples y no se dispone de espacio suficiente. La propuesta de desviar la autovía de la N-I, tiene la fortaleza de que podría desarrollarse bajo túnel en la mayor parte de su recorrido, va a aportar espacio, recupera los márgenes del río y contribuye a solucionar los enlaces entre los diferentes corredores como alternativa a la circulación por el interior del casco urbano. Pero falta aportar el diseño concreto de los trazados y, particularmente, de los enlaces.

Tiene las debilidades ya señaladas relacionadas con la gestión de los terrenos, la fragilidad del medio físico y particularmente, de la disponibilidad económica.

Proposamen honi gehitzen badizkiogu trenbide-eremua eta geltokiaren alboko lurrak berrantolatzeko dauden lurralde-aurreikuspenak, ereduak koherentzia handiagoa du. Proposamen horietako bat ere, ordea, ez dago indarreko plangintzan aurreikusita.

Halaber, alternatiba gisa, kontuan hartu behar da indarreko plangintzan aurreikusita dauden bizitegi berrien kokapenarekin jarraitzea; izan ere, hiru bizitegi-sektoreak kokatzeko proposamenak bat datoz bai Lurraldearen Plan Partzialean bai 2007ko AA.SS.etan.

Bestalde, hiru bizitegi-sektoreei buruz egin dugun azterketaren diagnostiko desberdinek gutxienez honakoa proposatzen duen beste alternatiba bat aztertzeko beharra erakutsi dute:

- Fleming (A-34) eremurako sarbidea konpondu S-1 Arizmendi sektorean aurreikusita dauden lurzoru berriak erabili beharrik gabe.
- Lurzoruaren okupazioa murriztu S-2 Errekarte II sektorean, herria puntu horretan errematatzeko.
- Lurzoruaren okupazioa mugatu, S-3 Ugartemendi sektorearen eraikigarritasuna murriztu eta plangintza bat egin Lazkaorekin batera.

HAPO berria idazteko plangintzaren irizpideak eta helburuak zehazteko jarraibideak, gure iritziz, hauek izan litezke:

- Egiaztatu eta partekatu, ahal den neurrian, diagnostiko hau herritarrek udalaz oro har duten pertzepzioarekin, eta horretarako, herritarren parte-hartze tailerrak, informazioa eta eztabaida udal plangintzako aholku-batzordean erabili eta parte-hartze prozesuaren ondorioz sortzen diren alternatibak baloratu, plangintzaren aurrerakina idatzi aurretik.

Si a esta propuesta le unimos las previsiones territoriales con respecto a la reordenación del espacio ferroviario y terrenos aledaños a la estación, el modelo tiene una mayor coherencia. Ninguna de estas propuestas, en cambio, está prevista en el planeamiento vigente.

También a modo de alternativa también debe de considerarse el continuar con la localización de los nuevos asentamientos residenciales previstos en el planeamiento vigente ya que, de hecho, son coincidentes tanto en el PTP como en las NN.SS.(2007) las propuestas de localización referidas a los tres sectores residenciales.

En cambio, no repetiremos el análisis que hemos efectuado de los tres sectores residenciales, con diferentes diagnósticos que apuntan a estudiar otra alternativa que al menos proponga:

- Resolver la accesibilidad al área de *Fleming* (A-34) sin necesidad de aportar los nuevos suelos previstos en el sector S-1 de *Arizmendi.*
- Reducir la ocupación de suelo en el sector S-2 de *Errekarte II*, con el objetivo de rematar la ciudad en ese punto.
- Limitar la ocupación de suelo, reducir la edificabilidad del sector S-3 de *Ugartemendi* y efectuar una planificación conjunta con el municipio de *Lazkao*.

Las pautas de actuación con el fin de definir los criterios y objetivos de planeamiento para la redacción nuevo PGOU podrían ser, a nuestro juicio, los siguientes:

- Contrastar y compartir, en lo posible, este diagnóstico con la percepción que tiene del municipio la ciudadanía en general, utilizando los talleres de participación ciudadana, la información y debate en el seno del consejo asesor de planeamiento municipal y valorando las alternativas que surjan del proceso de participación, antes de la redacción del avance de planeamiento.

- Beharrezkoak diren ekarpenak izango dituen eta Ordizia, Lazkao, Ormaiztegi eta Olaberriarekin adostuta egongo den mugikortasun plan on bat egin.	- Elaborar un buen plan de movilidad que cuente con las aportaciones necesarias y esté consensuado con los municipios vecinos de Ordizia, Lazkao, Ormaiztegi y Olaberria.
- Mugikortasun-helburu gisa proposatu, barruko zirkulazioa arintzea, geltoki intermodal bat egitea, bizikletentzako aparkaleku bat eraikitzea geltoki intermodalaren ondoan, herri barrutik bizikletan mugitu ahal izatea sustatzea eta, besteak beste, ibilgailuak aparkatzeko egokiak diren jada eraikitako lurzoruak suntsitzea saihestuko duen aparkatze-politika bat ezartzea.	- Proponer como objetivos de movilidad, la agilidad de la circulación interna, la dotación de una estación intermodal, establecer un parking de bicicletas junto a la estación intermodal, favorecer la movilidad interna en bicicleta y establecer una política de aparcamiento que evite, entre otros aspectos, la destrucción de suelos ya construidos que sean aptos para el aparcamiento de vehículos.
- Lazkaorekin batera planifikatu Ugartemendiko gunea eta bere barrutiko eremu mugakideak.	- Planificar conjuntamente con Lazkao la zona de Ugartemendi y los ámbitos colindantes de su término municipal.
- Ordiziarekin eta Lazkaorekin batera planifikatu “ardatza” deitutakoa Lurraldearen Plan Partzialean, aintzat hartuta CAFeko instalazioak hobetzeko planak eta proiektuak eta uholdeen aurkako babesa.	- Planificar conjuntamente con Ordizia y Lazkao, el llamado “vértice” en el PTP, tomando en consideración los planes y proyectos de mejora de las instalaciones de CAF y la defensa contra las inundaciones.
- Bizitegien eta jarduera ekonomikoen eskaintza diagnostiko honetan aurkeztutako aukeren barruan sartu, eta saihestu, oso justifikatuta dauden salbuespenak izan ezik, jarduera ekonomikoetara bideratuta dauden egungo lurzoruen suntsiketa.	- Que la oferta residencial y de AA.EE. entre dentro de los márgenes presentados en este diagnóstico, evitando, salvo excepciones muy justificadas, la destrucción de los actuales suelos destinados a actividades económicas.
- Bizitegiak eta jarduera ekonomikoak jartzeko kokapen-alternatiben artean sartu Lurraldearen Plan Partzialean proposatutako RENFEren bide-zabalgunea eraldatzearena, eta horretarako, egungo bide-trazadura aldatzeko dauden aukera desberdinak aztertu (bideak igo, lurperatu, lekuz aldatu edo bestelakoak).	- Incluir entre las alternativas de ubicación de los asentamientos residenciales y de actividades económicas, la de transformar la playa de vías de RENFE, propuesta en el PTP, estudiando para ello las diversas posibilidades de modificación del actual trazado viario (elevación de vías, soterramiento, desplazamiento u otras).
- Adostu erabilera berrien (zuzkidura-erabilerak, bizitegi-erabilerak, etab.) ezarpena eta horien intentsitatea egungo trenbide-esparruaren eraldaketaren ondorioz sortuko diren eremuetan.	- Establecer de manera consensuada la implantación de nuevos usos (dotacionales, residenciales, etc.) y de su intensidad en los espacios creados a partir de la transformación del recinto ferroviario actual.

- Lurraldearen Plan Partzialean proposatutako lurralde-eredutik eta egun indarrean dagoen egoeratik abiatu. Planifikatzailearen bertute bat da aurreko plangintzatik eta bereziki egindako azken aldaketetatik berreskuratzea egoera berrian baliozkoa den guztia.

Jarraibide hauetatik abiatuta, Beasaingo HAPOrako proposatzen den antolamendu-eredua, ardatz hauetan oinarritzen da:

- Ingurune fisikoa kontuan hartzea, HAPO berria antolatzeko proposamenen oinarrizko euskarri gisa.
- Lurralde-eredua epe luzeko (2035 urteko) hiri-ikuspegiaren arabera aukeratzea, orain hartuko diren erabakiek ez ditzaten eragotzi etorkizuneko beharren garapena. Hori da iraunkortasun-irizpidearen oinarria.
- Udalerriaren hazkunde potentziala Beasaingo erdigunean kokatuko duen eredua proposatzea, betiere Lurraldearen Plan Partzialaren ereduaren arabera. Kontzentrazioa sakabanatzearen aurrean, lurzorua baliabide urria dela ulertuta, lurzoru berriak ez hipotekatuz eta egungo herrigunean trinkotzearen aldeko apustua eginez.
- Beasaingo zentraltasuna bultzatzea mugakideekiko eta landa-eremuko auzoekiko eta hiri continuumean oinarritutako plangintza baten bidez.
- Zehaztutako ereduaren barne- egituraketa eta -kohesioa, bide-sarearen, oinezkoen pasealekuen eta bidegorrien bidez, Eremu Funtzionalaren ondoko eremuak, Ordizia, Lazkao, Olaberria eta Ormaiztegi lotzeko garraio publikora bideratutako espazioak bermatuz.
- Lurzoru urbanizaezinen trataera berezia egitea, kategoria guztietan. Horretarako, balioetsi egingo dira babestu eta zaindu beharreko balioak, eta arreta jarriko da lehen sektorean eta baita kultura, gizarte eta aisialdi balioetan ere.

- Partir del modelo territorial propuesto en el PTP y de la situación actualmente vigente. Es una virtud del planificador rescatar todo aquello del planeamiento anterior que resulta válido en la nueva situación y particularmente de las últimas modificaciones habidas.

A partir de estas pautas el modelo de ordenación que se propone para el PGOU de Beasain, se fundamenta en los siguientes ejes:

- Toma en consideración del medio físico como soporte fundamental de las propuestas en la ordenación del nuevo PGOU.
- Elección del modelo territorial con una visión urbana de un escenario a largo plazo (horizonte año 2035) de manera que las decisiones presentes no hipotequen desarrollos de necesidades futuras, en base al elemental criterio de sostenibilidad.
- Propuesta de un modelo, para el asentamiento del potencial crecimiento del municipio, sobre la base del núcleo central de Beasain y de acuerdo con el modelo del PTP. La concentración frente a la dispersión, entendiendo el suelo como recurso escaso, no hipotecando nuevos suelos y apostando por la compactación en el núcleo urbano actual.
- Potenciar la centralidad del municipio en Beasain con respecto a los colindantes y a los barrios rurales y a través de una planificación basada en el “continuo” urbano.
- Vertebración y cohesión interior del modelo definido, con actuaciones en la red viaria, paseos peatonales y bidegorris, garantizando espacios para la realización de un transporte público de conexión de los ámbitos cercanos del Área Funcional, Ordizia, Lazkao, Olaberria y Ormaiztegi.
- Profundización y tratamiento especial del suelo no urbanizable en las diferentes categorías con la puesta en valor, tanto de los valores a proteger y conservar, prestando atención al sector primario, así como a sus valores culturales, sociales y de esparcimiento.

2007ko AA.SS.etan aurreikusitako antolamenduaren osagai garrantzitsuenak laburtzen dituzten informazio-planoekin batera, plano bat erantsi dugu garapen-eremu potentzialekin. Plano honetan bideen gunea leheneratuz gero sortuko litzatekeen egoera dago, trenbidea igo ondoren eta behin N-I autobia desbideratuta.

Egiazta daitekeen moduan, autobia tunel baten bidez desbideratzea proposatzen da; erronka zaila da hegalaren geotekniagatik, eta antolamenduari dagokionez, arazoak sortzen dira Beasainerako sarbidearekin eta Bergara-Durango autobiarekin bideak elkartzen diren lekuetan.Proposamenean, egungo autobiaren trazadura egokitzen da, Donostia-Gasteiz norabideko egungo erreia zirkulaziorako erabiliz eta beste erreia ibaiaren ondoko bidegorrira eta oinezkoen ibilbideetara bideratuz. Nahiago izan dugu egungo AA.SS.etan aurreikusitako antolamendua mantentzea, aurreikusitako jarduera ekonomikoetako lau lursailei dagokienez.

N-I errepidera eta Beasain-Bergara errepidera sartzen diren bideak bikoizten dira eta gehitutako bidea N-I errepidera Iurre (A-38) eremura bideratzen da. Hori trenbideak igo ondoren egin daiteke. Trenbideak Salbatore tuneletik atera ondoren igotzen dira, eta goian mantentzen dira Lazkaoko biribilgune berriaren ondoan dagoen bigarren bidegurutzeraino. Hortik aurrera emeki jaisten da CAF (A-6) eremuraino, eta enpresa honek duen bide-zabalguneko trenbide-sarera sartzen da.

Trenbidea igotzeak libre uzten ditu lurzoruak kaleko kotaren mailan. Egungo kirol-guneak Oria ibaiaren ertzarekin eta, bereziki, Igartzako kultura-gunea sortzen diren berdegune berriekin lotzea ahalbidetzen du. Lurzoruak libre uzten ditu ekipamenduetarako, eta egungo tren-geltokia garraio-geltoki intermodal bat bihurtzeko. Argigarri gisa, igotako nasen azpian autobusen geltoki berri bat izango litzatekeena marraztu dugu.

Junto con los planos de información que resumen los elementos más relevantes de la ordenación prevista en las NN.SS.(2007), se adjunta un plano con los potenciales ámbitos de desarrollo. En este plano se representa una posible situación a partir de la recuperación de la zona de vías considerando una alternativa de elevación del ferrocarril y una vez desviada la autovía de la N-I.

Como podrá comprobarse, el desvío de la autovía se propone en túnel, reto difícil por la geotecnia de la ladera y que en cuestiones de ordenación presenta problemas en las intersecciones con el acceso a *Beasain* y con la autovía de *Bergara-Durango*. En la propuesta, se recupera la traza de la actual autovía, utilizando el carril actual de sentido *Donostia-Gasteiz* para circulación y recuperando el otro carril para bidegorri y paseos peatonales junto al río. Se ha preferido mantener inicialmente la ordenación prevista en las actuales NN.SS.(2007) con respecto a las cuatro parcelas de actividades económicas previstas.

Se resuelven las incorporaciones a la N-I y a la *Beasain-Bergara*, desdoblándolas y evitando la incorporación a la N-I a la zona de *Iurre* (A-38), que es factible efectuar una vez elevadas las vías del ferrocarril. Esta elevación se produce a partir de la salida del túnel de *Salbatore* y permanece elevada hasta el segundo de los cruces con el rio *Oria* junto a la reciente glorieta de *Lazkao*. A partir de aquí desciende suavemente hasta la zona de CAF (A-6), permitiendo la incorporación a la red ferroviaria de la playa de vías que tiene esta empresa.

La elevación del ferrocarril libera suelos a nivel de la cota de la calle. Permite relacionar las zonas deportivas actuales con el borde del rio *Oria* y, particularmente la zona cultural de *Igartza* con las nuevas zonas verdes que se crean. Libera suelos para equipamientos y para transformar la actual estación de tren en una nueva intermodal de transporte. A título meramente indicativo nos hemos permitido representar lo que sería una nueva estación de autobuses bajo los andenes elevados.

Eta, garrantzitsuena, trenbideak igotzen badira, Beasaingo erdigunea irekiagoa izango da ibaiarekin, berdeguneekin eta sortutako ekipamenduekin, zirkulazioa herrigunetik ateraz.

Y, lo más importante, la elevación de las vías hace que sea permeable el centro de *Beasain* con el rio, con las zonas verdes para su protección y con los equipamientos creados, liberando la circulación por el centro de la ciudad.

Beasain, 2018ko iraila

En Beasain, Septiembre de 2018

SABAI arkitektoak sl

araudi aholkularitza juridikoa lurralde plangintza ingurumena

EKAIN

Adok